


ULI BARI RRI

Programa



- **Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa**

ULIBARRI PROGRAMA

Ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileraren azterketa

ARRUE PROGRAMA
2003-04 ikasturtetik 2006-07 ikastertera
egindako azterketa-lana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIVERSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza, Berritzatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Dirección de Innovación Educativa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Egileak:

- Iñaki Martínez de Luna (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)



Lanaren ondorengo bi atalak lankide hauek egin dituzte:

- 1.3 atala: Iñaki Artola (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)
- 4. atala: Nekane Larrañaga (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Jarraipen-batzordeko kideok izan dira ikerketa-lanari aurrerabidea ematen lagundu dutenak:

- Mikel Zalbide (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)
- Iñaki Artola (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)
- Jokin Larrañaga (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)
- Iñaki Martínez de Luna (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)

Estatistika alorreko eta ikasleen iritziak neurtzeko aholkulariak, hurrenez hurren:

- Juan Etxeberria (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Nekane Larrañaga (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Argitaraldia:	I.a, 2009ko uztailean
Ale-kopurua:	1.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Azala:	Julian Toquero
Maketazioa:	Bikain Diseinu Grafikoa
Inprimatzea:	mccgraphics - planta Elkar
ISBN:	978-84-457-2988-5
Lege-gordailua:	BI-2185-09

Sarrera	7
1. Azken ondorio eta hausnarketak	9
1.1 Mamiaren laburpena	11
1.2 Ondorio eta hausnarketa orokorrak	24
1.3 ARRUE ikerketaren emaitzak kontuan hartuta eskolaren interbentzio moldeari buruz egindako hausnarketa	37
2. ARRUEn aztergaia eta emandako pausoak	41
2.1 Zein da Arrue-ren aztergai nagusia?	43
2.2 Zein pauso eman dira programa abiatu zenetik?	47
2.2.1 Zein pauso eman dira (laburpen-taula)	50
2.3 Nork egiten du Arrue? Nork parte hartu du orain arte?	52
2.3.1 Programan parte hartu duten erakunde eta lankideak (laburpen-taula) ...	54
3. Ikasleen erabilera eskola giroan: neurtzeko modua eta emaitza orokorrak	57
3.1 Zein erabilera eta nola neurtua?	59
3.1.1 Jolaslekuko eta gela barruko hizkuntza-erabilera indizeak	61
3.2 Arloaren eta gaiaren garapen mugatua	63
3.3 Aztertutako lagina eta bere ezaugarriak	67
3.3.1 Talde eta ikasle kopuruak	67
3.3.2 Hizkuntza-eredua, sexua, herriko euskalduntasuna eta etxeko euskalduntasuna	67
3.4 Behatutako erabilera: datu orokorrak	75
3.4.1 Erabilera jolaslekuan eta gela barruan	75
3.4.2 Erabilera datuak hizkuntza-ereduaren arabera	77
3.5 Hizkuntza-erabilera oinarrizko aldagaien arabera: sexua, lehen hizkuntza, hiztun tipologia eta herriko euskalduntasuna	79
3.5.1 Sexua	79
3.5.2 Lehen hizkuntza	80
3.5.3 Hiztun tipologia lehen hizkuntzaren arabera	81
3.5.4 Herriaren euskalduntasuna	84
3.6 Euskararen erabilera-mailaren araberako taldeen deskribapena	87
4. Zer da ikasleentzat euskara? Eta gaztelania? Erabilerarekin sumatzen diren loturak ..	97
4.1 Euskarari buruz gehien aipatu diren gaiak	100
4.2 Gaztelaniari buruz gehien aipatu diren gaiak	101
4.3 Euskara eta gaztelaniaren diferentzia nagusiak deskribapenetan	103
4.4 Hizkuntzen ikuspegiak zonalde soziolinguistiko eta hizkuntza-ereduaren arabera ..	106
4.5 Jolaslekuko euskara erabileraren araberako azterketa	108
4.6 Atalaren ondorioak	111
5. Hizkuntzei buruzko hautemateak eta irudikapenak	113
5.1 Gizarteko jarduerak: Zein hizkuntza doakie hobeto?	115
5.1.1 Probaren helburua eta azalpena	115
5.1.2 Ikasleek erantzundakoa eta irakurketa orokorra	116
5.1.3 Hizkuntza bakoitzaren konnotazioak	118

5.1.4	Irudien konparaketarako puntuazioak (batez bestekoak)	125
5.1.5	Irudien hautemateak, lehen hizkuntzaren arabera	126
5.1.6	Irudien hautemateak, jolaslekuko erabileraren arabera	128
5.2	Pertsonaia mirestuen hizkuntza	130
5.2.1	Probaren helburua eta datuen ondorioak	130
6.	Aztertutako aldagaien eta ikasleen jolaslekuko erabileraren arteko lotura	133
6.1	Aldagaien loturak jolaslekuko erabilerarekin: asoziazio rankingak	135
6.1.1	Zer da bi aldagaien arteko asoziazioa edo lotura?	135
6.1.2	Zein aldagaik du loturarik handiena jolaslekuko erabilerarekin? Asoziazio-rankinga	137
6.1.3	Rankingeko emaitzen esanahia eta ondorioak	142
6.1.4	Aldagai askeak eremuka antolatuta	143
6.2	Zein aldagaik bereizten dute jolaslekuko erabilera? Erregresio Logistikoa analisia	146
6.2.1	Jolaslekuko ikaslearen euskara erabilera	147
6.2.2	Jolaslekuko talde edo gela osoaren euskara erabilera	153
6.2.3	Ondorioak	157
7.	Ikaslearen jolaslekuko erabilera iragarri nahian: 25 adierazle eta hiru maila	159
7.1	Kokapena	161
7.2	Eredu teorikoa	163
7.3	Aldagaietako informazioaren sinplifikazioa: 25 adierazle	168
7.4	Maila indibiduala: ikaslearen ezaugarriak	172
7.4.1	Korrelazioak	173
7.4.2	Erregresio Anizkoitza	175
7.5	Maila mikroa: harreman sareak	179
7.5.1	Korrelazioak	180
7.5.2	Erregresio Anizkoitza (1)	182
7.5.3	Erregresio Anizkoitza (2)	183
7.6	Maila makroa: gizartearen jardunguneak eta irudikapenak	186
7.6.1	Korrelazioak	187
7.6.2	Erregresio Anizkoitza	188
7.7	Hiru mailak batera	190
7.7.1	Korrelazioak	191
7.7.2	Erregresio Anizkoitza (1)	193
7.7.3	Erregresio Anizkoitza (2)	194
7.8	Ondorio orokorrak	196
8.	Kasu azterketa: azterketa kualitatiboaren ondorio nagusiak	199
8.1	Kasu Azterketaren prozesua	201
8.1.1	Ikasleen ingurumaria	202
8.1.2	Ikasleen euskara erabilera	204
8.2	Ondorioak: ikasleen baldintzak eta erabilera	206
8.2.1	Baldintzak eta erabilera: lotura badago	206
8.2.2	Baldintzetatik erabilerara formularik ez, baina...	208
8.2.3	Baldintzapenak gainditu daitezke	214
9.	Eranskinak	217
I.	Eranskina: aldagai guztien informazio zehatza	219
II.	Eranskina: 25 adierazleen arteko korrelazioak (aldebikoak)	232
	Bibliografia	235

Euskal irakaskuntzan, oro har, ikasleen hizkuntza erabilera hamaika irakasle eta teknikariren intereseko gaia izan da. Eta da. Neurri batean edo bestean, ehunka ikastetxetan prestatzen eta lantzen diren ekintza, programazio eta plangintza askok eta askok ikasleen era bateko edo besteko hizkuntza erabilera lortzea dute helburu.

Horrela, ikasleen hizkuntza erabilera, eta gehien-gehienetan ikasleen euskararen erabilera, hamaikatxo irakasle eta teknikariren ilusio- eta kezka-iturri da gaur egun; indar-emaile kasu askotan, eta baita indar-xahutzaille ere beste askotan!

Erabilera hori gaur egun den bezalako ZERGATIK den interpretatzeko eta azaltzeko orduan ere, ez da iritzirik falta izaten. Arrue Programarekin, bide bat ireki da, norberak bere hezkuntzako eguneroko jardunean jasotzen dituen inpresio konkretu eta erreal horietatik haratago joan ahal izateko gai honetan. Bide bat, errealitate ezberdinak une eta modu berean aztertuta, eta ezagutza zientifikoak eskura jartzen dizkigun zenbait tresna erabilita, gaia ikuspegi zabalago eta objektiboago batetik aztertzeko, eta horren araberrako datuak, erantzunak eta interpretazioak osatzeko.

Liburu honetan Arrue Programan orain arte egindako lan askoren laburpen moduko bat osatu da. Hiru zati nahiko desberdin ditu lanak. Lehen zatia txostenaren 2., 3. eta 4. atalak dira. Bertan laburtu eta azaldu egiten da **Zer den** programa hau, **zer helburu** dituen, **zer egin den** orain arte mahai gainean dituen galdereri erantzuteko eta **nortzuen artean** egin den egindako guztia.

Bigarren zatia 5. eta 6. atalak dira. Zati trinkoagoa da, "teknikoagoa" halaxe adierazi nahi bada. Zati horretan, 05-06 ikasturtean ikastetxeetan jasotako datuekin egin den azterketa deskribatzen da. Galdera honen inguruko azterketa da, nolabait: *Nolako baldintzetan gertatzen edo areagotzen da euskararen erabilera?*

Galdera horri erantzunak eman ahal izateko prozesu oso bat egin da, eta urrats nagusiak deskribatu egiten dira bertan. Tartean, ahalegin bat egiten da erabili diren tresnak, datuak eta taulak zer diren azaltzeko ere. Zuek esan behar zein neurritan lortu den!!

Azkenik, hirugarren zatia 7. atala da. Bertan laburtzen dira aurreko bi ataletan deskribatutako azterketaren ondorio nagusiak.

Lana interesgarria eta erabilgarria izango delakoan nago. Etorkizuna irekita badago ere, geure esku dago eta egin behar dena aurreko eskarmentuaren ebaluaketetatik abiatu beharko litzateke arrakasta bilatu nahiko badugu. Eskerrik asko denei egindako lanagatik, zeuen ahaleginen lekukotasuna lan honetan garbi baino garbiago ikus baitaiteke.

Gasteizen, 2009ko maiatzaren 22an



Isabel Celaá

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

1. Azken ondorio eta hausnarketak

1. Azken ondorio eta hausnarketak

Has gaitezen amaieratik.

Lan honetan zehar eginiko analisien emaitza orokorrak bildu ditugu liburuaren lehen atalean: lehenik datu bidez, atal bakoitzean aurkituko dituzuen datu nagusiak laburtuz (1.1), eta jarraian (1.2) datu horietatik ateratzen diren ondorioak azalduz eta horien irakurketa orokorragoa eta saio interpretatzailea eginez.

Gero, atalez atal, xeheago aztertzen denaren aurrerapen bat egiten da horrela, argitalpenaren I. atal honetan. Labur azaldu nahi horretan, ordea, datuak ongi ulertzeko kasu askotan behar diren xehetasun metodologiko guztiak ezin dira bertan bildu. Aurrerago jo behar da horretarako: bai datu bidezko laburpenean (1.1 atala) eta bai ondorio eta hausnarketa orokorretan (1.2 atala), datu multzo bakoitzaren izenburuan edota paragrafoaren amaieran zehazten da lanaren zein ataletako datuak diren hor laburtutakoak (adib.: 3.5., 5.1, 6.2...). Hor esaten da, orobat, edota zein ataletan dituzuen datu eta erreferentzia osatuagoak (adib.: [→ 3.1], [→ 6.1 eta 6.2]...).

Horrezaz gain, azkenik, atal bakoitzaren amaieran *laburpen-koadro* bana ere eskaintzen da lan osoan zehar:

1.1 Mamiaren laburpena

- **2.1 atala - Zein da Arrue ikerlanaren aztergai nagusia?**

Irakaskuntzako lankide askoren kezka da honako hau: “*zergatik da ikasleen euskara-erabilera den bezalakoa?*” Galdera nagusi horretan oinarritzen da ARRUE programa. Hizkuntza-erabilerearen gai hori aztertzeko tresneria garatuz joan da ikerlana, lau ikasturteotan: 2003-2004tik 2006-2007ra bitartean. Tresneria horri esker, eskola-giroko euskarazko erabilerearen eta ikasleen beste ezaugarrien edo aldagaien arteko loturak nolakoak diren aztertu da, eta egindako analisien laguntzaz hainbat ondorio atera. Tresneria hori urtez urte fintzen eta datuak aztertzen jarraituta, eskola-giroko ikasleen hizkuntza-erabileraz gero eta informazio fidagarriagoa eta aberatsagoa lortzen ari gara. Ikasleen eskola-eremuko hizkuntza-jokaerak interpretatzeko erreferentziak eskuratzen ari gara horrela.

- **3.3 atala - Zein ikasleren datuak?**

Txosten honetako datu-bilketak ikastetxeetan egin dira, 2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetan, LMH6ko ikasleen artean. Ikastetxeei aukera eman zaie, ikerketan parte hartu ala ez erabakitzeko: beraiek hartu dute, beti, erabaki hori. Informazioa, hortaz, parte hartzeko prest agertu diren ikastetxeetan bildu da [→ 2.2]:

– Lan honen 3., 4., 5., 6. eta 7. ataletako datuak 2005-2006 ikasturtean jasoak dira, borondatez parte hartu zuten EAEko 50 ikastetxeetan konkretuki. Hona ikastetxeon ezaugarri nagusiak:

- 10 ikastetxe Arabakoak izan dira, 21 Bizkaikoak eta 19 Gipuzkoakoak.
- 1.325 ikasleren datuak jaso dira (611 neska eta 714 mutil). Irakastereduari dagokionez, 64 ikasle A ereduak izan dira, 232 Bkoak eta 1.029 Dkoak.
- Oso herri erdaldunetan (euskaldunak %0-20 diren) bizi dira laginaren %36,7. EAEko biztanlerian, berriz, segmentu horren presentzia %50,7koa da.
- Etxeko hizkuntza: ikasle horien %61,3ren etxeko hizkuntza gaztelania da (nagusiki edo erabat). EAEko biztanlerian, aldiz, proportzio hori %78,1 da.
- Azkenik, bizi diren herriaren tamainari dagokionez, aztertutako ikasle gehienak herri ertain edo handietan bizi dira. [→ 3.3].

2005-2006 ikasturtean jasoak dira, esan bezala, datu horiek. Idazlanaren 8. atalean, bestalde, 2006-2007 ikasturtean jasotako beste zenbait datu aurkezten eta aztertzen da: aurreko ikasturtean parte hartu zuten 50 ikastetxeetatik 7 hautatu ziren, eta azterketa kualitatibo sakona egin zen beraietan (*Kasu Azterketa* delako metodologia erabilia). Kasu honetan ere LMH6ko ikasleen datuak jaso ziren, eta horrekin batera ikastetxeen ezaugarriak aztertu. Ondoko herriotako ikastetxe bana aztertu zen: Bilbo, Donostia, Durango, Gasteiz, Irun, Lazkao eta Santurtzi.

• 3.4 atala - Ikasleen hizkuntza-erabilera behatua, jolaslekuan eta gela barruan

- *Egindako behaketaren arabera*, ikasleen jolaslekuko hizketa guztien %55,3 euskarazkoa izan da, eta %44,7 gaztelaniazkoa.
- *Gela barruan*, aldiz, ikasleen beraien arteko hizketa guztien %79,8 euskaraz egin da, eta %20,2 gaztelaniaz.
- Eredutik eredura bada alderik, ikasleen arteko hizkuntza-erabilerari dagokionez. Erabilera (behatua), irakastereduaren arabera alderatuta erabat gaztelaniaz aritzen diren (euskarazko erabilera %0) ikasleen proportzioa oso ezberdina da irakasteredu bakoitzean:

Erabat gaztelaniaz (euskaraz %0) aritzen diren ikasleen proportzioa, irakastereduaren arabera		
Irakasteredua	Jolaslekuan	Gela barruan
A eredua	% 100	% 56
B eredua	% 80	% 6
D eredua	% 10	% 1

1.1 taula

- **3.5 atala - Ikasleen hizkuntza-erabilera behatua *jolaslekuan* eta *gela barruan*, zenbait aldagaien arabera**

Zenbait aldagaien eta erabileraren artean lotura nabarmenak ageri dira. Kontuan hartzekoak dira, horrela, ikasleen sexua, LI edo lehen hizkuntza eta, azkenik, ikasleok bizi diren herriaren euskaltasun-maila. Ikus ditzagun ondorioak.

- **Sexua:** neskek mutilek baino sarriago egiten dute euskaraz. Nesken erabilera-indizea mutilena baino 6,5 puntu altuagoa da, bai *jolaslekuan* eta bai *gela barruan*.
- **Lehen hizkuntza:** LI edo ama-hizkuntza *gaztelania* duten ikasleek gutxiagotan egiten dute euskaraz, bai ikasgelan eta bai, bereziki, *jolaslekuan*.

Jolaslekuari dagokionez, LI gaztelania duten ikasleen euskarazko jarduna %34,5ekoa da batez bestean. Aldiz, etxetik euskaldun diren haurren euskarazko jarduna %84,7koa. Diferentzia nabarmena da hori. Oso kontuan izatekoa.

Gatozen, bestalde, *gela barruko* hizkuntza-jardunera. Diferentziak txikiagoak dira hemen. Baina ohargarriak: LI gaztelania duten ikasleek % 73,0ean egiten dute euskaraz *gela barruan*. Aldiz, LI *euskara* duten ikasleek %89,5ean.

- **Ikasleak bizi diren herriko euskaltasun-mailaren arabera:**

Jolaslekuko erabileran, bestalde, diferentzia hauek ageri dira, herriko euskaltasun-mailaren arabera:

- Herri erdaldunetako (eusk. %0-20) ikasleen euskarazko jarduna, %27,8koa da batez bestean.
- Tarteko euskaltasun-mailako herrietako ikasleena (eusk. %40-60), aldiz, batez bestean %57,7koa.
- Herri euskaldunetako (eusk. %60-80) ikasleena, azkenik, batez bestean %95,7koa.

• **3.6 atala - Jolaslekuan euskarazko erabilera “oso baxua”, “tartekoa” eta “oso altua” duten taldeak (gelak)**

Erabilera “oso baxua” duten taldeak (jolaslekuan behatua: %0). n= 238	Erabilera “tartekoa” duten taldeak (jolaslekuan behatua: >%0 eta < %100). n= 875	Erabilera “oso altua” duten taldeak (jolaslekuan behatua: %100). n= 212
Ikaslearen herriko euskaltasun-maila (euskaldunen proportzioa)		
Batez bestekoa %16	Batez bestekoa %43	Batez bestekoa %71
Ikastaldeko guraso euskaldunen proportzioa		
Guraso erdaldunak %82, mistoak %15, euskaldunak %3	Guraso erdaldunak %45, mistoak %29, euskaldunak %26	Guraso erdaldunak %23, mistoak %25, euskaldunak %52
Ikasleen gaitasuna: Euskarazko gaitasuna neurtzeko “Atariko” probako puntuazioak [0-40 eskala]		
Batez bestekoa 22,04 puntu, 31 puntutik gora, ikasleen %5	Batez bestekoa 29,44 puntu, 31 puntutik gora, ikasleen %41	Batez bestekoa 32,1 puntu, 31 puntutik gora, %65
Ikasleek aitortutako hizkuntza-eraztasun erlatiboa (hitz egitekoa)		
Gaztelaniaz errazago %60, bietan berdin %40	Gaztelaniaz errazago %32, bietan berdin %38, euskaraz errazago %30	Gaztelaniaz errazago %13, bietan berdin %25, euskaraz errazago %62
Ikastetxe mota bakoitzaren proportzioa		
Erlijioso pribatuak %52, Publikoak %48, Ikastola pribatuak %0	Erlijioso pribatuak %19, Publikoak %63, Ikastola pribatuak %18	Erlijioso pribatuak %10, Publikoak %20, Ikastola pribatuak %70
Ikastetxean ikasleen erabilera lantzeko plangintzak		
Planteatzeko asmoa %49, Aplikatzen %46	Planteatzeko asmoa %22, Aplikatzen %74	Aplikatzen %100
Ikaslearen hizkuntza-erabilera herriko lagunekin (ikus 1,2,3,5 kategorien esanahia 3.6 atalean)		
1- Gaztelaniaz beti edo ia beti: %81	1- Gaztelaniaz beti edo ia beti: %35	1- Gaztelaniaz beti edo ia beti: %8
2- Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino: %12	2- Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino: %18 5- Euskaraz beti edo ia beti: %24	3- Bi hizkuntzetan berdin: %12 5- Euskaraz beti edo ia beti: %65
Ikaslearen erabilera aisialdiko jardueretan batez beste (ikus indizearen xehetasunak 3.6 atalean)		
Batez bestekoa: 1,76 puntu. Ikasleen %50 <1,5 puntutik behera, 3 puntutik gora ikasleen %5	Batez bestekoa: 3,30 puntu. Ikasleen %30 > 4 puntu. %18 = 5 puntu.	Batez bestekoa: 4,26 puntu. Ikasleen %87 >3 puntu. %45 = 5 puntu.

1.2 taula

- 4.1 eta 4.2 atalak - Zer da ikasleentzat euskara? eta gaztelania? (galdera irekiak). Hitz edo kontzeptu aipatuena.

Ikasleei Zer da zuretzat euskara? eta Zer da zuretzat gaztelania? galdetu zaie eta nahi zutena idatzi dute. Idatzitako testuetan gehien aipatutako hitzen eta kontzeptuen batuketa egin da. Hona emaitza	
EUSKARA ri buruz. Idazlanetan gehien aipatutako 10 hitz edo kontzeptuak	GAZTELANIA ri buruz. Idazlanetan gehien aipatutako 10 hitz edo kontzeptuak
1- Polita, ederra, ona 2- Euskal Herria 3- Gehienek, gehiengoak, zabaldua, nagusia 4- Etxea, familia 5- Beharrezkoa, erabilgarria, baliagarria 6- Ikasi, ikasteko, ikasten 7- Atsegina, gustukoa, gogokoa, alaia 8- Ikastola, eskola, ikastetxea, ikasketak 9- Galtzen, desagertzen, galzorian 10- Lagunak, ataria, kalea	1- Gehienek, gehiengoak, zabaldua, nagusia 2- Etxea, familia 3- Polita, ederra, ona 4- Atsegina, gustukoa, gogokoa, alaia 5- Ikasi, ikasteko, ikasten 6- Beharrezkoa, erabilgarria, baliagarria 7- Euskal Herria 8- Asko, gehienetan, erabili 9- Ikastola, eskola, ikastetxea, ikasketak 10- Interesgarria, garrantzitsua

1.3 taula

- 4.3 atala - Zer da ikasleentzat euskara? eta gaztelania? (galdera irekiak). Aipatutako hitzetan zerk bereizten du euskara eta zerk gaztelania?

Ondoko galdera hauek egin zaizkie ikasleei: Zer da zuretzat euskara? eta Zer da zuretzat gaztelania? Galdera horiei erantzunez, nahi zutena idatzi dute neska-mutilek. Idatzitako testuetan euskara eta gaztelania zerk bereizten duen laburtzen du taulak (ikus 4.3 atalean, "diferentzia" puntuazioak nola kalkulatu diren).			
EUSKARA z gaztelaniaz baino aipatuagoak izan diren hitz edo kontzeptuak (diferentziarik handiena duten 5ak).		GAZTELANIA z euskaraz baino aipatuagoak izan diren hitz edo kontzeptuak (diferentziarik handiena duten 5ak).	
Hitza - kontzeptua	Diferentzia	Hitza - kontzeptua	Diferentzia
Polita, ederra, ona	142,9	Gehienek, gehiengoak, zabaldua, nagusia	10,2
Euskal Herria	136,1	Etxea, familia	9,1
Galtzen, desagertzen, galzorian...	45,1	Beste hizkuntzak, beste hizkuntza bat, elebitasuna	6,3
Beharrezkoa, erabilgarria, baliagarria	36,9	Erraza	4,7
Ikastola, eskola, ikastetxea, ikasketak, hezkuntza...	33,3	Erromatarra, latina, indoeuroparra	2,6

1.4 taula

• 5.1 atala - Gizarteko jarduerak: Zein hizkuntza doakie hobeto?

Hamazazpi irudi jarri zaizkie ikasleei ikuskizun, eta irudi bakoitzean **Zein hizkuntza doakio hobeto?** galdetu zaie. Bost erantzun posible zituzten, horietatik bi **Euskara hobeto** eta **Gaztelania hobeto** izanik. Ikasleen bi erantzun horien proportzioak harturik, taula honetan laburtzen da irudi edo jarduera bakoitzari zein hizkuntza doakion hobeto ikasleen ustez (informazio zehatzagorako, ikus 5.1 atala).

Irudia	Euskara hobeto (%)	Gaztelania hobeto (%)
Baserria	% 76	% 9
Nekazaria	% 50	%19
Eskola	% 49	%10
Fabrika	% 13	% 39
Hizlaria	% 14	% 39
Satelitea	% 9	% 28
Musika	% 10	% 27
Ordenagailua	% 17	% 36
Albisteak	% 16	%32
Agureak	% 42	% 28
Seme-alabak	% 39	% 22
Familia	% 39	% 21
Kanpina	% 29	% 22
Bikotea	% 21	% 35
Futbola	% 24	% 33
Haginlaria	% 20	% 38
Eliza	% 29	% 29

1.5 taula

- Euskarari nabarmen lotzen zaizkion gizarte-eremuak edo egoerak ondoko hauek dira: batetik, tradizio-kutsua duten *baserri/nekazari* giroa. Bestetik, ikasleen biziera zuzenaren isla den *eskola*. Gizartearen dinamikotasun- eta modernotasun-konnotazioa duten gizarteko jarduerak, aldiz, gaztelaniarekin lotzen dituzte ikasleek euskararekin baino gehiago (adib: *fabrika, hizlaria, satelitea, musika, ordenagailua, albisteak*).
- Gizakien arteko harremanei dagokienez, *seme-alabak, familia* eta *agureak* maizago lotzen dituzte euskararekin gaztelaniarekin baino. *Bikotearen* irudiarekin, aldiz, ez da gauza bera gertatzen.

IKASLEAREN LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA					
IRUDIAK	Gaztelania	Euskara eta Gaztelania	Euskara	Guztira	
Familia	2,48	3,19	3,59	2,97	
Hizlaria	2,14	2,37	2,54	2,31	
JOLASLEKUKO IKASLEAREN EUSKARAZKO ERABILERAREN ARABERA					
IRUDIAK	% 0	% 0,1 - %50	% 50,1 - % 99	% 100	Guztira
Familia	2,25	2,76	3,31	3,46	2,97
Hizlaria	2,00	2,25	2,47	2,50	3,31

1.6 taula

- Ikasleen erantzunak beren *lehen hizkuntzaren* eta beren *jolaslekuko erabileraren* arabera alderatuta, antzera aldatzen dira: bi aldagai horietan ezaugarri euskaldunagoak dituzten ikasleek jardueren hizkuntza irudikapen euskaldunagoa dute batez beste.
- Hizkuntza-irudikapenak, ordea, ikasleen familia-giroko jardueretan aldatzen dira gehienbat. Izan ere, gizarteko jardueretan edo egoeretan antzeko irudikapenak (erdararen aldekoagoak, beti) dituzte jolaslekuan euskarazko erabilera handiko zein txikiko ikasleek, batez beste. Ikus, adibidez, *familia* eta *hizlaria* jardueren datuak (batez besteko puntuazioak nola kalkulatu diren jakiteko, ikus 5.1 atala).

• 5.2 atala - Ikasleek miresten dituzten pertsonaien hizkuntza.

- Ikasleek miresten dituzten artista eta kirolari gehien-gehienak ez dira euskaldunak (artisten %88 eta kirolarien %81 erdaldunak dira).

Jolaslekuko erabilera	% 0	%0,1etik %50era	%50,1etik %99ra	% 100	Guztira
Artista erdalduna	97,44	94,10	86,01	78,91	88,23
Artista euskalduna	2,56	5,90	13,99	21,09	11,77
	100	100	100	100	100,00
Kirolari erdalduna	93,45	87,45	77,37	69,13	80,83
Kirolari euskalduna	6,55	12,55	22,63	30,87	19,17
	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

1.7 taula

- Taulan, emaitza orokorrean gain (guztira), ikasleen jolaslekuko *euskarazko erabileraren* arabera ere bereizten dira datuok: euskarazko erabilera hori %100 denean ere artista eta kirolari erdaldunak dira, alde handiarekin, gehien aipatzen direnak.

- **6.1 atala - Azterturiko 111 aldagaien lotura, ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilerarekin: ranking-a.**

– Aldagai aske bakoitzak jolaslekuko ikaslearen erabilerarekin zenbateko lotura duen aztertu da eta lotura handienetik txikienera ordenatu dira ranking batean. Ondoko taulan (1.8 taula) ageri dira ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin lotura estuena duten 20 aldagaiak (zerrenda osoak eta azalpenak 6.1 atalean dituzu). Aldagai bakoitzak ranking-ean duen posizioa (Rankinga) eta Otik I era bakoitzak duen asoziazio edo lotura maila adierazten da bertan (R^2 eta η^2 balioak).

	Aldagaiak	R^2	η^2
1-	Taldearen erabilera behatua jolaslekuan		0,710
2-	Ikastetxea	0,671	
3-	Ikastetxea zein herrian dagoen	0,594	
4-	Ikaslearen erabilera aisialdiko taldeetan (aisialdi)	0,471	
5-	Erabilera ikaskideekin	0,469	
6-	Erabilera informatikan (aisialdia)	0,415	
7-	Taldeko guraso euskaldunen proportzioa		0,405
8-	Erabilera herriko lagunekin	0,395	
9-	Ikaskideen arteko erabilera	0,370	
10-	Erabilera anai-arrebekin	0,366	
11-	Ikastetxeko errotulazioaren hizkuntza	0,365	
12-	Herriko lagunaren arteko erabilera	0,360	
13-	Erabilera aisialdian batez beste		0,357
14-	Ikasteregia	0,349	
15-	Lehen hizkuntza L1 (irakasleak aitortua)	0,346	
16-	Erabilera kirolean (aisialdi)	0,331	
17-	Irratia zein hizkuntzatan entzun (eus/gaz)		0,329
18-	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa		0,325
19-	Ikaslearen herriaren euskalduntasuna		0,317
20-	Euskarazko ezagutzari buruzko Atari probako puntuazioa		0,302

1.8 taula

- **6.2 atala - Zein aldagaik bereizten du ondoen ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera?**

- Ikaslearen *jolaslekuko erabileraren* euskarazko/gaztelaniazko hainbat proportzio dikotomiko zein *aldagai* askek bereizten duen ondoen aztertu da. Erregresio Logistiko izeneko analisia erabili da horretarako (azalpenak eta emaitza osoak 6.2 atalean). Beherago dituzuen bi bereizketetan lehen 5 aldagaiak baino ez dira hautatu informazioa sinplifikatzearen. Kasu bakoitzean argi zehazten da, erabilitako 94 aldagaietatik zenbat behar izan diren guztira, bereizketa dikotomiko bakoitza osatzeko.
- Zein aldagaik bereizten dute ondoen *ikaslearen euskara erabilera jolaslekuan* %50etik gora edo behera izatea?
 1. Taldearen jolaslekuko euskara-erabilerak
 2. Ikaslearen eskola errendimendu orokorrak
 3. Mintzagrama: euskaraz/gaztelaniaz jarduteari buruz beste ikaskideek egindako aipamenak
 4. Anai-arrebekin euskaraz egiteak
 5. Ikasle hitzuna izatea (irakasleak aitortua)

Bereizketa dikotomiko honetarako 17 aldagaiko zerrenda behar izan da guztira.

- *Ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera* zein aldagaik bereizten duen aztertu den kasu guztietan zera ikusi da: bere *taldearen jolaslekuko erabilera behatuak* bereizten duela ongien. Hori horrela, Erregresio Logistikoa berriz erabiliz analisi gehiago egin dira, hain zuzen *taldeko erabilera* hori altuago edo baxuagoa izatea zein aldagaik bereizten duen jakiteko.
- Zein aldagaik bereizten dute ondoen *taldearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera* %95etik gorakoa edo hortik beherakoa izatea?
 1. Ikaslearen jolaslekuko erabilerak
 2. Ikastetxe motak
 3. Ikastetxean euskararen erabilera lantzeko plangintzak
 4. Ikastetxeko irakasle-kopuruak
 5. Taldeko ikasle-kopuruak

20 aldagaiko zerrenda behar izan da guztira, bereizketa honetarako.

- **7 atala - Ikasleen jolaslekuko hizkuntza-erabilera iragarri nahian: 25 adierazle hiru mailatan banatuta**

– Ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera zeren arabera (ez, ezinbestean, zergatik) aldatzen den argitu nahirik, eredu teoriko bat erabili da ikaslearen errealitatea islatzeko (ikus 7.2 atala). Azterketan erabilitako 111 *aldagai askeak* sinplifikatu egin dira, 25 *adierazletan* (ikus 7.3 atala).

– Erabilitako 25 *adierazleak* hiru mailatan banatuta daude: 7 *adierazle maila indibidualean*, *maila mikrosozialean* 11 eta *maila makrosozialean* 7. Maila hauetako bakoitzaren azterketa banaka egin da lehenik, maila bakoitzaren barruan *ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilerarekin* zein *adierazle* dauden lotuen eta bakoitzak zenbateko iragarpen-ahalmena duen zehaztuz. *Adierazle* horiek duten euskarazko erabileraren iragarpen-ahalmena ezagutzeko Erregresio Anizkoitzaren analisisa aplikatu da. Hona langintza horretatik jasotako emaitzak:

1. *Maila mikrosozialean*: harreman-sareak: % 73,0 → ikus 7.5 atala

2. *Maila makrosozialean*: gizartearen egitura: % 51,7 → ikus 7.6 atala

3. *Maila indibidualean*: ikaslearen ezaugarriak: % 47,7 → ikus 7.4 atala

Harreman-sarearen garrantzia oso kontuan izatekoa da, emaitza horien argitan.

– Hiru mailetako 25 *adierazle* horiek guztiek batera duten *jolaslekuko ikaslearen euskarazko erabileraren* iragarpen-ahalmena ezagutzeko Erregresio Anizkoitza analisisa aplikatu da, berriz ere. Hona hemen, guztira hiru mailek batera azaltzen dutena: % 76,1.

• **7.7 atala (A) - 25 adierazleen lotura ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin**

– Azpiko taulan 25 adierazle horiek ordenatu egin dira, *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* duten korrelazio-loturaren arabera (0 eta 1 arteko balioetan zehazten da adierazle bakoitzaren korrelazioa). Maila bakoitzeko adierazleei kolore banatako itzala eman zaie: *maila indibidualekoei* berdea, *maila mikrosozialekoei* horixka eta *maila makrosozialekoei* urdina.

25 adierazleetako bakoitzak ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin duen korrelazioa edo lotura (R)		
	Adierazlea	Lotura R (0-1)
1-	Taldeak jolaslekuan euskaraz egiten du	0,830
2-	Herriko lagunekin euskaraz egiten du	0,677
3-	Anai-arrebekin euskaraz egiten du	0,620
4-	Aisialdia euskaraz	0,619
5-	Ikaslearen herriko euskaltasun-maila	0,582
6-	Etxeko hizkuntza	0,578
7-	Erraztasun erlatiboa euskaraz	0,574
8-	Lehen hizkuntza	0,560
9-	Ikastetxeko hizkuntza-eredua eta irakasleak	0,552
10-	Gurasoak zer neurritan euskaldun	0,523
11-	Bizi-indar subjektiboa I: familia	0,522
12-	Ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzea	0,510
13-	Ikastetxean euskal giroa	0,501
14-	Euskarazko idazmena	0,489
15-	Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura	0,439
16-	Taldeak gela barruan euskaraz egiten du	0,425
17-	Euskaraz/gaztelaniaz hiztun aktiboa da ikaslea	0,389
18-	Euskararekiko motibazioa	0,374
19-	Herriko lagunek euskaraz badakite	0,355
20-	Euskararen erabileraren aldeko plangintzak eta ekintzak	0,345
21-	Bizi-indar subjektiboa II: gizartea	0,332
22-	Miresten dituen pertsonaien hizkuntza	0,329
23-	Ikaslearen eskola-errendimendua	0,252
24-	Gurasoen eta ikaslearen jatorria	0,201
25-	Generoaren araberrako, erabilera-ohiturak	0,079

■ Maila indibiduala ■ Maila mikrosoziala ■ Maila makrosoziala

• **7.7 atala (B) - 25 adierazle horietatik, zeintzuk dute ikaslearen jolaslekuko erabilera euskarazkoa/erdarazkoa izango dela iragartzeko ahalmenik handiena?**

25 adierazleekin egindako Erregresio Anizkoitzeko analisisien emaitza nagusietako bat ematen da ondoko taulan (1.10 taula): analisi horrek 9 adierazle hautatu ditu. Horiek dira *ikaslearen jolaslekuko erabilera* iragartzeko edo azaltzeko ahalmen handiena dutenak. Taulan bertan ikus daiteke horietariko bakoitzak azalpenaren zer portzentaje gehitzen dion aurrekoek azaldutakoari. Guztira, ikaslearen erabilera horren %76,1 azaltzen da. Emaitza argia da: esplikazio-azalpenaren zatirik handiena, askogatik, adierazle honek du: ikaslearen *taldeak jolaslekuan zer hizkuntzatan egiten duen* (ikus 7.7 atala). Kasu honetan, taldeak euskaraz ala gaztelaniaz egiten badu jolaslekuan, horrek iragarriko digu indartsuen ikasleak ere euskaraz egingo duen ala ez jolaslekuan. Norbanakoaren mintzajarduna, beste hitzetan esanik, talde-barneko jardunera makurtzen da.

	Adierazleak	Bakoitzak gehitzen duen azalpen-zatia	Azalpena guztira
1-	Taldeak jolaslekuan zer hizkuntzatan egiten duen	% 68,9	% 68,9
2-	Ikaslea euskaraz/gaztelaniaz hitzun aktibo izatea	+ % 3,7	% 72,6
3-	Ikaslearen eskola-errendimendua	+ % 1,5	% 74,1
4-	Anai-arrebekin euskaraz	+ % 1,0	% 75,1
5-	Generoa, erabilera-ohiturak	+ % 0,2	% 75,3
6-	Ikus-entzunezkoak euskaraz	+ % 0,2	% 75,5
7-	Erabileraren aldeko plangintzak eta ekintzak	+ % 0,2	% 75,7
8-	Taldeko erabilera euskaraz gela barruan	+ % 0,1	% 75,8
9-	Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura	+ % 0,3	% 76,1

1.10 taula

– Hortaz, analisiak 9 adierazle hautatu ditu. Gainerako 16 adierazleek, berriz, ez diote azalpenik gehitzen 9 horiek emandako azalpenari. Honako adierazleok kamuts gertatu dira: *Lehen hizkuntza, Euskararekiko motibazioa, Erraztasun erlatiboa euskaraz, Idatzizko gaitasuna euskaraz, Etxeko hizkuntza, Gurasoen euskarazko gaitasuna, Herriko lagunekin euskaraz egiten du, Herriko lagunek euskaraz badakite, Ikastetxeko giro euskalduna, Aisialdia euskaraz, Ikaslearen herriaren euskaltasuna, Ikastetxareno hizkuntza-eredua eta irakasleria, Gurasoen eta ikaslearen jatorria, Bizi-indar subjektiboa I: familia, Bizi-indar subjektiboa II: gizartea eta, azkenik, Miresten dituen pertsonaien hizkuntza.*

- Horrek ez du esan nahi, taulan hautatuta ageri ez diren 16 adierazle horiek *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* harremanik ez dutenik, baizik eta lotura hori azaldua izan dela iadanik analisiak hautatu dituen 9 adierazleen bidez.
- Ikaslearen taldeak edo gelak jolaslekuan duen erabilera da beraz, taulari erreparatuta, *ikaslearen jolaslekuko hizkuntza zein izango den* ongien azaltzen diguna. Bere pisua hain denez nabarmena, *adierazle* hori alde batera utzita osagarritzko analisiak egin dira. Kasu horretan “azalpen” orokor txikiagoa lortzen da (%76, l ekoa izan beharrean, %65, l eko azalpena), baina beste *adierazleei* buruzko informazio banatuagoa eta aberatsagoa eskura liteke (Ikus 7.7 atala).

• 8. atala - Kasu-azterketa: azterketa kualitatibo sakona

Azterketa hau 3., 4., 5., 6. eta 7. ataletan eginikoen osagarria da. Atal horietan guztietan 2005-06ako datuetan oinarritzen dira emaitzak (50 ikastetxe). Aldiz, 8. atal honetako azterketarako 2006-07 ikasturtean egin zen datu jasotzea hartu da oinarri: konkretuki, aurreko ikasturtean parte hartutako 7 ikastetxe dira azterketa horren iturburu.

Informazioaren lanketa kualitatiboa egin da kasu honetan. *Kasu Azterketa* izeneko teknika erabili da, ez azterbide kuantitatiboa. Hiru dira ondorio nagusiak (ikus 8.2 atala):

- Lotura garbia dago Ikasleak bere ingurumenean (familian, herrian eta ikastetxean) bizi dituen baldintzen eta jolaslekuan euskaraz egitearen edo ez egitearen artean artean.
- Kasuen aniztasuna berresten da. Kategorizazio eta estandarizazio guztien gaintetik, ikastetxe-herri-familia multzoaren bizigiroa osatzen duten xehetasunek hainbat lotura dute lekuan lekuko erabilera jakinarekin. Horren ondorioz ez da posible izan ikasleen jolaslekuko erabilera oinarritzko ezaugarri orokor batzuen arabera iragarri ahal izatea.
- Ikasleen jolaslekuko erabilerari dagokionez ikastetxearen lana eta bertako giroa gai dira, halako neurri batean, familiaren eta herriaren inguru-baldintza orokorrak gainditzeko.

1.2 Ondorio eta hausnarketa orokorrak

• Erabilera motak eta zenbait ezaugarri

Aurreko atalaren (1.1) hasieran jaso dugu irakaskuntzako lankide askoren kezka dena: *Zergatik da ikasleen euskararen erabilera den bezalakoa?* Galdera horri nolabaiteko erantzuna emateko asmoz, hizkuntza-erabilera aztertzeke tresneria garatu da azken lau ikasturteotan, Arrue programa honen baitan. Eskola-giroko hizkuntza-erabileraren eta ikasleen beste ezaugarrien arteko harremanik eta loturarik ba ote den aztertu da tresneria horri esker, eta hainbat ondorio atera da [→ 2.1].

Hizkuntza-erabileraren kasuan, lehen-lehenik zera definitu zen: ikasleen *zein erabilera* aztertu (erabilera ezberdin asko baitaude [→ 3.1 eta 8.1.2]), eta ondoren nola neurtu. Modu batean baino gehiagotan neurtu du erabilera Arrue programak, idazlan honen atal gehienetarako hautaketa bat egin da halere: *ikasleen gela barruko* eta *ikasleen jolaslekuko erabilera* aztertu dira (bigarren hau bereziki). Erabilera hori irakasleek egindako behaketan oinarritu da. Ikasleen hizkuntza-erabilera horrela jasotzeak baditu bere argi-ilunak: bai *alde onak* eta bai *hobetu beharrekoak* ditu, aurrerago azalduko den bezala [→ 3.1].

Honelako azterketek aski garapen mugatua izan dute orain arte, gurean zein kanpoan. Argibide bila ibili garelarik ere ez daukagu –ez dugu ezagutzen– beste inon egindako eredurik, zuzen-zuzenean eta dagoen-dagoenean hemen aplikatzeko balio digunik; orain arte eginiko probekin eta hautuekin eraiki behar izan da, hortaz, lehen eredu baten oinarri izan litekeena [→ 3.2].

Lan-ildo horren baitan, Arrue azterlanaren bidez 2005-06 ikasturtean aztertu diren 1.325 ikasleen *jolaslekuko* eta *gela barruko* erabileraren batez besteko datu orokorrak honako hauek dira:

- *Jolaslekuan* ikasleen arteko elkarriketa guztien **% 55,3** euskaraz dira (%44,7 gaztelaniaz)
- *Gela barruan* ikasleen arteko elkarriketa guztien **%79,8** euskaraz dira (%20,2 gaztelaniaz)

Euskararen jolaslekuko erabilera horretan, %55,3ko batez besteko horren atzean, aniztasun handia dago berez: ikasleen heren bati (%34,7) behatutako elkarriketa guztiak euskaraz izan dira, laurden bati (%26,5) behatutako guztiak gaztelaniaz; eta gainerakoei behatutakoak (%38,8), neurri handiago edo txikiagoan, bi hizkuntzetan mamitu dira.

Gela barruko erabilera, aitzitik, askoz neurri handiagoan mamitzen da euskaraz. Horregatik %79,8ko batez besteko horren atzean dagoen aldaketa txikiagoa da jolaslekukoa baino: ikasle gehienei (%55,9) elkarriketa guztiak euskaraz behatu zaizkie. Aldiz, guztiak gaztelaniaz oso gutxiri (%4,8) [→ 3.4].

Ikerketa ikastetxeen borondatezko parte hartzean oinarritu delarik, lagin horren emaitzak ezin dira EAEko hezkuntza-sisteman dauden ikastetxe guztietara orokortu, ezta EAEko LMH6ko ikasle guztietara ere. Muga ohargarria da hori, eta ez da ahaztea kome-

ni. Tresneria findua sortzeak izan du orain arte lehentasuna; tresneria hori egoki geruzatutako lagin errepresentagarri batean pasatzea bigarren fase baterako utzi da. Mugak muga, bildutako informazioaren hainbat zertzelada oso interesgarri dela uste dugu.

Ikasleen *jolaslekuko* eta *gela barruko hizkuntza-erabileraren* datu orokorrak beste aldagai batzuen argitan ere aztertu dira. Hona hemen, lagin txiki gisa, euskal soziolinguistikan oinarritzekoak diren bost aldagairekin eginiko azterketak erakusten diguna:

Sexua: neskek mutilek baino gehiago egiten dute euskaraz, eskola-giroan. Beraien erabilerara mutilena baino 6,5 puntu altuagoa da, bai *jolaslekuan* eta bai *gela barruan*. Joera hori ez da hain harrigarria: beste ikerketa batzuetan ere halakorik sumatu izan da azken urteotan.

Lehen hizkuntza: LI edo ama-hizkuntza gaztelania duten ikasleek, batez beste gutxiago-tan egiten dute euskaraz, bai ikasgelan eta bai, bereziki, *jolaslekuan*.

Jolaslekuari dagokionez, LI gaztelania duten ikasleen euskarazko jarduna *jolaslekuan* %34,5 da, batez bestean. Aldiz, etxetik euskaldun diren haurren euskarazko jarduna %84,7koa. Diferentzia nabarmena da hori. Oso kontuan izatekoa.

Gatozen, bestalde, *gela barruko* jardunera. Diferentziak txikiagoak dira hemen. Baina ohar-garriak: LI gaztelania duten ikasleek, batez beste % 73,0an egiten dute euskaraz *gela barruan*. Aldiz, LI euskara duten ikasleek, batez beste %89,5ean.

Hiztun-tipologia: ikasleek euskara eta gaztelania etxean edo eskolan ikasi duten kontuan hartuz, eta zenbat urterekin ikasi duten aztertuz, 6 hiztun tipo bereizi dira. Eskolako erabilera-datuak tipologia horren arabera alderatuta, aldagai horren eta erabileraren artean aski korrelazio zuzena dagoela ikusten da: zenbat eta ikasleak lehenago ikasia duen euskara, eskola-giroko bere euskara-erabilera ere altuagoa izango da batez bestean. *Lehen hizkuntzaren* aldagaian bezala, honetan ere batetik besterako aldeak askoz handiagoak dira *jolaslekuko erabileran gela barrukoan* baino. Interakzio-situazio batzuek beste batzuek baino uniformeagoak eta testuinguruak determinatuagoak dira, itxura guztien arabera. *Gela barruko hizkera*, ikasleen artean ere, irakaslearen presentziak eta instituzioaren hizkuntza-proiektuak sakonago markatzen bide du. *Jolaslekuan*, aldiz, talde-barneko hautua da erabakitzaile nagusi.

Herriaren euskaltasuna: ikasleak beren herriko euskaldunen proportzioaren arabera bost multzotan bereizi dira. Kasu honetan ere *jolaslekuko erabilerak* aldagai horrekiko korrelazio argia du: herri euskaldunagoetako ikasleen *jolaslekuko euskararen erabilera* altuagoa da, batez bestean. *Jolaslekuan* baino gutxiago aldatzen da hizkuntza-erabilera *gela barruan*, aldagai honen arabera ere: biztanle euskaldunak %0 eta 20 artean diren herrietako ikasleek, adibidez, batez bestean %73an egiten dute euskaraz, *gela barruan*. Aldiz, *jolaslekuan*, % 28an.

Irakasteredua: ikasleek beren ikasketak A, B edo D ereduan egiten dituzten aztertuz gero, eta erabilera-emaitzak horren arabera analizatuz, alde handiak ikusten dira ikasleen artean:

- A ereduko ikasle guztien euskarazko erabilera %0 da *jolaslekuan*. B ereduan ere, 10 ikasletik 8k %0 egiten du euskaraz; D ereduko artean, aldiz, askoz gutxiago dira jolaslekuan erabat gaztelaniaz aritzen direnak (10etik 1).
- *Gela barruan* badira A ereduko ikasle batzuk eta, batez ere, B ereduko hainbat askotan euskaraz egiten dutenak. Dena den, *gela barruan* euskarazko erabilera %0 duten ikasleen proportzioa oso ezberdina da hiru ereduetan: A ereduko %56, Bkoen %6 eta Dkoen %1 [→ 3.4].

Labur bilduz: *jolaslekuan* eta *gela barruan* behaketa bidez neurtutako ikasleen hizkuntza-erabilerak badu asoziazio-maila ohargarria goian aztertutako bost aldagaiekin. Genero/sexu kontuarekin txikiagoa da asoziazio hori, baina beste lau adierazleekin nahiko nabarmena. *Gela barruko* jardunean euskarazko erabilera handiagoa eta berdintsuagoa da. *Jolaslekuan*, aldiz, erabilerak askoz gehiago aldatzen dira lau *aldagai* horien arabera [→ 3.5].


• Erabileraren zergatiak bilatzeko tresneria

Gatozen harira: *Zergatik da ikasleen euskararen erabilera den bezalakoa?* Galdera horri erantzutea da Arrue azterlanaren helburua. Asmo horrekin aztertu dira ikasleen *gela barruko* eta *jolaslekuko* erabilera-datuak. Bestalde, *gela barruko* euskara-erabilera *jolaslekuko* baino altuagoa eta homogeenagoa dela ikusita, *ikaslearen jolaslekuko erabilerak* beste aldagai guztiekin duen lotura edo harremana aztertu da, batez ere, ikerlan honetan. Erabilera mota horrek aztergai ditugun beste hainbat aldagaiekin duen harremanari lotuko gatzazkio, hortaz, ondoko lerrootako gogoetan.

Harreman hori zehazki ezagutzeko, *ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilerak* beste III aldagaiekin duen lotura aztertu da banan-banan. Aldagai horiek *ranking* batean ordenatu dira, lotura horrek estatistikoki ageri duen indarraren arabera. Ikerlan honen emaitza nagusietako bat honako hau da: *ikaslearen taldeak jolaslekuan euskaraz edo gaztelaniaz egiten duen*, hori da aztertutako lotura guztietan indartsuena. Horrek iragartzen du argien, ikasleak *jolaslekuan* zer hizkuntzatan egingo duen. Bere *ikaskide-taldearen hizkuntza-erabilera* hori nabarmen gailentzen zaie ikaslearen gainerako beste ezaugarri guztiei.

Informazioaren azalpen eta interpretazio xumeetan murgildu aurretik, halere, azterlanean erabili den tratamendu teoriko-metodologikoaren berri eman behar dugu, labur bada ere. *Ikasleen jolaslekuko hizkuntza-erabilera* eta horrekin lotura duten aldagaiak aztergai izanik analisi estatistiko askotxo burutu dira, beti ere III aldagai askeen eta mendekoa-
ren (euskararen erabilera) arteko harremanak arakatzeko edota berresteko. Analisi horien adibide nagusiak, honakoak ditugu: asoziazio-maila, faktore-analisiak, korrelazioak, analisi logistikoak eta erregresio anizkoitza.

Horrezaz gain, aldagai aske ugari aukeratzeaz gainera, berauek ordenatu eta euren gaineko analisiak gidatzeko eredu teoriko bat aukeratu da: Iñaki Martínez de Lunaren eredu, hizkuntza baten erabilerarako beharrezkoak diren baldintzei buruzkoa (Martínez de Luna, 2001). Hona, labur bilduz, eredu horren oinarritzko eramoldea:



1.1 irudia


Azterketarako aukeratu den eredu teoriko horretan hizkuntza-erabilera gerta dadin beharrezkoa da zenbait baldintza ematea hiru mailatan: indibiduala bata (ikaslearena, kasu honetan), eta sozialak, beste biak: maila mikro- eta maila makro-soziala [→ 7.2].

- **Erabileraren iragarle nagusia: taldearen hizkuntza-moldaera**

Hiru maila horien artean ikaslearen harreman-sare hurbileko adierazleak (hau da, maila mikrosozialeko edo ingurune hurbileko baldintza soziolinguistikoa) eta *gizarte-egoerak* dira adierazgarrienak. Horiek dira, besteak baino argiago, ikasleak *jolaslekuan euskaraz* edo erdaraz egingo duen argien azaltzen dutenak: maila mikrosozialeko adierazleen azalpen-indarra %73,0koa gertatu da, makrosozialena %51,7 eta maila indibidualena %47,7.

Beste hitzetan esanik: *ikasleak jolaslekuan euskaraz ala erdaraz egiten duen oso lotua dago bere gelako taldearen jolaslekuko erabilerarekin*. Eredu teorikoaren 25 adierazleetatik bera da ikasle bakoitzaren erabilera hori ongien azaltzen duena [→ 7.7 eta 7.8]. *Taldearen jolaslekuko erabilerak* duen aparteko garrantzia argi berretsi da, horrezaz gainera, azterlanean egin den beste hainbat analisi estatistikotan eta hainbat kasu konkretutan. Taldearen garrantzia konfirmatu zaigu kasu guztietan, berdin du euskararen erabilera-maila apala izan, ertaina edo handia. Berdin du, orobat, analisia ikasle guztiak kontuan hartuz egin edo, aitzitik, etxetik euskaldun diren eta D erudian dabiltzan ikasleetan zentratu. Behin eta berriroko emaitza da goiko hori [→ 6.1 eta 6.2.1].

Ikaslearen jolaslekuko euskararen erabileraz eredu teorikoak eta bere dimentsioek duten azalpen ahalmena



1.2 irudia

Badirudi maila mikrosozialeko baldintzak gai direla –kasu batzuetan bederen– beste bi mailetako baldintzen gaitetik eragiteko. Hori dela-eta, ikaslearen *euskarazko erraztasun erlatiboa* (maila indibidualeko aldagaia) handia zein txikia izan bere taldearen *jolaslekuko erabilera-moldera egokitzen saiatzen da* ikaslea [→ 3.6]. Ildo beretik, euskararen erabilerari arreta berezia ematen zaion taldeetan, gainontzeko baldintza soziolinguistikoen arabera berez legokiokeen baino erabilera-maila handiagoa lortzen da [→ 8.2.2 eta 8.2.3].

Ikerketak, beraz, zera azaleratzen du: ikasleen ingurumen hurbileko egoerak eta baldintza soziolinguistikoek lotura handia dute ikasle horien mintzajardunaren nolakoarekin: taldearen jardunak iragartzen du, indartsuen, banakako hiztunak zer egingo duen [→ 7.2 eta 7.5]. Ondorio hori ez da, inondik inora, ustekabeko emaitza: hainbat egilek teorizatu duten ildoan kokatzen da hori: Joshua A. Fishmanen argudio-bidean, esate baterako (Fishman, 1972: 39). Bat dator emaitza hori, orobat, Euskal Herrian enpirikoki ikertu denarekin. Xabier Erizeren ikerketak argi erakutsi du, esate baterako, maila mikrosozial horrek erabateko garrantzia izana duela Nafarroan historikoki. Berari zor zaio, askotan, euskara indartsu mantendu izana gizarte-giro hurbilean (Erize, 1997). Han-hemengo aztertzaileok ateratako ondorioak eta gure ikerketan lortutako emaitzak bat datoz: *gizarteko egoerak*, hurbileko harreman-sareko harremanak eta ingurune hurbilaren beste ezaugarri soziolinguistiko batzuk erabakigarriak dira banakakoaren mintzajarduneari.

Horren guztiaren adibide argia da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) azken hamarkadotan gertatu den bilakaera soziolinguistikoa. Euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasun-markoa onartu zenetik 25 urte pasa diren arren, euskara-erdaren elkarbizitza oso alde batera makurtua dago. Aurrez aurreko hizkuntza bien arteko funtzio sozialen banaketa gaztelaniaren aldekoa da nabarmen. Ez goi-mailako esparru formaletan bakarrik, gainera. Euskaldunen etxe-zolaraino sartua da gaztelania. Ikusi bestela: *EAEko biztanleen % 13,8k egiten zuen euskaraz, etxean, 1991n. 2001ean % 13,64 ziren hala egiten zutenak* (Eustat, 2006: 233).

Euskararen erabilera indartzeko lege-markoa garatuz joan den arren ondorio hori jaso da mende-laurden honetan. Lege-garapen horrek aukera berriak zabaldu dizkio euskarari (goiko ereduan, *maila makrosozialean*): hezkuntzan eta administrazio publikoaren jardungunean batez ere, baina baita (neurri apalagoan izan arren) komunikabi-dearen arloan, IKTetan (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan) eta arlo soziolaboralean.

Gizartearen maila makro horretako aldaketek posible egin dute euskararen transmisioa belaunaldi berrietan orokortzea, hezkuntza sistemaren bitartez. 1981ean 2 eta 19 urte bitarteko biztanleen %17,99 soilik zen euskaraz egiteko gai; 2001ean, aldiz, %57,79 (Eustat, 2006: 223). Euskararen ezagutzan aurrerapausoa eman da alde horretatik. Baina kontuz, elebidun berri gehienak erdal elebidun dira: errazago edo askoz errazago egiten dute erdaraz, euskaraz baino. Beste hitzetan esanik, aurrerapausoa gaitasun erlatiboaren aldetik aski mugatua (*maila indibiduala*).

Orokorrean, badirudi –adituen esanetan– EAEn euskara berreskuratzeko aurrera atera diren hizkuntza-politikak egokiak direla eta hobekuntza bat ekarri dutela euskararen baldintza sozial eta demolinguistikoetan: “EAEn, orokorrean, hizkuntza planifikatzeko erabili diren politikak euskara pizteko lagungarriak izan dira. Hor irabazitako esperientzia eta ‘know-how’ delakoa bai egokitu daiteke Nafarroako eta Iparraldeko baldintza berezietara...” (Bourhis, 2003: 4). Begien bistakoa da euskarak gizartearen *maila makroan* eta biztanleen *maila indibidualeko* baldintzetan izan dituen hobekuntzak *sine qua non* direla hizkuntza horren berreskurapenerako. Aurrerapen hori antzua gerta liteke, ordea, erabilera kontuan aurrera egiten ez bada. Ukipen-egoeran dauden bi hizkuntzen artean bat edo bestea erabiltzeko hautua eremu horretan egiten da: *egoera sozialak* eta *aurrez aurreko harreman-sareak* (*maila mikroa*). Hori da, bide batez, Arrue ikerketaren emaitzek aditzera ematen digutena: gizartearen aztermaila *mikrosozialak* ageri du, esan bezala, ikasleak jolaslekuan euskaraz ala gaztelaniaz egingo duen iragartzeko indarrik handiena.

Kontua ez da, azken finean, gure ereduan erabili ditugun beste bi mailetako baldintzek –*maila indibidualekoak* eta *gizarteko maila makrokoak*– hizkuntza-erabilerari begira duten garrantzia alde batera uztea edo gutxiestea. Euskara erabiltzearen auziaren muina non dagoen (non dagoela dirudien) nabarmentzea da kontua, eta horregatik azpimarratzen da hemen hizkuntza gutxitu bat berreskuratzeko *gizarteko maila mikro* horretan jarduteak garrantzia handiagoa duela, betiere ahaztu gabe aipatu maila hori elkarreraginean dagoela bai *maila indibidualarekin* eta bai *maila makroarekin*, gure ereduan azaldu dugun bezala [→ 7.2].

Hortaz, bat egiten dugu Jauregik eta Unanuek, biek ala biek, dakarkiguten iritzi berarekin, nahiz eta kasu oso ezberdinen analisisen ondorioz botatakoa izan: lehenengoak, gazteen aisialdiko hizkuntzazko jokaeren gaineko hausnarketan eta, bigarrenak, administrazio publikoetako hizkuntza-ohituretan eragiteko planaren balantzea egiterakoan; horra hor, esandako iritzia:

Funtsean gizabanakoen erabakietan oinarrituz, euskararen erabilpenak ezin du aurre-rapen ikusgarririk egin, gizarteko mikroegiturak direla eta, faktore psiko-soziologikoen eragin izugarria ahazten baitu. Gizarte faktore horien guztien kontra zeregin gutxi du gizabanakoaren ahaleginak. Erdararen aldeko funtzionamendu kolektiboa iraultzeko euskararen aldeko erabaki kolektiboa behar da funtsean, bai eta tresna kolektiboak erabiltzea ere. Horregatik diogu, gizabanakoek ez baina taldeek izan behar dutela erabilera normalizatu nahi duen mugimenduaren oinarri. Berezko taldeak dira unitate txikiak. (Jauregi, 1998, in Unanue, 2006: 24-25)

Izan ere, gazteen aisialdiko hizkuntzazko jokaerak izan, administrazio publikoetako hizkuntza-ohiturak izan edo, gure kasuan bezala, *ikaslearen jolaslekuko erabilera* izan, hizkuntza bat erabili ahal izateko kontatzen duten baldintzak eta eragileak unibertsalak dira nolabait, hots, eremuz gaindiko zehar-baldintzak. Eta, arestian aipatutako egileen lanetan bezala, ikerketa honetan ere zera gertatzen da: norbera –ikaslea– murgilduta dagoen egoeraren eta hurbileko talde portaeraren –*taldearen jolaslekuko erabilera*– araberakoa da bere hizkuntza jokaerarako aukera, neurri handi-handian. Ez da askatasun osoz norberak egindako hautua eta are gutxiago nortasuna osatu bidean dauden adin txikiko gizakien kasuan. Hortaz, esango genuke talde-eragin hori gure ikasleengan are erabakigarriagoa izan daitekeela helduengan baino.

- **Taldetik harago zer?**

Egia da *taldearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera* ez dela berez gertatzen den ezer, beste hainbat baldintzaren ondorioa dela baizik. Eta, arestian esana dago, *maila mikrosozialaren* muinean kokaturik dagoen *taldearen jolaslekuko erabilera* hori ez da maila horretako influentzia bakarra, horrekin batera familia –eta herri– zein ikastetxe-baldintzak ere agertzen direlako. Gauzak horrela, zilegi eta zentzudun litzateke pentsatzea gela batean biltzen diren ikasleen giro eta aurrekari sozialek gelan sortzen diren harreman mota guztietan –hizkuntza-harremanak, barne– zerikusi handia dutela; ez erabatekoa, dena den, talde bakoitzak ezaugarri eta dinamika bereziak dituelako.

Gure analisisian lortutako emaitzek ere berresten digute *taldearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera* hori ez dagoela isolaturik, kontuan hartu ditugun beste aldagai batzuei lotuta baizik. Faktore Analisisiak erakutsi digunez, lotua badago, alde batetik, talde horretako ikasleen *herriko lagunekiko erabilerari*, *etxeko hizkuntzari* eta *euskarazko erraztasun erlatiboari*. Horrez gain, lotuta dago ikastetxearen ezaugarriei ere: *hizkuntza-ereduari* eta *irakasleriari* eta ikasleen erabilera zein euskararen ahozotasuna lantzeko bertan egiten diren *plangintzei*. Era berean, ikasleak bizi diren *herriaren euskalduntasunarekin* ere lotura du, baina neurri apalagoan. Hortaz, *taldearen jolaslekuko erabilera* harremanetan dago ikastetxez

kanpoko baldintzekin (familiakoak zein herrikoak) eta ikastetxe barrukoekin. Azkenik esan, faktore analisi hauetan aurrekoei lotuen ageri den maila indibidualko aldagaia ikasleak euskaraz duen *erraztasun erlatiboa* dela. Eta nork ukatuko luke hizkuntza-erraztasun hori ingurune hurbileko familia-, ikastetxe- zein herri-baldintzen menpe dagoela, neurri handian? Inondik begiratzen dela ere, ikaslearen gertuko ingurunearen garrantzia nabarmentzen da.

Soziolinguistika gertaeretan ohi den bezala, hemen aztergai dugun alorrean ere hainbat osagai -sozialak zein indibidualak- elkarri loturik daudela behin argi utzita, goazen *taldearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera*ri lotuen dauden aldagaiak zein diren esatera. Bilatze horretan, Erregresio Logistiko analisiak erakutsi digu *Ikastetxeen ezaugarriak* ugariak eta garrantzitsuenetakoak direla *taldearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera* azaltzerakoan: ikas-teredua, ikastetxe mota, euskararen erabilera eta ahozkotatasuna lantzea, hizkuntza paisaia, ikastetxeko ikasle kopurua, irakasleen kopurua... Era berean, ikaslearen ezaugarriak, dituen hizkuntza irudikapenak eta bere familiaren ezaugarriak kontuan hartzekoak dira, modu apalagoan bada ere [→ 6.2.2].

Planteamendu horrek interbentziorako baldintzak irekitzen ditu *taldearen jolaslekuko erabilera*ri modu zuzenean eragiteko abagunea mugatua delako. Interbentzio-aukerak zabalitzen dira, hortaz, familiaren, herriaren zein ikastetxearen hizkuntza-baldintzen inguruan plangintzak abian jartzeko garrantzia azpimarratzean, betiere ahaztu gabe gaur egun hainbat lekutan halakoak dagoeneko indarrean daudela. Ikerlan honek eskaini dituen datuak oinarri hartuta, ondoriozta daiteke ekimen horiek guztiak ez liratekeela antzuak izango, betiere ahalegin horiek ongi planifikatuak eta gauzatuak badira. Izan ere, ez dugu aditurik ezagutzen hezkuntza sistemaren eta berau kokatuta dagoen gizartearen artean lotura estua dagoela gaur egun ukatzen duenik. Aitzitik, asko dira hezkuntza sistema eta gizarte dimentsio askoren artean harreman garbiak ikusten dituztenak¹.

Hortaz, hezkuntzarekin harremanetan dauden gizarte-eremuak hain zabalak eta anitzak izanik, ikasleen hizkuntzari dagozkion gizarte-harremanak eta eraginak ere antzeko dinamikan egongo dira murgilduta, ezinbestez. Horra hor; horien lekuko gisa, Iztuetak luze eta sakon jorratzen duen gaia: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian* (Iztueta, 2002).

Horregatik diogu interbentziorako bideak irekita daudela; izan ere, badaude zeharkako aukerak taldeko hizkuntza portaeran eragiteko –berriro diogu– *maila mikrosozialari* dagozkion familiaren, herriaren eta ikastetxearen baldintzetan interbenitzean. *Maila mikrosozialeko* interbentzioaren eraginkortasunaren zantzu bat ikus dezakegu, adibidez, *euskararen erabilera* eta *ahozkotatasuna lantzeko plangintzetan* murgildurik dauden taldeek jolaslekuan duten euskararen erabilera altuagoan, batez beste [→ 3.6 eta 7.7]. Ildo bere-tik, euskarazko erabilera mailak (ikasleen erabilera maila altuenak zein taldeko maila guz-tiak) bereizten dituzten aldagaien artean plangintza horiek berriz agertzen dira [→ 6.2].

¹ Adibidez, gizarte-antolaketa orokorarekin (Fernández Palomares, 2003: 14-18), demokraziaren osasunarekin (Fernández Enguita, 2007: 13-38), ezagutza-gizartearen eskakizun etiko berriekin (Rodríguez de Rávena, 2007: 103-149), gizarte balioekin (Souto González, 2007: 75-79; Usategi eta Del Valle, 2006: 53-90), gatazka sinbolikoekin (Larrinaga, 2006: 121-160), izaera zibikoa eta nortasun nazionalarekin (Mateos González, 2006: 161-182), generoarekin (Amurrio, 2006: 183-220), boterea eta hizkuntzarekin (Iztueta, 2002), teknologia berriekin (Correa Gorospe, 2003; Perez Urraza, 2006), e.a.

Beste eremu batera jauzi eginez, familiako hizkuntza erabilerei erreparatuta ere, joera nabarmena da: familian (anai-arrebekin, gurasoekin, gurasoen artean, e.a.) euskara gehiago erabiltzen denean ikasleek jolaslekuan ere erabilera maila altuagoak izaten dituzte, oro har. Beste horrenbeste gertatzen da, azkenik, aisialdiko hizkuntzari, inguruneari eta ikus-entzunezkoen kontsumoei erreparatuta: *jolaslekuan* euskarazko erabilera altuagoa duten taldeetako ikasleek *aisialdian* eta *ikus-entzunezkoetan* ere erabilera edo kontsumoa altuagoa dute. [→ 6.1.4] Ikerlan honetatik kanpo ere aipatu izan dira *maila mikroko* eragin horiek. Besteak beste, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eginiko ikerlanean familiako euskararen erabilera guztiz lotuta agertzen da ingurune horretan ematen diren baldintzei; zehatzago, bertako euskaldunen proportzioari (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2003).

Hala ere, oso motz geldituko ginateke ondorio hauetan, gure aztergai nagusia –*ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera*– aipatu ditugun aldagaien menpe soilik jarriko bagenu; hau da, *taldearen jolaslekuko erabilera* eta *maila mikroko* beste aldagaien (familia-, herri-, ikastetxe- zein aisialdi-harremanen) eragin soilaren menpean. Izan ere, egoera soziolinguistikoari buruz landu dugun eredu teorikoan [→ 7.2], hiru mailek (indibiduala, mikro-eta makro-soziala) elkarri eragiten diote; hau da, gogora dezagun *maila horietako* edozeinetan dauden baldintza soziolinguistikoek beste mailetakoetan ere eragiten duela.


Areago, eredu teorikoak iradokitzen duen harremanen aniztasun hori berretsia izan da estatistikoki, korrelazioen [→ 7.7.1] zein faktore-analisiaren bitartez. Horiek ez ezik, beste hainbat datuk ematen digute mailen arteko elkarreragin horren berri argia; zuzenekoa izan zein zeharkakoa. Azken buruan, euskararen erabilera altua loturik doa, oro har, *maila indibidualeko*, *maila mikroko* eta *maila makroko* baldintza egokiei, eta, beste muturrean, halako baldintza soziolinguistikoak eskasak direnean, euskararen erabilera hutsaren hurrengoa izaten da.

Ezaguna da, adibidez, Sánchez Carrión “Txepetx”-en planteamendu teorikoa. Horren arabera, hizkuntza baten erabilera gerta dadin garrantzitsua da hizkuntza horren gaineko gaitasun eta aldeko motibazio (*maila indibiduala*) nahikoak lortzea (Sánchez Carrión, 1991). Horregatik, eskola esparruan halako baldintzak modu egokian lantzea onuragarria izango da, duda izpirik gabe, *ikaslearen jolaslekuko erabilerarentzat*. Jakinaren gainean jarri gintuzten aspaldian hezkuntzaren arduran murgilduta daudenek “*fenomeno soziolinguistikoetan eskolak izan dezakeen eragin*” mugatuaz hitz egitean; baina, bestalde, fenomeno horietan “*zenbait eskola-alorrek duen garrantzia*” azpimarratu zuten ere (Artola et al., 1991: 244).

Taldea gure emaitzen eta gogoeten epizentrotzat hartu izanagatik, aurreko lerroetan ezin izan dugu beste osagaien garrantzia aipatzeke utzi. Era berean, ahantzi ezina dugu ikaslearen *jolaslekuko* eta *gela barruko* euskararen erabileren artean dagoen alde handia, aztergai ditugun taldeak berdinak izanda ere. Horren alde handiari buruz galderak egiten hasita, susmo hau sortu zaigu: *ikaslearen jolaslekuko erabilera* gelako taldearen mende dagoela argi gelditu zaigun bezala, *ikaslearen gelako erabilera* beste zerbaiten menpe ote dagoen. Zeren menpe izan litekeen, ordea, ez du gure ikerlanak argitu; irakaslearen autoritatearen menpe ote? Egoera formal horrek duen euskararen markaren menpe ote? Hona hemen, horren inguruko iritzi bat:

...ikasle eta irakasleen arteko ibilbidean euskara da nagusi. Beste rol gehienak orde, aipatutakoa baino anbiguoagoak dira eta askotan ikasleek hizkuntza-ibilbide bakoitzean modu egokian nola ibili ikasi behar dute. (Hernandez, 2005: 101)

Ikaslearen jolaslekuko eta gelako euskararen erabilerarekin harremanetan dauden osagai nagusiak



1.3 irudia

Irakaslearen eragina izan edo beste zer edo zer izan, azken finean, argi dago *taldea* ez dagoela edozein erabilera motari estuki lotuta eta ikastetxeetako beste faktore batzuek ere aintzat hartzekoak direla.

- **Erabilera, funtsezko baldintza soziolinguistikoak behin asebetek**

Talde ezaugarriak euskararen erabilerarako garrantzi handikoak izanik ere, datuek diote erabilera-maila altua denean taldearen pisu hori arintzen doala, norberaren ezaugarrien, kanpo ezaugarrien edota hizkuntza irudikapenen (maila makroa) mesedetan [→ 6.2.2]. Horrek, euskararen erabilerarako baldintzak lehentasun baten arabera ordenatzen dizkigu. Alegia, hizkuntza baten biziraupenerako oinarritzko baldintzak (gelako taldearen euskararako joera handia, familiako hizkuntza euskara izatea, ikastetxeko euskararen erabilera altua, lagunekin euskaraz egitea) nahikoa egokiak ez diren arte, beste ezaugarri mota batzuk ez dira loturik agertzen hizkuntzaren erabilerari; gure kasuan bi adibide garbi ditugu: *sexua* eta *hizkuntza-irudikapenak*.

Sexu/generoa: Euskararen erabileran alde txikiak markatzen dituen aldagaia da *sexua*. *Sexua* diogu, ikasleentzako datu bilketak *sexua* kontuan hartzen duelako, baina *sexua* ala *generoa* ote? Susmo sendoa dugu hizkuntza portaeran dauden aldeak funtse kulturalakoak izan daitezkeela eta ez faktore biologikoetan oinarrituak.

Kontua da nesken euskarazko erabilera altuxeagoa dela mutilena baino, bai *jolaslekuan* eta bai *gela barruan* [→ 3.5.1]. Eta joera hori behin eta berriz agertzen da Euskal Herrian bertan egindako hainbat ikerlanetan (adibidez: Hernandez, 2002; Hernandez, 2004; Hernandez, 2005; Amonarriz, 2007). Ikasleen ezagutza hurbila eta sakona duten profesionalek ere ba omen dute horren berri eta ikerketa lan honen emaitzak aurkezteko irakasleekin eta hizkuntza teknikariek egin diren saioetan² emaitza hauek ez dira harrigarritzat jo.

Fenomeno horren adibide gisa, lerro hauetara ekarri dugu DBHko ikasleak biltzen dituen Bilboko ikastetxe batean Jone Miren Hernandez ikerlariak eginiko ikerketa lan baten pasartea:

...hizkuntza aukeraketan eta hizkuntza praktiken zehaztapenean lagundu dezaketen errutina batzuk badira.

Errutina horietako bat mutilen eta nesken arteko ezberdintasunean oinarritzen da. ...ikasle gazteenen artean behintzat, neskek mutilek baino euskara gehiago hitz egiten dutela esan daiteke. Gainera, neskek errazago eta egokiago egiten dutela dirudi. Beste ezberdintasun bat, hizkuntzarekiko arduraren datza, neskak hizkuntzarekiko arduratsuagoak omen dira. Hori jakinda, ikasleek errutina bat aukeratu eta jarrai dezakete: neskekin euskaraz hitz egin edo –mutil askok egiten duten moduan–, arau hori hautsi eta ondorioak jasan (... landa lana egin zenean gai hori zela eta, istilu batzuk sortu ziren). Beraz, oro har, neskak bakarrik edo taldean daudenean, euskararen beste ibilbide bat osatzen dutela esan daiteke. (Hernandez, 2005: 101)

Nesken eta mutilen arteko hizkuntza jokaera –neurri batean– ezberdin horien arrazoi posible gisa aipatu izan da ere Arrue programaren jardunaldietan: oro har, neskak mutilak baino “esanekoago” izatea, edota neurri batean “ikasle hobeak” izatea. Zer dago, ordea, berezitasun horien atzean? Izaera indibidualak ala sozialak? Autore batzuen aburuz, sozialak: “...sexuen arteko aldeak ulertzerakoan, sexu bakoitzari sozialki egokitutako arauak, rolak, aurreikuspenak... kontuan hartu behar ditugu.” (Hernandez, 2002: 124)

Hortaz, gizarte bateko azpikultura ezberdinetan omen datza sexu/generoaren arabera gertatzen den hizkuntza portaera ezberdin horren funtsa. Eta, hori horrela izanez gero, *maila makrosoziala*, *maila mikrokosoziala* eta *maila indibiduala* lotzen dituen gertaera baten aurrean geundeke; izan ere, nesken eta mutilen azpikultura ezberdin horiek gizartean zabaldua dauden genero-balio diferente batzuetan oinarritzen badira ere (*maila makrosoziala*), balio horien transmisioa eta sozializazioa talde hurbilaren (*maila mikrosoziala*) eskutik iristen zaie neskei, bide batetik, eta mutilei, beste bidetik (*maila indibiduala*).

Interesgarria da, halaber, Hernandezek lan berberean eskaintzen digun hizkuntza joera horien bilakaera:

Halere, nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak gero eta txikiagoak dira, zenbat eta adinean aurrerago egin. Ikasleak bigarren hezkuntzako azken ikasturtera iristen direnean hizkuntza kontuak pentsamendu eta sentimendu pertsonalekin lotuak daudela dirudi, eta ondorioz erabakiak norbanakoen gainean geratzen dira maila handi batean. (Hernandez, 2005: 102)

² 2006ko azaroaren 30ean eta 2007ko ekainaren 27an jardunaldiak antolatu zituen Soziolinguistika Klusterrak Eibarren, ikerketan parte hartutako ikastetxeetako irakasleei eta Ulibarri Programako Hizkuntza Normalkuntza Teknikariei (HNT) emaitzen berri emateko.

Egile horrek behatutakoan errepikatzen da, nonbait, guk arestian esandakoa: baldintza batzuetan *taldeak* hizkuntza erabileran duen pisua arintzen da beste baldintza batzuetan, beste ezaugarri edo eragile batzuei lekua eginez.

Hizkuntzarekiko gizarte irudikapenak: Sexu/generoarekin gertatu bezala, *maila makrosozialean* kokatu ditugun hizkuntza irudikapen eta *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* arteko asoziazio edo harremana ere esanguratsua da, baina ez oso intentsua. Dena den, asoziazioa begi bistakoa da, zenbat eta euskararen erabilera handiagoa izan, ikasleen hizkuntza irudikapenak euskararen aldekoagoak baitira; baina lotura horiek ahulagoak dira lehenago aipatu ditugun beste aldagaiekin daudenak baino. Adibidez, *jolaslekuan* oso hizkuntza erabilera ezberdina duten ikasleek, ez dituzte, oro har, hain hizkuntza irudikapen ezberdinak. [→ 5.1, 6.1 eta 7.7.1].

Hala ere, *maila makroak* beste bi mailekin (*indibidual-a* eta *mikrosozial-a*) duen elkarrenergina aintzat hartuta, lehenbizikoan dauden baldintzak –gizarte irudikapenak barne– hobetzeko ahaleginak ez dira hutsalak izango. Izan ere, hizkuntza batek –euskarak, gurean– duen gizarte ospeak edo arrakastak bete-betean eragingo du hiztunek hizkuntza horrekiko adierazten duten motibazioetan –*maila indibiduala*–, behinik behin (Martínez de Luna eta Jausoro, 1998: 97-99). Eta baliteke eragin hori areagotzea gaztetxoek kasuan, adin horietan jasaten ari diren sozializazioan erreferentetzat dituzten gizarte eredu garrantzia are handiagoa delako.

Hortaz, gaztetxoek gizarte ereduaren artean nagusitzen den hizkuntzak *ikaslearen jolaslekuko erabileran* ere nolabaiteko zerikusia duelakoan gaude, eta gure datuek ere horrela erakutsi digute. Gainera, beste horrenbeste gertatzen da ikasleek libreki botatako hizkuntza iritzi eta irudikapenekin [→ 4.5].

Halaber, gure ikerlan honen arabera, oro har, ikasleak bizi diren gizartean euskararen eta gaztelaniaren funtzio eta esparru banaketa nagusiaren nahiko jakitun direla iradokitzen dute datuek [→ 5.1]. Hortaz, ez da harritzekoa, arestian aipatu dugun lotura agertzea: *jolaslekuan* neurtu zaien erabilera altua denean, pertsonaia euskaldunak aukeratzeko joera handiagoa ere izatea. Kontuan hartzen bada ikasleen gustuko artista eta kirolarien gehiengo oso zabala erdaldunak direla, eremu horretako interbentzioa lagungarri gertatuko litzateke ikasleen hizkuntza-jardunerako.

Deigarria da, era berean, bikote-kidearekin eta seme-alabekin lehenesten duten hizkuntzan agertzen den aldea: euskararen ondorengotaratzeko aldera edo, belaunaldien arteko harremanetan euskararen garrantzia areagotzen bada ere, parekoen arteko harremanetan erdararen presentziak indarra hartzen du. Kalearen ispilu garbia, nonbait. Nor ausartuko litzateke esatera, neska-mutilen arteko harremanetan egin beharreko euskararen eta erdararen arteko hautuan, hizkuntzekiko gizarte irudikapen horrek zerikusirik ez duela?

Hortaz, euskara erabilia izan dadin funtsezkoak diren baldintzak behin asebeteta eta erabilera hori posible denean, beste ezaugarri batzuk (sexu/generoa eta gizarte irudikape-

³ “Ekosistema soziolinguistiko” kontzeptuari buruz gehiago jakiteko, ikus, adibidez, Suberbiola (2007: 9-13).

nak, adibidez) agertzen dira erabilerari lotuta. Lotura horiek ahulagoak izanagatik, euskararen ekosistemari³ ekarpen baliotsu bat ere egiten diote, era horretan hizkuntza horren bizi-baldintzak zabalduz eta sendotuz.

• Azken buruan

Pauso bat gehiago emanaz, zera esan dezakegu: orain arte hizpide izan ditugun 2005/2006ko datuetan antzeman eta frogatu diren lotura eta joera soziolinguistiko nagusiak berretsi direla Kasu Azterketa teknikaren bitartez 2006/2007 ikasturtean bildutako informazioan. Eta azken ahalegin horretan modu kualitatiboan aztertutakoaren ondorio nagusiak honako hiru hauek dira [→ 8.2]:

1. Ikasleak bere ingurunean (familiar, herrian eta ikastetxean) bizi dituen baldintza soziolinguistikoen eta eskola giroko euskararen erabileraren artean lotura garbia dagoela.

Izan ere, eskola ingurune jakin baten ispilua da, neurri batean bederen. Hala ere, gizartearen ispilua bai, baina ez pasiboa, izan ere:

2. Ikastetxearen lana eta giroa, neurri batean, familia eta herriaren baldintzapen orokorrak gainditzeko gai dira, ikasleen jolaslekuko hizkuntza-portaeran duten eraginari dagokionez.

Hau da, eskola gizarte ingurune soziolinguistikoarekin harreman estuetan egon badago, baina ez erabat baldintzaturik; badu eragin-tarte autonomia, beste hainbat eremutan bezala, hizkuntzarenean ere.

Hortaz, hizkuntza bere ingurune *mikrosozialean* zein *makrosozialean* ulertu behar da. Horien guztien erabilera-baldintzak hobetzeko ahaleginak lagungarriak izango dira *ikaslearen jolaslekuko erabilera* zein beste egoeretako erabilera areagotzeko, betiere *maila indibidual*eko ezaugarrien hobekuntzek ere euskararen erabilera hobetzeko eskaintzen duten aukera bazterrean utzi gabe.

3. Kasuen aniztasuna berresten da. Kategorizazio eta estandarizazio guztien gaine-tik ikastetxe, herri eta familia multzo bakoitzaren giroa osatzen duten xehetasunek lekuan lekuko erabilera jakinarekin hainbat lotura dituzte, eta ondorioz ezinezkoa da oinarritzko ezaugarri orokor batzuen arabera ikasleen jolaslekuko erabilera mekanikoki auresatea (gutxieneko fidagarritasun maila batekin).

Azken buruan, hizkuntza-erabilerari loturik dauden osagaiek *continium* aberats eta konplexu bat osatzen dute hiru mailetan eta *continium* horren baitan dauden elementu askoren egoeran, zuzenean zein zeharka, eskolak badu zeresan garbia.

1.3 ARRUE ikerketaren emaitzak kontuan hartuta eskolaren interbentzioari buruz egindako hausnarketa

Ikerketaren emaitzen irakurketak lehen mailan jartzen du, ez bairik gabe, maila mikroan eragin beharra, taldean eragin beharra. Izan ere, taldearen hizkuntza-erabilera erabateko eragile gisa agertzen zaigu, taldeko ikasle bakoitzaren erabileraren adierazle gisa.

Emaitza argi horrek eraman gaitzake interbentzioak taldean planteatzera, maila mikroan, baina, horretara itsu-itsuan jo aurretik, bi motatako hausnarketak egin behar dira. Batetik, adierazlearen izaera bera da hausnar-gaia, eta, bestetik, gaur egun maila bakoitzean (makro, mikro eta indibidualean) interbentziorako dauden edo egon daitezkeen moduak eta aukerak. Bide batez, aztertu behar da, baita ere, interbentzio horietako zeinetan dagoen eskolaren esku eragile izatea.

Taldearen hizkuntza-portaera norbanakoaren erabileran eragile nagusia dela aurre ikus-tekoa zen ikerketarik gabe ere. Eta horrela agertu da ikerketaren emaitzan ere. Talde hur-bilaren jokamoldea norbanakoarentzat bere eguneroko ingurumaria izateaz gain, norba-nako horren portaeran jarraitu beharreko eredu bihurtzen da taldea ezinbestean. Zer da azken batean talde bateko kide sentitzea, integratua sentitzea, onartua sentitzea...? Zoritxarrez, proiektuak aniztasunetik partekatzea ez da guk ezagutzen ditugun talde gehienen oinarria. Ohiturak eta portaerak dira normalean partekatzen direnak, eta, ondorioz, kideekiko berdintasuna da taldekide sentitzeko elementurik funtsezkoena.

Egoera horretan, taldearen hizkuntza-portaera, agian, ondorio gisa tratatu beharko genu-ke, Arrue moduko ikerketetan, aztertu eta neurtu beharreko ondorio gisa, eta ez hain-beste erabileraren adierazle-gisa. Horrek guztiak eragina du, dudarik gabe, interbentzio moldea planteatzeko garaian.

Maila makroan, mikroan ala indibidualean ezarri behar ditugu interbentzio estrategiak? Horixe da funtsezko galdera, erabilera areagotzeari begira ari garen guztion artean argi-tu beharrekoa.

Hiru mailetan dago eragin beharra, dudarik gabe. Baina, nondik eta nola? Azter ditzagun aukerak maila bakoitzean.

Maila makroan gizarte osoa sartzen da: familia, auzoa, herria, lurraldea, erkidegoa... komunikabideak, publizitatea... Hori guztia sartzen da maila horretan, eta guztiongan du etengabeko eragina. Eskolan ere etengabeko eragina du; ikasleek hizkuntza horri buruz dituzten uste eta aurreiritzi asko maila makro horretatik ezarrita datoz. Irakasleen kasuan, berdin. Horien espektatibak ere maila makrotik bideratzen dira askotan.

Gurasoak ere gizarte horretako partaideak direnez, maila makroko ideiak partekatzen dituzte, onerako eta txarrerako.

Garbi dago horrek eragina duela eskolan. Elementu bakoitza maila makroko eragile horien eraginpean dago, eskolan sartu aurretik ere. Eskola bera ere makro horren jarraipena bihur-tzen da gelako talde mikroa osatzeko bidean, nahiz eta agian ez norabide berekoa.

Pertsona batengan oihartzuna duen gizarte ekimen orok osatzen du maila makroko eragile hori (maila mikrokoak barne). Hortaz, maila horietako interbentzioa zaila eta oso epe luzekoa izateaz gain, hainbat aurre-baldintza eskatzen ditu, eraginkorra izango bada:

Gizarte mailako adostasun sozio-politiko zabala.

Komunikabideen arloko estrategien norabideak adostasun horrekin bat etortzea.

Kontsumo aukerak hizkuntza horretan ere izatea.

Proiektuak eta helburuak partekatuak izatea, ondo adieraziak eta herritarren inplikazioa bilatzen dutenak. Publizitatea ere horretara bideratzea.

Sentsibilitate guztiak kontuan hartu eta bakoitzarentzat zerbait positiboa bilatzea.

Interbentzio mota hori antolatzen ez bada ere, maila makroko bilakaerak gertatu egiten dira gizartean. Aldaketa horien bilakaera da aztertu behar duguna. Hizkuntzaren erabileraren kasuan, gertatzen ari diren bilakaerek erabilera bultzatzen al dute? Ala, alderantziz?

Hizkuntza gutxituen kasuan, garbi dago maila honetan interbentziorik gabe arrisku nabarmena dagoela bilakaera horiek oso aldekoak ez izateko, are eta gehiago gizarte globalizatu honetan, non jendeak balioztat dauzkan: maila praktikoa, denboraren ekonomia, erosotasuna...

Zer egin dezake eskolak maila makro honetan?

Eskolak, atetik barrura, kanpoan ez dagoen bestelako hizkuntza-egoera eskaintzen duenean, gizarte mailan dagoen ideia makroarekin bat egiten du; "Euskara eskolako gauza da". Alde horretatik, erabilerarako ingurua eta aukerak eskaintzeaz gain, ezer gutxi egiten du gizarte mailako ideia makroak aldatzeko.

Eskola gurasoekin egiten ari den saio txalogarriek ere oso eragin mugatua dute maila makroan. Ez dugu ahaztu behar gurasoak, guraso izateaz gain, herritar direla horren aurretik, eta hortik edaten dutela maila makroan.

Hala ere, eskolak inguruko gizartean eragiteko duen ahalmena ez da berdina, hiri bateko eskola izan edo herri txiki batekoa izan. Herri/auzo txiki bateko eskolak eragina izan dezake herri/auzo horretako kideek hizkuntzarekin duten ikuspegi makroaren bilakaeran: guraso-eskolak, hitzaldiak...

Garbi dago, gaur-gaurkoz, zaila dela hemen planteatzen dugun maila makroarena, eta oraindik ere eginkizun dugula. Hezkuntzatik horren beharra aldarrikatzea dagokigu. Maila makroko bilakaerek, dudarik gabe, aldaketak ekarriko dituzte eskola mundura.

Heldu diezaiogun orain arlo mikroan, taldean, interbentzioak egiteko gaiari.

Arestian aipatu dugu gakoa taldearen ezaugarrietan dagoela. Baina zer da taldea talde egiten duena? Espazio bat, ohitura batzuk, portaera batzuk partekatzea...? Ala talde gisa duten proiektu bat da partekatzen dutena? Galdera horren erantzunean dago interbentziorako gakoa.

Taldeak proiektuak eta helburuak partekatzen baditu, horien bidez balioak adostu eta ondoriozko portaerak izango ditu. Horrelako izaera duen talde batean interbentzioa egitea ez da zaila. Proiektuen metodologian oinarritutako bidea oso da eraginkorra, horretarako. Proiektua lantzeak taldea eraman dezake usteak eta aurreiritziak aztertzerara eta balio berriak antzematera. Taldeak berak har ditzake erabakiak, talde-erabakiak, portaeretan eragina duten erabakiak, talde izaeran aldaketa adostuak dakartzaten erabakiak.

Aldiz, taldearen funtsa ez bada hori, baizik partekatzen diren espazioak, ohiturak eta portaerak, nola interbenitu? Molde horretan ari gara eskolan etengabe. Eta, horrela, geratzen zaigun aukera ia bakarra espazioak aldatzea da. Oraingo gela-moldeak ez digu balio. Ohiturak eta portaerak aldatzeko, espazio berriak behar ditugu: aisialdia, jolastokia, barnetegiak, gelaz kanpoko ekintzak... Modu horretan, agian lortuko dugu aldaketa. Baina lortuko al dugu taldearen portaera luzera aldatzea?

Zoritxarrez, proiektuetan oinarritutako metodologia eraginkorrak ez daude oso hedatuta gure eskoletan. Horrek dezente zailtzen du maila mikroan, taldean, eragiteko aukera.

Irakasleari edo irakasle taldeari dagokionez ere, antzeko zerbait gertatzen zaigu. Eskolaren eginkizuna irakasleek partekatutako proiektua denean, erraza gertatuko zaio irakasle taldeari hizkuntza-helburuak jartzea. Baina, horrela ez denean, zaila oso.

Maila makroan zaila baldin badugu eskolatik eragitea, eta mikroan ere zailtasunak baldin baditugu, maila indibiduala geratzen zaigu. Nola egin interbentzioa maila indibidualean?

Ikasleak hizkuntzarekin dituen harremanak, bizipenak, emozioak, afektibitatea... da berriaz zaindu behar duguna. Hizkuntza gozatu, maite eta bizi badu, ziur izan gaitasunean aurrera egiteko gogo sortuko zaiola, baliotzat baitu hizkuntza. Horrek ekarriko du ikasle horren hizkuntza-portaeran aldaketa, baina, betiere, kontestuaren arabera, irakasle horrekin, monitore horrekin, bakarka... "Irakaslearen portaera da ikaslearen portaeran eragin handiena duen eragile indibiduala", halaxe esan zigun The Elton Report ikerketak 1989an.

Noiz aldatuko da taldearen erabilera? Ez dago garbi! Maila indibidualean egindako interbentzioek ez dute zertan izan bat-bateko eragina hiztunaren portaeran, are gutxiago taldearen portaeran. Askotan, luzera begira egindako interbentzioak dira. Molde horretan lana eginez talde mailako hizkuntza-ohiturak aldatzen badira, ondo egindako lanaren ondorioen aurrean gaude. Gainera, ondorio horiek oso iraunkorrak izango dira.

Hori guztia baliagarria da, taldearekin aplikatzen ari garen metodologia edozein dela ere. Eta edozein espaziotan aplikatu daiteke: gelan, jolastokian, aisialdian, barnetegietan, gelaz kanpoko ekintzetan...

Irakaslearekin ere maila indibidualean interbenitu beharra sumatzen da. Irakasleen espektatibak, usteak, frustrazioak, nekeak..., mahai gainean jarri behar dira. Ilusioa sortzen duten proiektuak eta metodologiak eskaini behar zaizkie. Saiakerarako askatasun eta konfiantza handia eskaini behar lieke hezkuntza-sistemak bere irakasleei. Irakaslearen irudia ere zaindu eta babestu beharrekoa da maila makroan.

Gurasoekin ere maila indibidualera iristen diren estrategiak izan daitezke eraginkorrenak. Eskolatik ez dugu gurasoengana joan behar, zer egin behar duten esatera. Entzun egin behar ditugu gurasoak, nola sentitzen diren, zer sentitzen duten, zein beldur dituzten... Hori guztia da entzun eta aztertu behar duguna. Orduan, agian, gai izango gara beraien usteak, aurreiritziak, beldurrak, mugatzaile izatetik indargarri izatera eramateko.

Bide horiek dira dagoeneko hainbat eskolatan eta proiektutan saiatzen ari direnak: Hezkuntza emozionalaren bidea hainbat eskolatan, eraldatze-saioak edo reflekt-ekintza metodologia Ulibarri programan, Euskal Giroitze Barnetegien norabide berria...

Eta hezkuntza mundutik kanpora ere bai: Euskalgintzan, Kataluniako Planes d'entorn, Valentiako Telp tailerretan... antzeko ondorioetara eta metodologietara hurbiltzeko saioak antzematen dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi eskolan orain arte egiten ari garena egin behar ez dugunik. Erabileraren kontuan jarduera berbera eginez, helburu kuantitatiboen atzetik ibili ordez, helburu kualitatiboari gehiago erreparatzea esan nahi du. Adibide gisa, eskolaz kanpoko antzerki saio bat prestatzen ari banaiz, gehiago erreparatu behar diot ikasle horien mundu emozionalari, prestakuntza saioen atsegintasunari, bizipenaren bikaintasunari, ikasle eta irakaslearen asebetetzea euskarazko ekimen horrekin itsatsita geratzeari... Eta ez hainbeste, hizkuntzaren erabilera ziurtatzeari, gidoiaren bikaintasunari, antzezlanaren kalitateari... Hala ere, horrek ez du esan nahi batari kasu egiteagatik bestea ahaztu behar dugunik.

Eta horri guzti horri izugarrizko balio erantsia gehituko genioke, baldin eta proiektua gure proiektua izatetik ikasleek berea dela sentitzera eramango bagenu, irakaslearena izatetik ikasleena izatera pasako balitz. Balio erantsi handia emango genioke, gure irakasle izaeran, ikasleek beraiena sentitzen duten talde proiektu baten laguntzaile izango bagina, beraiek partekatzen duten talde proiektu batena.

2. ARRU Eren aztergaia eta emandako pausoak

2. ARRUEn aztergaia eta emandako pausoak

2.1 Zein da Arrue-ren aztergai nagusia?

Arrue Programaren aztergai nagusia ikasleen hizkuntza-erabilera da. Zehatzago esanda, honako galdera honi erantzun nahi zaio:

Zergatik da haur eta gazteen hizkuntzen erabilera den bezalakoa eskolako testuinguruan?

Irakasleen eta hezkuntza-arduradunen artean badago beste galdera bat, ezagun-ezaguna, aurreko horren oso hurbilekoa, eta honela labur daitekeena:

Zergatik egiten dute gure ikasleek (kasu askotan etxetik euskaldun izanda eta D ereduan ikasita) hain sarri erdaraz?

Begien bistakoa da ikasle guztiek ez dutela, eskola giroan, euskara eta gaztelania neurri berdinean erabiltzen. Eta gauza jakina da, badirela haurren eta gazteen ezaugarri batzuk, beren hizkuntza-erabilera era batekoa edo bestekoa izan dadin errazten edota zailtzen dutenak. Ezaugarri horiek, erabilera ikertzeko orduan, *aldagai* gisa hartzen dira.

Esate baterako, *aldagai* horietako bat izan daiteke, euskara edo gaztelania etxean lehen hizkuntza gisa ikasi duten edo ez. Beraz, *lehen hizkuntza* zein izan den *aldagai* bat litzateke, eskolako testuinguruan bere hizkuntza-portaera den bezalakoa zergatik den azaltzen lagunduko diguna, *aldagai* horrek erabilerarekin lotura duen neurrian.

Baina, dakigunez, ez da *aldagai* bakarria. Adina, adibidez, beste bat da. Ikasle batek, bere eskola garaian, neurri berdinean erabiltzen al ditu euskara eta gaztelania 6 urterekin eta 16rekin? Kasu askotan behintzat, ez. Beraz, adina izan daiteke beste *aldagai* bat, bere erabilera aztertu nahi badugu kontuan hartzekoa.

Aipatutako bi ezaugarri edo *aldagai* horiez gain, badira beste asko: bizi den herri edo eskualdea zenbateraino da euskalduna? Irakaskuntza bera zein eredutan jasotzen du? Herriko lagunekin zein hizkuntzatan hitz egin ohi du? Nolako hizkuntza-gaitasuna du idatziz... eta ahoz?... Zerrenda asko luzatu daiteke. Eta guztiak lirateke ikaslearen edo bere ingurunearen ezaugarriak, *aldagaiak*, eskolako testuinguruan haur edo gazte horren hizkuntza-erabilera den bezalakoa izatea bultzatzen dutenak, neurri batean edo bestean. *Aldagai* horien azterketak ez digu esango erabilera mota bakoitza zergatik gertatzen den, baina erabileraren eta *aldagaien* arteko loturarik ba ote dagoen ongi jakiteak informazio oso baliagarria emango digu gure erantzunak eraikitzeko.

Horrela, bada, hasieran egindako galdera gehiago zehaztu dezakegu:

Zein dira lotuenak dauden aldagaiak, eskolako testuinguruan, ikasleek duten euskarazko erabilerari?

Galdera nagusi horren inguruan, badira beste osagarri batzuk ere:

- Aldagai horietariko bakoitzaren lotura erabilerarekin zenbatekoa da?
- Ikasle-tipologia eta egoera ezberdinetan berdina da lotura hau? Nolakoa da kasu bakoitzean?
- Erabilerarekin bakoitzak duen harremanaz edo loturaz gain, nolakoak dira aldagaien arteko harremanak?
- Eta abar.

Horiek dira, beraz, azterketa hau gidatzen duten galdera nagusiak. Jakina, galdera horiek guztiek ez dute erantzun bakarra. Eta asmoa ere ez da guztiei kolpe bakarrean erantzutea.

Ondorengo ataletan ikusiko duzue, galdera nagusi horien inguruko informazio ahalik eta zehatzena lortzeko hautu batzuk egin dira. Hautu jakin batzuk, bai ikasleen adinari dagokionez, bai gainerako *aldagaien* informazioa jasotzeko moduari, lekuari eta abarri dagokionez.

• Galdera zailei...

... erantzun sinpleak, nekez!

Gizakion jokaerak eta gizarte-jokaerak hainbat *aldagaien* arabera joaten dira etengabe errealitate berrien aurrean eraldatzen. Baina pertsonok edo pertsona-taldeek gizartean dituzten jokaeren atzean ez da arrazoi bakarra egoten: normalean arrazoi edo indar batek baino gehiagok bultzatzen dute zerbaiten alde edo aurka egitea (arrazoi psikologikoak, gizarte-arauak, modak, pentsamoldeak, euren inguruneari buruzko informazio berrien aurrean gizakien jokabide aldakorra...), eta indar horien guztien emaitza da pertsona edo talde baten jokaera konkretu bat. Alde horretatik, fisikan edo kimikan ez bezala, gizarte zientzietan oso zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, *eredu kausalak* eratzea.

Hizkuntza-erabilera edo hizkuntza-jokaera ere gizakion arteko jokaera da, inon halakorik bada! Eta maila horretan, gizarteko beste edozein jokaerarekin batera gertatzen dira hizkuntza-jokaerak ere. Bai gizartean, oro har, eta baita eskola giroan haur eta gazteen artean ere.

Hori horrela, 2. atal honen hasieran egin dugun galderak, hau da: *ZERGATIK da ikasleen hizkuntzen erabilera den bezalakoa?* galderak, ez du erantzunik. Erantzun bakarra eta sinplea behintzat, ez. Gaur arte gizarte zientziek garatu duten ezagutzarekin, ez daukagu tresna, metodologia... edo formula magikorik, ez hizkuntza gaietan eta ez bestelako gizarte jokaera askotan ere, ZERGATIK galdera horren erantzuna zuzenean, modu zorrotzean eta fidagarritasunez emango digunik.

Eta nola jokatzeko da, orduan, gizarte zientzietan hizkuntza-jokaeraren antzekoak izan daitezkeen fenomenoak ikertzeko? Labur esateko, aztertzen da interesatzen zaigun jokaera zenbat, noiz eta nola gertatzen den, eta horrekin batera aztertzen da hori zein beste aldagairekin batera gertatzen den. Beste era batera esanda, ikertzen da, ezagutzen ditugun aldagaietako baldintza bakoitza ematen denean, aztertzen ari garen hori gertatzen den

edo ez den gertatzen. Gure kasuan, eskola giroko hizkuntzen erabilera. Modu horretan, ikertze horretatik erabilitako aldagaiekin gure gertaerak dituen loturak ezagutu daitezke, neurri handian. Loturei buruzko datu zehatz eta fidagarri horien gainean eraikitzen dira *zergatik* galderei buruzko erantzunak.

- **Zer baldintzatan gertatzen da? ≠ Zergatik gertatzen da?**

Ikusten badugu, A fenomeno gertatzen den bakoitzean B ere gertatzen dela, eta hori askotan gertatzen bada, motiboa dugu pentsatzeko A noiz gertatzen den aztertuta, hor nonbait, jakingo dugula B noiz gertatuko den. Baina horrek ez du esan nahi B A-k eragiten duenik, A gertatzen denik. Esan nahi du A gertatzen den askotan B ere gertatzen dela, eta gu B-n interesatuta gaudenez, A noiz gertatzen den jakiteak aukera ematen digu pentsatzeko B ere gerta litekeela.

Adibidez, demagun guk ez dakigula noiz etorriko den uda aldia edo eguraldi onaren garaia (gure B gertaera). Guk ikusten badugu dendetan bikiniak salgai jartzen dituztenean (A gertaera), hortik gutxira eguzkiak ondo jotzen duela, ba...; noski, eguzkiak ez du jotzen bikiniak salgai jarri direlako! Baina eguzkia edo uda garaia noiz etorriko den jakiteko ez da iragarle txarra bikiniak salgai noiz jartzen dituzten aztertzea. Gertatu egiten da eta!

Era berean, eskola giroko hizkuntzen erabilera neurtzen badugu, eta horrekin batera ikasle horien eta beren ingurunearen beste hainbat aldagai, gizarte zientzien ezagutza erabil dezakegu aldagai horien eta erabilera horren arteko harremanik ba ote den jakiteko. Hori aztertzeak ez digu emango erabilera hori *zergatik* gertatzen den, baina bai esango digu gertaera horrek (erabilerak) aztertutako beste zein aldagairekin duen lotura estuena, eta zeintzuekin dagoen besteekin baino gutxiago lotuta. Eta lotura horiek ezagutzea aurrerapauso handia da.

Bide horretatik ekin zaio Arrue programa honetan eskola giroko erabilera ikertzeari. Kezka eragiten diguten beste gai askotan bezala, honetan ere *erantzun sinpleak eta azkarak* nahi izaten ditugu. Eta seguruena hori ez da erabileraren gaian lagungarri izango zaizkigun erantzunak topatzeko abiapunturik onena.

Batetik, beraz, beharrezkoa da hizkuntza-erabilerak, gizarte-jokaera den heinean, duen konplexutasuna onartzea. Eta, bestetik, jakin behar dugu, ezagutza zientifikoaren aldetik, gaur arte oso-oso garapen mugatua izan duen jakintza-esparrua dela hizkuntza-erabilerarena; bai euskararen erabilera eta bai beste hizkuntzena ere, dakigun neurrian. Beraz, erantzun baliagarriak (hau da, lanerako lagungarriak) nahi badira, nahitaezkoa izango da probak egitea, metodologiak probatu eta sendotzen joatea, datu serieak osatzea eta, metodo zientifikoari dagokionez, horiek guztiak ahalik eta zorrotzenak eta zehatzenak izatea.

- **Gure “tresneria” sortzen...**

Izan ere, demagun ikasleek ingelesaren ezagutzan duten gaitasun-maila neurtu nahi dugula. Nola neurtuko dugu, zein tresnarekin? Zertan oinarrituko gara emaitza *onak*, *erdipurdikoak*

eta txarrak bereizteko? Gai horretan badira aurrez prestatutako ariketak, testak, ebaluazio-irizpideak... eta, gainera, test horietako bakoitzaren atzean esperientzia eta ezagutza handia dago pilatuta: norbaitek sortu zituen, gero hobetu, gero bere diseinua beste test batzuen diseinuekin alderatu, gero milaka ikasleren artean pasa, emaitza horiek beste milaka ikaslerekin erabilitako beste test batzuen emaitzekin alderatu... Guk test bera hartzen dugu eta ez du ematen beste munduko ezer: "50 galdera ximple besterik ez dira eta!". Bai, baina galderatxo horiek esperientzia eta ezagutza zabal baten emaitza dira, eta behin eta berriz frogatuta dago galdera horien erantzunetan *halako* neurria ematen duenak ingelesez *hainbesteko* gaitasuna duela, gutxi gora behera.

Hizkuntza-gaitasunak, dena den, trebetasun konplexuak dira. Eta horiek modu sinplean neurtzea ez da lan erraza. Baina gaur egun hainbat tresna ditugu eskura horretarako. Ez ingeleseko gaitasunak neurtzeko bakarrik, baita euskarako gaitasunak neurtzeko ere. Besteak beste, horretan azken 15-20 urtean milaka proba egin direlako, eta gaian aditu diren langile askok urtez urte beren ahalegina horretan eman dutelako.

Hizkuntza-erabilera ez da ezagutza baino aztergai sinpleagoa. Izatekotan, aldakorragoa da eta, beraz, aztertze konplexuagoa.

Horrela, Arrue programa hau abian jartzean ez da bilatzen eskola giroko hizkuntzen erabilerari buruzko *erantzun sinple, azkar eta bakar bat*. Gehiago bilatzen dira *erantzun partzialak* edo *hurbilpenak*, horien argitan egindako *galdera zehatzagoak*, eta galdera horiek modu ahalik eta sinpleenean erantzuten lagunduko diguten tresnak: ongi ulertzen diren galdetegiak, adinera eta hiztun tipologia bakoitzera egokituak, erabilera neurtzeko modu eraginkorrak, datuak interpretatzeko eskema edo kontzeptualizazio teorikoak...

Horiek guztiak osatzen joatea bide bat da, urratsez urrats egiten joatekoa. Lan honetan laburtzen den Arrue Programaren orain arteko bidea norabide horretan abiatua da, baina jakinda galdera handiak direla, eta, horiek erantzuteko, orain arteko tresneria edo *makina*, mugatua eta txikia. Apaltasun osoz, beraz, eta muga horien jakitun aurkezten dira orain arte egindako urratsak, jaso diren datuak eta egindako analisien ondorioak.

2.1 atala, LABURPENA

Irakaskuntzako lankide askoren kezka da *Zergatik da ikasleen euskararen erabilera den bezalakoa?* Galdera nagusi hori ipar duela eratu da ARRUE programa. Galdera hori ezin da zuzenean erantzun, baina gizarte zientzien ezagutzak eta metodologiak eskaintzen digute horretara hurbiltzeko aukera. Erabileraren gaia bide horretatik aztertze tresneria bat garatu da azken lau ikasturteotan programa honetan. Tresneria horri esker, eskola giroko erabileraren eta ikasleen beste ezaugarrien edo aldagaien arteko loturak nolakoak diren aztertu da, eta egindako analisien ondorioak atera. Tresneria hori urtez urte fintzen eta datuak aztertzen jarraituta, eskola giroko ikasleen erabilera horri buruz gero eta informazio fidagarriago eta aberatsagoa lortzen da, ikasleen hizkuntza-jokaerak interpretatzeko erreferentziak ere eskuratuz.

2.2 Zein pauso eman dira programa abiatu zenetik?

- **Lehen urratsak...**

Beste hamaika proiekturen antzera sortu zen Arrue Programa, aurrean galdera eta egiteko asko zituela eta, horiei ekiteko, atzean ilusio eta gogo handia.

2003-04 ikasturtean eman zituen programa honek lehen urratsak. Ordura arte eskola giroan erabilera eta ikasleen beste aldagaiak aztertze eginda zeuden lanak aztertze ekin zitzaion, eta ikasturte hartan bertan lehen datu jasoketak ere egin ziren. Ez zen, ordea, egoki ikusi datuak zuzenean ikastetxeetan jasotzen hastea eta "tarteko" bide bat hartu zen: neurketak Euskal Girotze Barnetegietan egitea.

Lehen ikasturte hartan, 11-12 urteko ikasleekin egin zen azterketa (Lehen Mailako Hezkuntzako 6. maila), Espejo, Plentzia eta Elgoibarko barnetegietan, hurrenez hurren A, B eta D ereduko talde bana aztertuz. Galdetegiak pasa ziren eta barnetegietako begiraleek erabileraren behaketak egin zituzten. Horrez gain, jangelan ikasleen erabilera bideoz ere grabatu zen: beren euskara-gaztelaniaren arteko *alternantzia* neurtzeko lehen saioa izan zen.

- **2004-2005: adituen lantaldeak eta 5 Euskal Girotze Barnetegi**

Hurrengo ikasturtean (04-05) adin ezberdinetako ikasleen azterketa egin zen, batetik, eta horrez gain, metodologiako tresnak lantzeko eta hobetzeko bost lantalde antolatu ziren adituekin, bost gai hauen inguruan:

- *Hizkuntza-gaitasuna* lantaldea: ikasleen euskarazko gaitasuna nola neurtu eta ebaluatu.
- *Hizkuntza-jarrerak* lantaldea: ikasleen euskara eta gaztelaniarekiko jarrerak aztertu.
- *Neurketa modua* lantaldea: hizkuntza horien erabilera neurtzeko moduak baloratu eta proposatu.
- *Hizkuntza-alternantzia* lantaldea: euskara eta gaztelaniaren arteko alternantziak nola neurtu eta sailkatu.
- *Diseinu orokorra* lantaldea: atal horiek guztiak koordinatu.

Lantalde horietan gai bakoitzaren inguruan adituek ezagutzen zituzten erreferentziak bildu, kontrastatu eta proposamenak egin ziren.

Horrekin batera, 04-05 ikasturtean datu jasoketa zabal bat egin zen, aurreko urteko esperientzian oinarrituta, eta lantalde horietan definitu ziren proposamen eta irizpideak kontuan hartuz.

04-05 ikasturteko jasoketan ikasleen adina zabaldu egin zen, eta lagina askoz handiagoa izan zen. Datu jasoketa berriz ere Euskal Girotze Barnetegietan egitea erabaki zen, bost barnetegietan kasu honetan: Alkizan, Elgoibarren, Espejon, Plentzian eta Seguran (beraz, A, B eta D ereduko ikasleekin).

Barnetegi bakoitzean 8 txandatako ikasleen azterketa egin zen, guztira 1.088 ikasle, 46 ikastetxetakoak, eta Lehen Mailako Hezkuntzako (LMH) 3. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailara bitartekoak.

Barnetegietako begiraleek erabilera informala behaketak egin zituzten eta ikasleek, haien gurasoek eta irakasleek hainbat galdetegi bete zituzten.

Ikasleen erabilera informala jolastorduetan neurtzeaz gain, barnetegietako irteera eta jarduerak jasotzen dituzten bideoak erabili ziren ikasleen erabilera "formala" neurtzeko. Bestalde, hizkuntza-alternantziari buruzko azterketan ere beste datu-bilketa bat egin zen, Plentziara eta Elgoibarrera joandako LMH6. mailako ikasleei 8 grabazio egin zitzaizkien, eta material guztiaren azterketa ere bai (B eta D ereduko 24 ikasle, hirukoteka jarrita).

Galdetegi bidez aurreko ikasturtean baino aldagai gehiago aztertu ziren, eta emaitzen tratamendu estatistikoan sakontzeari ekin zitzaion. Behatutako erabileraren eta aitortutako aldagaien datuak konbinatuz, erabileraren adierazle trinko bat sortu zen, eta beste aldagaiek harekin zuten lotura ordenatu egin zen, aldagaien erabilerarekiko lehen sailkapena osatuz.

Horrez gain, lantalde bakoitzak bere gaian datuak jasotzeko, eta ondoren horiek aztertzeko, zeuden aukerei eta mugei buruzko bere hausnarketak, ondorioak eta proposamenak eman zituen ikasturtean zehar.

• **2005-2006: lehen neurketa zabala ikastetxeetan**

Barnetegietako azterketa zabala egin ondoren, 05-06 ikasturtean ikastetxeetan lehen neurketa egitea erabaki zen, eta horretarako maila bakarreko ikasleak hautatu ziren: LMH6. mailakoak.

Ulibarri programan diharduten eta adin horretako ikasleak dituzten ikastetxeei eman zitzaizen ikerketan parte hartzeko aukera, eta horretarako interesa agertu zuten 47 ikastetxeetan egin ziren datu jasoketak. Izan ere, ordura arte garaturiko metodologia aplikatzeko, beharrezkoa zen ikastetxeen inplikazioa, eta, beraz, argi zegoen, datu guztiak jaso ahal izateko, gai horretan interesa adierazi zuten ikastetxeekin lan egitea zela egokiena.

Guztira 2.043 ikasleri buruzko informazioa bildu eta aztertu zen. Dena den, erabileraren inguruko azterketa 1.325 ikasleren datuetan oinarrituta egin zen (42 ikastetxetakoak), izan ere zenbait ikastetxek erabaki zuten proposaturiko galdetegiaren batzuk soilik egitea.

Ordura arteko bideari jarraiki, ikasturte horretan ere hainbat lan eta hobekuntza metodologiko egin ziren. Garrantzizkoenak aipatzearren:

- Ikasleen euskarazko hizkuntza-gaitasuna neurtzeko Atari proba sortu zen.
- Ikasleek euskaraz zuten ahozko eta idatzizko gaitasuna neurtzeko probak diseinatu eta ebaluaketarako irizpideak finkatu ziren.
- Ikasleen euskararekiko eta gaztelaniarekiko iritziak ezagutzeko ordenagailu bidezko proba diseinatu eta egin zen.
- Erabilera bi egoeratan behatu zen: jolaslekuan eta gela barruan.
- Espero gabeko egoera batean ikasleen hizkuntza-erreakzioak nolakoak ziren grabatu zen bideoz.
- Datu guztiak kodetze sistema beraren bidez lotu ziren, ikaslearen erabileraren eta gainerako aldagai guztien arteko harremana aztertu ahal izateko.

– Ikerketa koordinatu ahal izateko, prestakuntza-koordinazio saioak egin ziren Eibarren ikastetxeetako ordezkariekin, datu jasoketarako irizpideak eta beharrezko prestakuntza uztartuz.

Ikasle bakoitzaren eta bere taldearen gela barruko eta jolaslekuko erabilera behaketa bidez jasota, eta beste ehunetik gora aldagaiaren datuak prozesatuta izanik, mendeko aldagaiaren –beste era batera esanik, aztergai nagusiaren– definiziorako eta gainerako aldagai guztiekin konparaketarako aukerak aztertu ziren.

- **2006-2007: Kasu Azterketa 7 ikastetxetan, analisi estatistikoak eta garapena**

Aurreko hiru ikasturteetan Arrue-ren azterketak *kuantitatibo* esaten zaion informazioan oinarritu ziren; hau da, aztertu nahi ziren ezaugarri edo *aldagai* gehienak zenbakietara ekartzen dira, eta beraien arteko harremanak estatistikoki aztertu. Baina badira zenbakietara ekartzeko zailak diren aldagaiak: esate baterako *giroa* edo *baloreak*. Halakoak aztertzeke, gizarte zientzietan azterketa *kualitatiboak* egin ohi dira.

06-07 ikasturtean, ordura arteko informazio *kuantitatiboa* osatzeko, azterketa *kualitatibo* bat egin zen: Kasu Azterketa bezala ezagutzen den metodologiaren bitartez. Aurreko ikasturtean programan parte hartutako ikastetxeetatik 7ri proposatu zitzaien azterketa hori, eta aurreko ikasturteko datu jasoketa LMH6ko talde banatan errepikatzeaz gain, elkarrizketa egin zitzaien eskolako hainbat ordezkari, modu horretan ikastetxearen barne-errealitatera hurbilduz.

Bestalde, 05-06 ikasturteko datuetan oinarrituta, erabileran eragiten duten aldagaiak aztertu eta interpretatu ahal izateko eredu teoriko bat landu zen. Oinarri teoriko bat hautatu zen lehenik, ikasleen eskola giroko erabilera kokatzeko balioko ziguna, eta, jasota zegoen informazio guztia eredu horren arabera *irakurri* ahal izateko, behar ziren kalkuluak egin ziren.

Azkenik, lau ikasturteko Arrue programaren ziklo honi amaiera emateko, ordura arte eginitako lanak eta erabilitako materialak bildu eta horien inguruko azalpenak prestatu ziren, eginitako ibilbidea hezkuntzako eragileekin partekatu ahal izateko.

2.2 atala, LABURPENA

2003-2004 ikasturtean hasita, lau ikasturteetan zehar hainbat informazio bildu da Arrue programan (azkena 2006-2007an). Lehen bi ikasturteetan datuak Euskal Girotze Barne-tegietan jaso ziren, bertako begiraleen laguntzaz eta adin ezberdinetako ikasleekin.

Azken bi ikasturteetan, aldiz, datu jasoketak ikastetxeetara pasa dira eta guztiak LMH6ko ikasleen artean egin dira. Ikastetxeei aukera eman zaie eta beraiek erabaki dute askatasun osoz ikerketan parte hartu ala ez. Informazioa ikastetxeotako tutoreen laguntzaz jaso da.

Urtez urte, gero eta aldagai gehiago aztertu edota metodologia motak aldatu eta aberastu dira, tartean pauso horietako bakoitza nola landu, informazioa nola jaso eta nola ustiatu adituekin kontrastatuz eta erabakiz.

2.2.1 Zein pauso eman dira (laburpen-aula)

2.1 taula

Ikasturtez ikasturte jasotako informazioa eta egindako azterketa nagusiak (2003-2004 → 2006-2007)			
ikasturtea	Jasotako informazioa eta egindako azterketa nagusiak	Non?	Zenbat ikasle? Zein mailatakoak?
03-04	Gaiaren inguruko bibliografia aztertu		
	Metodologiaren diseinua		
	<ul style="list-style-type: none"> Datu jasoketa barnetegietan: <ul style="list-style-type: none"> - 31 aldagai aske Ikasleen arteko erabilera informala, behaketa bidez neurtua (barnetegiko begiraleek) Aldagaien frekuentziak aztertu ziren. Ez zen erabilerarekin loturarik egin 	Euskal Girotze Barnetegietan: <ul style="list-style-type: none"> - Espejon - Plentzian - Elgoibarren 	Espejon (A eredu): 16 ikasle Plentzian (B eredu): 21 ikasle Elgoibarren (D eredu): 20 ikasle Guztira, n=57 ikasle. (LMH6).
	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza alternantziaren azterketa: <ul style="list-style-type: none"> - Grabaketak (audioa eta irudia) eta datuen azterketa 	Barnetegietako jangeletan	(")
04-05	<ul style="list-style-type: none"> Adituen lantaldeak antolatu ziren, eta gai bakoitzaren datu jasoketa eta ebaluaziorako aukera metodologikoak aztertu ziren eta proposamenak egin: <ul style="list-style-type: none"> - <i>Hizkuntza gaitasuna</i> lantaldea: ikasleen gaitasuna nola neurtu eta ebaluatu - <i>Hizkuntza jarrerak</i> lantaldea: ikasleen hizkuntzarekiko jarrerak aztertu - <i>Neurketa modua</i> lantaldea: erabilera neurtzeko moduak baloratu eta proposatu - <i>Hizkuntza alternantzia</i> lantaldea: alternantziak nola neurtu eta sailkatu - <i>Diseinu orokorra</i> lantaldea: atal guztiak koordinatu - <i>Hizkuntza gaitasuna</i> lantaldean landuriko irizpideen arabera idazlanen ebaluazioa - <i>Jarrerak</i> lantaldean "prest egote aktiboa" neurtzeko proposamenaren lanketa - <i>Alternantzia</i> lantaldean, hausnarketaren ondorioak landu eta alternantzia moten sailkapen-proposamena egin. - <i>Diseinu orokorra</i> eta <i>neurketa</i>: neurketa modu pertsonifikatua jaso zen, ikasleen ezaugarriak 35 aldagai asketan bilduta. - Ikasleen hizkuntza gaitasuna neurtzeko, idazlanak eta ahozko grabazioak ebaluatu ziren, lantaldean adostutako oinarritzko irizpideen arabera. - Lehen sailkapena osatu zen, erabileraren adierazle trinkoarekiko asoziazio-mailaren arabera aldagaiak antolatuz. 	Euskal Girotze Barnetegietan: <ul style="list-style-type: none"> - Alkizan - Elgoibarren - Espejon - Plentzian - Seguran 	<ul style="list-style-type: none"> - Guztira 46 txanda (5 aurre-testerako + beste 41, barnetegi bakoitzean 8) - LMH3, LMH4, LMH5, LMH6, DBH1 eta DBH2ko ikasleak - n = 1.088 ikasle (multzoen bidezko laginketa)

Ikasturtez ikasturte jasotako informazioa eta egindako azterketa nagusiak (2003-2004 → 2006-2007)			
ikasturtea	Jasotako informazioa eta eginiko azterketa nagusiak	Non?	Zenbat ikasle? Zein mailatakoak?
05-06	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza gaitasuna neurtzeko tresnak prestatu eta ebaluazio-irizpideak landu ziren: <ul style="list-style-type: none"> -Atari proba sortu zen -Idazlanak egiteko eta ebaluatzeko diseinua eta irizpideak landu ziren -Ahozko gaitasunaren neurketak egiteko diseinua eta irizpideak landu ziren Gaitasun proben pasaketa eta ebaluazio modua koordinatzeko, 3 prestakuntza saio egin ziren Eibarren Jolaslekuko erabilera neurtzeko fitxak egokitu ziren. Gela barruko erabilera neurtzeko diseinua egin zen. Behaketak nola egin koordinatzeko informazioa eta irizpideak Eibarko prestakuntza saioetan eman ziren “Ustekabeko” egoeran ikasleen hizkuntza erreakzioa neurtzeko probaren diseinua egin zen. Grabazioak egin ziren 16 taldetan. Ahozko gaitasunaren grabazioak ere talde horietan egin ziren (N= 96) Galdera irekien bidez ikasleen euskara eta gaztelaniari buruzko iritzia jasotzeko proba diseinatu eta egin zen Ikasleen hizkuntzekiko gizarte-irudikapenak jasotzeko proba egokitu eta pasa zen Jasoketa guztia kodetze sistema beraren arabera lotu zen, erabilera indibiduala eta gainerako aldagaiak lotuz Ikasleen ezaugarriak 126 aldagai aske bidez jasota, erabilerarekiko asoziazio-mailaren araberako sailkapenak osatu ziren, erabilera mendeko aldagai gisa hainbat modutan aztertuz 	Ikastetxeetan: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 47 ikastetxe (105 talde)	<p>Parte hartu: 47 ikastetxe, 105 talde. n = 2043 ikasle. LMH 6.</p> <p>Erabileraren azterketa: 42 ikastetxe (74 talde, n = 1325 ikasle): A ereduko 4 talde, B ereduko 12 talde, D ereduko 58 talde</p>
06-07	<ul style="list-style-type: none"> Kasu Azterketa izeneko teknika aplikatzeko 7 ikastetxeren aukeraketa egin da, eta horrez gain, aurreko ikasturteko datu jasoketa kuantitatiboa errepikatu da <ul style="list-style-type: none"> Kasu Azterketa: ikastetxe bakoitzean 5 elkarrizketa sakon egin dira (guztira 35) Kasu Azterketa: ikastetxe bakoitzean 05-06 ikasturteko datu kuantitatiboen jasoketa egin da LMH6ko talde batean Erabileran eragiten duten aldagaiak aztertzeko eredu teoriko bat hautatu eta egokitu da Erabileran eragiten duten aldagaiak aztertzeko, zenbait analisi estatistiko burutu dira eta alderaketarako ibilbide estatistiko bat eraiki da Orain arteko emaitzen eta Arrue programaren berri emateko azalpenak, txostenak eta argitalpena prestatu da Arrue programaren eta bertan lortutako emaitza batzuen berri emateko <i>Language, culture and curriculum</i> aldizkarian artikulua bat argitaratu da (Vol. 21.1, 2008) 	Ikastetxeetan: 7 ikastetxe	<p>Analisi estatistikoak 05-06 ikasturteko ikasleen datuen gainean (n = 1325, 42 taldetan banatuta)</p> <p>Kasu azterketa 7 ikastetxetan: 1 Araban, 3 Bizkaian eta beste 3 Gipuzkoan (n = 138 ikasle)</p>

2.3 Nork egiten du Arrue? Nork parte hartu du orain arte?

Arrue Programa erakunde batzuen eta pertsona askoren ahaleginez garatu da orain arte. Erakundeei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila da programaren ardura nagusia duen erakundea. Zehatzago esanda, bertako Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzako Euskara Zerbitzua. Programa bere ekimenez eta bere babes osoarekin sortu eta garatu da.

Sail horrek eratu eta gidatu du ere, besteak beste, Ulibarri programa, eta bertako lanetan azken urteotan eskola giroko hizkuntza-erabileraren inguruan sortutako galderek, jakin-minak eta hobetu nahiek zerikusi handia izan dute Arrue programaren sorreran.

Erakunde horrekin bat egin du, programa hau aurrera ateratzeko, Soziolinguistika Klusterrak. Erakunde horren ardura izan da datu bilketa diseinatzeko, koordinatzeko eta teknikoki zein estatistikoki aztertzeke lana; baita emaitzen analisia eta horien interpretazioa eta txostenak idaztea ere.

Bi eragile horiekin batera, Arruek badu hirugarren hanka sendo bat: oro har esanda, Hezkuntza Komunitatea. Eta, askoz zehazkiago esanda, lau ikasturte horietan datu jasoketa horiek guztiak koordinatu eta aurrera atera dituzten ikastetxeetako eta Euskal Girotze Barnetegietako irakasle eta teknikari guztiak. Eta asko dira!

Bistan da, era honetako programa aurrera ateratzea ezinezkoa litzatekeela ikastetxe eta barnetegietako kideen partehartzerik gabe. Deskribatutako lau ikasturteetan datu jasoketarako galdetegi eta fitxak, eta horien erabilpenerako irizpideak prestatu, azaldu eta banatu dira. Koordinazio eta prestakuntza saioak ere antolatu dira horiek azaltzeko. Gero, ordea, galdetegiak betetzea eta behaketak egitea ikastetxeetan eta girotze barnetegietan bertan egin da, eta beraz bistan da hainbat eta hainbat irakasle eta teknikaririk lan handia egin dutela aipatu fitxak betetzen, erabileraren behaketak egiten eta galdetegiak pasatzen eta bidaltzen.

Partehartze horren zentzua, gainera, bikoitza da. Alde batetik, ezinbestekoa da informazio hori guztia programa garatu ahal izateko. Baina, bestetik, irakasle eta teknikarien prestakuntza ere programa honen helburu da. Hau da, programa honetan diseinatzen eta erabiltzen diren tresnak, irizpideak eta ateratzen diren datu eta ondorioak hezkuntzako eragileentzat dira. Izan ere, helburua, azterketa objektiboetan oinarrituta eta azterketa zientifikoaren laguntzarekin hizkuntza-erabileran hobetzen joatea baita.

Hiru hanka nagusi aipatu dira, baina ez dira bakarrak. Alde batetik, IRALEko lankideen laguntza azpimarratu behar da. Orain arte aipatu bezala, eskola giroko erabilera da programaren aztergai nagusia. Baina ez bakarra. Ikasleek euskaraz (eta gaztelaniaz) duten gaitasunak badu, noski, nolabaiteko lotura beren erabilerarekin. Gaitasun hori ahoz zein idatziz nola neurtu eta nola ebaluatu definitzeko IRALEko lankideen laguntza izan du programak. Eta tresnak prestatzen ez ezik, ebaluazio lanetan ere bai: ikasleen idatzizko eta ahozko gaitasun proba horietako asko eurek zuzendu dituzte, ikastetxeetako irakasleekin batera (bereziki 2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetan).

Horiekin batera, hezkuntza alorreko eta unibertsitateko hainbat irakasle eta teknikariren laguntza ere jaso du programa honek.

Hizkuntza-erabileran eragiten duten aldagaien azterketa metodo zientifikoaren urratsak jarraituz egiteak eraikitze lan handia eskatzen du, ondoren bere emaitzak baliatu nahi baiditugu. Alde horretatik, urtez urte beharrezkoa izan zaigu iritzia, ekarpenak eta lankidetzak eskatzea unibertsitatean eta hezkuntza arloan gai hauen inguruko ezagutza zientifikoa eta esperientzia zuten adituei.

Aditu eta aritu horien laguntza ere jaso du programa honek. Aurreko atalean aipatu bezala, 2004-2005 ikasturtean unibertsitateko irakaslez eta hezkuntzako adituz osatutako lantaldeak antolatu genituen gaika, irizpideak eta tresnak lantzeko. Horretaz gain, aurretik eta ondoren hainbat irakaslek lagundu du programa honetan, kasu batzuetan puntualki, beren iritzia eskatu diegunean, eta beste batzuen kasuan, modu iraunkorrean, zenbait gai lantzeko aholkulari gisa aritu baitira.

Lau ikasturteotako lanaren zikloa ixten den honetan, bihoazkie eskerrik beroenak lerro hauetatik aipatutako guztiei eta bakoitzari!

Azalpen orokor honetan ez da izenik aipatu, erakundeenak baizik. Bistan da, ordea, pertsonak direla beren laguntza eskaini dutenak. Ondorengo orrialdeko taulan ahalegin bat egin da orain arteko laguntza eta parte-hartze horiek guztiak laburbiltzeko. Horrelakoe-tan norbait aipatu gabe uzteko arriskua oso-oso handia izaten denez, kasu honetan ere gertatuko balitz, aurrez barkamenak!

2.3 atala, LABURPENA

Lau ikasturte hauetan (2003-2004tik 2006-2007ra bitartean) erakunde eta jende askok egin du lan Arrue programan.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren programa da Arrue, eta Soziolinguistika Klusterrarekin bat egin du lan hau aurrera ateratzeko.

Bi erakunde horiez gain, beste lankide askoren laguntza ere behar izan da lau ikasturte hauetako lanean: besteak beste, barnetegietako begiraleena, datuak jaso diren ikastetxeetako tutore eta irakasleena, IRALEko lankideena eta beren aholkularitza eskaini duten unibertsitateko irakasle eta profesionalena. Guztioi, mila esker!

Laburpen-koadroa 3

2.3.1 Programan parte hartu duten erakunde eta lankideak (laburpen-taula) 2.2 taula

Urtez urte ikerketan parte hartu duten lankideak eta erakundeak (2003-2004 → 2006-2007)		
ikasturtea	Zeregina	Lankideak (erakundea)
03-04	Jarraipen Batzordea (programaren Zuzendaritza, diseinua eta koordinazio orokorra)	<ul style="list-style-type: none"> - Mikel Zalbide (Hezkuntza Saila.) - Iñaki Artola (Hezkuntza Saila) - Santos Izagirre (Hezkuntza Saila) <ul style="list-style-type: none"> - Iñaki Martínez de Luna (SL Klusterra eta EHUko, Soziologia II) - Olatz Altuna (SL Klusterra) - Pablo Suberbiola (SL Klusterra)
	Datu jasoketa Euskal Girotze Barnetegietan (erabileraren behaketa, galdetegiak pasatzea eta koordinazioa)	- Elgoibar, Espejo eta Plentziako Barnetegietako monitoreak. (Koordinazioa Olatz Altuna (SL Klusterra))
04-05	Jarraipen Batzordea (programaren Zuzendaritza, diseinua eta koordinazio orokorra)	<ul style="list-style-type: none"> - Mikel Zalbide (Hezkuntza Saila.) - Iñaki Artola (Hezkuntza Saila) - Santos Izagirre (Hezkuntza Saila) <ul style="list-style-type: none"> - Iñaki Martínez de Luna (SL Klusterra eta EHU, Soziologia II) - Olatz Altuna (SL Klusterra) - Pablo Suberbiola (SL Klusterra)
	Hizkuntza Gaitasuna lantaldea Ikasleen gaitasuna ebaluatzeko aukerak landu eta proposamena egin	LANTALDEKIDEAK: Ibon Olaziregi (Hezkuntza Saila), Itziar Idiazabal (EHU), Itziar Elortza (Ikastolen Elkarte) eta Lore Erriondo (EHU). Koordinazioa: P. Suberbiola
	Hizkuntza Jarrerak lantaldea	LANTALDEKIDEAK: Estibalitz Amorrortu (Deustuko Unib.), Nekane Arratibel (HUHEZI), Nekane Larrañaga (EHU), Pello Jauregi (EHU). Koor.: P. Suberbiola
	Erabileraren Neurketa lantaldea	LANTALDEKIDEAK: Kontxesi Berrio-Otxoa (EHU), Rosa Ramos, Xabier Isasi (EHU). Koor.: Olatz Altuna
	Hizkuntza Alternantzia lantaldea	LANTALDEKIDEAK: Imanol Esnaola, Inma Muñoa (Ikastolen Elkarte), Kike Amonarriz, Lionel Joly. Koor.: P. Suberbiola
	Diseinu Orokorra lantaldea	LANTALDEKIDEAK: Iñaki Iurrebaso (Aztiker), Juan Etxeberria (EHU), Patxi Juaristi (EHU). Koor.: O. Altuna
	Datu jasoketa Euskal Girotze Barnetegietan (erabileraren behaketa, galdetegiak pasatzea eta koordinazioa)	- Alkiza, Elgoibar, Espejo, Plentzia eta Segurako Barnetegietako monitoreak (Koordinazioa: Iñaki Iturain (Hezkuntza Saila) eta Olatz Altuna (SL Klusterra))
	Estatistika Aholkularitza	- Juan Etxeberria (EHU, HIDM)
	Ikasleen ahozko grabazioen eta idatzen zuzenketa	- Lurdes Iribar (IRALE)
	Grabazioak eta hizkuntza alternantziaren azterketa (Observer)	- Oihana Odria (SL Klusterra)

Urtez urte ikerketan parte hartu duten lankideak eta erakundeak (2003-2004 → 2006-2007)		
ikasturtea	Zeregina	Lankideak (erakundea)
05-06	Jarraipen Batzordea (programaren Zuzendaritza, diseinua eta koordinazio orokorra)	- Mikel Zalbide (Hezkuntza Saila.) - Iñaki Artola (Hezkuntza Saila) - Jokin Larrañaga (Hezkuntza Saila) - Iñaki Martínez de Luna (SL Klusterra eta EHU, Soziologia II) - Pablo Suberbiola (SL Klusterra)
	Datu jasoketa IKASTETXEETAN (47) (Erabileraren behaketa gela barruan, behaketak jolaslekuan, galdetegiak pasatzea eta koordinazioa)	- 47 Ikastetxetako ordezkariak (ikastetxe bakoitzeko 1 eta 5 artean). Kasurik gehienetan LMH6ko ikasleen tutoreak (beste batzuetan HNAT edo Zuzendariak). Koordinazioa: Jokin Larrañaga (Hezkuntza Saila) eta Pablo Suberbiola (SL Klusterra).
	Ikastetxeetako ordezkariarentzat Koordinazio eta Prestakuntza Saioen antolaketa (Eibarren, 3 saio)	- Jokin Larrañaga (Hezkuntza Saila) - Antton Peñalba, Lore Goenaga (IRALE), Lurdes Iribar (Hezkuntza Saila) - Pablo Suberbiola (SL Klusterra)
	Atari Probaren diseinua, zuzenketa eta emaitzen lanketa	- Ibon Olaziregi, Roberto Gonzalez de Viñaspre (Hezkuntza Saila)
	Idatzizko gaitasuna neurtzeko idazlan probaren diseinua, Ahozko gaitasuna neurtzeko probaren diseinua, ebaluaziorako irizpideen lanketa eta proben zuzenketa	- Antton Peñalba, Lore Goenaga (IRALE), Lurdes Iribar (Hezkuntza Saila) - Biotza Pico, Nuria Gonzalez (Hezkuntza Saila) - Idazlanen zuzenketa: 47 ikastetxetako irakasleak
	Estatistika Aholkularitza	- Juan Etxeberria (EHU, HIDM)
	Galdera irekien lanketa (probaren diseinua eta emaitzen azterketa)	- Nekane Larrañaga (EHU)
	Bestelako aholkularitza	- Xabier Isasi (EHU), Kontxesi Berrio-Otxoa (EHU)
	Ustekabeko egoeraren (eta ahozko gaitasunaren) grabazioak eta materialaren azterketa	- Katrin Ginea, Oihana Lujanbio (SL Klusterra)
06-07	Jarraipen Batzordea (programaren Zuzendaritza, diseinua eta koordinazio orokorra)	- Mikel Zalbide (Hezkuntza Saila.) - Iñaki Artola (Hezkuntza Saila) - Jokin Larrañaga (Hezkuntza Saila) - Iñaki Martínez de Luna (SL Klusterra eta EHU, Soziologia II) - Pablo Suberbiola (SL Klusterra)
	Datu jasoketa IKASTETXEETAN (7) (Erabileraren behaketa gela barruan, behaketak jolaslekuan, galdetegiak pasatzea, idazlanak zuzentzea eta koordinazioa)	- 7 Ikastetxetako ordezkariak (ikastetxe bakoitzeko 1 eta 5 artean). Kasurik gehienetan LMH6ko ikasleen tutoreak. Koordinazioa: Jokin Larrañaga (Hezkuntza Saila) eta Asier Basurto (SL Klusterra).
	Estatistika Aholkularitza	- Juan Etxeberria (EHU, HIDM)
	Galdera irekien lanketa (probaren diseinua eta emaitzen azterketa)	- Nekane Larrañaga (EHU)
	Atari probaren zuzenketa, ahozko grabazioen antolaketa eta zuzenketa eta idazlanen zuzenketa	- Antton Peñalba, Lore Goenaga (IRALE), Ibon Olaziregi (Hezkuntza Saila)
Ikastetxeetako elkarriketak eta grabazioak	- Naroa Jauregizuria (SL Klusterra) eta Joseba Anabitarte (SL Klusterra)	

**3. Ikasleen erabilera eskola giroan:
neurtzeko modua eta emaitza orokorrak**

3. Ikasleen erabilera eskola giroan: neurtzeko modua eta emaitza orokorrak

3.1 Zein erabilera eta nola neurtua?

- Zein erabilera?

Arestian esan bezala, Arrue Programaren aztergai nagusia *erabilera* da. Ikasleek eskolako testuinguruan egiten duten hizkuntzen erabilera eta, ahal den neurrian, erabilera hori zeren arabera edo nola aldatzen den ezagutzea.

Non hasten eta bukatzen da, ordea, *eskola giroko hizkuntzen erabilera* hori?

Ikasle bat eskolara abiatzen denean, autobusaren zain dagoela, lagunekin *hitz egiten* du, aitari edo amari agur esateko ere bai. Irakaslearen azalpena, *hizkuntza baten bitartez* ulertzen du. Hitzak erabiltzen ditu baita ere egun horretan eskatu dioten ariketan, dakiena adierazteko. Eta jolaserako ordua iristen denean, zein *hizkuntza* erabiltzen du bere gauzez hitz egiteko? Kirolean aritzeko ere, ez hainbeste, baina *hitz jakin batzuk* bai, erabiltzen ditu...

Argi dago EAEko eskola ingurunean egiten den *hizkuntzen erabilera* era askotakoa eta ugaria dela, eta beraz modu askotara azter daitekeela. Beste hainbeste gertatuko litzaziguke, noski, gizarteko beste arlo bateko hizkuntza-produkzioa aztertuko bagenu.

Aztartzeko, beraz, zein hizkuntza-erabilera eta nola aztertu nahi dugun, hautatu eta definitu egin behar dugu. Arrue Programan nola definitu da aztergai hori?

Argitalpen honetan, programaren ibilbide osoari errepasso bat egiten bazaio ere, emaitzei eta datuei dagokienez, 2005-2006 ikasturteko datuen gainean eginiko azterketaren berri ematen da nagusiki⁴. Aipatu datuen kasuan, **zein erabilera aztertu da?** Ikasleen arteko hizkuntza-erabilera gela barruan eta jolaslekuan aztertu da, behaketa teknikaren bidez irakasleek neurtua.

“Erabilera”ren eta ikasleen ezaugarrien (edo *aldagai askeen*) artean dagoen lotura aztertzeko, berriz, mendeko aldagai gisa ikaslearen *jolaslekuko erabilera* erabili da gehienbat.

Aurreko ataletan ikusi bezala, programa honetan azken lau ikasturteetan datu jasoketa batzuk egin dira. Batetik bestera aldaketak egin izan dira, ikasleen erabilera neurtzeko egoera eta moduari dagokionez. Oro har, hala ere, ikasleen bi erabilera aztertu nahi izan dira batik bat:

- Gela barrukoa, erabileraren mota formala bezala.
- Jolaslekukoa, erabileraren mota informala bezala.

⁴ Lanaren 3, 4, 5, 6. eta 7. ataletan azaldutako analisi eta ondorio guztiak ikasturte horretan jasotako datuei dagozkie. Lan osoan salbuespen bakarra 8. atala da. Atal horretan adierazten denez, Azterketa Kualitatiboa 2006-2007 ikasturtean egin da, 7 ikastetxetan, aurreko ikasturtean egindako azterketen osagarri.

Horra hor bi erabilera horien azalpen zehatzagoa:

1. *Jolaslekuan*: ikasleak elkarrekin hitz egiten edota jolasean ari diren bitartean. Ikaslearen **jolaslekuko erabilera** horrek eskolako testuinguruan ikasleek beren artean eta modu informalean, jolastorduetan egiten duten ahozko erabilera islatu nahi du.
2. *Gela barruan*: ikaslearen **gela barruko erabilerak** eskolako testuinguruan eta gela barruko jardun formalean ikasleek beren artean egiten duten ahozko erabilera islatu nahi du (ez irakaslearekin egiten dutena). Ohiko klase batean, ikasleek, hirusak, talde lanak egiten zituzten bitartean, beraien artean izandako elkarrizketak jaso dira, behaketa bidez.

• Nola neurtua? Behaketa bidez jolaslekuan eta gela barruan

Erabilera *behaketa* izeneko teknikaren bidez jaso da, ikasle horien irakasleek egindako behaketa bidez. Behaketa zuzeneko izan da, ez-partehartzailea⁵, eta datuak, maila indibidualean aztertzeko moduan jasoa⁶.

Hau da, hautatutako egun batzuetan, irakasleek fitxetan jaso dituzte beren taldeko ikasleek *jolaslekuan* zebiltzan bitartean izandako elkarrizketak, eta beste egun batzuetan *gela barruko* jarduneko elkarrizketak behatu dira. Entzun ahala, fitxetan jaso da, nori nori hitz egiten zion eta zein hizkuntzatan.

Lan honen eranskinen artean jasotzen dira behaketak egiteko jarraitutako irizpideak. Dena den, hemen nabarmentzekoa da, *hizkuntzen erabilera* modu honetan jasota, zer aztertu dugun eta zer ez:

- Ikasleak beraien artean hitz egitean euskaraz edo gaztelaniaz ari ziren jaso dugu: ikasleak zein hizkuntzatan ari ziren garbi ez zegoen kasuetan (ongi entzun ez delako, bi hizkuntzak nahasian zebiltzalako...) ez da daturik jaso; ez eta bi hizkuntza horietatik aparteko batean ari baziren ere.
- Ez dugu bereizi, ezta deskribatu ere, “nolako” euskara edo gaztelania den erabili dutena. Ez hizkera formala edo informala zen, ez, euskararen kasuan, bertako euskalkia edo estandarra erabiltzen ari ziren, ez nolako “zuzentasuna” zuen, ez eta euskara eta gaztelania “nahasten” ari ote ziren ere⁷.
- Ikasleek irakasleari⁸ hitz egin badiote, hori ez da jaso datuetan; soilik ikasleen arteko elkarrizketak, zehazki gela edo talde bereko ikasleen artekoak baino ez.

⁵ Behaketetan irakasleek entzuten eta ikusten zutena jaso dute horretarako diseinatutako fitxetan. Behaketa horiek aurrez aurre egin dira, hau da, ikasleek bazekiten irakaslea bertan zegoela, baina ez –formalki behintzat– beren hizkuntza erabilerari buruzko datuak jasotzen ari zela. Behaketa ez-partehartzailea da hau, behatzailea (irakaslea) ikusitakoa jasotzera mugatzen delako, elkarrizketan sartu gabe.

⁶ Behaketa-fitxetan jaso da nor-norekin ari den hizketan eta zein hizkuntzatan, eta ondoren datu guztiak banan-banako kodetze-sistema bat erabiliz tratatu dira. Horrela, bi gauza lortu dira: batetik, ikasle bakoitzari jolaslekuan eta gela barruan egindako behaketa guztiak bere erabilerari buruzko indize zehatz bana kalkulatzeko, eta, bestetik, erabilera datu hori ikasle horri buruz beste galdetegi guztietan jasotako informazioarekin lotzea.

⁷ 03-04 eta 04-05 ikasturteetan Arruen bai, egin dira ikasleen HIZKUNTZA ALTERNANTZIARI buruzko lanak, baina ez da programaren aztergai nagusia izan orain arte. 05-06 eta 06-07 ikasturteetan ez da halako azterketarik egin.

⁸ Irakaslea ez da beraien jolasean ari, baina jolaslekuan dago, edo handik “pasatzen” da behaketak egiteko. Erabilera datu hauek baloratzeko, beraz, kontuan hartu behar da irakaslearen presentzia –eta bere presentziak hizkuntza-erabileran izan dezakeen eragina– egon badagoela datuetan.

3.1.1 Jolaslekuko eta gela barruko hizkuntza-erabilera indizeak

- **Jolaslekuan**

Lan honetan 6. eta 7. ataletan azaltzen diren azterketak, mendeko gisa honako aldagai hau hartuta egin dira: **ikaslearen jolaslekuko euskaraz erabilera indizea**.

Indize hori horrela kalkulatu da: irakasleek egindako behaketan datuak jaso dira: nori nori hitz egiten dion eta zein hizkuntzatan. Tauletako elkarrizketa horietan oinarrituta, ikasle bakoitzaren jolaslekuko erabilera indizea horrela kalkulatu da:

$$\frac{\text{ikaslearen jolaslekuko elkarrizketak EUSKARAZ}}{\text{ikaslearen jolaslekuko elkarrizketak GUZTIRA}} = \text{euskarazkoen proportzioa (0-1)}$$

Horrela, indize honek 0 eta 1 arteko balioak ditu, eta ikasleari jolaslekuan egin zaizkion behaketen euskarazko proportzioa adierazten du, non 0 = elkarrizketa guztiak gaztelaniaz diren, 1 = elkarrizketa guztiak euskaraz, edota 0,216, esaterako, elkarrizketen %21,6 euskaraz den.

Indize hori zein oinarriekin kalkulatu da? Zenbat behaketa egin zaizkio ikasle bakoitzari? Irizpide orokor gisa, irakasle bakoitzak 5 bat behaketa egin ditu jolaslekuan. Behaketa horien bidez, ikaslerik gehien-gehienak behatu ahal izan dira elkarrizketa batzuetan parte hartzen. Ondoren, **jolaslekuan behaketa bat edo gehiago** zuten ikasle guztiak hartu dira azterketarako (zero behaketa zituztenak azterketatik kanpo utzi dira). Behaketa horietan kontuan hartu dira ikaslearen elkarrizketa "aktiboak" zein "pasiboak", hau da, bera besteei hizketan ari zaienean eta berari hitz egin diotenean. 05-06 ikasturtean jasotako datuetan, aztertutako 1.325 ikasleetatik %88,7k 3 behaketa (elkarrizketa) edo gehiago zituen eta, %75,2k 5 behaketa edo gehiago.

- **Gela barruan**

Gela barruan neurtutako erabilerari, jolaslekukoari emandako tratamendu estatistikoko berdina eman zaio. Kasu honetan ere, gela barruko jardunean 0 behaketa zituzten ikasleak azterketatik kanpo utzi dira eta gainerako guztientzat **ikaslearen gelako erabileraren indizea** kalkulatu da. Horrela kalkulatu da:

$$\frac{\text{ikaslearen gela barruko elkarrizketak EUSKARAZ}}{\text{ikaslearen gela barruko elkarrizketak GUZTIRA}} = \text{euskarazkoen proportzioa (0-1)}$$

Indize honek ere 0 eta 1 arteko balioak ditu, eta ikasleari *gela barruan* egin zaizkion behaketen euskarazko proportzioa adierazten du, non 0 = elkarrizketa guztiak gaztelaniaz diren, 1 = elkarrizketa guztiak euskaraz, edota 0,832, esaterako, elkarrizketen %83,2 euskaraz den.

Indize hori zein oinarriekin kalkulatu da? Zenbat behaketa egin zaizkio ikasle bakoitzari? Irakasle bakoitzak 3 behaketa egin ditu *gela barruan*. Jolaslekuan bezala, kasu honetan ere, kontuan hartu dira ikaslearen elkarrizketa “aktiboak” zein “pasiboak”, hau da, bera besteei hizketan ari zaienean zein berari hitz egin diotenean. Behaketa kopuruari dagokionez, *gela barruan*, aztertu diren ikasleen %85,7ak 3 edo 4 behaketa zituen eta, %64,5ak 5 behaketa edo gehiago.

3.1 atala, LABURPENA

Ikasleen eskola giroko hizkuntza-erabilera aztertzeko, beste edozein ikerketan bezala, ikergaiaren dimentsioak definitu eta operazionalizatu egin behar dira, bai erabilera bera eta bai neurtuko diren beste ezaugarriak.

Erabileraren kasuan, lehenik definitu zen ikasleen *zein erabilera* aztertu (erabilera ezberdin asko baitaude), eta ondoren erabilera hori nola neurtu. Arruen erabilera modu batean baino gehiagoan neurtu da, baina lan honetarako hautaketa bat egin da (8. ataleko salbuespenarekin): *ikasleen gela barruko eta jolaslekuko erabilera* aztertu dira (bigarren hau bereziki), irakasleen behaketa bidez jaso. Erabilera horrela jasotzeak baditu bere *alde onak* eta baita *hobetu beharrekoak* ere.

Laburpen-koadroa 4

3.2 Arloaren eta gaiaren garapen mugatua

Lan honen 2. puntuan aipatu da zerbait hizkuntza-erabileraren inguruko azterketa batek gaur egun dituen mugez eta eskatzen dituen probez.

Oro har, *soziolinguistika* bera jakintza arlo bezala nahiko gaztea da: 1952an aipatu zen nazioartean lehen aldiz soziolinguistika kontzeptua argitalpen batean (Ruiz i San Pascual eta beste, 2001). Geroztik, jakintza arlo honek bere garapena izan du, baina munduko leku jakin batzuetan bakarrik (normalean, hizkuntza-gatazkaren bat egon eta horretaz ikertze-ko interesa eta aukera izan duten herrialdeetan), eta beste zientzia arlo askok baino baliabide eta errekonozimendu ofizial gutxiagorekin.

Euskararen herrira etorrira ere, antzera dira gauzak. Kontuan hartu behar dugu gaur egun ez dagoela *Soziolinguistika*-ko departamendu bakar bat, ezta soziolinguistika irakaskuntza-lerro oso bat ere, Euskal Herri osoan, ez unibertsitate publikoetan eta ez pribatuetan, nahiz eta zenbait departamentutan nolabaiteko lekua egiten zaion, eta *soziolinguistikaren* alorrean koka daitezkeen hamaika ikerketa eta lan egin diren (Ikus: *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 61, 2006).

Soziolinguistikaren barnean ere behaketa bidez jasotako erabileran oinarritutako ikerketak ez dira oso ugariak. Populazioaren datu jasoketa zabalak egiten direnean eta beren erabilerari buruzko informazioa jaso, gehienetan *hizkuntza-erabilera modu aitortuan* jasotzen da. Ez gurean bakarrik; Katalunian ere orain gutxi eskola giroan erabilera behaketa bidez jaso duen tesi lan bat egin bada ere (Vila eta Galindo, 2006), erabilerari buruzko estatistika gehienak erabileraren datu aitortuetan oinarritzen dira. Hala ere, hizkuntzaren erabilera behaketa bidez neurtzeari dagokionez, dagoeneko Euskal Herriko hainbat ikastetxetan bada esperientzia bat, urtetan zehar hainbat neurketa egin direlako. Soziolinguistika Klusterrean ere badago urtetako esperientzia kale erabileraren neurketetan, eta, hortik abiatuta, ikastetxeetan neurketak egiteko egokitzapenak ere egin dira (ikus Altuna, 2003).

Dena den, nahi baino erreferentzia eta esperientzia zientifiko gutxiago dugu hizkuntzaren erabilera behaketa bidez neurtzean, oinarri gisa hartzeko. Eta ia beste horrenbeste esan genezake erabilera hori *zer aldagairi lotuta dagoen* aztertzeke erabili beharreko metodo estatistiko eta prozesuei buruz ere.

Alde horretatik, lan hau egiteko ezin izan da, beste batzuetan egiten den moduan, nonbaitera joan, han erabiltzen duten eredia ezagutu, egokitu eta gero hemen aplikatu. Gai hau ikertze-ko ez dago eredurik, eta saiakerak egin dira bai Europan bai Ameriketara egindako lanetan halakoak bilatzeko.

Arrue programa honen sorreran eta hartutako norabidean erreferentzia iturrietako bat 80ko hamarkadaren amaieran egindako EIFE azterketak izan dira (Sierra eta Olaziregi, 1989). Lan haietan ikasleen *euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunean zein aldagaik* eragiten zuen aztertu eta kuantifikatu zen. Kontzeptu eta azterketa modu hura *hizkuntza-erabilerara* egokitu nahi izan da, nolabait, Arrue programan.

Lan honetan ikusiko duzuen bezala, aldagai askeek *eskola giroko erabilerarekin* duten harremana aztertzeke hainbat analisi estatistiko mota erabili dira, *Erregresio Anizkoitza*, besteak

beste. Dena den, atal honetan aipatutakoak aintzat hartuta, bistan da abiatutako bidean, ezagutza zientifiko kontrastatuari dagokionez, nahi baino oinarri askoz txikiagoa dugula oraindik ere. Beraz, Arruek *eskola giroko ikasleen hizkuntza-erabileraren* gaian interesa, kezka edo jakin-mina dutenei datu fidagarriak eta orientabideak eskaintzeko, orain arte garatutako tresnak urte batzuetan datuz eta esperientziaz elikatzen jarraitu beharko dela.

Mugak muga, dena den, programa honetan orain arte egindakoak zerbait eraikitzeko norabidean egin dira; eraiki ere, ezagutza eta metodo zientifikoaren bidetik. Apaltasunez egin dugu, eta mugen jakitun, baina hizkuntza-erabileraren gaian garapen enpiriko eta kontzeptual bat hezkuntza arloko hamaika profesionalentzat orientagarri eta lagungarri izango den uste osoarekin.

- **Ikasleen erabilera jolaslekuan neurtzeko baliatu den moduaren abantailak, mugak eta aipatu diren beste aukerak**

Hirugarren atal honen lehen zatian azaldu denez, *jolaslekuko ikasleen hizkuntza-erabileraren* datuak⁹ aztertzeko, orain arte Arruen erabili den eskemak bi zati nagusi hauek ditu:

- Ikasleen euskarazko / gaztelaniazko erabilera behaketa bidez jaso
- Beraien hainbat aldagairi buruzko informazioa galdetegi bidez jaso

Eta, ondoren, bi informazio horiek lotu, aldagai horiek hizkuntza-erabilera horrekin zein harreman duten aztertzeko.

Hizkuntzaren erabilera behaketa bidez neurtzeari dagokionez, lehen aipatu dugu dagoneko hainbat ikastetxetan badela esperientzia bat. Arruen bertan ere, urtez urte egindako neurketen ondoren, balorazioak egin izan ditugu eta zenbait iritzi jaso dira.

Laburtuz, honako hauek dira ikasleen jolaslekuko erabilera behaketa zuzenaren bidez jasotzearen ALDE ONAK eta HOBETU BEHARREKOAK:

A – ALDE ONAK

- Irakasleak ikasleak ezagutu egiten ditu. Horri esker, zein ikasle norekin ari den jaso daiteke behaketetan, ikaslearen indize indibiduala lortuz, ondoren gainerako informazioa erabilerarekin lotzeko.
- Behatutako erabilera da; gertatu den erabilera da. Beste hutsune batzuk izan arren, bada-kigu eskaintzen digun erreferentzia edo neurria horrela izan dela, erreal dela. Izan ere, aitortutako erabilerarekin lan eginez gero, beti izaten da zalantza aitortutakoaren eta errealaren arteko aldea zenbatekoa den, edo aitortutik errealera (asko) aldatzen ote den.

⁹ Txostenean zehar aipatu bezala, ikasleen hizkuntza-erabilera modu ezberdin batzuetan neurtu da Arruen orain arte (gelan, jolaslekuan, aitortua, behatua...), baina argitalpen honetako analisi gehienetan erabilera konkretu bat hautatu da: *ikasleen jolaslekuko erabilera*, behaketa bidez jaso.

- Egoera jakin bateko erabilera neurtzen dugu. Badakigu hizkuntzen erabilera aldatu egiten dela, neurri batean, testuinguruaren, hiztunaren, egoeraren, hizpidearen... arabera. Behaketa zuzenaren bidez leku eta egoera konkretu bateko erabileraz zehaztasunez hitz egin genezake. Aldiz, erabilera aitortuen kasuan, galdera zehatzak egiten saiatu arren, kasu askotan ez dakigu erantzun duenak zein egoera zuen buruan hari buruzko kopurua eman digunean.
- Aukera ematen du beste irakasleek (normalkuntza batzordean ez dabiltzanak, euskara bere gaitzat ez dutenak...) edota ikasle zaharrenek euskararen erabileraren inguruan kontzientzia hartzeko, edota gaia beraiekin lantzeko. Baloratu den aukera bat da behaketak irakasleek egin beharrean ikastetxeko ikasle helduagoek egitea. Horren alde onak lirateke, irakasleen erabilerarekiko balizko eragina ezabatzea eta irakasleen lana arintzea. Kontrakoak, berriz, datuak jasotzeko jarraitu beharreko irizpideak emateko urratsak gehitzea, beraz, irizpideak malguagoak izatea, eta, ondorioz, fidagarritasunean jaistea.

B – HOBETU BEHARREKOAK

- Lan handia eskatzen du. Zuzeneko behaketak egiteak galdetegi bat pasatzea baino (askoz) lan handiagoa eskatzen du, bereziki:
 - Jolaslekuan neurtzeko, kasu askotan jolaslekua eremu zabala delako edo behatzeko zaila.
 - Gela bereko ikasleen arteko elkarriketak soilik behatu nahi ditugunean, askotan talde edo maila ezberdinetako ikasleak elkarrekin ari direlako.
 - Gelako ikasle guztien elkarriketak behatzea ez da erraza. Beti daude behatzeko zailak diren ikasleak, eta ikasle guztien elkarriketa kopuru gutxieneko bat lortzekotan, behaketa batzuk egin behar dira, edo datu gutxi dituzten ikasleen atzetik ibili.
- Behaketak irakasleak eginda, *irakaslearen presentziaren* eragina hor dago, nahiz eta ikasleek jakin ez irakaslea zein datu jasotzen ari den eta, kasu askotan, ikasleek beraien artean euskaraz gehiago egiten duten, irakaslea aurrean egonik erabat haien kasa ari direnean baino.
- Behaketa bidez lortzen diren datuetan gorabehera handiak egoten dira, oszilazioak. Datu-serieak osatuz gero, joerak ikusten dira, baina tartean askotan gorakadak eta beharakadak ematen dira datuetan, eta ez dira beti ulergarriak.
- Ezinezkoa da emaitzen *lagin-errorea* (edo *akats-tartea*) kalkulatzeko, unibertsoa edo elkarriketa posibleen kopurua mugagabea delako.
- Aipatu bezala, behaketak jolaslekuan egiteak baditu bere zailtasunak. Alternatiba gisa Arrueko bileretan gehien aipatu diren aukerak hauek dira:
 - Behaketak pasabidean egitea, ikasleak jolaslekura bidean doazenean eta handik bueltan datozenean.
 - Behaketak txangoetan egitea, beste talde bateko ikaslerik ez egoteko eta fisikoki bilduago dauden egoera bat izateko.

Hori guztia behaketa bidez erabilera datuak jasotzeari dagokionez. Arruen, dena den, erabilera datuak ez dira behaketa bidez bakarrik jaso. Ikasleen eta irakasleen galdetegiak egin direnean, *hizkuntza-erabilerari buruzko datu aitortuak* ere jaso dira.

Horrek aukera emango du, gutxieneko datu-serie batzuk osatu ahala, datu aitortuen eta behatuen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak neurtzeko, eta, horri esker, etorkizunean aukera egongo da kasu bakoitzean bata edo bestea erabili erabakitzeko, irizpide objektiboak edukitzeko. Baita neurketa-moduak aukeratzeko ere, erabilera neurtzeko gaur egunekoak baino eraginkorragoak edo aplikatzen errazagoak direnak.

Esanda dago hizkuntza-erabilerari buruzko informazioa ez ezik ikasleen beste *ezaugarri* edo *aldagai* buruzko informazioa ere eskatu eta jaso dela galdetegien bidez. Orain arteko esperientziak oinarri bat ematen digu aurrerantzean galdetegi hauen bertsiok laburtuagoak egiteko (erabilerarekin korrelazio handirik azaldu ez duten galderak kenduz, edota nolabaiteko arazoak eman dituztenak, esate baterako).

Bestalde, orain arte aztertu diren aldagaien emaitzen gainean hobetzen jarraitzeko, bi norabide hauetan jarraitu behar da galderak egiten:

- Zein dira orain arte Arrue-ko galdetegietan *jaso ez diren aldagaiak*, baina, ustez behintzat, eskola giroko hizkuntza-erabileran eragin dezaketenak?
- Jaso al daiteke aldagai horiei buruzko informaziorik? *Nola jaso* beharko litzateke?

3.2 atala, LABURPENA

Soziolinguistika diziplina zientifiko bezala nahiko berria izateaz gain, beste askok baino garapen mugatuagoa izan du. Eta zehatzago oraindik, soziolinguistikaren barruan, hizkuntza-erabilera –kasu honetan ikasleena– zein aldagairekin dagoen lotuta eta nola aztertu duten lanak gutxi izan dira orain arte. *Euskararen herrian* ez da eratu horren inguruko ikerketa-lerrorik eta, dakigun arte, nazioartean ere ez dago ibilbide luzeko erreferentziarik.

Ez daukagu, beraz, kanpoan egindako eredurik hemen aplikatzeko gai honetan. Arrue programan orain arte eginiko probekin eta hautuekin, dagoeneko eraiki dugu ikasleen eskola giroko erabilera zientzia bidez aztertzeko lehen eredu baten oinarria.

3.3 Aztertutako lagina eta bere ezaugarriak

3.3.1 Talde eta ikasle kopuruak

EAEko 50 ikastetxetako LMH6. mailako ikasleen artean egin da 05-06 ikasturteko datuetan oinarrituriko ikerketa. Arrue programan datu jasoketa zuzenean ikastetxeetan egiten zen lehen aldia izanik, eta irakasleen aldetik inplikazio handia eskatzen duela kontuan harturik, ikerketan parte hartzea borondatezkoa izan da; hau da, adin horretako ikasleak dituzten Ulibarri Programako ikastetxe guztiei luzatu zitzaizen Hezkuntza Saitetik deia, eta interesa azaldu zuten 50 horietan egin da ikerketa.

05-06 ikasturtean aztertu den kolektiboak, beraz, ez du EAEko LMH6 mailako ikasle guztientzat errepresentagarritasun estatistikorik. Dena den, kontuan izanik laginak kasu honetan izaera eta zonalde soziolinguistiko nahiz geografiko ezberdinetako ikastetxeak biltzen dituela, ikastetxe mota eta hizkuntza-eredu ezberdinak daudela tartean, eta ikasle kopurua ere nahiko handia dela, talde horien gaineko azterketak argibide adierazgarriak eskaini ditzake eskola giroko erabileraren fenomenoaren inguruan, aurrerago azterketa zabalagoekin edota sakonagoekin jarraitzeko.

Kasu honetan, esan bezala, hiru lurraldeetako 50 ikastetxek erantzun zioten deiarri: Arabako 10, Gipuzkoako 19 eta Bizkaiko 21 ek. Ikastetxe horietako batzuetan talde edo gela bakarrean datuak jaso eta aztertu dira, eta beste batzuetan gehiagorenak. Guztira 105 ikastalde edo gelak osatzen zuten izena emandako ikastetxeen kolektiboa eta 2.043 subjektuk.

Abiapuntuko kolektibo honetatik, dena den, ikastetxe eta taldeetako batzuei eskatutako datuen barruan proba guztiak egitea ezinezko suertatu zitzaizen, eta, ondorioz, 2.043 subjektu horietatik behatutako hizkuntza-erabilera datuak zitzuztenak aukeratu dira (bai gelan eta bai jolaslekuan), eta horrekin batera, galdetegi guztietako informazioa zutenak, ondorengo hauek, hain zuzen: 1.325 ikasle, 42 ikastetxe eta 74 talde edo gelatan aritzen direnak.

Jarraian, eskola giroko erabilera datuen azterketari ekin aurretik, aztertutako 1.325 ikasleen deskribapen labur bat jasotzen da.


3.3.2 Hizkuntza-eredua, sexua, herriko euskalduntasuna eta etxeko euskalduntasuna

- **Hizkuntza-eredua**

Aztertutako ikasle gehienak –lautik hiru– D ereduko ikasleak dira. Gaur egun EAEn LMH6ko ikasleen artean D eredukoaren proportzioa ez da hain handia¹⁰, baina, nonbait, interes handiagoa dute gai honetan eredu horretako ikastetxeek. Hala ere, B eta A ereduak ikasleen datuak ere aztertu dira hemen, interes handiz aztertu ere.

¹⁰ Hezkuntza Sistemari Buruzko Estatistikako 2006-2007ko datuen arabera (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>) honela banatu dira LMH6ko EAEko ikasleak ereduaren arabera: A ereduaren %16,02, B ereduaren %30,25 eta D ereduaren %53,73. Lurraldearen arabera banaketa hau desberdina da. Araban, A (%29,2) B (%38,78) D (%32,03), Bizkaian A (%21,18) B (%29,03) D (%49,79) eta Gipuzkoan A (%2,74) B (%28,55) D (%68,71).

Ikasteredua



	Kopurua	Ehunekoa
A	64	4,8
B	232	17,5
D	1029	77,7
Guztira	1.325	100,0


3.1 taula

3.1 grafikoa

- **Sexua**

Sexuari dagokionez, mutilak gehixeago dira neskek baino.

Ikaslearen sexua



	Kopurua	Ehunekoa
Mutila	714	53,9
Neska	611	46,1
Guztira	1.325	100,0


3.2 taula

3.2 grafikoa

• **Ikasleen herriaren euskalduntasun maila**

Ikaslea bizi den herriaren euskalduntasuna ezagutzeko EUSTATen 2001. urteko datuak erabili dira, bertatik herri bakoitzeko *Euskaldunen* proportzioa hartuz. Proportzio hauek bost multzotan banatu dira (%0tik %20ra, %20tik %40ra...), eta 3.3 grafikoak eta 3.3 taulak erakusten dute ikasle hauen herriak nolakoak diren euskalduntasun aldetik:

Ikasleen herriaren euskalduntasun maila



3.3 grafikoa

	Kopurua	Ehunekoa
Euskaldunak %0tik %20ra	486	36,7
Euskaldunak %20,1etik %40ra	210	15,8
Euskaldunak %40,1etik %60ra	181	13,7
Euskaldunak %60,1etik %80ra	338	25,5
Euskaldunak %80,1etik %100era	110	8,3
Guztira	1.325	100,0

3.3 taula

Ikus dezagun orain ikasle hauek bizi diren herrien euskalduntasuna nolakoa den EAEko biztanleria osoarekin alderatzen badugu. Alderaketa hau egiteko gai honi buruz dauden estatistika ofizial berrienak erabili dira: 2001. urteko III. Mapa Soziolinguistikoko datuak¹¹. 3.4. taulan ikusten denez, biztanle kopuruari erreparatuta, EAEn gehiengo nabarmena herri edo hiri (oso) erdaldunetan bizi da, nahiz eta herri (oso) euskaldunen kopurua handia izan:


¹¹ III. Mapa Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila eta EUSTAT. 2005. CDa. *Hizkuntza-gaitasuna (>=5 urte), adinaren arabera udalerrika (EAE)*. Adin taldeak taldekatu egin dira EAEko herri bakoitzaren euskalduntasuna lortzeko, eta ondoren herriak lan honetan erabilitako bost kategorietan banatu.

	herri kopurua	herrien %	biztanleak guztira	biztanleen %
Euskaldunak %0tik %20ra	62	24,8	1.004.325	50,7
Euskaldunak %20,1etik %40ra	31	12,4	447.006	22,6
Euskaldunak %40,1etik %60ra	29	11,6	229.800	11,6
Euskaldunak %60,1etik %80ra	46	18,4	203.751	10,2
Euskaldunak %80,1etik %100era	82	32,8	98.279	4,9
Guztira (EAE)	250	100,0	1.978.672	100,0

3.4 taula

Horrela, ba, EAEko datu orokor hauek eta aztertutako ikasleenak batera jarri dira ondorengo grafikoan. Argi ikus daiteke bertan, aztertutako kolektiboko ikasleetatik %36,7 bizi dela euskaldunen proportzioa %0tik %20ra bitarteko herrietan eta, aldiz, EAEko biztanleriaren %50,7 dela halako herrietan bizi direnen proportzioa (ia 15 puntu gehiago, alegia). Aldiz, aztertutako ikasleen artean %25,5 herri nahiko euskaldunetan bizi da (*euskaldunak %60-%80 artean*), eta EAEn biztanleriaren %10,2 baino ez dira bizi horrelako herrietan.

Udalerrien euskalduntasuna. EAEko biztanleriaren eta aztertutako ikasleen herriak



3.4 grafikoa

UDALERRIEN EUSKALDUNTASUNA	EAEko datu orokorrak. Biztanleen %	Aztertutako ikasleak. Ikasleen %
Euskaldunak %0tik %20ra	50,7	36,7
Euskaldunak %20,1etik %40ra	22,6	15,8
Euskaldunak %40,1etik %60ra	11,6	13,7
Euskaldunak %60,1etik %80ra	10,2	25,5
Euskaldunak %80,1etik %100era	4,9	8,3
Guztira	100,0	100,0


3.5 taula

• **Etxeko hizkuntza**

Herrien euskalduntasunaren ondoren, puntu honetan ikasle hauen etxean zein hizkuntza hitz egiten den azaltzen da. Datu hori lortzeko ikasleei galdera hau egin zitzaien galdetegian: Etxekoak denak batera mahaian zaudetenean, zein hizkuntzatan hitz egiten duzue? Erantzuteko, ikasleei bost aukera eman zitzaizkien, ikerketa honetan maiz erabili den eskala honetan: beti edo ia beti gaztelaniaz, gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, bietan berdin, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, beti edo ia beti euskaraz. Kasu honetan ere, aurrekoan bezala, grafikoa ehunekotan eskaintzen da eta bertan bizpahiru ideia nabarmenduko genituzke:

- Batetik, ikasle hauen etxeetan gaztelaniaren erabilera euskararena baino nabarmen handiagoa da.
- Horrez gain, ikusten da etxeko erabileran kasurik gehienetan (3tik 2tan) erabat gaztelaniaz edo erabat euskaraz hitz egitea dela joera nagusia, “tarteko” kasuak hirutik bat bakarrik izanik.

Ikasleen etxeko hizkuntza



3.5 grafikoa

	Kopurua	Ehunekoa
Betiko edo ia betiko gaztelaniaz	597	45,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	215	16,2
Bietan berdin	131	9,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	94	7,1
Betiko edo ia betiko euskaraz	288	21,7
Guztira	1.325	100,0


3.6 taula

Esan bezala, ikasle hauen etxeetan gaztelaniaren erabilera euskararena baino altuagoa da. Kasu honetan ere, ikasleen etxeetako erabilera hau EAEko datuekin alderatzeko ahalegina egin da.

Ezagutza mailako datuetan ikusitako logikaren haritik, *etxeko hizkuntzari* dagokionez ere aztertutako kolektiboa EAEko familien batez bestekoa baino euskaldunagoa da, hurrengo 3.6 grafikoan eta 3.7 taulan ikus daitekeenez. Aztertutako ikasleen kolektiboan, etxean gehienetan edo beti euskaraz aritzen diren familiak 15 puntu gehiago dira (%28,8), EAEn baino (%13,6). Eta, modu osagarrian, aztertutako ikasleen kolektiboan etxeko hizkuntzat gaztelania duten familiak EAEko biztanleria orokorrean baino 17 puntu gutxiago dira (EAEn %78,1 eta ikasle hauen artean %61,3).

Alderaketa honetarako ere EAEko datuak 2001. urteko III. Mapa Soziolinguistikotik abiatuta landu dira¹². Datu horietan, biztanleen *etxeko hizkuntza* hiru mailatan banatzen da: 1) Euskara, 2) Euskara eta gaztelania eta 3) Gaztelania. Horrekin alderatu ahal izateko, ikasle hauen datuak jatorrizko bost kategorietatik (gorago, oraintxe ikusi dugun grafikoan) hiru maila horietara ekarri dira. 3.6 grafikoan eta 3.7 taulan dituzue alderaketaren datuak.

Etxeko hizkuntza. EAEko biztanleriaren eta aztertutako ikasleen familiak



3.6 grafikoa

ETXEKO HIZKUNTZA	EAEko datu orokorrak Biztanleen %	Aztertutako ikasleak Ikasleen %
Gaztelania	78,1	% 61,3
Biak	8,3	% 9,9
Euskara	13,6	% 28,8
Guztira	100,0	100,0


3.7 taula

¹² III. Mapa Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila eta EUSTAT. 2005. CDa. *Etxeko erabilera (>=5 urte), adinaren arabera udalerrriko (EAE)*. Adin taldeak eta udalerrriak taldekatu egin dira EAE osorako, eta biztanleria guztiaren datuak kalkulatzeko.

• **Herriko biztanle kopurua**

3.7 grafikoa eta 3.8 taulan ageri da aztertutako ikasleak bizi diren herrietako biztanle kopuruen banaketa. Ikusten denez, herri ertain eta handietan bizi dira ikasle gehienak: %47, esaterako, 25.000 biztanletik gorako herri/hirietan bizi dira eta 10.000 edo gutxiagoko herrietan berriz, %28.

Ikasleen herriaren biztanle kopurua



3.7 grafikoa

	Kopurua	Ehunekoa
5.000 biztanle edo gutxiago	168	12,7
5.001 - 10.000 biz. artean	194	14,6
10.001 - 25.000 biz. artean	325	24,5
25.001 - 100.000 biz. artean	231	17,4
100.000 biztanletik gora	407	30,7
Guztira	1.325	100,0

3.8 taula

3.3 atala, LABURPENA

Arrue programan 2005-2006 ikasturtean aztertu diren ikasleen oinarrizko ezaugarri batzuk deskribatzen dira atal honetan.

Ikasleak ikerketan parte hartzea erabaki zuten 50 ikastetxetakoak dira, guztiak LMH6koak. 10 ikastetxe Arabakoak dira, 19 Gipuzkoakoak eta 21 Bizkaikoak. Erabileraren gaineko azterketa egiteko, proba guztietako informazioa zuten ikasleak hautatu dira: 1.325 ikasle. Ezaugarriak:

- ⇒ Aztertutako ikasle hauetako gehienak (4tik 3) D ereduko ikasleak dira.
- ⇒ Gehienak euskaldun (oso) gutxi duten herrietan bizi dira, baina hala ere, batez beste, EAEko biztanleria baino udalerrri euskaldunagoetan.
- ⇒ *Etxeko hizkuntzari dagokionez, ikasle horietako gehienek etxeko hizkuntza gaztelania da, baina honetan ere, oro har, aztertutako kolektiboan euskaraz beti edo ia beti egiten dutenen proportzioa altuagoa da EAEko datu orokorretan baino (15 bat puntuko aldea).*
- ⇒ Azkenik, bizi diren herriaren tamainari dagokionez, aztertutako ikasle gehienak herri ertain edo handietan bizi dira.

Laburpen-koadroa 6


3.4 Behatutako erabilera: datu orokorrak

Gorago aipatu bezala, azterketa honetan ikasleen hizkuntza-erabilera behaketa teknika-ren bidez jaso da. Irakasleen behaketa bidez. 3.1 atalean dituzue *erabilera* ikerketa honetan definitu, neurtu eta kalkulatu den moduari buruzko xehetasun guztiak. Jarraian, aldiz, modu horretan neurtutako erabilerek aztertutako ikasleen kolektiboan zenbateko emaitzak eman dituzten azaltzen da.

3.4.1 Erabilera jolaslekuan eta gela barruan

Ondorengo diagrama eta taulek adierazten dituzte, ikasle guztiak kontuan harturik (1.325) irakasleek neurtutako *erabilera* zein neurritan izan den euskaraz eta zein neurritan gaztelaniaz, bi egoera bereiztuz: *jolaslekuko erabilera* batetik (ikasleen arteko elkarrizketen behaketak jolaslekuan), eta *gela barruko erabilera* bestetik (ikasleen arteko elkarrizketak gela barruan, taldeko lan bat egiten duten bitartean).

Hizkuntza erabilera batez beste jolaslekuan eta gela barruan



3.8 grafikoa

	Erabilera jolaslekuan	Erabilera gela barruan
Elkarrizketak euskaraz (%)	% 55,267	% 79,814
N (ikasle kopurua)	1.325	1.325
Desbideratze tipikoa	0,417	0,290 ¹³

3.9 taula

¹³ Nahiz eta *Elkarrizketak euskaraz* datua berez proportzio bat izan, irakurketa errazteko asmotan ehuneko bihurtu dugu. Aldiz, *desbideratze tipikoa*-ren datua bere horretan utzi dugu (proportzioa).


Ikerketan aztertu diren ikasle guztiak osotasunean hartuta, zera ikus daiteke:

- *Jolaslekuan* ikasleen arteko elkarrizketetan erdia pasatxo dira euskaraz eta beste erdia gaztelaniaz.
- *Gela barruan* ikasleen arteko elkarrizketak askoz neurri handiagoan dira euskaraz: bost elkarrizketatik lau euskaraz eta bat gaztelaniaz.

Gorago aipaturiko datu hauek batez bestekoak dira, ikasle guztien behaketak batera jarrita lortzen duguna. Datu orokor horiek, ordea, aniztasun handia dute beren atzean, 3.9 grafikoan ikus dezakegunez. Gorago ikusi dugu nola *Jolaslekuko erabileraren Desbideratze tipikoa* handiagoa den *Gela barruko erabilerarena* baino (0,417 vs 0,290) eta horrek adierazten digu *erabilera jolaslekuan*-en batez bestekoaren atzean dagoen dispersioa handiagoa dela *erabilera gela barruan*-en atzean dagoena baino.

3.9 grafikoan, ezkerreko muturrean (0,00 balioduna) *jolaslekuan* erabat gaztelaniazko erabilera duten subjektuak ageri dira. 1.325etik 351 ikasle. Beste muturrean (1,00), *jolaslekuan* erabat euskarazko erabilera duten ikasleak zenbatzen dira: 460 ikasle. Gorago ikusi dugunez, *jolaslekuko erabileraren* batez bestekoa % 55,3 da, eta batez besteko horren atzean ikusten duguna da aztertutako ikasleen heren bat (%34) erabat euskaraz aritzen dela *jolaslekuan*, laurden bat (%26,5) erabat gaztelaniaz eta gainerakoak tarteko erabilera mailetan kokatzen direla.

Erabilera jolaslekuan




3.9 grafikoa

Erabilera jolaslekuan - ikasleen banaketa		
Erabilera euskaraz (%)	Ikasle kopurua	Ikasleen %
Erabilera % 0	351	26,5
%0,1 - % 25	91	6,9
%25,1 - % 50	180	13,6
%50,1 - % 75	129	9,7
%75,1 - % 99,9	114	8,6
Erabilera % 100	460	34,7
Guztira	1.325	100,0

3.10 taula

Gela barruan behatutako ikasleen arteko erabilerari dagokionez, erabileraren batez bestekoa desberdina da, eta 3.10 histograman ikusten dugunez, baita banaketa ere. Kasu honetan ere, ezkerreko muturrean (0,00 balioduna) *gela barruko* elkarriketetan erabat gaztelaniaz hitz egiten behatu diren ikasleak ageri dira, *jolaslekuan* baino askoz gutxiago dira: 1.325etik 63 ikasle. Beste muturrean (1,00) kokatzen dira ikasle gehienak, %100eko erabileraren muturrean: 741 ikasle. Hau da, ikasle gehien-gehienek gela barruan beraien artean euskaraz egiten dute.

Erabilera gela barruan



3.10 grafikoa

Erabilera gela barruan - ikasleen banaketa		
Erabilera euskaraz (%)	Ikasle kopurua	Ikasleen %
Erabilera % 0	63	4,8
%0,1 - % 25	28	2,1
%25,1 - % 50	167	12,6
%50,1 - % 75	197	14,9
%75,1 - % 99,9	129	9,7
Erabilera % 100	741	55,9
Guztira	1.325	100,0

3.11 taula

Gelako eta jolaslekuko erabileren artean ezberdintasunak daude, beraz. Erabilera datu orokor hauek ikasle batzuen ezaugarrien arabera aztertzen dira hurrengo atalean. Gainerako ezaugarriekin hasi aurretik, merezi du ikasleek ikasketak burutzen dituzten hizkuntza-ereduari buruz zenbait ohar egin eta oinarritzko datuei erreparatzea.

3.4.2 Erabilera datuak hizkuntza-ereduaren arabera

Gorago 3.3.1 eta 3.3.2 ataletan azaldu denez, ikerketa honen kolektiboan A, B eta D hizkuntza-ereduetan ikasten duten ikasleak ez daude eredu horiek EAEn duten proportzio berean ordezkatuak, eta beraz ezin dira ikerlan honetako erabilerari buruzko datuak ereduak aztertuta emaitzak EAEn orokortu. Dena den, eredu ezberdinetako ikasleek erabileran nahiko alde nabarmenak dituztenez, bada interesgarria euren oinarritzko datuak, erabileran sumatzen diren joeren argigarri gerta daitekeelakoan.

Jolaslekuko erabileraren kasuan ikusi dugu 1.325 ikasle 351 direla erabilera = %0 dutenak. Horietatik 64 A ereduak dira, 181 B ereduak eta 106 D ereduak. Gogoratu, lakin osoan A eredu 64 ikasle, B eredu 232 eta D eredu 1.029 direla. Hau da, aztertutako A eredu ikasle guzti-guztien erabilera jolaslekuan %0 da euskaraz. B ereduko artean, 10 ikasle 8ren kasuan ere (%78), jolaslekuko erabilera %0 da. D eredu ikasleetan aldiz, proportzioa askoz baxuagoa da: 10 ikasle 1 (%10,3).

Jolaslekuko erabileran eredu bakoitzeko ikasleen euskarazko erabileraren batez bestekotik ere aldeak nabarmenak dira:

- A eredu ikasleen erabilera jolaslekuan, batez beste: % 0
- B eredu ikasleen erabilera jolaslekuan, batez beste: % 12
- D eredu ikasleen erabilera jolaslekuan, batez beste: % 68

Gela barruko erabileran aldeak ez dira hain nabarmenak, baina joera antzekoa da. Jolaslekuan ez bezala, gela barruan badira A eta batez ere B eredu ikasle asko euskarazko erabilera maila altua dutenak. Baina gela barruan ere, euskaraz erabilera %0 duten ikasleen banaketa oso desberdina da: 63 ikasle dira gela barruan euskarazko erabilera %0 dutenak: horietatik 36 ikasle A ereduak dira (%56), 14 B ereduak (%6) eta beste 13 D ereduak (%1,3).

3.4 atala, LABURPENA

Aztertu diren 1.325 ikasleen *jolaslekuan* eta *gela barruan* behatutako hizkuntza-erabileraren datu orokorrak jasotzen dira atal honetan. Batez besteko datu orokorrak hauek dira:

- ⇒ *Jolaslekuan* ikasleen arteko elkarrizketa guztien **% 55,3** euskaraz (%44,7 gazt.)
- ⇒ *Gela barruan* ikasleen arteko elkarrizketa guztien **%79,8** euskaraz (%20,2 gazt.)

Jolaslekuko erabileran, %55,3ko batez bestekoaren atzean aniztasun handia dago: ikasleen heren bati (%34,7) behatutako elkarrizketa guztiak euskaraz izan dira, laurden bati (%26,5) behatutako guztiak gaztelaniaz; eta gainerakoei behatutakoak, neurri handiago edo txikiagoan, bi hizkuntzetan izan dira.

Gela barruko erabilera, askoz neurri handiagoan da euskaraz, eta %79,8ko batez bestekoaren atzean dagoen banaketa sinpleagoa da: ikasle gehienei (%55,9) elkarrizketa guztiak euskaraz behatu zaizkie, eta, aldiz, guztiak gaztelaniaz oso gutxiri (%4,8).

Hizkuntza-eredua aldagaiaren arabera, joera nabarmenak ikusten dira aztertutako ikasleen artean:

- ⇒ *Jolaslekuan*, A eredu ikasle guztien euskarazko erabilera %0 da. B eredu 10 ikasle 8k ere %0 erabilera du; D ereduko artean, 10etik 1ek. Euskarazko erabileraren batez bestekoak ere oso ezberdinak dira: A eredukoena = %0, B eredukoena = %12 eta D eredukoena = %68.
- ⇒ *Gela barruan*, badira A eredu eta batez ere B eredu ikasle asko erabilera altua dutenak. Dena den, *gela barruan* euskarazko erabilera %0 duten ikasleen proportzioa oso ezberdina da hiru ereduetan: A eredukoena %56, Bkoena %6 eta Dkoena %1.


3.5 Hizkuntza-erabilera oinarrizko aldagaien arabera: sexua, lehen hizkuntza, hiztun tipologia eta herriko euskalduntasuna

3.5.1 Sexua

Azpiko datuetan ikusten dugunez, nesken erabilera euskaraz altuxeagoa da mutilena baino, bai jolaslekuan eta bai gela barruan. Batez beste, nesken *jolaslekuko erabilera* mutilena baino 6,6 puntu altuagoa da, eta *gela barruan* ere koska bertsua kentzen die nesken erabilerak mutilenari: 6,3 puntu.

Ikerketa lan honen emaitzak aurkezteko irakasleekin eta hizkuntza-teknikariekin egin diren saioetan¹⁴ emaitza hauek ez dira harrigarritzat jo. Badirudi 11-12 urte inguruko neskek mutilek baino ohitura handiagoa dutela eskola giroan euskaraz egiteko, bai *jolaslekuan* eta bai *gela barruan*.

Erabilera jolaslekuan eta gela barruan, sexuaren arabera



3.11 grafikoa

¹⁴ 2006ko azaroaren 30ean eta 2007ko ekainaren 27an jardunaldiak antolatu zituen Soziolinguistika Klusterrak Eibarren, ikerketan parte hartutako ikastetxeetako irakasleei eta Ulibarri Programako Normalkuntza teknikariei (HNT) emaitzen berri emateko.

		Erabilera jolaslekuan	Erabilera gela barruan
Mutila	Batez bestekoa	% 52,2	% 76,9
	N	714	714
	Des. Tipikoa	0,409	0,300
Neska	Batez bestekoa	% 58,8	% 83,2
	N	611	611
	Des. Tipikoa	0,424	0,270
Guztira	Batez bestekoa	% 55,3	% 79,8
	N	1325	1325
	Des. Tipikoa	0,417	0,288
η^2 - balioa		0,005	0,010
η^2 - Signifikazio maila		,000	,000

3.12 taula

Aipatu hizkuntza-portaera ezberdin hori beste zenbait ikerketa lanetan ere nabarmentu da.

Jokaera ezberdinu honen arrazoi posible gisa aipatu izan da ere Arrue programaren jardunaldietan, oro har, neskak mutilak baino “esanekoago” izatea, edota neurri batean “ikasle hobeak” izatea. Ikerketa honetan jasotako datuetako bat *Eskola errendimendua* izan da¹⁵, eta errendimendu honen batez bestekoan ere neskak mutilen gainetik daude, baina alde txikiarekin:

Ikaslearen sexua	Eskola errendimendua, batez beste	N	Desb. tip.
Mutila	6,52	714	2,037
Neska	7,01	611	1,893
Guztira	6,75	1.325	1,986

3.13 taula

3.5.2 Lehen hizkuntza

Badira, dena den, ikerketa honetan beste aldagai batzuk ikasleen hizkuntza-erabilerarekin sexua baino lotura handiagoa agertzen dutenak. Ikaslearen *lehen hizkuntza* edo *ama-hizkuntza* horietako bat.


3.12 diagraman eta 3.14 taulan *jolaslekuko* eta *gela barruko* erabilera datuak alderatzen dira ikaslearen *lehen hizkuntza* aldagaiaren arabera. Aztertutako ikasleen gurasoek aitortutako datua¹⁶ erabili da alderaketa honetan, lehen hizkuntza hiru taldeetan banatuz eta talde horietako bakoitzean dauden ikasleen *jolaslekuko* eta *gela barruko* erabileren batez bestekoak kalkulatu.

¹⁵ Irakasleari eskatu zaiou *Ikaslearen errendimendu orokorra* zehazteko, 1etik 10erako eskala batean.

¹⁶ Gurasoen galdetegian, galdera hau erabili da aldagai honetarako: *Zein izan da (edo izan dira) zuen seme-alabaren “lehen hizkuntza” edo “ama-hizkuntza”?* Ikasle hauen artean, badira 11 kasu (%0,01) hiru erantzun hauetako bat ez den bat erantzun duena: Errumaniera, ingelesa...

Ikusten dugunez, euskararen erabilera datuak aldatu egiten dira ikasleen *lehen hizkuntza*-ren arabera, batez ere *jolaslekuko* erabilerearen kasuan: lehen hizkuntza *gaztelania* dutenen heren batek (%35) euskara erabiltzen du, eta lehen hizkuntza *euskara* dutenen, aldiz, %85ak. *Gela barruko* erabileran, aldiz, ez dago horrelako alderik: lehen hizkuntza *gaztelania* dutenek ere, *gela barruan* batez beste %73ko erabilera dute euskaraz eta %90ekoa, aldiz, lehen hizkuntza *euskara* dutenek.

Erabilera jolaslekuan eta gela barruan, ikasleen lehen hizkuntzaren arabera



3.12 grafikoa

Ikaslearen lehen hizkuntza (gurasoek aitortua)		Erabilera jolaslekuan	Erabilera gela barruan
Gaztelania	Batez bestekoa	% 34,50	% 73,03
	N	647	647
	Des.Tipikoa	,385	,320
Biak: euskara eta gaztelania	Batez bestekoa	% 60,96	% 81,61
	N	274	274
	Des.Tipikoa	,376	,258
Euskara	Batez bestekoa	% 84,66	% 89,47
	N	404	404
	Des.Tipikoa	,215	,282
η^2 - balioa		0,259	0,057
η^2 - Signifikazio maila		,000	,000

3.14 taula

3.5.3 Hitzun tipologia lehen hizkuntzaren arabera

Atal honetan ikasleen hizkuntza-erabilera *hitzun tipologia* aldagaiaren arabera aztertzen da. Izan ere, azterturiko ikasle gehien-gehienak euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko gai dira, hau da, elebidunak dira. Baina gauza jakina da pertsona elebidun guztiek ez dutela gaitasun bera bi hizkuntzetan. Elebidun edo hitzun mota bereizteko tipologia bat landu da lan honetan. Tipologia hau osatzeko bi aldagai konbinatu dira:

- Zenbat urterekin ikasi den gaztelania
- Zenbat urterekin ikasi den euskara

Datu hori lortzeko ikasle hauen gurasoei galdera hau egin genien galdetegi bidez: *Zenbat urterekin ikasi zuen seme-alabak gaztelania?* eta galdera bera euskarari buruz¹⁷. Hizkuntza bien erantzunak konbinatu dira¹⁸ sei kategoria sortuz, eta horietako bakoitzari izen bat jarri, 3.15 taulan ikusten den moduan:

		GAZTELANIAZ			
		Ez du ikasi	3 urte baino lehenago	3-5 urte bitartean	5 urte eta gero
EUSKARAZ	5 urte eta gero		2- Jatorrizko erdaldun elebidun berantiarrak		
	3-5 urte bitartean		3- Jatorrizko erdaldun elebidun goiztiarrak		6- Jatorrizko euskaldun elebidun berantiarrak
	3 urte baino lehenago		4- Jatorrizko aldibereko elebidunak	5- Jatorrizko euskaldun elebidun goiztiarrak	
	Ez du ikasi	Afasikoa	1 - Jatorrizko erdaldun elebakarrak		

3.15 taula

Horrela, aztertutako 1.325 ikasleak sei *hiztun mota* hauetan banatu dira, euskara eta gaztelania zenbat urterekin ikasi zutenari buruz beren gurasoek esan dutena oinarri hartuz. Kategoriak, 1etik 6ra, nolabait tiporik erdaldunenetik euskaldunenera ordenatu dira.


3.13 grafikoan eta 3.16 taulan ikus dezakegu osatutako tipologiaren kategoria hauen eta ikasle hauei *jolaslekuan* eta *gela barruan* behatutako euskara erabilera mailaren artean nahiko korrelazio zuzena ematen dela: hau da, zenbat eta *hiztun tipoa* euskaldunagoa izan, erabilera altuagoa da. Eta tipo edo kategoria bakoitzetik hurrengora dagoen aldea ere berdintsua da. Kontuan hartzekoa da, dena den, tipo guztietan ez dugula ikasle kopuru berdina: 1 eta 2 tipoetan oso ikasle gutxi ditugu (18 eta 41, hurrenez hurren), eta aldiz 3. kategorian ia lagin erdia (601 ikasle).

Bestalde, *lehen hizkuntza* aldagaian gertatzen den bezala, kasu honetan ere *jolaslekuko* erabilera ematen dira alderik handienak: *jatorrizko erdaldunen* hiru tipoetan (1, 2 eta 3) euskarazko erabileren batez bestekoa %35 edo hortik beherakoa da. Aldiz, *jatorrizko elebidun* eta *jatorrizko euskaldunen* (*goiztiarrak* izan zein *berantiarrak* izan) motetan (4, 5 eta 6) erabilera batez bestekoa %60 eta 90 artekoa da *jolaslekuan*. *Gela barruko* elkarrizketetan, aldiz, aldeak askoz txikiagoak dira, izan ere, 1. tipo edo kategoria ez beste guztietan, euskararen erabilera %60tik gorakoa da.

¹⁷ Erantzuteko bost aukera zituzten kasu bakoitzean: a) 3 urte baino gutxiagorekin; b) 3 eta 5 urte bitartean; c) 6 eta 8 urte bitartean; d) 9 urte edo gehiago zituenean; e) Ez du ikasi. Bost erantzun horiek lau taldetan banatu dira c) eta d) taldeko erantzunak kategoria bakarrean birkodifikatuz.

¹⁸ Hiztun tipologia honen ekarpena Xabier Isasi UEU eta EHUko irakaslearena izan da lan honetan. Bere ikerketetan erabili izan du lehenago tipologia hau Isasik, Josiane F. Hamers eta Michel H. A. Blanc-en lanean oinarrituz (ikus bibliografia).

Erabilera jolaslekuan eta gela barruan, hizkuntz tipologia aldagaiaren arabera



3.13 grafikoa

Hiztun tipologia		Erabilera jolaslekuan	Erabilera gela barruan
1- Jatorrizko erdaldun elebakarrak	Batez bestekoa	% 00,00	% 25,00
	N	18	18
	Desb. típ.	,000	,420
2- Jatorrizko erdaldun elebidun berantiarrak	Batez bestekoa	% 23,36	% 62,54
	N	41	41
	Desb. típ.	,334	,383
3- Jatorrizko erdaldun elebidun goiztarrak	Batez bestekoa	% 35,67	% 74,86
	N	601	601
	Desb. típ.	,384	,301
4- Jatorrizko aldebereko elebidunak	Batez bestekoa	% 62,46	% 82,89
	N	269	269
	Desb. típ.	,381	,248
5- Jatorrizko euskaldun elebidun goiztarrak	Batez bestekoa	% 79,50	% 85,32
	N	187	187
	Desb. típ.	,307	,245
6- Jatorrizko euskaldun elebidun berantiarrak	Batez bestekoa	% 91,70	% 93,29
	N	209	209
	Desb. típ.	,196	,173
η^2 - balioa		0,290	0,154
η^2 - Signifikazio maila		,000	,000

3.16 taula


3.5.4 Herriaren euskalduntasuna

Atal honekin bukatzeko, ikasleen hizkuntza-erabilera datuak beraiek bizi diren *herriaren euskalduntasunaren* arabera aztertzen dira. Ondorengo grafikoa eta taula osatzeko, aztertutako ikasleak beren herriko euskaldunen proportzioaren arabera taldekatu dira, bost talde osatuz (%0-%20; %20,1-%40; %40,1-%60 eta %60,1-%80 edo gehiago). Talde hauetako bakoitzean ikasle kopuru bat dago (ikus 3.17 taula) eta ikasle horien *jolaslekuko* eta *gela barruko* erabileraren batez bestekoak kalkulatu dira.

Irudi (3.14 grafikoa) eta datuetan (3.17 taula) ikusten dugu, herri euskaldunetan eta erdaldunetan bizi diren ikasleen hizkuntza-erabilera ere desberdina dela eskola giroan, batez ere *jolaslekuko* erabilera. *Gela barruko* erabilera kasu honetan ere ez da hainbeste aldatzen, *jolaslekuko*arekin alderatuta: egia da herri euskaldunagoetako ikasleen erabilera euskaraz altuagoa dela *gela barruan*, baina herririk erdaldunenetan ere erabiler hori, batez beste %70etik gorakoa da.

Jolaslekuko erabileran aldeak askoz nabarmenagoak dira: euskaldunak %20tik behera diren herrietako ikasleen elkarrizketa gehien-gehienak gaztelaniaz dira *jolaslekuan* (10etik 7). Aldiz, herriko euskaldunen proportzioa %60tik gorakoa denean, ikasleen arteko elkarrizketa ia guztiak euskaraz dira (10etik 8 eta 9).

Erabilera jolaslekuan eta gela barruan, ikasleen herriaren euskalduntasunaren arabera



3.14 grafikoa

Ikaslearen herria. Euskaldunen proportzioa		Erabilera jolaslekuan	Erabilera gela barruan
Euskaldunak %0tik %20ra	Batez bestekoa	% 27,83	% 73,01
	N	486	486
	Desb. típ.	,368	,316
Euskaldunak %20,1etik %40ra	Batez bestekoa	% 53,27	% 76,56
	N	210	210
	Desb. típ.	,376	,292
Euskaldunak %40,1etik %60ra	Batez bestekoa	% 57,69	% 71,91
	N	181	181
	Desb. típ.	,366	,278
Euskaldunak %60,1etik %80ra	Batez bestekoa	% 81,51	% 89,56
	N	338	338
	Desb. típ.	,300	,234
Euskaldunak %80,1etik %100ra	Batez bestekoa	% 95,70	% 99,14
	N	110	110
	Desb. típ.	,146	,057
η^2 - balioa		0,317	0,072
η^2 - Signifikazio maila		,000	,000

3.17 taula

3.5 atala, LABURPENA

Atal honetan ikasleen *jolaslekuko* eta *gela barruko* erabileraren datu orokorrak aztertzen dira lau aldagai askeren arabera.

- ⇒ **Sexua:** nesken erabilera euskaraz mutilena baino 6,5 puntu altuagoa da, bai *jolaslekuan* eta bai *gela barruan*. Joera hau beste ikerketa batzuetan ere sumatu izan da azken urteotan.
- ⇒ **Lehen hizkuntza:** erabilera datuak ikasleen *lehen hizkuntzaren* arabera aztertuta, datuak nabarmen aldatzen dira *jolaslekuko erabileran*: hau da, batez beste, lehen hizkuntza euskara dutenen euskarazko erabilera altuagoa da *jolaslekuan*. *Gela barruan* erabilera datuak askoz gutxiago aldatzen dira aldagai honen arabera, lehen hizkuntza gaztelania duten asko ere euskaraz aritzen baitira.
- ⇒ **Hiztun tipologia:** ikasleek euskara eta gaztelania etxean edo eskolan ikasi duten eta zenbat urterekin ikasi duten kontuan hartuz, 6 hiztun tipologia bereiztu dira. Tipologia hauen arabera erabilera datuak alderatuta, aldagai honen eta erabileraren artean nahiko korrelazio zuzena ikusten da: zenbat eta ikaslearen *hiztun tipologia* euskaldunagoa izan, batez beste, ikaslearen euskarazko erabilera altuagoa da. *Lehen hizkuntza* aldagaian bezala, honetan ere, aldeak askoz handiagoak dira *jolaslekuko erabileran gela barrukoan* baino.
- ⇒ **Herriaren euskalduntasuna:** ikasleak beren herriko euskaldunen proportzioaren arabera bost multzotan bereizi dira. Kasu honetan ere *jolaslekuko* eta *gela barruko erabilerak* aldagai horrekiko harreman argia dute: herri euskaldunagoetako ikasleen erabilera euskaraz altuagoa da. Hemen, berriz ere, *gela barruan* gutxiago aldatzen da erabilera *jolaslekuan* baino, *gela barruko* euskarazko erabilera nahikoa altua delako ikasleen herriaren euskalduntasun maila edozein izanda ere: euskaldunak %0 eta 20 artean diren herrietako ikasleek, adibidez, *gela barruan*, batez beste %73ko erabilera dute euskaraz (aldiz, *jolaslekuan*, %28 dute).

Oro har, beraz: *jolaslekuan* eta *gela barruan* behaketa bidez neurtutako ikasleen erabilerak badu korrelazio edo asoziazio maila bat aztertutako lau aldagai hauekin. Sexuarekin txikia, baina beste hirurekin nahiko nabarmena. *Gela barruan* datuek joera bera adierazten dute; hala ere, ezaugarri batzuk zein besteak izan, ikasleen erabilerak askoz altuagoak eta berdintsuagoak dira, aldiz, *jolaslekuan* askoz gehiago aldatzen dira erabilerak hiru *aldagai* horien arabera: *lehen hizkuntza*, *hiztun tipologia* eta *herriaren euskalduntasuna*.

3.6 Euskararen erabilera-mailaren araberako taldeen deskribapena

Aurrerago (6. eta 7. ataletan) ikusiko den bezala, ikaslearen jolaslekuko erabilera bere gelak edo ikaskideen "taldeak" jolaslekuan duen erabilerari oso lotuta dago. Atal honetan, talde horiek hiru multzotan sailkatu dira jolaslekukoan duten euskararen erabilera-mailaren arabera. Behin hori egin da, multzo bakoitzeko ikasleen ezaugarriak edo aldagaiak nolakoak diren aztertu da, 1.325 ikasleak hiru multzo hauetan bereiziz:

1. Taldearen erabilera behatua jolaslekuan = 0 (%0 duten taldeetako ikasleak: n= 238)
2. Taldearen erabilera behatua jolaslekuan = 0 eta 1 artean dutenak (>%0, < %100) (n= 875)
3. Taldearen erabilera behatua jolaslekuan = 1 (%100) duten taldeetako ikasleak (n= 212)

Lehenengo multzoko ikasleen kasuan, jolaslekuan egin diren behaketetan, ikasle guztien elkarrizketa guztiak gaztelaniaz izan dira (*taldearen jolaslekuko erabilera %0*). Hirugarren multzoan, alderantziz gertatzen da: jolaslekuan egin diren behaketetan, ikasle guztien elkarrizketa guztiak euskaraz izan dira (*taldearen jolaslekuko erabilera %100*). Azkenik, 2. multzoan gainerako ikasle guztiak daude, jolaslekuko behaketetan elkarrizketetako batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz behatu zaizkien ikasleen taldeak (erabilera >%0 eta <%100).

Deskribapena errazteko, ikerketan aztertu diren 111 aldagai aske edo deskriptiboetatik (ikus 6. atala) 32 aldagai aukeratu dira, eta sei eremu ezberdinetan banatu ditugu:

1. Taldearen ezaugarriak
2. Ikaslearen ezaugarriak
3. Ikastetxearen ezaugarriak
4. Familiaren ezaugarriak
5. Kanpo ezaugarriak (herrikoak...)
6. Ikaslearen hizkuntza irudikapenak

Ikus ditzagun, jarraian, sei eremuotan nolako datuak dituzten gorago aipatutako hiru multzoetako ikasleek. Jarraian erakusten diren sei tauletan, multzo bakoitzean kopuru nagusiak ematen dira soilik, alderatzeko esanguratsuenak (horregatik kasu batzuetan aipatutako datuek ez dute batzen %100).

1. Taldearen ezaugarriak

3.18 taula

Aldagaia		I MULTZOA Taldearen erabilera %0 (n: 238)	2 MULTZOA Erab. >%0 eta <%100 (n: 875)	3 MULTZOA Taldearen erab. %100 (n: 212)
1-	Taldeko guraso euskaldunen proportzioa	Guraso erdaldunak %82, mistoak %15	Guraso erdaldunak %45, mistoak %29, euskaldunak %26	Guraso erdaldunak %23, mistoak %25, euskaldunak %52
2-	Ikasteredua	Guztiak A edo B eredukoak. A ereduko talde guztiak eta B eredukoak %75 multzo honetan	D eredukoak (%93), gainerakoak B eredukoak	Guztiak D eredukoak
3-	Taldearen erabilera behatua gela barruan	Taldeen laurdenak (%27) gela barruko erabilera euskaraz %100, Taldeen heren batek (%30) gela barruko erabilera euskaraz <%50	Taldeen %18k gela barruko erabilera %100, taldeen erdiak (%50) gela barruko erabilera %85etik gora. Gela barruko erabilera < %50 bi taldek (%4)	Talde batek ezik, gainerako guztiak (%90) gela barruko erabilera %100 (aipatu talde horrek, %50)

Taldeetako guraso euskaldunen proportzioak oso ezberdinak dira hiru multzoetan; deigarria da, dena den, 3. multzoko ikasleen %23 batek guraso erdaldunak dituela. Ikastereduari dagokionez, D ereduko taldeen artean *jolaslekuko* euskarazko erabilera ez da kasu bakar batean ere %0 izan: *jolaslekuan* %0ko erabilera duten talde guztiak A edo B eredukoak dira. *Gela barruan* behatutako erabilera, aldiz, I. multzoan 3 taldetik 1ean gela barruan ikasleak gaztelaniaz aritzen dira euskaraz baino gehiago, baina beste bi taldeetan ikasleen arteko elkarriketa gehien-gehienak euskaraz dira.

2. Ikaslearen ezaugarriak

3.19 taula

Aldagaia ¹⁹		I MULTZOA Taldearen erabilera %0 (n: 238)	2 MULTZOA Erab. >%0 eta <%100 (n: 875)	3 MULTZOA Taldearen erab. %100 (n: 212)
4-	Atari probako puntuazioa	Batez bestekoa 22,04 puntu, 31tik gora, ikasleen %5	Batez bestekoa 29,44 puntu, 31tik gora ikasleen %41	Batez bestekoa 32,1 puntu, 31tik gora %65
5-	Hiztun tipologia	Jatorrizko euskaldunak ez, Aldibereko elebidunak %11, %75 jatorrizko erdaldun elebidun goiztiarrak.	Jatorrizko erdaldun elebidun goiztiarrak %44, Jatorrizko aldibereko elebidunak %23, Jat. euskaldunak %31.	Jatorrizko aldibereko elebidunak %21, Jatorrizko euskaldunak %60 (%24 elebidun goiztiarrak eta %36 elebidun berantiarrak)
6-	Erraztasun erlatiboa hitz egiteko (ikasleak aitortua)	Gaztelaniaz errazago %60, bietan berdin %40	Gaztelaniaz errazago %32, bietan berdin %38, euskaraz errazago %30	Gaztelaniaz errazago %13, bietan berdin %25, euskaraz errazago %62
7-	Erraztasun erlatiboa ulertzeko (ikasleak aitortua)	Gaztelaniaz errazago %48, bietan berdin %50, euskaraz errazago %2	Gaztelaniaz errazago %20, bietan berdin %50, euskaraz errazago %30	Gaztelaniaz errazago %9, bietan berdin %32, euskaraz errazago %59
8-	Idazlaneko puntuazioa (Irale)	Batez bestekoa 50,1 40tik behera %20, 60tik gora %20	Batez bestekoa 58,8, 40tik behera %5, 60tik gora %45	Batez bestekoa 61,5, 40tik behera %2, 60tik gora %51
9-	Mintzagrama: euskarazko aipamenak - gaztelaniazko aipamenak	Balio negatiboak %48 0 - %35 Balio positiboak %17	Balio negatiboak %32, 0 - %34 Balio positiboak %34	Balio negatiboak %9, 0 - %55 Balio positiboak %36

Hizkuntza-gaitasuna neurtzeko erabilitako aldagaietan (*Atari proba*, *Idazlaneko puntuazioa*) nabarmenak dira hiru multzoen arteko ezberdintasunak. Ikasleek aitortutako hizkuntza-*erraztasun erlatiboei* erreparatzen badiegu ere, alde nabariak daude hiru multzoen artean. Nabarmenezkoa da, dena den, nola erabat euskaraz aritzen diren taldeetan (3. multzokoak) badagoen ikasleen %13 bat inguru, pertsonalki *gaztelaniaz errazago* moldatzen dena, eta %25 bat *bietan berdin* moldatzen dena. Baina talde hauen erabilera behatua %100 da euskaraz *jolaslekuan*: pentsatzekoa da, beraz, gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen diren ikasle horiek “egokitu” egiten direla taldearen erabilera joera orokorrera (kasu honetan, erabateko euskarazko erabilerara), euren berezko gaztelaniarantzko joera gaintutuz. Beste hainbeste gertatuko da ziurrenik, baina kontrako hizkuntza-norabidean, taldearen joera nagusia gaztelaniaren aldekoa denean: talde hauen euskarazko erabilera %0 da, nahiz eta *bi hizkuntzetan berdin* moldatzen diren ikasleak %40 izan.

¹⁹ Aldagaien baloreak:

– *Atari probako puntuazioa* (4): 0tik 40ra.

– *Hiztun tipologiak* (5): 1) Jatorrizko erdaldun elebakarrak; 2) Jatorrizko erdaldun elebidun berantiarrak; 3) Jatorrizko erdaldun elebidun goiztiarrak; 4) Jatorrizko aldibereko elebidunak; 5) Jatorrizko euskaldun elebidun goiztiarrak; 6) Jatorrizko euskaldun elebidun berantiarrak.

– *Erraztasun erlatiboa hitz egiteko* (6): 1) Gaztelaniaz errazago; 2) Bietan berdin; 3) Euskaraz errazago.

– *Erraztasun erlatiboa ulertzeko* (7): 1) Gaztelaniaz errazago; 2) Bietan berdin; 3) Euskaraz errazago.

– *Idazlaneko puntuazioa (IRALE)* (8): 0tik 80ra.

– *Mintzagrama* (9): euskarazko aipamenak ken gaztelaniazko aipamenak, hortik balio positiboak (euskaraz gehiago erdaraz baino), negatiboak (erdaraz gehiago euskaraz baino) atereaz edo 0 balioa (*bi hizkuntzetan berdin*).

3. Ikastetxearen ezaugarriak

3.20 taula

Aldagaia ²⁰		I MULTZOA Taldearen erabilera %0 (n: 238)	2 MULTZOA Erab. >%0 eta <%100 (n: 875)	3 MULTZOA Taldearen erab. %100 (n: 212)
10-	Ikastetxeko errotulazioa	Elebietan %90 Euskara hutsean %0	Elebietan %14 Euskara hutsean %65	Elebietan %9 Euskara hutsean %72
11-	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa	Irakasleak euskaldunak %60 eta %98 artean. 0 kasu irakasle guztiak euskaldunak dituen	Irakasle guztiak euskaldunak %51, Gainerako kasuetan (%49) irakasleen %90 edo gehiago euskalduna	Irakasle guztiak euskaldunak %70, Gainerako kasuetan (%30) irakasleen %93 edo gehiago euskalduna
12-	Ikastetxe mota	Erlijioso pribatuak %52, Publikoak %48, Ikastola pribatuak %0	Erlijioso pribatuak %19, Publikoak %63, Ikastola pribatuak %18	Erlijioso pribatuak %10, Publikoak %20, Ikastola pribatuak %70
13-	Ikastetxean euskararen erabilera lantzeko plangintzak	Planteatzeko asmoa %49, Aplikatzeko %46	Planteatzeko asmoa %22, Aplikatzeko %74	Aplikatzeko %100.
14-	Ikastetxean ahozkotatutako lantzeko plangintzak	Planteatzeko asmoa %76, Aplikatzeko %20	Planteatzeko asmoa %28, Aplikatzeko %66	Planteatzeko asmoa %24, Aplikatzeko %76
15-	Ikastetxean euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak edo ekintzak	Bat aipatzen da %65, Bat baino gehiago aipatzen da %23	Bat aipatzen da %73, Bat baino gehiago aipatzen da %19	Bat baino gehiago aipatzen da %100

Badirudi ikastetxearen *Errotulazioa* nahiko datu adierazgarria dela ikasleen erabilera aztertzerakoan. Pentsatzekoa da, noski, ez dela errotulazioa bera hizkuntza batean edo bestean egotea ikasleen erabileran aldeak sortuko dituen, baizik eta errotulazioak ikastetxearen euskararekiko irizpide eta planteamendu orokorrak laburtzeko "adibide" gisa balio dezakeela gaur egun.

Ikastetxe motari dagokionez, nabarmentzekoa da 3. multzoko talde gehienak (taldeko erabilera %100) *Ikastola pribatu*etan daudela. Gainerakoan, ikusten da jolaslekuan erabileraren altuagoa duten taldeetan *plangintzak aplikatzen* ari direla, oro har, euskararen erabilera eta *ahozkotatutako lantzeko*. Dena den, 13., 14. eta 15. aldagai hauen kategorietan ikus daitezkeenez, aztertu den informazioa oso oinarritzkoa da, hau da, ez da aztertu plangintza horien egokitasuna edo nolakotasuna. Hortaz, plangintza eta ekintza horiek aplikatzeak erabilerarekin neurri bateko lotura badutela erakusten dute datuek, baina ondorio aberatsagoak lortu ahal izateko plangintza eta ekintza horiek sakonago aztertu behar dira.

²⁰ Aldagaien baloreak:

- *Ikastetxeko errotulazioa (10)*: 1) *Gaztelania hutsean*; 2) *Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago*; 3) *Bietan berdin*; 4) *Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago*; 5) *Euskara hutsean*.
- *Ikastetxe mota (12)*: 1) *Erlijioso pribatuak*; 2) *Publikoak*; 3) *Ikastola pribatuak*.
- *Ikastetxean erabilera lantzeko plangintza (13)*: 1) *Ez da momentuz planteatu*; 2) *Planteatzeko asmoa dago*; 3) *Plangintza zehatza aplikatzen*.
- *Ikastetxean ahozkotatutako lantzeko plangintza (14)*: 1) *Ez da momentuz planteatu*; 2) *Planteatzeko asmoa dago*; 3) *Plangintza zehatza aplikatzen*.
- *Ikastetxean erabilera bultzatzeko kanpainak edo ekintzak (15)*: 1) *Ez da ekintzarik aipatzen galdetegiari*; 2) *Aipatzen da, ekintza bakarra*; 3) *Aipatzen da, bat baino gehiago*.

4. Familiaren ezaugarriak

3.21 taula

Aldagaiak ²¹		I MULTZOA Taldearen erabilera %0 (n: 238)	2 MULTZOA Erab. >%0 eta <%100 (n: 875)	3 MULTZOA Taldearen erab. %100 (n: 212)
16-	Erabilera anai-arrebekin	1 - %40 2 - %40 (ikus kategoriak beheko oharretan)	1 - %17 2 - %22 3 - %21 5 - %31	1 - %7 3 - %11 5 - %68
17-	Erabilera etxean. Mahaian.	1 - %75 2 - %17 (ikus kategoriak beheko oharretan)	1 - %46 2 - %18 5 - %22	1 - %21 3 - %13 5 - %45
18-	Lehen hizkuntza (gurasoek aitortua)	1 - %85 2 - %10 3 - %5	1 - %46 2 - %24 3 - %30	1 - %22 2 - %17 3 - %61
19-	Erabilera amarekin eta aitarekin	1 - %67 2 - %16-22 (ikus kategoriak beheko oharretan)	1 - %34-36 2 - %18-21 5 - %28-31	1 edo 2 - %27-29 5 - %56-60
20-	Gurasoen arteko erabilera	1 - %91 2 - %7	1 - %65 2 - %12 5 - %10	1 - %37 2 - %14 3 - %16

Gainerako eremuetan oro har multzo batetik besterako datuak nahiko nabarmen aldatzen dira, eta familiaren 4. eremu honetan ere bistan da multzo bakoitzeko "familia perfila" desberdina dela. Hau da, lehenengo multzotik hirugarrenera igarotzerakoan, familia profil hori gero eta euskaldunagoa da; bestela esanda, familiako euskararen erabilera motak altuagoak direnean, ikasle-taldeen erabilera ere altuagoa.

Bestalde, datuek nahiko agerian uzten dute irakasleek egunero ikusten duten joera bat: gurasoek gehiago egiten dute euskaraz seme-alabekin, beraien artean baino. Hainbat datu alderatuz ikus daiteke hori: adibidez, 3. multzoko ikasleen *etxean mahaian* %45en kasuan *beti edo ia beti euskaraz* egiten bada ere, familia horietako *gurasoek beraien artean* %21ek soilik egiten du *beti edo ia beti euskaraz*. Pentsatzekoa da, 11 urteko ikasle hauek gurasoengan ikusten duten jokaera hori beraiantzat eredu izango dela, eta oso litekeena da biharko egunean ikasle hauetako askok beren familia ingurunean jokaera hori naturalki errepikatzea. Bestalde, anai-arrebekiko erabilerari dagokionez, nabarmentzekoa da hiru multzoetan aipatu erabilera altuxeagoa dela ikasle hauek gurasoekin dutena baino: hau da, badagoela ikasleen ehuneko txiki bat, gurasoekin gaztelaniaz baina anai-arrebekin euskaraz egin ohi duena.

²¹ Aldagaien baloreak:

- *Erabilera anai-arrebekin* (16), *Erabilera etxean, mahaian* (17), *Erabilera amarekin* (19), *Erabilera aitarekin* (19) eta *Gurasoen arteko erabilera* (20) aldagaietan: 1) *Beti edo ia beti gaztelaniaz*; 2) *Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago*; 3) *Bietan berdin*; 4) *Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago*; 5) *Beti edo ia beti euskaraz*.
- *Erabilera gurasoekin* (19): *aitarekiko eta amarekiko erabileretan ehunekoak antzerakoak direnez, bi datuak koadro berean laburtzen dira, horregatik erabiltzen dira zenbaki tarteak: adibidez, 2 - %16-22 (hau da, multzo horretako ikasleen erabilera bai aitarekin eta bai amarekin, "2" kategorikoa da kasuen %16 eta %22 artean).*
- *Lehen hizkuntza (gurasoek aitortua)* (18): 1) *Gaztelaniaz*; 2) *Biak* 3) *Euskara*.

5. Kanpoko ezaugarriak (herrikoak...)

3.22 taula

Aldagaia ²²		I MULTZOA Taldearen erabilera %0 (n: 238)	2 MULTZOA Erab. >%0 eta <%100 (n: 875)	3 MULTZOA Taldearen erab. %100 (n: 212)
21-	Erabilera herriko lagunekin	1 - %81 2 - %12	1 - %35 2 - %18 5 - %24	1 - %8 3 - %12 5 - %65
22-	Erabilera aisialdian batez beste	Batez bestekoa: 1,76 Ikasleen %50 < 1,5etik behera, 3tik gora ikasleen %5	Batez bestekoa: 3,30 Ikasleen %30 > 4 %18=5	Batez bestekoa: 4,26 Ikasleen %87 >3 %45=5
23-	Ikaslearen herriko euskalduntasuna	Batez bestekoa %16	Batez bestekoa %43	Batez bestekoa %71
24-	Lurraldea	%68 Araban, %23 Bizkaian	%45 Gipuzkoan, %43 Bizkaian, %12 Araban	%64 Gipuzkoan, %36 Bizkaian
25-	Telebista-Musika-Irratia kontsumoa	Batez bestekoa: 3,19 %90 3 eta 3,5 artean	Batez bestekoa 3,83. 5etik gora %6 4tik behera %70	Batez bestekoa 4,20 5etik gora %10 4tik behera %45

Hiru multzoetako *ikaslearen herriko/lurraldeko euskalduntasuna* eta *euskararen erabilera herriko lagunekin* oso ezberdinak dira batetik bestera. Aurrerago ikusiko dugunez (6. atalean), *aldagaien rankingak* aztertzean ere nabarmentzen da ikaslearen *ingurune hurbileko hizkuntza-erabilerak* lotura estua duela *jolaslekuko erabilerarekin*. Kasu honetan, beste modu batera alderatuta, baina lotura hori bera nabarmentzen da.

Hori ez ezik, *aisialdiko jardueretan* egiten den erabileraren eta *ikus-entzunezkoen kontsumoaren* kasuan ere lotura nabarmenak ikusten dira *jolaslekuko erabilerarekin*. Atal honen hasieran aipatu dugun “aldagai asko batera doazen” ideia-aren bi adibidetzat har genezake hori. Dena den datuetan ikasleentzat dagoen ikus-entzunezkoen euskarazko eskaintza urria ere nabarmentzen da: jolaslekuan erabat euskaraz aritzen diren ikasle gehienek ere gaztelaniazkoak kontsumitzen dituzte euskarazkoak baino gehiago (gehienak 4,5eko batez bestekotik behera daude 3tik 6rako eskalan).

²² Aldagaien baloreak:

- *Erabilera herriko lagunekin (21)*: 1) *Beti edo ia beti gaztelaniaz*; 2) *Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago*; 3) *Bietan berdin*; 4) *Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago*; 5) *Beti edo ia beti euskaraz*.
- *Erabilera aisialdian, batez beste (22)*: *1etik 5erako indizea da, ikaslearen aisialdiko jardueren batez bestekoa adierazten duena, non 1ek esan nahi duen ikasleak Beti edo ia beti gaztelaniaz egiten dituela aisialdiko jardura guztiak eta 5ek esan nahi duen Beti edo ia beti euskaraz egiten dituela, eta tarteko kopuruetan, zenbat eta batez besteko altuagoa, noski, euskaraz gehiago.*
- *Ikaslearen herriko euskalduntasuna (23)*: *multzo bakoitzeko ikasleak bizi diren herrien euskaldunen proportzioen batez bestekoa atera da.*
- *Lurraldea*: *ikasleak zein lurraldetan bizi diren (Araba, Bizkia edo Gipuzkoa).*
- *Telebista-Musika-Irratia kontsumoa (24)*: *3tik 6rako bitarteko indize bat da, ikaslearen gustuko telebista-programa, musika talde eta irratsaioak laburtzen dituen, non 3k esan nahi duen ikaslearen gustuko saioak eta taldeak gaztelaniazkoak direla, eta 6k esan nahi duen euskarazkoak direla. Tarteko kopuruetan, zenbat eta zenbaki altuagoa, ikaslearen kontsumo euskaldunagoa.*

6. Hizkuntza-irudikapenak

3.23 taula

Aldagaia ²³		I MULTZOA Taldearen erabilera %0 (n: 238)	2 MULTZOA Erab. >%0 eta <%100 (n: 875)	3 MULTZOA Taldearen erab.%100 (n: 212)
26-	Imajina ezazu ez dakizula hizkuntzarik. Zein hitz egitea gustatuko?	1- % 13 2- % 8 3- % 53 4- % 21 5- % 5	1- % 1 2- % 4 3- % 25 4- % 64 5- % 6	1- % 2 2- % 5 3- % 7 4- % 80 5- % 6
27-	Zein hizkuntza doakio hobeto - familia	Batez bestekoa 2,1	Batez bestekoa 3,1	Batez bestekoa 3,4
28-	Zein hizkuntza doakio hobeto - haginlaria	Batez bestekoa 1,8	Batez bestekoa 2,5	Batez bestekoa 2,8
29-	Zein hizkuntza doakio hobeto - kanpina	Batez bestekoa 2,3	Batez bestekoa 2,9	Batez bestekoa 3,0
30-	Zein hizkuntza doakio hobeto - hizlaria	Batez bestekoa 1,9	Batez bestekoa 2,4	Batez bestekoa 2,6
31-	Gustuko kirolaria	Batez bestekoa 1,05	Batez bestekoa 1,21	Batez bestekoa 1,26
32-	Gustuko aktore-ableslaria	Batez bestekoa 1,03	Batez bestekoa 1,13	Batez bestekoa 1,17

Ikasleek dituzten hizkuntza-irudikapenen atalean ere ikusten dira desberdintasunak hiru multzoetako ikasleen artean, baina ez dira orain arte aztertutako aldagaietan bezain nabariak. Beste era batera esanda: *jolaslekuan* oso erabilera ezberdina duten ikasleek ez dituzte, oro har, oso hizkuntza-irudikapen ezberdinak.

Imajina ezazu aldagaian bi ideia nabarmendu daitezke:

- Multzo batekoak zein bestekoak izan, ikasle gehien-gehienek aipatzen dituzte bai euskara eta bai gaztelania, *hitz egitea gustatuko* litzaiekeen hizkuntza moduan. Erabat gaztelaniaz aritzen diren ikasleen artean ere (1. multzoa), %13 bakarrik dira *euskara* aipatzen ez dutenak.

²³ Aldagaien baloreak:

- *Imajina ezazu ez dakizula hizkuntzarik. Zein hitz egitea gustatuko?* (26): 1) Gaztelania aipatzen du eta euskara ez; 2) Ez ditu aipatzen ez euskara eta ez gaztelania; 3) Euskara eta gaztelania aipatzen ditu, gaztelania lehenago; 4) Euskara eta gaztelania aipatzen ditu, euskara lehenago; 5) Euskara aipatzen du eta gaztelania ez.
- *Zein hizkuntza hobeto (familia, haginlaria, kanpina, hizlaria)* (27, 28, 29, 30): Aldagai bakoitzak irudi bati ikasleek emandako erantzunak jasotzen ditu. Bost erantzun posible zituzten, eta bakoitzari balio hau eman zaio: 1) Gaztelania hobeto; 2) Edozein hizkuntza berdinean; 3) Ez euskaraz, ez gaztelaniaz, ingelesa hobeto / Euskara edo gaztelania, bata zein bestea; 4) Euskara hobeto. Balio hauetan oinarrituz, batez bestekoak kalkulatu dira irudi bakoitzari multzo bakoitzeko ikasleek emandako erantzunekin.
- *Gustuko kirolaria* (31): ikasleei beren gustuko kirolariei buruz galdetu zaie eta erantzunak horrela sailkatu dira: 1) Kirolari erdalduna; 2) Kirolari euskalduna.
- *Gustuko aktore-ableslaria* (32): ikasleei beren gustuko aktore-ableslariari buruz galdetu zaie eta erantzunak horrela sailkatu dira: 1) Aktore-ableslari erdalduna; 2) Aktore-ableslari euskalduna.

– Aipatutako hizkuntzen artean euskara eta gaztelania, biak ala biak egonik, ordenan dago alde: euskara gehiago egiten dutenek (3. multzoa) euskara lehenago aipatzen dute eta euskara gutxi egiten dutenek (1. multzoa), aipatu bai, baina gaztelaniaren ondoren.

Irudi bidez jasotako datuetan (gai horri buruzko xehetasunak 8.1. atalean dituzue), hiru multzoetako ikasleen artean aldeak badaude batez bestekoetan, baina ez dira handiak (hemen aztertutako lauetan handiena, *familia* irudian).

Azkenik, ikasleek miresten dituzten edo *gustuko dituzten kirolari zein aktore-ablesarien* kasuan ikusten da nola jolaslekuan erabat euskaraz aritzen diren ikasleek ere (3. multzoa) gehienbat kirolari eta aktore-ablesari erdaldunak miresten dituzten. Joera nagusi horren barruan, kirolari euskaldun gehixeago aipatzen dute ikasleek, dena den, aktore-ablesari euskaldunak baino.

3.6 atala, LABURPENA

Atal honetan, ikaslearen *taldearen euskararen erabilera behatua jolaslekuan* aldagaien oinarrituz, ikasleak hiru *multzotan* bereizi dira: jolaslekuan erabilera “oso baxua” dutenak (%0 euskaraz = 1. multzoa), “oso altua” dutenak (%100 euskaraz = 3. multzoa) eta tartekoak (%0,1 eta %99,9 artean = 2. multzoa).

Multzo hauek deskribatzeko, aztertutako guztietatik 32 aldagai hautatu dira, eta sei eremutan banatu:

1. Taldearen ezaugarriak
2. Ikaslearen ezaugarriak
3. Ikastetxearen ezaugarriak
4. Familiaren ezaugarriak
5. Kanpo ezaugarriak (herrikoak...)
6. Hizkuntza-irudikapenak

Hiru *multzo* horietako ikasleen datuak alderatuta nabarmentzen den lehen ideia hau da: jolaslekuko erabilera “oso baxua” eta “oso altua” duten taldeetan, erabilera hori zaildu edota erraztu dezaketen aldagai asko **batera gertatzen dira**. Hau da, jolaslekuan euskarazko erabilera oso baxua duten taldeetan, deskribatutako sei eremuotan ezaugarri erdaldunagoak dituzte tarteko erabilera dutenek baino, eta, era berean, erabilera oso altua dutenek ezaugarri euskaldunagoak dituzte eremuotan.

Eremuka aztertuta, berriz, ideia osagarri hauek nabarmentzen dira:

- ⇒ Euskaraz *erraztasun erlatiboa* altuagoa duten ikasleen taldeak euskaraz asko aritzen dira, eta *erraztasun erlatibo* apala (gaztelaniaz baino baxuagoa) dutenak gutxi. Baina ikaslearen erraztasuna bat edo beste izan arren, *jolaslekuko erabileran* ikaslea bere *taldearen* erabilera joera nagusira “egokitzen” dela dirudi.

- ⇒ *Erabilera* eta *ahozkotasuna* lantzeko ikastetxeetan egiten diren plangintzak eta ekintzak finkatuago daude hizkuntza horren erabilera altuko taldeetan, baina hauek ikasleen erabilerarekin nolako lotura duten aztertzeko, plangintza hauen azterketa sakonagoa egin behar litzateke hemen egin dena baino.
- ⇒ Ikasleen *Familiako ezaugarrien* eta *jolaslekuko erabileraren* arteko lotura ikusten da: euskaraz erabilera oso altua duten taldeek, batez beste, askoz familia euskaldunagoak dituzte, eta erabilera oso baxuko taldeek erdaldunagoak. Bestalde, bai bi muturretan eta bai tarteko multzoan ikusten da, gurasoek, oro har, gehiago egiten dutela euskaraz seme-alabekin banaka, eta etxeko mahaian guztiak elkarrekin daudenean, beraien artean baino.
- ⇒ *Jolaslekuan* euskarazko erabilera altuagoa duten taldeetako ikasleek *aisialdian* eta *ikus-entzunezkoetan* ere euskarazko erabilera edo kontsumo altuagoa dute. Baina ikus-entzunezkoen kontsumoan nagusitzen den hizkuntza gaztelania da gaur egun; alegia, erabat euskaraz aritzen diren taldeetako ikasleek ere, gaztelaniaz euskaraz baino *ikus-entzunezko* gehiago kontsumitzen dute.
- ⇒ Hizkuntza-irudikapenei dagokienez, azkenik, joera berdina da, baina ikasleen arteko aldeak txikiagoak dira aurreko beste bost eremuetan baino: *jolaslekuan erabilera* oso altua duten taldeek hizkuntza-irudikapen euskaldunagoak dituzte, baina aldeak apalagoak dira irudikapen erdaldunagoak dituztenekiko; alegia, euskararen erabilera maila oso ezberdina duten taldeetako ikasleek, ez dituzte, oro har, hain hizkuntza-irudikapen ezberdinak.

Laburpen-koadroa 9

**4. Zer da ikasleentzat euskara? Eta gaztelania?
Erabilerarekin sumatzen diren loturak**

4. Zer da ikasleentzat euskara? Eta gaztelania? Erabilerarekin sumatzen diren loturak

- **Azalpen metodologikoa**

Gaztetxoek hizkuntza ezberdinekiko dituzten jarrerak jaso eta aztertzeke asmoz, galdera irekiak egin dizkiegu, honako hau galdetuz:

- Zer da zuretzat euskara?
- Zer da zuretzat gaztelania?

Gaztetxoek hizkuntza hauekiko dituzten bizipen eta esperientzietan oinarrituz egiten dute gai baten edo bestearen aipamena edo erreferentzia. Beraz, ondoren aztertuko ditugun gai hauetako bakoitza ez da guk guztiei galdetu dieguna, baizik eta gazteek euskarari buruz nahiz gaztelaniari buruz bururatu zaizkien gaiak dira, askatasuna izan dutelarik edozer gai jorrazteko. Ohar hau kontuan hartu behar da datuon irakurketa egiterakoan, batez ere ehunekoak irakurtzerakoan.

Hortaz, azterketa honetan erabili den metodologia galdera irekien eduki-azterketa izan da. Horretarako, testu idatzien bilatze-estrategia batzuk landu dira, 71 guztira, idazlanetako hiztegian oinarrituta. Hau da, gaztetxoek erabilitako *hitzak* oinarri hartuz, taldekatu edo bildu egin dira, ondoren eduki-azterketa egiteko.

Ondoren, testuetan aurkitutako *hitz* edo *hitz estrategia* hauetako bakoitzaren zenbatekoak kalkulatu dira. Batetik, gai bakoitzaren aipamenak idazlan guztien *zein ehuneko* osatzen duen azaltzen dugu. Bestetik, *ponderaketa*- edo *haztapen-balio* bat kalkulatu da gai bakoitzerako. Hau da, gaia zenbat aldiz aipatu den, bider zenbat dokumentu edo idazlanetan aipatzen den, zati idazlan guztien kopurua. *Ponderaketa* honek gaiak idazlan guztien artean duen presentzia erreal adierazten du.

- **Emaitza nagusiak**

Euskara nahiz gaztelaniari buruz galdera irekia eginda, guztira 959 idazlan²⁴ jaso ditugu. Idazlan horien guztien artean, gehien aipatzen diren *hitzak* edo *hitz taldeak* zein diren aztertutako dugu. Hitz horiek aipatzean, hizkuntza bakoitza, arlo, eremu edo ezaugarri horiekin lotzen da, lotura hori da hemen aztertu duguna eta ez gazte bakoitzak duen jarrera propioa gai bakoitzean.

²⁴ Lan honen 3., 5., 6. eta 7. ataletako datuak bezala, 4. honetakoak 2005-2006 ikasturtean EAEko 42 ikastetxetako 1.325 ikasleren erantzunetan oinarritzen dira. 1.325 ikasle horietako 959ren idazlanak jaso ziren eta horien gainean egin da azterketa.

4.1 Euskarari buruz gehien aipatu diren gaiak

Honako hauek dira gaztetxoek idatzi guztien artean gehien aipatzen diren 15 *hitz estrategiak*, aipamen kopuruaren arabera goitik behera ordenatuta. Esan dezakegu gaztetxoek gai edo ezaugarri hauekin lotzen dutela euskara:

1. POLITA, EDERRA, ONA
2. EUSKAL HERRIA
3. GEHIENEK, GEHIENGOAK, ZABALDUA, NAGUSIA
4. ETXEA, FAMILIA
5. BEHARREZKOA, ERABILGARRIA, BALIAGARRIA
6. IKASI, IKASTEKO, IKASTEN
7. ATSEGINA, GUSTUKOA, GOGOKOA, ALAIA
8. IKASTOLA, ESKOLA, IKASTETXEA, IKASKETAK
9. GALTZEN, DESAGERTZEN, GALZORIAN
10. LAGUNAK, ATARIA, KALEA
11. INTERESGARRIA, GARRANTZITSUA
12. EUSKALDUNAK, EUSKAL HIZTUNAK
13. TXIKITATIK, BETIDANIK
14. ZAHARREK, ADINEKOEK
15. HIZKUNTZA ZAHARRA

Gaztetxoek, orokorrean, euskararen balorazio baikorra egiten dute bai kognitiboki baita afektiboki ere. Euskara beraienez hizkuntza polita edo ederra da, gauza on bezala definitzen dute eta hizkuntza honekiko sentimendu baikorrak adierazten dituzte, hizkuntza hau atsegin dutela, gustukoa dutela diote.

Euskara Euskal Herriaren kontzeptuarekin lotuta agertzen da idazlan ugarritan, herri honen izaera definitzeko gauza garrantzitsua da euskara beren ustetan, euskaldunen hizkuntza. Gazte hauentzat identitatearen adierazlea da.

Euskararen estatusaren hautemate altua adierazten dute gazteek orokorrean, euskara gehienek erabiltzen duten hizkuntza da, hizkuntza zabaldua, hedatua dagoena eta gure gizartean beharrezkoa, garrantzitsua eta baliagarria dena.

Euskara ikasketa prozesua eta eskolarekin lotzen dute, sarritan aipatzen dute ikastea, ikasketak, baita eskola, ikastola edo ikastetxea ere. Eskolaren eremuari lotuta, beraien bigarren sozializazio edo gizarteratzean kokatzen dute hizkuntza hau.

Baina, bestalde, gaztetxo askok euskara berezko hizkuntza dute, etxekoekin, familiakoekin, anai-arrebekiko harremanekin lotzen dute hizkuntza honen erabilpena. Lagunekiko harremanek ere badute presentzia gaztetxoek euskararekiko duten bizipenetan.

Euskara galzorian dagoen hizkuntza bezala ere ikusten dute gazte hauek, hizkuntza gutxi-tuaren izaera duela jabetzen dira beraz. Baita aspaldiko jatorria duen hizkuntza zaharraren izaera duela ere.

Hona gaztetxo hauen adierazpenen adibide batzuk, euren idazkera erabat errespetatuz:

- Euskera niretzako oso izkuntz **polita** da eta ere oso **zaharra**, euskera besalako izkuntza **politagorik** ez dut inoiz entzun.
- Para mi el euskera es muy **bonito** porque es diferente al castellano.
- Hizkuntza **interesgarria** bat da. **Euskal herrian gehienek** itzegiten dute, baina orain gende **gehietak** uzten ari dira.
- Niretzat euskera hizkuntz **polita** da zeren **txikitatik** hitz egiten dut, baita ere gustatzen zait bakarrik **Euskal Herrian** hitz egiten delako.
- Hezkuntz **polit** bat **euskal herrian** oso garrantzitsua baina kanpoan ez hain beste nire ustez urte gutxi barru hemen **gehiago** erabiliko dela.
- Euskera gure hizkuntza da, beraz euskeraz hitzegi behar dugu. Euskera hizkuntza **zahar** bat eta oso **ederra** da, horregatik mantendu egin behar da. **Euskal Herrian** euskeraz hitzegi behar dugu bestela ez zen izango **Euskal Herria**.
- Niretzat euskara ni **ikasten** nagoen hizkuntza bat da ez da oso **erraza** bañon itzeguiten dakizunean oso **erraza** da nire **aitarekin** euskeras itsegiten dut beti eta nire **amarekin** berris gasteleras.
- Es un idioma distinto a el que hablamos en **casa** pero como solo lo hablamos en el **cole** no me gusta mucho por que me resulta muy aburrido.

4.2 Gaztelaniari buruz gehien aipatu diren gaiak

Gaztetxo berauei, gaztelaniari buruz galdetuta, jaso ditugun idatzietan, honako gai hauekin, *hitz estrategia* hauekin, lotzen da gehien gaztelania:

1. GEHIENEK, GEHIENGOAK, ZABALDUA, NAGUSIA
2. ETXEA, FAMILIA
3. POLITA, EDERRA, ONA
4. ATSEGINA, GUSTUKOA, GOGOKOA, ALAIA
5. IKASI, IKASTEKO, IKASTEN
6. BEHARREZKOA, ERABILGARRIA, BALIAGARRIA
7. EUSKAL HERRIA
8. ASKO, GEHIENETAN, ERABILI
9. IKASTOLA, ESKOLA, IKASTETXEA, IKASKETAK
10. INTERESGARRIA, GARRANTZITSUA
11. TXIKITATIK, BETIDANIK
12. LAGUNAK, ATARIA, KALEA
13. ERRAZA
14. BESTE HIZKUNTZAK, BESTE HIZKUNTZA BAT
15. ZAILA

Gaztelania gure gizartean estatus altua duen hizkuntza da beraientzat, gehienek dakitena, hizkuntza nagusia da. Gaztetxo gehienek gaztelania berezko hizkuntza dute, lehen sozializazio edo gizarteratzean jaso, familian, etxean.

Gaztelaniaren balorazio kognitibo eta afektibo baikorra egiten dute, hizkuntza hau polita edo ederra dela diote eta sentimendu baikorrak adierazten dituzte, atsegin dute, gustukoa.

Euskal Herriak eta herri izaerak ere badute aipamena gaztelaniari buruz hitz egiterakoan, herri honetan kokatzen den hizkuntza da beraientzat gaztelania. Gure gizartean beharrezkoa dena, baliagarria, askotan edo gehienetan erabiltzen den hizkuntza.

Ikasketa prozesua eta eskolari lotzen zaio baita ere gaztelania, ikasten ari direla, edo ikas-tetxea aipatzen dute. Lagunekiko harremanetan ere badu lekua gaztelaniak.

Jarrera kontrajarriak daude, berriz, gaztelania ikastea zaila ala erraza den esaterakoan, bi iritziak edo jarrerak agertzen dira gaztetxo batzuen eta besteen artean.

Gaztelania beste hizkuntza bat bezala definitzen dute gazte askok, gaztelania jakiteak beste hizkuntza bat jakitea esan nahi du, ikuspegi integratzaile batetik gauza garrantzitsua dena, aberasgarria.

Nahiz eta jarrera ezberdina adierazten duten gaztetxo batzuek eta besteek, oro har gai hauekin lotzen dute gazteek gaztelania:

- *Gaztelania ere oso beharrezkoa da. Baina niretzat baliagarriagoa da gaztelania. Leku **gehiagotan** gaztelania erabiltzen da euskera baino.*
- *Gaztelera, euskera baino berriagoa da, eta espainian oso **ezaguna** da. Gende **gehiena** gaztelera hitze giten du.*
- *Gaztelera gehien gustatzen jatan hizkuntza da munduan **askok** hitzegiten dutelako.*
- *Telebista **gehienetan** gaztelaniaz hitzegiten dute honela jende askok ulertzen dielako.*
- ***Zailago** iruditzen zait gaztelaniaz irakurri eta hitz egitea baina nahiko **ikasten** ari naiz bai irakurtzen eta baita ere hitz egiten.*
- *Es la lengua que e hablado toda la vida y ue me han enseñado mis **aitas** el castellano nos sirbe para hablar por distintos sitios.*
- *Nire ustes gu esgara espainiarrak eta ezait **guztatzten** gaztelaniaz itzegitea eta ezdugu espainiarres itzezin behar.*
- *Gaztelania hizkuntz bat da, espainako hizkuntza da eta nahi dutenak hitz egin gaztelaniaz hitz egin dezatela baina **Euskal Herritik** kanpo. Gaztelania inglesa modukoa da hizkuntza bat.*
- *Espainan eta **Euskal herriko** leku batzuetan egiten den izkuntza.*
- *Munduko bigarren hizkuntza ofiziala da. Hego Amerikan gehienbat hitz egiten da. Gur egun geroz eta gehiago ari da barneratzen **Euskal Herrian**. Hizkuntz hau komenigarria da ikastea leku batzuetara joateko eta komunikatzeko balio digulako ia mundu osoan.*

4.3 Euskara eta gaztelaniaren diferentzia nagusiak deskribapenetan

Gaztetxoek euskara eta gaztelaniarekiko duten bizipena zertan ezaugarritzen den ikusteko, bi hizkuntzei buruz egin dituzten aipamenak alderatu ditugu, jakin nahirik zein ezaugarri edo gairekin lotzen duten gehiago hizkuntza bakoitza.

- **Zerk bereizten du euskara, gaztelaniarekin alderatuta?**

Gai hauetatik guztietatik jakin nahi dugu zein den gazteek euskararekin bereziki lotzen dutena. Horren arabera ordenatuta aurkezten ditugu gaiak ondorengo taulan.

Euskarari lotzen zaizkion gaiak 959 IDAZLAN GUZTIRA	Euskara %	Pondera keta	Gaztelania %	Pondera keta	Diferentziak
Polita, ederra, ona	38,9%	180,1	18,0%	37,2	142,9
Euskal Herria	34,3%	154,7	12,4%	18,6	136,1
Galtzen, desagertzen, galzorian...	19,4%	48,3	5,3%	3,2	45,1
Beharrezkoa, erabilgarria, baliagarria	22,6%	61,1	14,5%	24,2	36,9
Ikastola, eskola, ikastetxea, ikasketak, hezkuntza...	19,8%	48,7	11,1%	15,4	33,3
ikasi, ikasteko, ikasten	21,3%	57,0	15,4%	28,7	28,3
Atsegina, gustukoa, gogokoa, alaia...	21,1%	51,6	16,5%	31,1	20,5
Euskaldunak, euskal hiztunak	13,1%	20,7	2,2%	0,5	20,2
Hizkuntza zaharra	14,6%	18,1	1,3%	0,2	17,9
zaharrek, adinekoek	13,0%	18,5	2,5%	0,6	17,9
Lagunak, ataria, kalea	15,2%	27,4	10,3%	12,2	15,2
Zaharra	11,6%	14,1	0,8%	0,0	14,1
Interesgarria, garrantzitsua	14,7%	23,8	10,6%	12,9	10,9
Gure hizkuntza, euskaldun izan, berezkoa, jatorrizkoa, euskaldunena	10,4%	9,3	4,7%	2,3	7,0
Txikitatik, betidanik	12,8%	18,7	10,3%	12,3	6,4

4.1 taula

Aztergai ditugun gazteek euskararekiko balorazio kognitibo eta afektibo baikorra goa dute gaztelaniarekiko dutena baino. Euskararekiko balorazio baikorra da bi hizkuntzen bizipenak gehien bereizten dituenena. Beraz, euskara ikasle horiek bereziki baloratzen duten hizkuntza da.

Euskararen bereizgarritasuna da, baita ere, hizkuntza honek gazteen identitate etnolinguistikoarekin duen lotura: euskara Euskal Herriko hizkuntza da, herri hau egiten duena,

herri honetan bakarrik hitz egiten dena, hizkuntza zaharra, jatorri ezezagunekoa, gure hizkuntza, jatorrizkoa, euskaldunen hizkuntza bezala ikusten dute ikerlan honetako gazteek.

Gazte hauek jabetzen dira euskara hizkuntza gutxitua dela, eta euskararekiko ardurua adierazten dute, desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntza dela adieraziz.

Euskarak gizartean duen balioa azpimarratzen dute gazteek, gaztelaniari buruz ari direnean baino indartsuago, berauentzat euskara beharrezko hizkuntza da, erabilgarria, eta gai honekiko zalantzen aurrean jarrera tinkoa agertzen dute.

Gazte hauek gaztelania baino indartsuago lotzen dute euskara ikasketa prozesuarekin, eskolaren eremuan edo ikastetxean landu eta bultzatzen dela ikusten dute, balore kulturala duela, eta ikasi beharrekia eta ikasten ari direna dela.

- **Zerk bereizten du gaztelania, euskararekin alderatuta?**

4.2 taulan aurkezten ditugu gaztelaniari buruz, euskarari buruz baino indartsuago adierazten diren gaiak, bereizgarritasun horren arabera ordenatuta.

Gaztelaniari buruz euskarari buruz baino gehiago aipatzen diren gaiak 959 IDAZLAN GUZTIRA	Euskara %	Ponderaketa	Gaztelania %	Ponderaketa	Diferentziak
Gehienek, gehiengoak, zabaldua, nagusia.	25,5%	88,6	28,2%	98,8	-10,2
Etxea, familia	19,9%	68,1	23,3%	77,2	-9,1
Beste hizkuntzak, beste hizkuntza bat, elebitasuna	5,2%	2,6	9,3%	9,0	-6,3
Erraza	6,6%	4,4	9,1%	9,1	-4,7
Erromatarra, latina, indoeuroparra	0,8%	0,1	4,6%	2,7	-2,6
Itsusia, txarra, aspergarria	2,0%	0,4	5,1%	2,7	-2,3
Asko, gehienetan erabili	11,7%	14,9	12,5%	16,5	-1,6
Zaila	7,9%	7,0	8,9%	8,5	-1,5
Lurraldea, territorio	3,2%	1,1	4,1%	1,8	-0,7
Telebista, irratia, eitb	0,6%	0,0	1,4%	0,2	-0,2
Erdal hitzuna	0,3%	0,0	1,4%	0,2	-0,2
Etorkina, atzeritarra	1,5%	0,2	2,1%	0,4	-0,2
Ofiziala	0,4%	0,0	1,6%	0,2	-0,2
Oporrak, bidaiak, festa	1,0%	0,2	1,7%	0,3	-0,1
Modernoak, berria	0,6%	0,0	0,8%	0,0	-0,0

4.2 taula

Gaztelaniaren ezaugarri nagusia, eta euskararekiko gehien bereizten duena, hizkuntza honek gure gizartean duen bizindar etnolinguistikoaren hautemate altua da. Gaztelaniak gizartean duen estatus altua da hizkuntza honen berezitasuna gazteen ikuspegitik. Gazteentzat gaztelania hizkuntza nagusia da, gizartean zabaldua, asko erabilia, ofiziala, eta, euskara ez bezala, lurraldetasun zabala duena.

Hizkuntza normalizatua dute gainera gaztelania gazte hauek, etxeko harremanekin eta familiakoekin lotura duen hizkuntza, baita komunikabideekin ere, euskara baino ere gehiago.

Gaztelania beste hizkuntza bat jakitearekin lotzen dute, aitortzen dute garrantzitsua dela beste hizkuntzak ezagutzea, elebitasuna gauza garrantzitsu bezala ikusia da, jarrera integratzaile baten adierazle. Gai hau euskararen kasuan baino gehiagotan agertzen da gaztelania deskribatzerakoan.

Ezberdintasun txikiagoarekin agertzen dira gaztelaniaren beste bereizgarri hauek:

- Gaztelania euskara baino errazagoa egiten zaie ikasteko, zailtasuna ere aitortzen da ordea.
- Gaztelaniaren jatorria, erromanikoa edo latinoia.
- Gaztelaniaren balorazio afektibo ezkorrak ere badu tartea.
- Oporrak, bidaiak, festak, atzerritarrak... , eremu zabalagoekin lotzen dute gaztelania.
- Gaztelania hizkuntza modernoagoa da, berrikuntzari lotuagoa euskara baino.

4.4 Hizkuntzen ikuspegiak zonalde soziolinguistiko eta hizkuntza-ereduaren arabera

4.3 taulan adierazten ditugu ikasleen zonalde soziolinguistikoak eta hizkuntza-ereduak gurutzatuta²⁵ gaztetxoek euskara eta gaztelaniarekiko adierazpenetan aipatzen dituzten gaiak ehunekotan.

Euskarari lotzen zaizkion gaiak 959 idazlan	<%20 A eredua 40 idazlan %	<%20 B eredua 75 idazlan %	<%20 D eredua 208 idazlan %	%20-%60 D eredua 259 idazlan %	%60> D eredua 357 idazlan %
Polita, ederra, ona	15,0	36,0	39,4	44,0	39,8
Euskal Herria	0,0	14,7	33,2	43,2	38,7
Gehiengoa, nagusia, zabaldua	0,0	16,0	17,3	32,0	31,1
Beharrezkoa, erabilgarria, baliagarria	27,5	21,3	20,2	34,0	19,0
Ikastea, ikasketa	20,0	30,7	20,2	17,0	24,1
Atsegina, gustukoa	17,5	24,0	21,6	23,9	19,9
Etxea, familia, anai-arrebak	2,5	14,7	15,9	23,9	22,7
Ikastola, ikastetxea, ikasketak	7,5	28,0	16,3	21,2	22,1
Galtzen, galzorian	0,0	8,0	19,2	26,6	19,6
Lagunak, jolasa, kalea	0,0	9,3	10,6	22,0	16,2
Interesgarria, garrantzitsua	22,5	12,0	13,0	16,6	16,0
Zaharra, jatorri ezezaguna	0,0	2,7	12,5	16,2	14,0
Euskal hitzunik, euskaldunak	0,0	6,7	14,9	14,7	14,3
Zaharrek, adinekoek	0,0	1,3	10,1	18,9	13,7
Txikitatik	0,0	14,7	9,6	10,8	16,8
Gaztelaniari lotzen zaizkion gaiak 959 idazlan	<%20 A eredua 40 idazlan %	<%20 B eredua 75 idazlan %	<%20 D eredua 208 idazlan %	%20-%60 D eredua 259 idazlan %	%60> D eredua 357 idazlan %
Gehiengoa, nagusia, zabaldua	2,5	14,7	25,5	34,0	31,9
Familia, etxea	12,5	38,7	20,2	23,9	21,8
Polita, ederra	12,5	29,3	13,9	20,5	17,1
Atsegina, gustukoa	17,5	21,3	14,9	17,4	14,8
Ikasi, ikastea	17,5	17,3	17,3	12,7	16,5
Beharrezkoa, erabilgarria	10,0	13,3	13,0	18,9	12,6
Asko, gehienetan erabili	0,0	14,7	11,5	17,4	10,4
Euskal herria	0,0	2,7	10,1	17,4	14,0
Ikastola, ikastetxea, ikasketak	5,0	6,7	9,6	10,8	14,0
Interesgarria, garrantzitsua	12,5	10,7	8,2	10,0	12,0
Txikitatik	10,0	18,7	9,1	8,9	10,6
Lagunak, jolasa, kalea	2,5	16,0	4,3	12,7	10,9
Beste hizkuntza bat	7,5	5,3	11,1	8,5	10,4

4.3 taula

²⁵ 959 idazlan bost zutabeetan banatzeko bi datu konbinatu dira: batetik, ikasteredua (A, B edo D ereduak ikasten duen) eta, bestetik, bizi den herriko euskaldunen proportzioa: lehen hiru zutabeetako ikasleak euskaldunak herritarren %20 baino gutxiago diren herrietan bizi dira, 4. zutabeetako euskaldunak %20 eta %60 artean diren herrietan eta D ereduak ikasten dute, eta 5.ekoak, berriz, euskaldunak %60tik gora diren herrietan eta D ereduak ikasten dute.

Gazteen gizarte-ingurunea zenbat eta euskaldunagoa izan, hau da, zenbat eta euskara gehiago ezagutzen den zonaldean bizi eta ikastetxean jarraitzen duten eredia zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta:

- Indartsuago lotzen dute euskara Euskal Herriarekin eta euskaldunekin.
- Sarriago aitortzen da euskara, norbere hizkuntzatzat.
- Hizkuntza honen antzinako jatorria eta jatorri horren ezagutza segururik ez izatea hizkuntza honen baliozkat jotzen dituzte.
- Adierazten dute jabetuta daudela hizkuntza gutxitua dela, galzorian dagoela aipatuz.
- Gazte hauek gaztelaniarekiko duten harremana, berriz, urrunagokoa eta hotzagoa da, euskararekikoa baino. Aitortzen dute gaztelania hizkuntza garrantzitsua dela eta asko erabilia, baina beraientzat beste hizkuntza bat gehiago da. Hizkuntza honetikiko identifikazio maila jaitsi egiten da.

Zonalde eta hizkuntza-eredu euskalduneko gaztetxoan adibide batzuk EUSKARARI buruz (euren idazkera errespetatuz, betiere):

- *Hizkuntza bat da. Diotenez **zaharra** da. **Euskal Herriko** zati batzuetan hitz egiten da. Geroz eta gutxiago hitzegiten da horrek esan nahi du **galtzeko** zorian dagoela. Nire ama MAIZPIDE ikastetxean ikasten hari da, guri laguntzeko eta hemengo jendearekin hitz egin al izateko. Nire gurasoak ezin izan zuten euskaraz hitz egin “franko zela eta”.*
- ***Euskal Herrian** batez ere itzegiten den hizkuntza aberats eta **polita**, nire ustez gehiago zabazen badugu, herrialde askotan jakingo dute zer den Euskara. Norbaitek euskaraz baldin badaki, berarekin euskaraz itz egingo dugu, bainan norbaitek ez badaki, dakien izkuntzan itz egingo dugu.*
- *Niretzat euskara oso hizkuntza **polita** da, geroz eta gutxiago erabiltzen dugu eta **galtzen** ari da.*
- *Nire ama hizkuntza da. Nire txikitako hizkuntza da eta berezi egiten bagaitu **euskaldunoi** Euskaragatik gara ala.*

Adibideak GAZTELANIAN buruz:

- *Jende askok hitz egiten du. Niri batzutan gaztelania zaila egiten zait mintzatzeko. Oporretan zoazenean leku askotan gaztelanias hitz egin **behar da** eta gehienetan zaila egiten zait. Gaztelania ez da hizkuntza zaila ez da polita baina zatarra ere ez. Askok entzuten da Gaztelania munduan zehar.*
- *Gaztelania oso garrantzitsua da denetarako onekin ahal duzu bilatu lana espainia guztian eta ere **latino american** niretzat hau inportanteagoa da eukera baino. Zergatik hau ia jende guztiak itzegiten du eta ni obeto idazten eta itzegiten dut gaztelaniaz. Nire etxean askoz gehiago itzegiten da gaztelaniaz euskeras baino, horregatik obeto dakit gaztelania euskera baino.*

Gazteen zonaldea eta hizkuntza-eredua erdaldunagoa den neurrian, berriz:

- Gaztelania ohiko hizkuntza dute, familiakoa eta lagunartekoa, txikitatik ikasia, gazte hauek hizkuntza honekiko duten harremana estuagoa eta normalizatuagoa da.
- Euskara hizkuntza interesgarria edo garrantzitsua dela aitortzen dute, edo nagusiki hizkuntza hau ikastea zaila dela aipatzen dute.
- Zonalde eta hizkuntza eredu erabat erdaldunetan, ikastetxeko ikasgai batekiko harremanera mugatzen da euskararekiko beren bizipena.

Hona hemen, zonalde eta hizkuntza eredu erdaldunetako gaztetxoek adibide batzuk EUSKARARI buruz:

- *Para mi me es **difícil** porque es la primera vez que lo oigo. Además es un idioma muy raro.*
- *Es un idioma muy **difícil** para mi, pero no me llama demasiado la atención pues es una lengua no utilizada mundialmente, y tampoco se utiliza mucho en su lugar de origen por lo que no me **servirá** para el futuro, aunque yo viva en **Pais Vasco**, pero para mi edad me **servirá** para algo, y sería bueno que lo pudiera aprender como Dios manda podría opinar de forma diferente. pero al cabo, en donde yo vivo me será **útil** para comunicarme con algunas personas, pero siempre menos que los idiomas que se y que utilizo habitualmente como (el valenciano y el castellano).*
- *Para mi el euskera es muy práctico, porque cuando quieres tener **trabajo** en euskadi tienes que saber euskera y si no sabes euskera no podrás encontrar un buen **trabajo**. Además de eso es muy bonito ejemplo: lo utilizan en los pueblos y en las ciudades.*

Eta adibide batzuk GAZTELANIAN buruz:


- *El castellano es una lengua que aprendí de **pequeño**.*
- *El castellano es **fácil** y me gusta más que el euskera y es el idioma que estudiamos y se habla en España.*
- *Es una lengua **fácil** y la que utilizo normalmente en **casa** con mi **familia** y se utiliza en España y en parte del mundo.*
- *Pues una lengua que yo practico diariamente por que mi **familia** y mis **amigos** estamos continuamente hablandola y millones de personas más en todo el mundo es muy conocida.*

4.5 Jolaslekuko euskara erabileraren arabera azterketa

4.1 grafiko honetan, berriz, zera adierazten da: ikasleek euskarari buruz aipatzen dituzten hitzak nola aldatzen diren, beren jolaslekuko erabileraren arabera. Horretarako, 959 ikasleak bost multzotan banatu dira, jolaslekuko euskarazko erabileraren arabera (%0-20 artean dutenak, %20-40, %40-60...). Ondoren, talde bakoitzak euskarari buruz lagin osoan gehien aipatu izan diren 15 hitzak zein neurritan aipatzen dituen alderatu da, eta horren emaitza duzue 4.1 grafikoa. Bertan ikus daitekeenez, hitz edo gai batzuetan, ikasle-

en jolaslekuko erabilera aldatu ahala, hitz horren aipamenean ehunekoa ere nahiko desberdina da; beste hitz batzuen kasuan, aldiz, ehunekoak berdintsuak dira jolaslekuan euskara/gaztelania erabilera oso ezberdina duten ikasleen artean ere.

Euskararen adierazpenak jolaslekuko euskara-erabileraren arabera



4.1 grafikoa

4.1 grafikoaren datuek adierazten dutenez, gazteen jolaslekuko euskararen erabilerak gora egiten duen neurrian, honela aldatzen da hizkuntza bakoitzaren ikuspegia:

- Euskararekiko ikuspegia, euskara gehien darabilten gazteen artean:
 - Indartsuago lotzen da euskara identitate etnolinguistikoarekin, Euskal Herria, euskaldunen hizkuntza, hizkuntza zaharra eta galtzeko arriskua.
 - Altuagoa da euskararen gizarte estatusa, gehiengoaren hizkuntza da.
 - Gora egiten du, baita ere, hizkuntza honek duen lotura etxekoen eta familiakoen harremanekin nahiz lagunekiko harremanekin.
 - Gehiago agertzen da, baita ere, euskararekiko harremana berezkoa dutenen presentzia, hau da txikitatik euskara jaso dutenena.

- Gaztelaniaren ikuspegia, euskara gehien darabilten gazteen artean:
 - Gora egiten du ikasketekin, ikasketa prozesuarekin, duen harremana.
 - Euskal Herri edo lurraldetasunarekiko aipamena ere indartsuagoa da.
 - Gaztelania hizkuntza zabaldua da edo estatus altua duen hizkuntza da.
 - Ahulagoa da, berriz, gaztelaniaren balorazio kognitibo eta afektibo baikorra.
 - Berezkotasuna, txikitatik ikasia, familiarekin edo harreman sare hurbilekoekin, lagunekiko harremanekin duen lotura indartu egiten da.
 - Hizkuntza erraza dela indartsuago adierazten da.

4.6 Atalaren ondorioak

Galdera irekiei erantzun dieten gaztetxo hauek euskararen balorazio baikorra egiten dute bai kognitiboki baita afektiboki ere, euskal identitateari estuki lotua ikusten dute hizkuntza hau eta gizartean estatus maila altua duelako ikuspegia dute. Euskara ikasketa prozesuari eta eskolari oso lotua dago, batzuentzat berezko hizkuntza dena, etxeko hizkuntza eta baita lagunartekoa.

Gaztelania, berriz, gizartean hedapen zabala duen hizkuntza da, gazte askorentzat berezko hizkuntza, baita ere, etxetik jaso, hizkuntza normalizatua da gazte gehienentzat, hizkuntza bat gehiago da.

Euskara gazte hauentzat bereziki baloratzen den hizkuntza da, gaztelania baino ere gehiago, euskara euskal identitateari estuki lotzen zaio eta beste hizkuntzek bizi ez duten egoera bizi du, galtzeko arriskua. Hala ere, euskara gaur egungo gizartean balio duen hizkuntza da eta hezkuntza arloan indarra duena.

Gaztelera, ordea, hizkuntza normalizatua da, nazioarte mailan eta komunikabideetan hedapen zabala duena, euskarak ez bezala. Hizkuntzak jakitea, hizkuntzen ugaritasuna edo elebitasuna asko aipatzen dira baita ere gaztelania deskribatzerakoan.

Gehien aipatutako gaiak horiek izan arren, jarrera ezberdintasunak nabarmentzen dira gaztetxoen euskalduntasun mailaren arabera, hau da, gaztea bizi den zonalde soziolinguistikoa eta ikastetxeko hizkuntza eredua zenbat eta euskaldunagoa izan, era bateko ikuspegia dute euskararekiko, baita gaztelaniarekiko ere.

Hizkuntzekiko jarrerak are nabarmenago bereizten dira, berriz, gazteok jolaslekuan egiten duten euskararen erabilera mailaren arabera.

Hezkuntza sistema azken urteotan bereziki egiten ari den ahaleginari esker, hemen aztertutako gazteek bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) ezagutzen badituzte ere, ezberdina da hizkuntza horiekiko bizipena, hau da, euskara erabili edo ez asko aldatzen da euskararen ikuspegia gaztetxoarengan, eta era berean gaztelaniarena.

Euskararen erabilerak euskara bere hizkuntzatzat aitortzera eramaten du gaztea, euskal identitatea euskarari atxikitzen eta hizkuntza honen etorkizunari buruzko kezka indartzera.

Bestalde, gazte hauek gaztelaniarekiko duten harremana urrunagoa eta hotzagoa da. Gaztelania hizkuntza garrantzitsua da, gure gizartean normalizatuta dagoena, baina hizkuntza hori beraientzat beste bat gehiago da. Hizkuntza honekiko identifikazio maila jaitxi egiten da.

Gazteen erabilera erdaldunagoa den neurrian, berriz, alderantziz, gaztelania ohiko hizkuntza bihurtzen da, familiakoa eta lagunartean darabiltena, txikitatik ikasia. Beraz, gazte hauek hizkuntza honekiko duten harremana estuagoa eta normalizatuagoa da. Euskara, berriz, hizkuntza interesgarria edo garrantzitsua dela aitortu arren, berau ikastea zaila ikusten dute, eta ikastetxeko ikasgai batekiko harremanera mugatzen dute euskararekiko bizipena.

4. atala, LABURPENA

Atal honetan ikasleek *Zer da zuretzat euskara?* eta *zer da zuretzat gaztelania?* galderari emandako erantzun irekiak aztertzen dira, 959 idazlanetan hizkuntza bakoitza zein hitz edo gairekin lotzen duten zehaztuz. Horretarako, hizkuntza bakoitzaren kasuan hitzik aipatuena zein diren alderatzen da. Horrez gain, aipamen kopuru hauek ikasleen honako ezaugarrien arabera nola aldatzen diren ere aztertu da: *zonalde soziolinguistikoa eta ereduaren arabera*, batetik, eta ikaslearen *jolaslekuko erabileraren arabera*, bestetik. Horrela labur daitezke ondorioak:

- ⇒ Ikasle hauek euskararen balorazio baikorra egiten dute, bai kognitiboki eta bai afektiboki. Euskal identitateari estuki lotua ikusten dute, eta gizartean estatus maila bat ere ikusten diote. Oro har, ikasketa prozesua eta eskola asko aipatzen dira, eta, batzuen kasuan, baita berezko hizkuntza, etxeko hizkuntza eta lagunartekoa izatea ere.
- ⇒ Gaztelaniaren kasuan ere balorazio baikorra egiten dute. Gizartean hedapen zabala duen hizkuntza da, eta ikasle askorentzat berezko hizkuntza, etxetik jasoa. Hizkuntza normalizatu bezala ikusten dute eta askok hizkuntza bat gehiago bezala.
- ⇒ Euskara eta gaztelania zertan bereizten dira ikasleen aipamenetan? Euskara bereziki baloratzen dute, gaztelania baino gehiago nabarmentzen da aipamenetan. Euskal identitateari lotua ikusten dute, eta beste hizkuntzek bizi ez duten egoera bat bizi du: galtzeko arriskua. Gaztelania, aldiz, hizkuntza normalizatua da, nazioartean mailan, komunikabideetan hedapen zabala duena, euskarak ez bezala. Gaztelania deskribatzean, hizkuntzen ugartasuna eta elebitasuna ere asko aipatzen dira.
- ⇒ Ikasleen aipamenak beren *zonalde soziolinguistikoa eta eredu* aldagaiaren arabera aztertuta, gaien aipamen kopuruak aldatu egiten dira.
- ⇒ Ikasleen aipamenak beren *jolaslekuko erabileraren arabera* ere aldatu egiten dira, aurreko aldagaiaren arabera baino are nabarmenago:
 - *Jolaslekuko euskarazko erabilera* altuagoa den neurrian, ikasleak euskara bere hizkuntzatzat gehiago aipatzen du, euskara euskal identitateari gehiago atxikitzen du eta haren etorkizunari buruzko kezka indartu egiten da.
Gaztelaniarekiko harremana urrunagoa eta hotzagoa da; hizkuntza garrantzitsua da, gizartean normalizatua, baina halaber beraientzat beste hizkuntza bat gehiago da.
 - *Jolaslekuko euskarazko erabilera* baxuagoa den neurrian, gaztelania ohiko hizkuntza bihurtzen da, familiakoa eta lagunartean darabiltena, txikitatik ikasia.
Ikasle hauek harreman estuagoa eta normalizatuagoa dute hizkuntza honekin. Euskara hizkuntza interesgarri eta garrantzitsu gisa aipatzen dute, baina beren bizipena gehiago mugatzen da ikastetxeko ikasgai batekiko harremanera.

5. Hizkuntzei buruzko hautemateak eta irudikapenak

5. Hizkuntzei buruzko hautemateak eta irudikapenak

5.1 Gizarteko jarduerak: Zein hizkuntza doakie hobeto?

5.1.1 Probaren helburua eta azalpena

Ikasleek hizkuntzak nola hautematen dituzten ikusteko helburuarekin prestatutako probetako bat, “Zein hizkuntza doakio hobeto” deitutako galdetegia da²⁶. Proba honen bidez (5.1 irudia), LMH6ko ikasle hauen hizkuntzen inguruko irudikapenak jasotzen ahalegingindu gara. Irudikapen hauek, neurri batean, kontzienteak izaten dira, baina seguruenik neurri handiagoan inkontzienteak, eta sarritan gure jokaeran azken hauek dute eraginik gehien.

Proba honetan, ikasleei 17 irudi ematen zaizkie eta horietako bakoitzean agertzen denari zein hizkuntza doakion hobeto erantzun behar dute; horretarako bost aukera dituzte: “Gaztelania hobeto”, “Edozein hizkuntza berdin”, “Ez euskara ez gaztelania, ingelesa hobeto”, “Euskara edo gaztelania, bata zein bestea” eta “Euskara hobeto”. Garrantzitsua da azpimarratzea ikasleek bost erantzunetako zein aukeratu erabakitzeke duten estimulu bakarria iruditxoa dela, izan ere, ez zaie izenik jarri horietako bakoitzari eta proba pasa behar zuten irakasleei espresuki eskatu zaie ez emateko ikasleen erantzuna bidera zezakeen inongo azalpenik, bakoitzak irudian ikusi duena zer den interpretatuz erantzun du.



Galdetegian ageri diren 17 irudiei izenak jarri dizkiegu estatistikoki tratatu ahal izateko, honako hauek dira (galdetutako ordenan, ezkerretik eskuinera eta goitik behera):


- | | |
|----------------|------------------|
| 1. Satelitea | 2. Eskola |
| 3. Bikotea | 4. Musika |
| 5. Seme-alabak | 6. Familia |
| 7. Agureak | 8. Kanpina |
| 9. Eliza | 10. Albistegia |
| 11. Hizlaria | 12. Fabrika |
| 13. Nekazaria | 14. Ordenagailua |
| 15. Haginlaria | 16. Baserria |
| 17. Futbol | |

5.1 irudia


²⁶ Galdetegia hau “Etorkizuna aurreikusten 99” ikerketan erabili zen lehen aldiz (Berrio-Otxoa, 2000: 195-201).

5.1.2 Ikasleek erantzundakoa eta irakurketa orokorra

Zein hizkuntza doakio hobeto?




5.1 grafikoa




	Satelitea	Musika	Fabrika	Hizlaria	Albisteak	Ordenagailua	Haginlaria	Bikotea
Gaztelaniaz hobeto	% 27,77	% 26,72	% 39,40	% 38,94	% 32,45	% 35,70	% 37,51	% 34,57
Ez euskaraz, ez gaztelaniaz, ingelesez hobeto	% 14,49	% 20,68	% 2,49	% 4,83	% 1,66	% 5,43	% 0,68	% 1,74
Edozein hizkuntza berdin	% 27,47	% 26,49	% 21,81	% 19,62	% 17,36	% 18,94	% 16,08	% 18,72
Euskara edo gaztelaniaz, bata zein bestea	% 21,43	% 16,60	% 23,70	% 22,72	% 32,38	% 22,64	% 25,74	% 23,62
Euskaraz hobeto	% 8,83	% 9,51	% 12,60	% 13,89	% 16,15	% 17,28	% 20,00	% 21,36
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

5.1 taula



5.1 grafikoa (jarraipena)



Futbola	Kanpinga	Eliza	Familia	Seme-alaba	Agureak	Eskola	Nekazaria	Baserria	
% 33,36	% 22,04	% 29,28	% 20,68	% 22,19	% 28,23	% 10,04	% 18,87	% 9,13	Gaztelaniaz hobeto
% 2,34	% 1,96	% 1,21	% 1,13	% 0,75	% 0,68	% 2,42	% 1,21	% 0,60	Ez euskaraz, ez gaztelaniaz, ingelesez hobeto
% 15,02	% 19,77	% 17,66	% 16,30	% 16,23	% 10,26	% 17,43	% 12,91	% 5,13	Edozein hizkuntza berdin
% 25,36	% 27,40	% 22,72	% 22,79	% 21,43	% 18,94	% 21,13	% 16,75	% 9,43	Euskara edo gaztelania, bata zein bestea
% 23,92	% 28,83	% 29,13	% 39,09	% 39,40	% 41,89	% 48,98	% 50,26	% 75,70	Euskaraz hobeto
% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	GUZTIRA

5.1 taula (jarraipena)

5.1 grafikoko eta 5.1 taulako datuak ikusita, erantzunen proportzioak aldatu egiten dira jarduera batetik bestera. Badirudi, hortaz, ikasleek ez dutela edozein modutan erantzun, bizi duten gizarteko hizkuntza-erabileraren logika baten arabera baizik.

Gainera, nerabeen erantzunak izan arren, badirudi nahiko ongi islatzen dituztela helduen egungo EAEko gizarteko erabilerako eta hizkuntza-hauturako arau esplizitu zein inplizituak, eta hizkuntzen egungo gizarte-irudikapenak nahiko ongi adieraz ditzakete (agian, helduei zuzenean galdetu izan bagenie baino modu errealagoan).

Ikasleek aukeran zituzten bostetatik, “Euskara hobeto” eta “Gaztelania hobeto” oso erantzun hautatuak izan dira. Jarduera guztietan, bost erantzun posibleetatik bi hautetako bat da erantzunik hautatuena.

5.1.3 Hizkuntza bakoitzaren konnotazioak

Gaztelaniazko erantzunen portzentajea, euskarazkoen bikoitza edo gehiago da jarduera hauetan: Fabrika (%39), Hizlaria (%38), Ordenagailua (%35), Albistegia (%33), Satelitea (%27) eta Musika (%26). Gaztelania euskara baino gehiago aipatu da, baina bikoiztera iritsi gabe, beste hauetan: Haginlaria (%38), Bikotea (%34), eta Futbola (%33).

Aldiz, euskarazko erantzunen portzentajea, gaztelaniazkoen bikoitza edo gehiago da jarduera hauetan: Baserrian (% 77, ia erabat), Nekazarian (%50) eta Eskolan (%49). Eta euskara gehiago aipatu da, baina gaztelaniazkoak bikoiztera iritsi gabe, beste hauetan: Agureetan (%42), Seme-alabetan (%39), Familian (%39) eta Kanpinean (%29).

Eliza irudiaren kasuan, maila berean hautatu dituzte biak.

Irudi bakoitzerako zein hautatu duten gehiago: euskara ala gaztelania?		
EUSKARA		GAZTELANIA
Nabarmen gehiago euskaraz gaztelaniaz baino ²⁹ (%)		Nabarmen gehiago gaztelaniaz euskaraz baino ³⁰ (%)
Baserria (76/9) Nekazaria (50/19) Eskola (49/10)		Fabrika (13/39) Musika (10/27) Hizlaria (14/39) Ordenagailua (17/36) Satelitea (9/28) Albisteak (33)
Gehiago euskaraz gaztelaniaz baino (%)		Gehiago gaztelaniaz euskaraz baino (%)
Agureak (42/28) Seme-alabak (39/22)	Familia (39/21) Kanpina (29/22)	Bikotea (21/35) Futbola (24/33) Haginlaria (20/38)
Bi hizkuntzak berdin		
Eliza (29/29)		

5.2 taula


²⁷ Euskarazko erantzunen portzentajea, gaztelaniazkoen bikoitza baino gehiago.

²⁸ Gaztelaniazko erantzunen portzentajea, euskarazkoen bikoitza baino gehiago.

Euskara, beraz, baserriarekin, nekazal munduarekin, eskolarekin eta familia munduarekin lotua ikusten dute gehienbat.

Nekazal mundua irudikatzen duten bi irudiak (nekazaria eta baserria²⁹) galdetegi osoan erantzun desorekatuena jaso dutenak dira, hizkuntza bien arteko hautuari dagokionez. Irudi horiei **euskara** hobeto doakiela erantzun dutenen proportzioa gaztelania erantzun dutenena baino askoz ere altuagoa izan da.

Baserria - Zein hizkuntza doakio hobeto?



5.2 grafikoa


	Baserria
Gaztelania hobeto	% 9,13
Ez euskara, ez gaztelania, ingelesa hobeto	% 0,60
Edozein hizkuntza berdin	% 5,13
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	% 9,43
Euskara hobeto	% 75,70
GUZTIRA	% 100

5.3 taula

²⁹ Kontuan eduki behar da 5.1 grafikoko eskalak %80ra iritsi beharko lukeela baserriaren kasuan, besteetan ez bezala, datuek hala eskatzen dutelako.

Familia gehienbat **euskararekin** lotua ageri da (familia, seme-alabak eta agureak), eta horrek badu egungo hizkuntza-egoeran bere garrantzia, baina bikotea, aldiz, gaztelaniarekin gehiago lotzen dute (ligatzea...).

Seme-alaba - Zein hizkuntza doakio hobeto?




5.3 grafikoa

	Seme alabak	Bikotea
Gaztelania hobeto	% 22,19	% 34,57
Ez euskara, ez gaztelania, ingelesa hobeto	% 0,75	% 1,74
Edozein hizkuntza berdin	% 16,23	% 18,72
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	% 21,43	% 23,62
Euskara hobeto	% 39,40	% 21,36
GUZTIRA	% 100	% 100

5.4 taula

Eskolari euskara hobeto doakiola diotenen kopurua gaztelania hobeto doakiola diotene-
na baino nabarmen altuagoa izatea laginaren osaerarekin lotua egon liteke. Izan ere,
proba bete dutenen artean D ereduan ikasten dutenek beste ereduetaoek baino pisu
handiagoa dutenez, gehiengo handi batek euskara hutsean ikasten du.

Eskola - Zein hizkuntza doakio hobeto?



5.4 grafikoa


	Eskola
Gaztelania hobeto	% 10,04
Ez euskara, ez gaztelania, ingelesa hobeto	% 2,42
Edozein hizkuntza berdin	% 17,43
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	% 21,13
Euskara hobeto	% 48,98
GUZTIRA	% 100

5.5 taula

Kanpina **aisialdiko jardueraren** adierazgarri gisa har daiteke, eta euskara eta bi hizkuntzak (euskara edo gaztelania, bata zein bestea) hautatu dituzte gehien. Aldiz, futbola eta musika, aisialdi izateaz gain presentzia sozial eta mediatiko handiagoa duten jarduerak, gaztelaniari lotuago ageri dira.

Gaztelaniarekin lotzen diren irudiek harremana dute lan munduarekin eta, orokorrean, arlo publikoarekin, eta modernotasun konnotazioak dituzte. Gainera, gizarte estatus jasoagoak dituzten jarduerak direla esan liteke. Bada tartean aipatzeko moduko xehetasunik: Hizlaria, albisteak eta futbola irudiak, modu batean edo bestean, **komunikabideetan presentzia handia** duten jarduerak dira. Gehien bat gazteleraz ematen den presentzia mediatikoa egon liteke **gaztelaniarekin** gehiago lotzearen atzean.

Hizlaria - Zein hizkuntza doakio hobeto?




5.5 grafikoa

	Hizlaria
Gaztelania hobeto	% 38,94
Ez euskara, ez gaztelania, ingelesa hobeto	% 4,83
Edozein hizkuntza berdin	% 19,62
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	% 22,72
Euskara hobeto	% 13,89
GUZTIRA	% 100

5.6 taula

Fabrika eta haginlaria **gaztelania** hobeto doakienean artean egoteak adieraziko liguke mota horretako **jarduera profesionalak** hizkuntza horrekin lotuta hautematen dituztela ikasleek.

Fabrika - Zein hizkuntza doakio hobeto?




5.6 grafikoa

	Fabrika
Gaztelania hobeto	% 39,40
Ez euskara, ez gaztelania, ingelesa hobeto	% 2,49
Edozein hizkuntza berdin	% 21,81
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	% 23,70
Euskara hobeto	% 12,60
GUZTIRA	% 100

5.7 taula

Oso adierazgarria da, bestalde, ordenagailua, satelitea eta musika, irudi guztien artean **modernotasun** konnotazio altuenak dituztenak, **gaztelaniarekin** euskararekin baino nabarmen gehiago lotzea. Eta, horrekin batera, aipatu behar da hiru irudi horiek izan direla “ingeleza hobeto” aukerak %5etik gorako erantzun proportzioa jaso duten kasu bakarrak (%5,7, %15,4 eta %21, hurrenez hurren), hizkuntza hau ere modernotasunarekin erlazionatua hautematen duten seinale.

Ordenagailua - Zein hizkuntza doakio hobeto?



5.7 grafikoa

	Ordena-gailua
Gaztelania hobeto	% 35,70
Ez euskara, ez gaztelania, ingeleza hobeto	% 5,43
Edozein hizkuntza berdin	% 18,94
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	% 22,64
Euskara hobeto	% 17,28
GUZTIRA	% 100

5.8 taula

Tarteko beste erantzunei dagokienez, “Euskara edo gaztelania, bata zein bestea” erantzunak jarduera gehienetan %15 eta 25 bitarteko balioa du, honako hauetan izan ezik: Albisteak (%32), Kanpina (%28), Haginlaria (%25) eta Futbola (%25).

Azkenik, jarduera gehienetan, “Edozein hizkuntza berdin” erantzuna %15-20 artean kokatzen da. %20tik gorako baloreak hartzen ditu Satelitean (%27), Musikan (%26) eta Fabrikan (%22), eta %15etik beherakoak: Aguretan (%11), Nekazarian (%13) eta, nabarmenena, Baserrian (%5).

5.1.4 Irudien konparaketarako puntuazioak (batez bestekoak)

Erantzunak 5 kategorietan sailkatzen dituen galdera batez³⁰, irudiek jaso dituzten puntuazioak elkarren artean lehen begiradan konparatzeko asmoz, irudi bakoitzaren batez bestekoa kalkulatu da. Esate baterako:

	Puntuazioak	
	Balioa	Erantzun kop.
Gaztelania hobeto	1	413
Ez euskara, ez gaztelania, ingelesa hobeto	2	230
Edozein hizkuntza berdín	3	22
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	3	429
Euskara hobeto	4	214
GUZTIRA		n: 1325
Batez besteko puntuazioa		2,495

5.9 taula

Ondoren, batez besteko puntuaketa horiek hainbat aldagaien argira aztertu dira, ondoko lerroetan ikus daitekeen bezala.


³⁰ Erabilitako eskala, honakoa da: 1) *Gaztelania hobeto*; 2) *Ez euskara, ez gaztelania, ingelesa hobeto*; 3) *Edozein hizkuntza berdín / Euskara edo gaztelania, bata zein bestea*; 4) *Euskara hobeto*.

5.1.5 Irudien hautemateak, lehen hizkuntzaren arabera

Datu gurutzaketa hauen bidez, txikitatik jaso duten lehen hizkuntza bat edo bestea izan, ikasleek gizarteko jardura eta pertsonaiak hautemateko moduaren aldakortasunean sakondu nahi da.

Lehen hizkuntzak irudiak hizkuntza batekin edo bestearekin erlazionatzeak hautematerakoan eragiten duen aldakortasun hori islatu nahian, galdetegiko 17 irudietatik hiru hautatu ditugu, emaitza orokorretan izan dituzten datuak eta irudikatzen dituzten gizarte esparruak kontuan hartuz.

Irudien hautemateak **lehen hizkuntzaren arabera**



5.8 grafikoa

LEHEN HIZKUNTZA (gurasoek aitortua)				
IRUDIAK	Gaztelania	Euskara eta Gaztelania	Euskara	Guztira
Familia	2,48	3,19	3,59	2,97
Eskola	3,09	3,39	3,45	3,26
Hizlaria	2,14	2,37	2,54	2,31

5.10 taula³¹

³¹ 5.10 taulako balioak irudi bakoitzari ikasleek emandako erantzunen batez bestekoak dira 1 – 4 eskala ordinalean. Eskalako balioen esanahia gorago 5.9 taulan azalduko da.

Grafikoak (5.8) eta taulak (5.10) biltzen dituzten datuei erreparatuz, lehen begiradan ikus dezakegu lehen hizkuntza zenbat eta euskaldunagoa izan, irudi bakoitzari zein hizkuntza doakion hobeto aukeratzean batez besteko gero eta altuagoa izaten dutela, hau da, aukera gero eta euskaldunagoa egiten dela. Horrez gain, ikus daiteke hiru irudietako bakoitzaren datuen aldakortasunak bere berezitasunak dauzkala, irudiak ordezkatzan duen gizarte esparruaren arabera.


Lehen hizkuntzaren arabera jasotzen duen puntuazioa gehien aldatzen den irudia **familiarena** da (2,48tik 3,59ra). Emaitza honen bidez, suposa genezake familiaren irudiari hobeto doakion hizkuntza aukeratzekoan ikasle bakoitzak bere familiaren hizkuntza ohituren arabera jokatu duela. Honela, lehen hizkuntza gaztelania izan dutenek, gaztelaniarekin gehiago lotu dute familiaren irudia. Familia euskaldunetakoek, ordea, euskararekin lotu dute gehienbat. Eta bai euskara eta bai gaztelania lehen hizkuntza bezala izan dituztenen kasuan, erdi bideko puntuazioa izan dute.

Eskolaren irudiarekin gertatzen denak ere aztertutako ikasleek bizi duten errealitatearekin lotura koherentea izan lezake. Izan ere, aztertutako laginaren zati handienak (%77,7) D ereduko ikastetxeetan ikasten duen arren, beste laurden batek B eta A ereduetan (%17,5 eta %4,8, hurrenez hurren) ikasten du eta, eredu horietan guztietan, ikasle gehienek euskara, gaztelania eta ingelesa ikasten dituzte, betiere proportzio ezberdinetan ereduaren arabera. Dena den, ikasleen gehiengo handiak (%77,7) euskara hutsean ikasten duenez, eskolaren eremuari euskara hobeto doakiola (4 puntu balio duena) erantzun dute orokorrean. Horregatik, eskolaren irudiak batez beste jaso duen puntuazioa ez da asko aldatu (3,09 eta 3,45 artean), ikaslearen lehen hizkuntza dena delakoa izanda ere.

Azkenik, hirugarren irudia **Hizlariarena** da. Irudian ikusten dena jendaurrean hitz egiten ari den trajez jantzitako gizon bat da, beraz, esan dezakegu arlo publikoarekin lotuta da goen jarduerak ordezkatzan dituela ikasleek euren gertuko egunerokotasunean zuzenean bizi ez dituzten jarduera publikoak. Irudi honen batez besteko puntuazioak ere, eskolarenak bezala, aldakortasun txikia azaltzen du ikasleen lehen hizkuntza aldatu ahala (2,14 – 2,54). Hizlariaren irudiaren puntuazioa, beste askorekin alderatuz gero, nahiko baxua dela esan genezake, hau da, gaztelaniarekin lotzeko joera euskararekin lotzekoa baino indartsuagoa dela. Eta joera hau ez da gehiegi aldatzen ikasleen lehen hizkuntza bata, bestea edo biak izan, izan ere, lehen hizkuntza euskara izan dutenen erantzunekin osatutako batez besteko puntuazioa ez da eskalaren erdira (2,5) ere iristen. Hortaz, euskara lehen hizkuntza izan duten ikasleek ere, neurri handi batean, jendaurreko jarduera publikoei gaztelera hobeto doakiela irizten dutela ondoriozta genezake.

5.1.6 Irudien hautemateak, jolaslekuko erabileraren arabera

Aldagai gurutzaketa honen bitartez, jolaslekuan euskara gehien erabiltzen dutenen eta gutxien erabiltzen dutenen artean gizarte jarduera eta esparruak hautematerakoan alde aipagarriarik dagoen ikustea bilatu da.



5.9 grafikoa

JOLASLEKUKO ERABILERA					
IRUDIAK	% 0	% 0,1etik % 50era	% 50,1etik % 99era	% 100	Guztira
Familia	2,25	2,76	3,31	3,46	2,97
Eskola	2,82	3,40	3,44	3,43	3,26
Hizlaria	2,00	2,25	2,47	2,50	2,31

5.11 taula³²

Grafikoak (5.9) irudikatzen duenaren arabera, lehen begirada batean, ikus genezake bada-goela aldakortasuna irudiak hizkuntzekin lotzerakoan, ikasle bakoitzaren jolaslekuko erabileraren arabera. Hala ere, lehen hizkuntzaren arabera gertatu bezala, irudi bakoitzaren datuek duten aldakortasuna ezberdina da ordezkatzeko duten gizarte esparru edo jarduera kontuan hartuz.

Familiaren irudiak hiru irudien artean aldakortasun handiena erakusten du berriz ere (2,25etik 3,46ra), erabileraren arabera ere, irudien hautemateak aldatzen direla erakutsiz. Eskola eta hizlariaren irudien kasuan, lehen hizkuntzaren arabera erakutsitako joera berdinak mantentzen dira gehien batean.

³² 5.11 taulako balioak irudi bakoitzari ikasleek emandako erantzunen batez bestekoak dira 1 – 4 eskala ordinalean. Eskalako balioen esanahia gorago 5.9 taulan azaldutakoa da.

Hala ere, **eskolaren** kasuan, erabileraren arabera batez besteko puntuazioa gutxi aldatzeko joera mantendu arren, jolaslekuko euskararen erabileran %0 neurtu zaien ikasleen kasuak bereizten dira. Izan ere, erabileran %0,1 eman dutenetatik %100 dutenetara irudiaren puntuazioa 3,4 eta 3,44 balio tartean kokatzen da. Erabileran %0 eman dutenen kasuan berriz oso azpitik kokatzen da (2,82 puntutan). Datu honen berezitasuna da jolaslekuko erabileran %0 eman duten ikasleen gehiengoa giro erdalduneko inguruneetan eta A edo B ereduko ikastetxeetan murgilduta dauden ikasleek osatzen dutela. Hizlariak berriz ere emaitza baxuak azaltzen ditu (2 eta 2,5 tartean) eta hortaz, erdararantz lerrokatuak.

5.1 atala, LABURPENA


- ⇒ Gizarteko jarduerak zein hizkuntzarekin lotuta ikusten edo irudikatzen dituzten ezagutzeko egindako “Zein hizkuntza doakio hobeto” galdetegiak emaitza esanguratsuak eman ditu.
- ⇒ Oro har, ikasleak bizi diren gizartean euskararen eta gaztelaniaren funtzio eta esparru banaketa nagusiaren nahiko jakitun direla iradokitzen dute datuek.
- ⇒ Nekazal mundua, eskola eta familia gizarte esparruak euskararekin lotzen dituzte nagusiki.
- ⇒ Jarduera profesionalak, presentzia mediatiko nabarmena duten jarduerak eta modernotasun kutsua duten gizarte esparruak gaztelaniarekin lotzen dituzte nabarmenago.
- ⇒ Bikotea kontzeptuaren hautematea, familia edo seme-alaba kontzeptuaz dutena baino gaztelaniarekin dezentez lotuagoa dute.
- ⇒ Aisialdiarekin lotutako jardueretan (futbola, kanpina...) ez da hizkuntza bat edo bestearen aldeko hautu garbirik nabarmentzen (biak ageri dira) eta.
- ⇒ *Ingelesa hobeto doakiola* erantzunak *Musika –batez ere–* eta *Satelitearen* irudien kasuan bakarrik izan ditu kontuan hartzeko moduko erantzun kopuruak. Bi kasuetan, gaztelaniaren pare. Bereziki aipagarria da musikaren kasua: gazte diren aldetik, ikasleei hurbil, erakargarri eta modernotasunaren ikur gertatzen zaien musika eremua, ingelesari eta gaztelaniari lotzen diete, euskara oso atzean utziz.
- ⇒ Lehen hizkuntzaren arabera eta jolaslekuan duten erabileraren arabera ikasleak sailkatuta, ikaslearen lehen hizkuntzan euskarak zenbat eta pisu handiagoa izan, orduan eta euskararekin lotuago hautematen dute jardueren hizkuntza.
- ⇒ Ikasleek hurbiletik bizi dituzten gizarte jardueren kasuan (*familia, eskola...*) euren erantzunak bakoitzak bizi duen errealitatearen arabera izan direla ondoriozta daiteke datuetatik, giro euskaldunetakoek euskararekin eta giro erdaldunetakoek gaztelarekin lotzen baitituzte. Euren eguneroko errealitatean zuzenean bizi ez dituztela suposa dezakegun gizarte esparruen kasuan (*satelitea, baserria, hizlaria*), ordea, gizartean nagusi den jarduera hauen hizkuntza-errealitatearen arabera erantzuten dute.

5.2 Pertsonaia mirestuen hizkuntza

5.2.1 Probaren helburua eta datuen ondorioak

2005-2006 ikasturteko datu jasoketan, ikasleek miresten dituzten pertsonaiak zein hizkuntzatan aritzen diren ikertzeko asmoz beste galdetegi bat pasa zen. Ikasleei euren gustuko bi artista eta bi kirolari aipatzeko eskatu zitzairen, eta, ondoren, horiek hizkuntzen arabera sailkatu dira.

Miresten dituzten pertsonaiak **jolaslekuko erabileraren** arabera



5.10 grafikoa

JOLASLEKUKO ERABILERA					
IRUDIAK	% 0	% 0,1etik % 50era	% 50,1etik % 99era	% 100	Guztira
Artista erdalduna	% 97,44	% 94,10	% 86,01	% 78,91	% 88,23
Euskarazko artista	% 2,56	% 5,90	% 13,99	% 21,09	% 11,77
	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
Kirolari erdalduna	% 93,45	% 87,45	% 77,37	% 69,13	% 80,83
Kirolari euskalduna	% 6,55	% 12,55	% 22,63	% 30,87	% 19,17
	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

5.12 taula

Emaitza orokorren zutabearen (GUZTIRA, 5.12 taulan) ikus dezakegu aztertutako ikasleek aukeratutako pertsonaien artean gehiago zabal bat erdaraz aritzen dena dela (%88 artisten kasuan eta %81 kirolarienean).

Era berean, 5.10 grafikoari begirada bat emanez ikus liteke euskara gehien erabiltzen dutenek gustuko artista eta kirolari euskaldunak aukeratzeko joera handiagoa azaltzen dutela; nolabaiteko lotura badagoela aukeraketa hori eta jolaslekuan neurtutako erabilera mailaren artean.

Hala ere, azpimarragarria da jolaslekuan euskararen erabilera maila altuenean kokatzen diren ikasleen kasuan ere (erabilera %100), artista eta kirolari euskaldunak miresteko joera handiagoa sumatu arren, gehiago oso handi batek pertsonaia erdaldunak hautatu dituela gustukoaren artean: artisten %79a eta kirolarien %69a. Horrek garbi uzten digu euskara egunerokotasunean normaltasunez erabiltzen duten ikasleentzat ere gizarte erreferenteak erdaldunak direla hein handi batean.

Azkenik, aipatu behar da gustuko kirolarien artean euskaldunak aukeratzeko joera handiagoa azaldu dutela ikasleek erabilera talde guztietan, gustuko artisten artean baino.

5.2 atala, LABURPENA

- ⇒ Ikasleen *gustuko artista eta kirolarien* gehiago oso zabala (%88 eta %81, hurrenez hurren) erdal hiztuna da.
- ⇒ Jolaslekuan neurtu zaien euskarazko erabilera gero eta altuagoa izan, orduan eta joera handiagoa azaltzen dute erreferentziazko pertsonaia euskaldunak aukeratzeko.
- ⇒ Hala ere, jolaslekuan erabilera maila altuenean kokatzen diren ikasleentzat ere (%100 euskaraz aritzen direnak) miretsitako pertsonaiak erdal hiztunak dira kasu gehienetan (artisten %79a eta kirolarien %69a).

Laburpen-koadroa 12

6. Aztertutako aldagaien eta ikasleen jolasleku erabileraren arteko lotura

6. Aztertutako aldagaien eta ikasleen jolaslekuko erabileraren arteko lotura

6.1 Aldagaien loturak *jolaslekuko erabilerarekin*: asoziazio rankingak

6.1.1 Zer da bi aldagaien arteko asoziazioa edo lotura?

Gorago, 3.5 atalean, ikusi dugu ikasleen hizkuntza-erabilera, batez ere *jolaslekuko erabilera*, aldatu egiten dela aztertutako 1.325 ikasleak aldagai batzuen arabera taldekatu (*lehen hizkuntza, hiztun tipologia...*) eta talde horien erabileren batez bestekoak alderatzen baditugu.

Datu horien azterketarako teknika estatistikoak aplikatuta, jakin dezakegu ea aldaketa horiek datuen arteko loturaren bat adierazten diguten eta lotura horiek estatistikoki esanguratsuak ote diren; alegia, ez direla ausazkoak edo kasualitatearen ondorioa. Horretarako, aldagaien arteko *asoziazioa* eta *korrelazioa* neurtzen duten estatistikoak erabiltzen dira. Atal honetan estatistiko horietako bi erabiliko ditugu:

- η^2 (ETA karratua) kualitatiboak zein ordinalak diren aldagaiekin.
- R^2 (R karratua, Pearson-en R) jarraiak diren aldagaiekin.

Aipatutako 3.5 atalean lau aldagai hauen arabeko erabilera datuak aztertzean, tauletan, erabilera datuez gain, η^2 estatistikoaren neurria ere txertatu da. Azpian duzue, adibide gisa, gorago ikusitako tauletako bat (3.14 taula), aipatzen ari garen datuak nabarmenduta:

Ikaslearen lehen hizkuntza (gurasoek aitortua)		Erabilera jolaslekuan	Erabilera gela barruan
Gaztelania	Batez bestekoa	% 34,50	% 73,03
	N	647	647
	Des. Tipikoa	,385	,320
Biki: euskara eta gaztelania	Batez bestekoa	% 60,96	% 81,61
	N	274	274
	Des. Tipikoa	,376	,258
Euskara	Batez bestekoa	% 84,66	% 89,47
	N	404	404
	Des. Tipikoa	,215	,282
η^2 - balioa		0,259	0,057
η^2 - Signifikazio maila		,000	,000

6.1 taula

6.1 taula honetan η^2 estatistikoari buruzko bi lerro ditugu nabarmenduta:

- Bata, *Signifikazio maila* dioena.
- Bestea, *balioa* dioena.

Bi aldagairen artean *Signifikazio maila* 0,000 denean (tauletan “,000”), horrek esan nahi du badagoela bi aldagai horien artean harreman bat, lotura bat, eta harreman hori gertatzen den 1.000 kasutik 999tan kasualitatezkoa edo ausazkoa ez dena. Hori xeheago nola den jakin nahi duenarentzat, alboko [estatistika oharrak]-ean duzue azalduta. Bestalde, *balioa* lerroan agertzen zaigun datuak (kasu honetan 0,259 eta 0,057) adierazten digu *lotura* edo *harreman* hori zein neurritakoa den: balorerik txikiena 0,001 litzateke, eta handiena, berriz, 0,999.

[ESTATISTIKA OHARRAK – 0] **Signifikazio maila. Zer esan nahi du ,000 balioak?**

Zer esan nahi du asoziazio bat estatistikoki “adierazgarria” edo “signifikatiboa” izateak? Bi aldagairen arteko harremana aztertzean, lagin guztian bi aldagaiek dituzten balioak banan-banan konparatzen dira, eta beraien artean dauden kointzidentziak eta antzekotasunak “zoriz” gertatzeko zein probabilitate estatistiko dagoen kalkulatzeko digu ordenagailuak. Horrela, “Sig.: 0,000” dugunean bi aldagairen arteko asoziazio batean esan nahi du 1.000tik posibilitate bat baino gutxiago dagoela harreman hori kasualitatea izateko; beste modu batera esanda, “Sig.: 0,000” izateak estatistikoki bermatzen digu bi aldagairen arteko lotura bat dagoela, ausazkoa edo kasualitatezkoa ez dena eta kasu horietan asoziazio hori estatistikoki adierazgarria dela esaten da.

Hau ikusita, ekar ditzagun orain gogora aurreko atalean aztertutako lau aldagairen kasuan zein izan diren tauletan agertutako η^2 estatistikoaren balioak, bai *signifikazio mailari* eta bai *balioari* dagokionez:

Aztertutako aldagaia	Erabilera jolaslekuan	Erabilera gela barruan
Sexua		
η^2 - balioa	,005	,010
η^2 - Signifikazio maila	,000	,000
Lehen hizkuntza		
η^2 - balioa	,259	,057
η^2 - Signifikazio maila	,000	,000
Hiztun tipologia		
η^2 - balioa	,290	,154
η^2 - Signifikazio maila	,000	,000
Herriaren euskalduntasuna		
η^2 - balioa	,317	,072
η^2 - Signifikazio maila	,000	,000

6.2 taula

6.2 taulan ikusten dugunez, *signifikazio maila* kasu guztietan = ,000 da. Horrek esan nahi du, lau aldagai hauen kasuan, bai *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* eta bai *ikaslearen gela barruko erabilerarekin* alderatuta, badagoela loturaren bat, kasualitatez ematen ez dena. Beste era batera esanda, adibide gisa *lehen hizkuntza* hartuta, aldagai horren eta *jolaslekuko erabileraren* artean lotura egoteak esan nahi du *lehen hizkuntza* euskara dutenek (ez euskara eta gaztelania, batera, ezta gaztelania soilik dutenak ere) *jolaslekuko erabilera* ere altuagoa dutela, ez beti, baina bai kasu askotan. Eta baita alderantziz ere: *jolaslekuko erabilera* altuagoa duten ikasleek batez beste *lehen hizkuntza* euskara dute, askotan.

Baina zein *balio* du lotura horrek? Zenbateko indarra du? Ez da kasu guztietan berdina, ikus dezakegunez. Adibidez, *herriaren euskalduntasuna* aldagaian, lau aldiz sendoagoa edo indartsuagoa da aldagai horren eta *erabilera jolaslekuan* aldagaiaren artean dagoen lotura (0,317), aldagai beraren eta *erabilera gela barruan*-en artean dagoen lotura baino (0,072). Hau da, bi erabilerekin dago nolabaiteko lotura, baina batekin askoz nabarmenagoa da bestearekin baino. Halaber, *sexua* aldagaiak bi erabilerekin dituen loturak begiratzen baditugu, ikusten dugu lotura horien *balioak* askoz baxuagoak direla gainerako hiru aldagaienak baino.

6.1.2 Zein aldagaik du loturarik handiena *jolaslekuko erabilerarekin?* Asoziazio-rankinga

Aurreko atalean ikusi dugu lau aldagai hauen kasuan lotura bat dagoela aldagaien eta aztergai dugun *ikasleen jolaslekuko erabileraren* artean. Lotura horiei teknikoki *asoziazio* esaten zaie, eta ikusi dugu aurreko lau adibideetan *asoziazio* horiek estatistikoki *adierazgarriak* direla, baina ez dutela kasu guztietan indar berdina: lotura edo *asoziazio* batzuk besteak baino handiagoak edo indartsuagoak dira.

Atal honetan, ikaslearen *jolaslekuko erabileraren* eta aztertu ditugun *aldagai aske* guztien artean zenbateko lotura edo *asoziazioa* dagoen kuantifikatzen da, aldagai askeak, asoziaziorik indartsuena dutenetatik ahulena dutenetara, *ranking* batean ordenatuz.

Eta zer dira *aldagai askeak*? Labur esateko, aztertu ditugun ikasleen beste ezaugarri batzuk lirerateke, nolabait, eta horiek baliatuko ditugu gure aldagai nagusia edo mendekoa aztertzean: alegia, hizkuntza-erabilera³³. Adibidez, aztertu den *aldagai aske*etako bat ikaslearen *lehen hizkuntza* da. Beste bat da ikasle horren *erabilera anai-arrebekin*, edo beste bat bere *atari probako puntuazioa*. Guztira, era horretako III *aldagai aske* aztertu dira, eta guztien *asoziazioa* edo lotura neurtu eta ordenatu da *mendeko aldagaiarekiko* (ikaslearen *jolaslekuko hizkuntza-erabilera*).

Bi zutabeko zerrenda batean antolatu dira datuak 6.4 taulan, 6.3 taulako ereduari jarraiki:

Aldagaia		M	R ² (2)	η ² (2)
	.../...			
I2-	Herriko lagunen arteko erabilera	ORD	0,360	
I3-	Erabilera aisialdian batez beste	JAR		0,357
I4-	Ikasteredua	ORD	0,349	
	.../...			

6.3 taula

(1) - Zerrenda edo *ranking* honetan, III *aldagai aske*ek behaketa bidez jasotako ikaslearen *jolaslekuko erabilerarekin* (mendeko aldagaia) duten lotura edo *asoziazioa* kuantifikatu da, **R²** eta **η²** estatistikoak erabiliz, eta balio horien arabera, handitik txikira ordenatu dira (“*Ranking-a*” zutabea).

(2) - Xehetasunetan sartu gabe, esan genezake, *aldagai aske* guztiak estatistikoki ezin direla zaku berean sartu. Zerrendan, *aldagai aske* bakoitza zein motakoa den zehazten da (“*Mota*” zutabeetan): Jarraia (“*jar*”), Ordinala (“*ord*”) edo Kualitatiboa (“*kua*”), eta bere ezaugarrien arabera, batzuek **R²** estatistikoaren zutabeetan dute loturaren balioa, eta besteek **η²** estatistikoaren zutabeetan. Bi estatistiko horiek alderagarriak dira.

Taularen amaieran, zenbait ohar dituzue aldagai bakoitzak nolako informazioa jasotzen duen azaltzeko. Aldagaiei buruzko gainerako xehetasunak, lan honen I. Eranskinean jasotzen dira.

³³ Aztertzen ari garena hizkuntza *erabilera* bada, kasu honetan zehazki, ikaslearen *jolaslekuko erabilera* hori litzateke gure *mendeko aldagaia*. Eta aztertzen dugu ea ikasle horien beste hainbat “ezaugarri” loturarik ba ote duten, eta nolakoa, “mendeko aldagai” horrekin. Aztertzen ditugun beste “ezaugarri” horiek dira *aldagai askeak*.

	Aldagaiak	M	R ²	η^2
1-	Taldearen erabilera behatua jolaslekuan	JAA	0,710	
2-	Ikastetxea	KUA		0,671
3-	Ikastetxea zein hermitan dagoen	KUA		0,594
4-	Erabilera aisialdiko taldeetan (aisialdi)	ORD		0,471
5-	Erabilera ikaskideekin	ORD		0,469
6-	Erabilera informatikan (aisialdi)	ORD		0,415
7-	Taldeko guraso euskaldunen proportzioa	JAA	0,405	
8-	Erabilera herriko lagunekin	ORD		0,395
9-	Ikaskideen arteko erabilera	ORD		0,370
10-	Erabilera anal-arrebekin	ORD		0,366
11-	Ikastetxeko errotulazioa	ORD		0,365
12-	Herriko lagunen arteko erabilera	ORD		0,360
13-	Erabilera aisialdian batez beste	JAA	0,360	
14-	Ikasteregia	ORD		0,349
15-	Lehen hiduntza (irakasleak aitortua)	ORD		0,346
16-	Erabilera kirolan (aisialdi)	ORD		0,331
17-	Irmatia nola erabiltzen (eus/gaz)	JAA	0,331	
18-	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa	JAA	0,329	
19-	Ikaslearen herriaren euskalduntasuna	JAA	0,325	
20-	Atari probako puntuazioa	JAA	0,317	
21-	Erabilera etxean, Mashaian	ORD		0,299
22-	Erabilera dantzan (aisialdi)	ORD		0,292
23-	Hiztun tipologia	ORD		0,290
24-	Lehen hiduntza (gurasoek aitortua)	ORD		0,259
25-	Ahozko probaren puntuazioa	JAA	0,259	
26-	Erabilera amarekin	ORD		0,251
27-	Lehen hiduntza (ikasleak aitortua)	ORD		0,250
28-	Erraztasun erlatiboa hitz egiteko (ikasleak aitortua)	ORD		0,248
29-	Lurraldea (Ar / Biz / Gp)	KUA		0,246
30-	Erabilera aitarekin	ORD		0,242
31-	Erraztasun erlatiboa ulertzeko (ikasleak aitortua)	ORD		0,238
32-	Telebista-Musika-Irmatia kontsumoa	JAA	0,235	

	Aldagaiak	M	R ²	η^2
33-	Ikaslearen gurasoen gaitasuna	ORO		0,231
34-	Gurasoen arteko erabilera	ORO		0,212
35-	Ikaslearen erabilera behatua gela barruan	JAA	0,211	
36-	Imajina ezazu ez dakizula hizkuntzanik, Zein hitz egitea gustatuko?	KUA		0,206
37-	Zein hizkuntza dosko hobeto - familia	KUA		0,203
38-	Taldearen erabilera behatua gela barruan	JAA	0,201	
39-	Amaeren gaitasuna (ikasleak aitortua)	ORO		0,190
40-	Amaeren gaitasuna - ulertzeko (gurasoek aitortua)	ORO		0,188
41-	Amaeren gaitasuna - hitz egiteko (gurasoek aitortua)	ORO		0,187
42-	Aitaren gaitasuna (ikasleak aitortua)	ORO		0,187
43-	Erabilera udalekueetan (aisialdi)	ORO		0,185
44-	Zein hizkuntza dosko hobeto - semea	KUA		0,179
45-	Erabilera irakasleekin	ORO		0,178
46-	Aitaren gaitasuna - ulertzeko (gurasoek aitortua)	ORO		0,177
47-	Amonaren jaioterria	KUA		0,177
48-	Aitaren jaioterria	KUA		0,174
49-	Aitaren gaitasuna - hitz egiteko (gurasoek aitortua)	ORO	0,171	
50-	Zenbat urterekin ikasi gaztelania (gurasoek aitortua)	KUA		0,170
51-	Amaeren jaioterria	KUA		0,170
52-	Aitonaren jaioterria	KUA		0,160
53-	Zenbat urterekin ikasi euskara (gurasoek aitortua)	ORO		0,158
54-	Amonaren jaioterria II	KUA		0,151
55-	Ikastetxe mota	KUA		0,146
56-	Erraztasun erlatiboa idazteko (ikasleak aitortua)	ORO		0,145
57-	Idazlaneko puntuazioa (irale)	JAA	0,142	
58-	Zein hizkuntza dosko hobeto - agureak	KUA		0,139
59-	Zein hizkuntza dosko hobeto - bikotea	KUA		0,137
60-	Zein hizkuntza dosko hobeto - eliza	KUA		0,136
61-	Aitonaren jaioterria II	KUA		0,130

6.4 taula (jarraipena)

	Aldagala	M	R ²	η^2
62.	Hemiko lagunen ezagutza	GRD		0,127
63.	Aitareen gaitasuna - idazteko (gurasoek aitortua)	GRD		0,121
64.	Telebista nola ikusi (eus/gaz)	JAR	0,121	
65.	Erreztasun erlatiboa irakurtzeko (ikasleak aitortua)	GRD		0,121
66.	Aitareen gaitasuna - irakurtzeko (gurasoek aitortua)	GRD		0,120
67.	Irakasleen arteko erabilera (ikasleak aitortua)	GRD		0,116
68.	Amairen gaitasuna - idazteko (gurasoek aitortua)	GRD		0,115
69.	Amairen gaitasuna - irakurtzeko (gurasoek aitortua)	GRD		0,112
70.	Zein hizkuntza dosiko hobeto - nekazaria	KUA		0,109
71.	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak	KUA		0,107
72.	Ikastetxean aholkotasuna lantzeko plangintzak	KUA		0,103
73.	Zein hizkuntza dosiko hobeto - hagnlana	KUA		0,101
74.	Gustuko musika taldeak (eus/gaz)	JAR	0,100	
75.	Ikaslearen hemiko butanle kopurua	JAR	0,098	
76.	Erabilera klase partikularetan (aisald)	GRD		0,097
77.	Mintzagrama - ikasleak jasotako apamenak gaztelaniaz	JAR	0,096	
78.	Zein hizkuntza dosiko hobeto - basernia	KUA		0,096
79.	Mintzagrama euskarazko apamenak - gaztelaniazko apamenak	JAR	0,093	
80.	Idazlaneko puntuazioa (irakasle)	JAR	0,087	
81.	Gustuko kirolaria (eus/gaz)	KUA		0,080
82.	Ana-arreben gaitasuna (ikasleak aitortua)	GRD		0,079
83.	Artistak eta kirolariak deskribatzeko erabilitako hizkuntza	GRD	0,073	
84.	Taldeko ikasle kopurua	JAR	0,008	
85.	Gustuko kirolaria II (eus/gaz)	KUA		0,069
86.	Zein hizkuntza dosiko hobeto - Kanpina	KUA		0,069
87.	Zein hizkuntza dosiko hobeto - Ordenagailua	KUA		0,067
88.	Zein hizkuntza dosiko hobeto - futbola	KUA		0,067

6.4 taula (jarraipena)

	Aldagaiak	M	R ²	η^2
89-	Zein hizkuntza doakio hobeto - eskola	KUA		0,066
90-	Gustuko aktore-abelaria (eus/gaz)	KUA		0,062
91-	Ikaslearen eskola errendimendu orokorra	JAR	0,059	
92-	Zein hizkuntza doakio hobeto - sarelitea	KUA		0,058
93-	Zein hizkuntza doakio hobeto - fabrika	KUA		0,054
94-	Gustuko aktore-abelaria II (eus/gaz)	KUA		0,051
95-	Zein hizkuntza doakio hobeto - albisteak	KUA		0,050
96-	Euskararen aldeko jaietara joan zara!	ORU		0,048
97-	Ikastetxean erabilera bultzatzeko kanpainak edo ekintzak	KUA		0,045
98-	Ikastetxeko ikasle kopurua	JAR	0,043	
99-	Zein hizkuntza doakio hobeto - hizlaria	KUA		0,038
100-	[B ereduan soilik] - Asteko ordu kopurua euskaraz	JAR	0,038	
101-	Mintzagrama - ikasleak jasotako aipamenak euskaraz	JAR	0,026	
102-	Zein hizkuntza doakio hobeto - musika	KUA		0,023
103-	Ikastetxeko irakasle kopurua	KUA		0,018
104-	Interneten nabigatzeko hizkuntza (ikasleak aitortua)	JAR	0,016	
105-	Ikasle hitzuna? (irakasleak aitortua)	ORU		0,015
106-	Oporetara nora joaten zara? (ikasleak aitortua)	KUA		0,013
107-	Ikasle liderra (irakasleak aitortua)	ORU		0,009
108-	Ikaslearen sexua	KUA		0,005

Hemendik behera dauden hiru aldagaietan, asoziazioa **EZ DA** estatistikoki adierazgarria rankingaren mendeko aldagaiekin, hau da ikaslearen jokabideko erabilera aldagaiekin.

109-	Aitak ebetrik kanpo lan egiten duen	KUA		0,001
110-	Aitak ebetrik kanpo lan egiten duen	KUA		0,000
111-	[B ereduan soilik] -asteko ordu kopurua gaztelaniaz	JAR	0,000	

Rankingeko *aldagai askeei* buruzko zenbait ohar:

– *Erabilera aisialdiko taldeetan (aisialdi)* (rankingeko 4, 6, 16, 22, 43 eta 76 postuetan kokatuta): ikasleei beren aisialdiko sei jardueretan zein hizkuntza erabiltzen duten galdetu zaie. Horietako bakoitza aldagai gisa hartu da, eta identifikazioa errazteko, guztiei aldagaiaren izenaren ondoren “(aisialdi)” erantsi zaie. Sei aldagai horien batez bestekoa ere atera da ikasle bakoitzarentzat eta rankingeko *Erabilera aisialdian* batez beste aldagaia osatu da (13. postua).

– *Ikasteredua* (14. postua): testuan zehar aipatzen den moduan, aztertutako ikasleen laginean ikasle gehienak D eredukoak dira, hau da, ez dago hiru ereduen arteko banaketa orekatu bat. Bestela, ziurrenik aldagai hau zerrendan gorago egongo litzateke.

- Lehen hizkuntza LI (*irakasleak aitortua*) (15. postua): zerrendako aldagai gehienak ikasleek galdetegietan aitortutako datuetatik osatu dira. Baina badira tartean behaketa bidez jasotakoak (*Ikaslearen hizkuntza-erabilera behatua gela barruan* (35. postua), adibidez), gaitasun proba bidez lortutakoak (adibidez, euskararen ezagutzari buruzko *Atari proba* (20. postua)) edota irakasleek eta gurasoek aitortutako datuak. *Lehen hizkuntzaren kasuan*, esaterako, ikasleak, irakasleak eta gurasoek aitortutako datuak jaso dira, eta aldagaiak bereizteko parentesi artean zehazten da jatorria (*irakasleak aitortua, gurasoek aitortua...*). Amaren eta aitaren gaitasunean ere, gurasoek eta ikasleak aitortutako datuak aztertu dira, eta parentesi artean adierazten da datuaren jatorria.
- Zein hizkuntza hobeto – familia (37, 44, 58, 59... postuak): zerrendan era honetako 17 aldagai daude (ikus 5.1 atala). Irudikapenen probatik jasotako aldagaiak dira, eta amaieran zehaztutakoa (*familia, semea, satelitea...*) probako irudi bakoitzari eman zaion izena da. Ikasleek irudia besterik ez zuten erantzuteko.

6.1.3 Rankingeko emaitzen esanahia eta ondorioak

Aipatu bezala, *ranking* edo sailkapen honek adierazten duena zera da: III aldagai askeetako bakoitzak zenbateko lotura edo asoziazio maila duen *ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilerarekin*. Eta loturarik indartsuena dutenetatik ahulena dutenetara ordenatuta daude III aldagai guztiak banan-banan.

Gorago, 6.1.1 atalean, azaldu da zer den bi aldagairen artean *lotura* edo *asoziazioa* egotea eta zer esan nahi duen, lotura hori estatistikoki *adierazgarria* izateak. *Ranking*aren lehen ondorioa hau da: aztertutako III aldagai askeetatik 108k dute estatistikoki adierazgarria den lotura bat *ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilerarekin*. Xehetasun estatistikoetan sartu gabe, esan genezake ordea, taulan 0,1etik beherako balioak dituzten aldagaien kasuan (zerrendan, 75.etik behera) lotura hori nahiko ahula dela, estatistikoki lotura esanguratsua edo adierazgarria egon arren.

Aزتتutako aldagai gehien-gehienek badute, beraz, *asoziazio* edo lotura bat *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*. Horrek esan nahi du 108 aldagai aske horietan, 1.325 ikasleen datuak kontuan hartuta, ikasleek *aldagai aske* horietan balio bat edo beste izan, desberdina dela, batez beste, beren *jolaslekuko erabilera*. Adibidez:

*Ranking*eko 16. lekuan *Erabilera kirolean (aisialdi)* aldagai askea ageri zaigu, 0,331-ko η^2 balioarekin:

Aldagaiak	F	R ²	η^2
16- Erabilera kirolean (aisialdi)	1,325	0,11	0,331

Erabilera kirolean (aisialdi) aldagaiaren informazioa ikerketan A Galdetegian jaso da (ikus I. Eranskina). Ikasleek galdera honetan bost erantzun posible zituzten³⁴.

³⁴ Galderaren erantzun-aukerak hauek ziren: 1) *Beti edo ia beti gaztelaniaz*; 2) *Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago*; 3) *Bietan berdin*; 4) *Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago*; 5) *Beti edo ia beti euskaraz*.

Esaten denean *erabilera kirolean (aisialdi)* aldagai askearen eta *ikaslearen jolaslekuko erabilera* aldagaiaren artean “lotura” dagoela, esan nahi du, aztertutako 1.325 ikasleak aldagai horretan eman zuten erantzunaren arabera sailkatuta *erabilera kirolean (aisialdi)* aldagaiaren eta *ikaslearen erabilera jolaslekuan* aldagaiaren artean lotura dagoela, estatistikoki. Lotura horren balioa 0,331koa da Otik Ierako eskalan, eta aztertutako 111 horien artean, 16. handiena da.

Hau da, *erabilera kirolean (aisialdi)* aldagai askea 16. lekuan dago rankingean ($\eta^2 = 0,331$) eta *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* lotura estuagoa edo indartsuagoa du *erabilera amarekin* aldagaiak baino ($\eta^2 = 0,251$), zeina 26. lekuan kokatzen den.

Aldagaiak	H	R ²	η^2
16- Erabilera kirolean (aisialdi)	0,331		
26- Erabilera amarekin	0,251		0,251

Erabilera kirolean (aisialdi) aldagai askea 16. lekuan dago rankingean ($\eta^2 = 0,331$) eta *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* lotura estuagoa edo indartsuagoa du *erabilera amarekin* aldagaiak baino ($\eta^2 = 0,251$), zeina 26. lekuan kokatzen den.

6.1.4 Aldagai askeak eremuka antolatuta

Aldagai askeak banaka beraien artean konparatzeaz gain, *rankingak* aldagaiak eremuka edo gaika konparatzeko aukera ere eskaintzen digu. Horretarako, jarraian, zerrendan lotura adierazgarria duten 108 *aldagai askeak* zortzi EREMUtan taldekatu dira, antzeko informazioa –edo “eremu” berekoa– eskaintzen duten aldagaiak bilduz. Eremu bakoitzari izenburu bat jarri zaio (LETRA LARRIZ), eta azalpenetan eremu bakoitzean bildutako aldagai askeen zenbakiak aipatzen dira parentesi artean (adibidez: “(4, 6, 13, 16...postuak)”); zenbaki horiek rankingeko lehen zutabeari dagozkio, *aldagai aske* bakoitzak rankingean duen posizioa dira, hain zuzen.

Zortzi eremu horiek ordenatu egin dira, bakoitzak biltzen dituen *aldagai askeek rankingean* duten posizioaren arabera. Horra hor eremu hauen ordena eta ondoriozta daitezkeen ideia nagusiak:

1. TALDEAREN JOLASLEKUKO ERABILERA. Aztertutako aldagai guztietan ikaslearen jolaslekuko erabilerari lotuen dagoen aldagaia ikaskidea taldekide den taldearen jolaslekuko erabilera da (1. postua), baita talde horren hizkuntza-erabilera neurtzeko beste aldagai batzuk ere (5. postua), (9. postua).

2. INGURUNE HURBILEKO ERABILERA. Ikasleak bere eguneroko ingurune hurbilean ikastetxetik kanpo duen hizkuntza-erabilera oso lotua dago bere jolaslekuko erabilerarekin: bai aisialdiko jardueretako erabilera (4, 6, 13, 16...postuak) eta bai herriko lagunekin egiten duena ere (8, 12).

3-4. IKASTETXEAREN BALDINTZAK. *Ikastereduak* (14. postua), ikastetxearen hizkuntza-paisaiak (*Errotulazioa*) (11. postua) eta irakasle euskaldunen proportzioak (18. postua) ere lotura estua dute *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*. Ikastetxean *erabilera* (97. postua) eta *ahozkotasuna lantzeko plangintzak* (72. postua) egoteak ere badu lotura *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*, baina lotura hori nabarmen ahulagoa da aurretik aipatutako hiru aldagaiena baino.

3-4. ETXEKO HIZKUNTZA. Ikaslearen *lehen hizkuntzak* (15, 24, 27. postuak), anai-arrebekiko erabilerak (10) eta gurasoekiko erabilerak (26, 30. postuak) ere lotura sendoa dute ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin. *Erabilera etxean. Mahaian* (21. postua) aldagaiak (etxeke erabilera orokorrak, nolabait), ikasleak guraso bakoitzarekin duen erabilerak (26, 30. postuak) baino lotura handiagoa du *jolaslekuko erabilerarekin*, eta aldi berean erabilera hauek asoziazio handiagoa dute gurasoen gaitasunek dutena baino (39, 40, 41...postuak).

5. IKASLEAREN GAITASUNA EUSKARAZ (neurtua eta aitortua). Ikasleari neurtutako *euskarazko gaitasunari* dagokionez, (*Atari proba*) (20. postua) da asoziaziorik estuena eman duena. *Ahozko probaren puntuazioek*, ikasle gutxiri egin bazitzairen ere, asoziazio estuagoa dute (25. postua) egindako *idazlaneko puntuazioek* baino (57 eta 80. postuak). Idazlanaren kasuan, irakasleek eta IRALEk ebaluatutako emaitzak aztertu dira, eta asoziazio dezentez estuagoa dute azken hauek ebaluatuetan (57. postua) irakasleek ebaluatuetan baino (80. postua). Bestalde, ikasleak aitortutako *hizkuntza-erraztasun erlatiboek* (euskarazko gaitasuna gaztelaniaz duenarekiko) ere lotura handia dute *jolaslekuko erabilerarekin*. Orden honetan: *hitz egitekoa* (28. postua), *ulertzekoa* (31. postua), *idaztekoa* (56. postua) eta *irakurtzekoa* (65. postua).

6. ERABILERA GELA BARRUAN. Oro har, ikaslearen ingurune hurbileko eta aisialdiko hizkuntza-erabilerak, etxekeokiko erabilerak eta ikaslearen gaitasunak lotura estuagoa dute bere *jolaslekuko erabilerarekin*, *gela barruan* ikasleak (35. postua) eta bere taldeak duten euskara-erabilerak (38. postua) baino.

7. IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSUMOA. Ikus-entzunezkoen kontsumoan, *Irratia nola entzun* (17. postua) aldagaia *Telebista* (64. postua) edo *Musika taldeak* (74. postua) baino askoz lotuago dago erabilerari. Kontuan hartu behar da, dena den, jasotako datuetan ikasle gutxiagok eman dutela gustuko irratsaioen daturik (%59), telebista (%95) edo musikariei buruz baino (%93), baina eman dutenen kasuan, loturarik estuena berak du.

8. HIZKUNTZA-IRUDIKAPENAK ETA GUSTUKO PERTSONAIK. Ikaslearen hizkuntza-irudikapenek edota gustuko aktore zein kirolariek ere badute lotura *jolaslekuko erabilerarekin*, baina ahulagoa da erabilera horrek gorago aipatutako aldagaiekin duena baino. Aldagai horiek guztiak rankingean 35. lekutik atzera daude: 36, 37, 44, 58, 59... postuak. Irudikapenen artean, "familia" inguruneok³⁵ dute lotura estuena *jolaslekuko erabilerarekin*.

9. ASOZIAZIO BAXUAGOAK. Arestian esan bezala, aztertutako aldagai askeetatik ia guztiak dute nolabaiteko lotura jolaslekuko erabilerarekin (111 aldagaitik 108k), eta lotura hori estatistikoki adierazgarria da. Dena den, kasu batzuetan lotura hori oso ahula da; adibidez, 0,1etik beherako indizeak dituzte: *mintzagramaren* inguruan jasotako datuek³⁶, *ikaslearen eskola errendimenduak* (91. postua), *sexuak* (108. postua) edota ikaslea *hiztuna* (105. postua) izateak edo ez izateak.

³⁵ Aztertutako 17 irudiak hurrenkera honetan ordenatzen dira jolaslekuko erabilerarekin duten loturaren arabera: 1.- familia (37), 2.- semea (44), 3.- agureak (58), 4.- bikotea (59), 5.- eliza (60), 6.- nekazaria (70), 7.- haginlaria (73), 8.- baserria (78), 9.- kanpina (86), 10.- ordenagailua (87), 11.- futbola (88), 12.- eskola (89), 13.- satelitea (92), 14.- fabrika (93), 15.- albistek (95), 16.- hizlaria (99), 17.- musika (102).

³⁶ Zerrenda honetan aldagai gisa jaso direnak dira taldeko mintzagraman ikasleak *euskaraz egiteagatik jasotako aipamenak eta gaztelaniaz egiteagatik jasotakoak* eta bien arteko kenketa. Ulibarri Programan mintzagramak kontuan hartzen ditu bai ikasleak jasotako aipamenak eta bai egindakoak. Dena den, bi aldagai horiek bakarrik, solte sartuta, neurtutako erabileraren lotura ahula da, beraz aurrerantzean aztertzeko jarraitzeko gaia litzateke.

6.1 atala, LABURPENA

Atal honetan, behatutako *ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilerak* –mendeko aldagaiak– aztertutako aldagai aske guztiekin (guztira III) duen lotura edo *asoziazioa* aztertzen da, aldagai aske guztiak bakoitzak duen loturaren arabera *ranking* batean ordenatuz.

Aldagaiak *Jarraiak*, *Ordinalak* eta *Kualitatiboak* diren bereizten da *rankingean*, eta ordentzeko R^2 eta η^2 estatistikoak erabili dira (beraien artean alderagarri direnak).

Aztertutako III aldagai askeetatik 108k dute estatistikoki adierazgarria den lotura bat *ikaslearen jolaslekuko erabilera* aldagaiarekin. Lotura hori, ordea, aldagai batzuetan bestetan baino indartsuagoa da, eta rankingak aukera ematen digu aldagai askeak banan-banan konparatzeko *jolaslekuko erabilerarekin* gehien eta gutxien lotuta zein dauden jakiteko.

Horrez gain, rankingean banaka ageri diren *aldagai askeak* zortzi EREMUtan banatu dira, 108 *aldagai askeek rankingean* duten lekuaren arabera eremu horiek ordenatuz. Hona hemen ideia nagusiak:

- ⇒ 1. *Ikaslearen jolaslekuko euskarazko erabilerarekin* lotuen dagoen eremua, bere *TALDEAREN JOLASLEKUKO HIZKUNTZA HORREN ERABILERA* da, gainerako aldagai guztien gainetik.
- ⇒ 2. *Ikaslearen INGURUNE HURBILEKO ERABILERAK* (herriko lagunak eta *aisialdiko erabilerak*) oso lotura estua du *jolaslekuko erabilerarekin*, estuagoa bere *lehen hizkuntzak* edo *ikaslearen euskarazko gaitasun erlatiboak* baino.
- ⇒ 3/4. *IKASTETXEAREN* oinarrizko *BALDINTZEK* (eredua, *irakasle euskaldunen proportzioa...*) lotura handia dute *jolaslekuko erabilerarekin*. *Euskararen erabileraren aldeko ekintzek* ere lotura adierazgarria dute, baina nabarmen apalagoa.
- ⇒ 3/4. Lotura maila bertsua du *ikaslearen ETXEKO HIZKUNTZA* eremuak: *erabilera anai-arrebekin*, *lehen hizkuntza*, *hiztun tipologia*, *erabilera etxean*, *erabilera amarekin...* *Ikasleen etxeko hizkuntza baldintzen* eta *ikaslearen jolaslekuko erabileraren artean* ere lotura sendoa dago, beraz.
- ⇒ 5. *IKASLEAREN EUSKARAZKO HIZKUNTZA GAITASUNA* eremua da osatutako zortzietan bosgarrena. Bertako aldagaien artean aldeak daude, baina *Atari probak*, *Ahozko probak* edo *ikasleak aitortutako erraztasun erlatiboak*, *lehen hizkuntzak* adinako *asoziazioa* dute *jolaslekuko erabilerarekin*.
- ⇒ 6. eremua *GELA BARRUKO ERABILERA* da, 7.a *IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSUMOA* eta 8.a *ikaslearen HIZKUNTZA-IRUDIKAPENAK ETA GUSTUKO PERTSONAIEN HIZKUNTZA*. Hiru Eremu horietako aldagaiek ere lotura dute *jolaslekuko erabilerarekin*, baina aurreko bost eremuetakoa baino ahulagoa.
- ⇒ Azkenik, aipatu *sexua*, edo *eskola errendimendua* bezalako aldagai askeek (“eremu” gisa taldekatu ez direnak) loturak izan, badituzte, *jolaslekuko erabilerarekin* (estatistikoki adierazgarriak, gainera), baina aurreko multzokoak baino txikiagoak.

6.2 Zein aldagaik bereizten dute jolaslekuko erabilera? Erregresio Logistikoa analisisia

Estatistikak ikerketa honetan bildu den datu-basea aztertzeko erreminta multzo zabala eskaintzen digu. Analisi estatistikoen diseinu metodologikoak, aztertutako aldagaien ezaugarrietara egokitzea eskatzen du, datuen matrizean dagoen barneko informazioa ateratzen eta aztertzen saiatuz. Testuinguru honetan, aztertutako aldagai soziolinguistikoei banaka eta multzoan ikaslearen JOLASLEKUKO EUSKARAZKO ERABILERAekin eta TALDEKO ERABILERAekin duten harremana aztertzeko, beren izaera kuantitatiboa kontuan izanik, erregresio anizkoitza erabili dugu (ikus 7. atala). Datuen analisirako ahaleginean, eta zehatzago esanda, ERABILERAren azterketan, mendeko aldagaia dikotomizatuta beste aldagaiek zituzten harremanetan arakatu zen. Dikotomizazioak itxura batean informazioaren galera bat eragin arren, analisi hauek azterketa enpirikoari egin dizkioten ekarpen osagarrien garrantzia ikusirik³⁷, erregresio eredu honen emaitzak ere aurkezten dira.

- **Informazioa nola prestatu den analisi honetarako**

Erregresio Logistiko analisiak³⁸ aztergai dauden aldagaietatik gertaera edo egoera bat hobekien aurreikusten dutenak bilatzen ditu, analisiak berak sortzen duen eredu edo ekuazio baten arabera. Kasu honetan, ikasleen artean euskararen erabilera maila jakin batzuk gertatzea edo ez gertatzea hobekien bereizten duten aldagaiak bilatu ditugu, analisi hau baliatuz.

Baldintza zorrotz bat du analisi mota honek: auresan nahi den aldagaiak dikotomikoa izan behar du. Hau da, aldagaiari erantzuteko bi aukera bakarrik egon behar dira: A edo B; Bai edo Ez... , modu horretakoak.

Guk auresan nahi dugun aldagaia (Jolaslekuko erabilera) 0tik 100erainoko eskalan dagoenez, analisirako egokitu egin behar izan dugu, Erregresio Logistikoak eskatzen duen bezala bi erantzun posibleetara mugatuz, *dikotomizatuz*.

Oinarri horietatik abiatuta, jolaslekuko erabilera aurreikusteko honako azterketak burutu dira:

1. *Jolaslekuko ikaslearen euskara erabilera* oinarri hartuta, bilatuko dugu zeintzuk diren erabilera maila ezberdinak gertatzeko ala ez gertatzeko aukerak hobekien azaltzen dituzten *aldagai askeak*.

³⁷ Analisi hauetan eginiko dikotomiek balio izan digute ezaugarri soziolinguistiko ezberdinak dituzten ikasleen artean *jolaslekuko euskarazko erabilera* ongien bereizten duten aldagaiak berdinak diren edo aldatu egiten diren jakiteko. Aldagai batzuk dikotomia edo erabilera maila guztietan nabarmentzen dira: kasurik argiena *Taldearen erabilera* aldagaiarena da: erabilera maila baxuak (1. eredu) edo altuak izan (3. eredu), kasu guztietan *taldearen erabilera* aldagaia da ikaslearen *jolaslekuko euskarazko erabilera* ongien bereizten duen aldagaia. Aldiz, beste aldagai batzuk dikotomia edo erabilera maila batzuetan bakarrik nabarmendu dira. Esate baterako *ikaslearen sexua* aldagaia. Ikasle guztiekin eginiko analisisetan 1. eta 2. ereduetan ez da ageri erabilerearen bereizle bezala, baina bai 3. eredu. Erabilera aldetik kualifikatuak diren ikasleekin eginiko analisisetan, aldiz, bai 5. eredu eta bai 6. enean erabilerearen bereizle gisa ageri zaigu aldagai hau. Emaitza horrek erabateko zentzua du soziolinguistikoki: adierazten digu ikasleen sexuak edo generoak baduela lotura bat jolaslekuko erabilerekin (neskek gehiago erabiltzen dute), baina lotura hori dikotomia edo erabilera maila batzuetan soilik nabarmentzen da, erabilera maila altuetan hain zuzen, euskara erabiltzeko gutxieneko baldintzarik ez duten ikasleen ezin baita halako bereizketarik eman (kasu horietan ez dute erabiltzen ez neskek eta ez mutilek).

³⁸ Analisi mota honetaz gehiago jakiteko ikus, adibidez: Pardo, A. eta Ruiz, M. A. (2002): SPSS 11. *Guía para el análisis de datos*. Madrid etab. McGraw Hill (649, 666 orr.).

2. Ondoren, aurreko atalean *ikaslearen erabilera* eta bere *taldearena* oso lotuta daudela ikusi dugunez, 6.2.2 atalean analisi bera errepikatzen da baina *jolaslekuko taldearen euskara erabilera* aztergai hartuta.

Euskararen *jolaslekuko erabilera* zein aldagaik bereizten duten ondoen aztertzeke, gorago 6.1.2 ataleko 6.4. taulan ikusi ditugun aldagaietatik (guztira 111 dira) 94 erabili dira analisi honetarako³⁹.

6.2.1 Jolaslekuko ikaslearen euskara erabilera

• Ikasle mota guztiak kontuan hartuta

Aipatu bezala, ikasleen erabilera Erregresio Logistikoan mendeko aldagai gisa erabili ahal izateko "itxuraldatu" egin behar izan dugu: aldagai jarraia izatetik (0-100 eskalan) aldagai dikotomikora (bi erantzun posible soilik), hain zuzen. Dikotomizatze hori hiru irizpideren arabera gauzatu dugu, bakoitza ondorengo hiru eredueta batean:

- 1. EREDUA:** *Erabilerarik eza vs. Nolabaiteko erabilera*. Analisi honekin bilatzen dena hauxe da: Zeintzuk dira ikasleen "euskararen erabilerarik eza" (%0) eta "euskararen nolabaiteko erabilera" (%0,1etik %100eraino) ondoen bereizten dituzten aldagaiak?
- 2. EREDUA:** *Erabilera \leq %50 vs. Erabilera $>$ %50*. Analisi honekin zera bilatzen da: Zeintzuk dira ikasleen "euskararen erabilerarik eza edo erabilera baxua" (%0tik %50eraino, azken hau barne) eta "erabilera altua" (%50etik %100eraino) ondoen aurreikusten edo banatzen dituzten aldagaiak?
- 3. EREDUA:** *Erabilera $<$ %100 vs. Erabilera %100*. Analisi honekin zera bilatzen da: Zeintzuk dira "euskara beti erabiltzea" (%100) eta "euskararen erabilerarik eza edo ez erabateko erabilera" (%0tik %99raino) ondoen bereizten dituzten aldagaiak?

Erabili diren 94 aldagai askeetatik **erregresio logistiko** analisisiek 17, 17 eta 20 aldagai aukeratu dituzte hiru eredu horietako bakoitzean, hurrenez hurren (ikus 6.5 taula). 6.5 taula horretan eredu bakoitzaren azpian ageri diren aldagaiak dira, beraz, eredu edo ekuazio horietako bakoitza hornitzeko hobekien egokitu diren *aldagai askeak*, eredu bakoitzean egiten dugun "galdera"ri erantzuteko, informaziorik hoberena ematen digutenak. Gogoratu, mendeko aldagaia 1., 2. eta 3. Eredu hauetan beti berbera dela: *ikaslearen jolaslekuko erabilera*, baina eredu bakoitzean erabilera maila ezberdinak aztergai hartuta, hain zuzen. Zerrenda bakoitzean, analisisien bidez *aldagai aske* batzuk hautatzen dituzte, eta mendeko aldagaia azaltzeko duten garrantziaren arabera ordenatuta daude zerrendan.

Beste modu batean ere interpreta genezake 1., 2. eta 3. Eredu hauetako bakoitzaren aldagaien "zerrenda". Har dezagun, adibidez, 1. Eredua: *erabilerarik eza (%0) vs nolabaiteko erabilera (%0,1 eta %100 artean)*. Badakigu, gure datuetan, 1.325 ikasleetatik badirela ba-

³⁹ Erregresio analisisietan erabili ahal izateko beharrezkoa da aldagai horiei buruzko informazioa subjektu guztiek izatea. Aldagai batzuetan, ordea, erabilitako metodologiagatik, subjektu batzuen informazioa bakarrik genuen, eta aldagai horiek ezin izan dira analisi honetan sartu. Adibidez, *Ahozko probaren puntuazioa* subjektu batzuek bakarrik zuten, proba lagin bati egin zitzaielako.

tzuk jolaslekuko erabilera %0 dutenak eta beste batzuk hori baino gehiago dutenak. I. Ereduko “dikotomia”ren bidez bi ikasle talde sortzen ditugu, nolabait. Eta analisiaren bidez hau egiten dugu: zein dira aztertzen ari garen 94 aldagai askeetatik (beraz, mendekoa aparte utzita) bi talde horiek bereizteko informaziorik onena eta aberatsena eskaintzen diguten aldagaiak? Horiek dira zerrendan “aukeratuta” agertzen zaizkigun 17 aldagaiak, gehien azaltzen dutenetatik gutxien azaltzen dutenetara ordenatuta.

6.5 taulan, 1., 2. eta 3. EREDUetarako analisi bidez hautatu diren aldagai askeak, aurreko atalean bezala, kasu honetan ere eremuka banatu dira⁴⁰, eta eremu bakoitzeko aldagaiei kolore bat eman zaie, modu honetan:

■ Taldearen ezaugarriak	■ Familia ezaugarriak
■ Ikaslearen ezaugarriak	■ Kanpo ezaugarriak
■ Ikastetxearen ezaugarriak	■ Hizkuntza irudikapenak

6.5 taulan, beraz, Erregresio Logistikoa analisisan sorturiko 1., 2. eta 3. EREDUei –edo 1., 2. eta 3. ereduetan eginiko galderei– ongien erantzuten dioten aldagaien zerrenda, hurrenez hurren, jolaslekuan ikasleen erabilera maila horiek ongien bereizten dituztenak:

⁴⁰ Atal honetan aldagaiak 6 eremutan sailkatu dira, 4.1. ataleko analisisetan, berriz 8 eremu bereizi dira. Funtsean, eremuak berdinak dira, bi ezberdintasun hauekin: 4.1 atalean 6. eremua zen “ERABILERA GELA BARRUAN” 4.2an ez da eremu gisa aintzat hartu eta, sinplifikatzeko, “ikaslearen ezaugarriak” eremuan txertatu da. 4.1 ataleko 7. eremua, berriz, “IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSUMOA”, 4.2 atalean “kanpo ezaugarriak” eremu zabalagoan txertatu da, arrazoi beragatik.

1.- EREDUA		2.- EREDUA		3.- EREDUA	
Jolaslekuko erabilera: EZ ala BAI		Jolaslekuko erabilera: GUTXI ala ASKO		Jolaslekuko erabilera: BETI ala GUTXIAGO	
erabilerarik eza vs. Nolabaiteko erabilera		erabilera ≤ % 50 vs. Erabilera >% 50		Erabilera % 100 vs. Erabilera <% 100	
1-	Taldearen erabilera behatua jolaslekuan	1-	Taldearen erabilera behatua jolaslekuan	1-	Taldearen erabilera behatua jolaslekuan
2-	Mintzagrama: Euskarazko aipamenak-gaztelaniazko aipamenak	2-	Ikaslearen eskola errendimendu orokorra	2-	Mintzagrama: Euskarazko aipamenak-gaztelaniazko aipamenak
3-	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa	3-	Mintzagrama: Euskarazko aipamenak- gaztelaniazko aipamenak	3-	Ikaslearen sexua
4-	Erabilera anai-arrebekin	4-	Erabilera anai-arrebekin	4-	Erabilera anai-arrebekin
5-	Ikaslearen erabilera behatua gela barruan	5-	Ikasle hitzuna? (irakasleak aitortua)	5-	Ikastetxeko erabilera bultzatzeko kanpainak edo ekintzak
6-	Ikaslearen herriko biztanle kopurua	6-	Ikaslearen erabilera behatua gela barruan	6-	Mintzagrama - ikasleak jasotako aipamenak gaztelaniaz
7-	Taldeko ikasle kopurua	7-	Herriko lagunen arteko erabilera	7-	Ikaslearen eskola errendimendu orokorra
8-	Ikaslearen eskola errendimendu orokorra	8-	Ikaskideen arteko erabilera	8-	Ikastetxea zein herritan dagoen
9-	Taldeko guraso euskaldunen proportzioa	9-	Erabilera ikaskideekin	9-	Lurraldea (Ar/ Biz/ Gip)
10-	Amaren gaitasuna-hitz egiteko (gurasoek aitortua)	10-	Taldeko guraso euskaldunen proportzioa	10-	Irakasleen arteko erabilera (ikasleak aitortua)
11-	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak	11-	Atari probako puntuazioa	11-	Erabilera ikaskideekin
12-	Ikastetxeko ikasle kopurua	12-	Erabilera amarekin	12-	Euskararen aldeko jaietara joan zara?
13-	Ikasteredua	13-	Erabilera aitarekin	13-	Aitaren gaitasuna - ulertzeko (gurasoek aitortua)
14-	Amak etxetik kanpo lan egiten duen	14-	Guraso arteko erabilera	14-	Zein hizkuntza doakio hobeto - hizlaria
15-	Zein hizkuntza doakio hobeto	15-	Telebista - Musika - Irratia kontsumoa	15-	Telebista - Musika - Irratia kontsumoa
16-	Lurraldea (Ar/ Biz/ Gip)	16-	Lurraldea (Ar/ Biz/ Gip)	16-	Ikasteredua
17-	Imagina ezazu ez dakizula hizkuntzarik. Zein hitz egitea gustatuko?	17-	Ikaslearen herriko biztanle kopurua	17-	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak
■ Taldearen ezaugarriak		■ Familia ezaugarriak		18-	Ikastetxe mota
■ Ikaslearen ezaugarriak		■ Kanpo ezaugarriak		19-	Ikastetxea
■ Ikastetxearen ezaugarriak		■ Hizkuntza irudikapenak		20-	Ikaslearen erabilera behatua gela barruan

6.5 taula

Osatu ditugun hiru erabilera maila edo eredueta aukeratuak izan diren hainbat aldagai dago. Jolaslekuko norberaren erabilera **taldearen ezaugarrien eragina** nabarmen gailentzen da, osatu ditugun hiru eredueta. Alegia, taldeak ezartzen duen jolaslekuko erabilera maila ikasleen erabilera lotuta agertzen da. Bestalde, jolaslekuko norberaren erabilera bat dator –hiru eredueta– ikaskideek neska-mutil horri **aitortu dioten euskarazko edo gaztelaniazko “hiztun aktibo” izaera**rekin (ikaslearen ezaugarria den *mintzagrama*ko aipamenak). Horrek behaketa bidez neurtutako eta ikasleek aitortutako erabilera koherentzia berresten du. Badaude hiru eredu edo mailetan errepikatzen diren beste 2 aldagai ere: bata, familia alorrekoa den euskararen **erabilera anai-arrebekin** eta, bestea, ikaslearen ezaugarria den **errendimendu akademikoa**. Hortaz, aipatutako lau aldagai horiek lirake erabilera maila guztiak bereizi dituzten bakarrak.

Erabilera eza vs. nolabaiteko erabilera eta Erabilera \leq %50 vs. Erabilera $>$ %50 ereduak (1. eta 2. ereduak, hurrenez hurren) bi aldagai dituzte komun: gelako ikasleek batez beste duten guraso euskaldunen proportzioa eta –pisu apalagoarekin– udalerrien biztanle kopurua.

Ikastetxeari dagozkion euskararen erabilera lantzeko saioak ikastetxean izatea ala ez eta gelari dagokion ikasketen hizkuntza-eredua bi erabilera mailetan agertzen dira: *Erabilera eza vs. nolabaiteko erabilera eta Erabilera $<$ %100 vs. Erabilera %100* (1. eta 3. ereduak, hurrenez hurren).

Erabilera \leq %50 vs. Erabilera $>$ %50 eta Erabilera $<$ %100 vs. Erabilera %100 eredueta (1. eta 3. ereduak, hurrenez hurren) ikaslearen etxeko zein ingurune hurbileko bi aldagai errepikatzen dira: erabilera ikaskideen artean eta telebista, musika edota irratia euskaraz entzutearen ohitura ala ohiturarik eza.

Azalpen hauen guztien gaineratik azpimarratu behar dugu talde ezaugarriek hiru eredu edo erabilera mailetan duten presentzia nabarmena; alegia, erabilera dikotomizatu horiek hobekien banatzen dituen aldagaia *jolaslekuko talde erabilera* dela, hori baita hiru eredueta kalkulu matematikoetan lehenik aukeratua. Horrek argi uzten digu taldeak (gelak) jolaslekuko norbanakoaren erabilera duen pisu handia.

Bestalde, zilegi litzateke pentsatzea talde/gelaren eta ikastetxearen aldagai multzoak elkarrekin komunikaturik egon daitezkeela, talde funtzionamendua, neurri handian, ikastetxe baten baitan eta horren funtzionamenduaren arabera eratzen baita. Eta, kontua da, ikastetxearen aldagaien multzoa hirugarren –batez ere– eta lehenengo eredueta baino ez dela agertzen. Beraz, taldea eta ikastetxea gertuko alorrak izanik, ez da kasualitate hutsa izango taldearen eta ikastetxearen ezaugarriak, biak ala biak, bigarren eredueta ez agertzea.

Indartsu samarra da ere norberaren –ikaslearen– ezaugarrien multzoa, bigarren eredueta bereziki, baina lehen eta hirugarren eredueta ere bai. Hiru eredueta agertzen da sendo –lehenengo postuetan– ikaslearen euskarazko/gaztelarazko erabilera ikaskideek egindako aipamena (*Mintzagrama*).

Familia alorreko aldagaiek ere pisu aipagarria dute, batez ere *Erabilera anai-arrebekin*, baina maila apalagoan aurretik aipatu ditugun alorrekin alderatuz gero.

Azkenik, hiru eredu edo erabilera bereizketa horietan ikastetxez eta familiaz kanpoko ezaugarrien multzoa (kanpo ezaugarriak) maila apaltxoan agertzen da, salbuespen batekin: euskararen erabilera maila altuena (%100) beste maila apalagoetatik bereizterakoan (3. eredua), *Ikaslearen sexua* lehenengo aldagaien artean kokatzen da, hirugarren lekuan hain zuzen.

- **Familian denak mahaian daudenean euskara hutsez egiten duten D ereduko ikasleak soilik kontuan hartuta**

Aurreko puntuan taldeak norberaren erabileran duen garrantzia azpimarratu da. Garrantzi hori bera euskararen aldetik kualifikatuagoak diren ikasleekin ere errepikatzen ote den ikusteko, berriz ere erregresio logistiko berbera ikasle jakin batzuei aplikatu zaie, beste hiru erabilera eredu berri sortuz (4., 5. eta 6. ereduak). Zehatzago, D ereduko ikasleak diren eta, etxean, familiako guztiak bilduta daudenean soilik euskaraz egiten duten ikasleei aplikatu zaie analisia; alegia euskararen erabilerarako oso baldintza onak dituzten ikasleei.

Hautu horrek asko murriztu du analisisian sartu den ikasle kopurua: kontuan izandako ikasleak 275 dira eta ez dira hiru ereduetan nahikoa ordezkatuak izan. Hots, 4. ereduan (Erabilerarik eza vs. Nolabaiteko erabilera) erabilerarik eza adierazi duen ikasle bakarra zegoen; bestela esanda, jolaslekuan jasotako informazioan gorago esandako baldintzak biltzen dituzten ikasle guztiak, batek ezik, euskara –gehiago edo gutxiago– erabiltzen dute. Horregatik, urrats honetan 1. eredu hori gure analisitik kanpo gelditu da.

Are gehiago, D eredukoak diren eta familiako guztiak bilduta daudenean soilik euskaraz egiten duten ikasle horietako gehienek jolaslekuan ere euskaraz egiten dute, batez ere. Izan ere, 275 ikasle horietatik 21 (%8) baino ez dira euskaraz mintza jardunaren %50 edo gutxiago egiten dutenak, eta 70 (%26) dira euskarazko erabilera %100etik behera dutenak.

Dena den, jolaslekuan euskara beti erabiltzen ez duten ikasleak gutxi izan arren, gure proba hau –hurbilpen gisako saioa izanda ere– burutzera jo dugu.

4.- EREDUA	5.- EREDUA	6.- EREDUA
Jolaslekuko erabilera: EZ ala BAI	Jolaslekuko erabilera: GUTXI ala ASKO	Jolaslekuko erabilera: BETI ala GUTXIAGO
erabilerarik eza vs. Nolabaiteko erabilera	erabilera \leq % 50 vs. Erabilera $>$ % 50	Erabilera % 100 vs. Erabilera $<$ % 100
(ia ez dago erabilera % 0 duen ikaslerik)	1- Taldearen erabilera behatua jolaslekuan	1- Taldearen erabilera behatua jolaslekuan
	2- Idazlaneko puntuazio (irakasle)	2- Ikastetxean erabilera bultzatzeko kanpainak edo ekintzak
	3- Erabilera herriko lagunekin	3- Mintzagrama - ikasleak jasotako aipamenak
	4- Amaren gaitasuna - idazteko (gurasoekaitortua)	4- Ikaslearen sexua
	5- Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak	5- Ikastetxeko irakasle kopurua
	6- Ikaslearen sexua	6- Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak
	7- Telebista - Musika - Irratia kontsumoa	7- Telebista - Musika - Irratia kontsumoa
	8- Erraztasun erlatiboa hitz egiteko (ikasleak aitortua)	8- Herriko lagunen ezagutza
	9- Erabilera aisialdian batez beste	9- Erraztasun erlatiboa hitz egiteko (ikasleak aitortua)
		10- Erabilera irakasleekin
		11- Amaren gaitasuna (ikasleak aitortua)
		12- Amaren gaitasuna - hitz egiteko (gurasoek aitortua)

■ Taldearen ezaugarriak	■ Familia ezaugarriak
■ Ikaslearen ezaugarriak	■ Kanpo ezaugarriak
■ Ikastetxearen ezaugarriak	■ Hizkuntza irudikapenak

6.6 taula

Arestian esandako hizkuntza-baldintza zorrotzak ikasle gutxi betetzen zituzten arren (5. ereduan ez dago bertan kokatzen den lagunik), analisi honek berresten du jolaslekuko **talde erabilerak** *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* duen lotura handia, aldagai hori 5. eta 6. ereduetan ere lehen lekuan agertzen baita.

Taldeko hizkuntza-jokaera duen pisua ukatu gabe, 5. ereduan kanpo ezaugarriak agertzen dira ugari (4 aldagai) eta ikaslearenak ondoren (2 aldagai eta horietatik bat bigarren lekuan). Hortaz, ikasleak euskararekiko dituen abiapuntu edo baldintzak sendoak direnean –familian eta ikasteredua euskaraz–, kaleko baldintzen euskalduntasun maila da ikaslearen jolaslekuko erabilera maila hauek (*Erabilera \leq %50 vs. Erabilera $>$ %50*) bereizteko gehien kontatzen duen multzoa (betiere talde erabilera lehenengo aldagaia dela ahaztu gabe).

Taldeko aldagaia ez ezik, 6. ereduan (*Erabilera <%100 vs. Erabilera %100*) **ikastetxearen ezaugarriek** hartzen dute protagonismo nabarmena (4 aldagai eta horietatik bat bigarren lekuan). Dirudienez, euskararekiko abiapuntu edo baldintzak sendoak dituen ikasle mota honekin –familian eta ikasteredua euskaraz–, pisu bereizgarria hartzen dute ikastetxeko beste neurriek eta baldintzek ikaslearen jolaslekuko erabilera %100 euskaraz izan dadin ala ez. Bestalde, ikastetxearen aldagai multzoak egonkortasun handia erakusten du 3. eredutik 6. erako jauzian, erabilerarik altuena beste erabilera maila apalagoetatik bereizten asko lagunduz. Izan ere, 3. eta 6. eredu horietan bi aldagai errepikatzen dira (euskararen aldeko kanpainak eta erabilera lantzeko plangintzak egitea) ikastetxearen ekimen horiek erabilera maila altu hauetan izan lezaketen garrantzia argi utziz.

Arestian argi utzi dugu **kanpo alorreko** ezaugarriek pisu handi xamarra lortu dutela 5. ereduan, eta multzo hori 6. ereduan apalxeago, baina, hala ere, modu aipagarrian (3 aldagai) agertzen da.

Azkenik, esan behar da, ikasleen euskararekiko baldintzak sendoak direnean ere **jolaslekuko talde erabilerak norberaren erabilerarekin duen** lotura handia berretsi denez, ondorio horrek ezarriko digula hurrengo analisiaren nondik norakoa: talde erabilera arakatuko dugu mendeko aldagai gisa hemendik aurrera.

6.2.2 Jolaslekuko talde edo gela osoaren euskara erabilera

• Jolaslekuko talde-erabilera ikasle mota guztientzat

Urrats honetan taldearen jolaslekuko batez besteko erabilera hartu da mendeko aldagaitzat, horrekin gela edo talde erabilera maila ezberdinak zeren arabera osatzen diren jakiteko, alegia, zein eredu matematikoren edo zein aldagairen arabera. Aldagai askeak norbanako erabileraren analisisan erabilitako 94 berberak dira, lehen jolaslekuko taldearen erabilerarena zena, alegia, orain mendekoa dena, jolaslekuko ikaslearen erabilerarenarekin trukatur.

Abiapuntu horiekin, Erregresio Logistikoaren bitartez, berriz ere, beste hiru erabilera maila edo eredu sortu dira:

7. EREDUA: *Erabilerarik eza vs. Nolabaiteko erabilera.* Eredu honetan 4 aldagai sartu dira.

8. EREDUA: *Erabilera \leq %50 vs. Erabilera $>$ %50.* Eredu honetan 26 aldagai sartu dira.

9. EREDUA: *Erabilera $<$ %95 vs. Erabilera \geq %95.* Eredu honetan 20 aldagai sartu dira.

Ohartarazi behar dugu ikasleen banako erabilera aztertzean 3. eta 6. ereduek jasotzen duten dikotomia beste modu batean zegoela eratuta: “euskara beti erabiltzea” (%100) versus “euskararen erabilerarik eza edo ez erabateko erabilera” (%0tik %99raino). Aldiz, 9. ereduko dikotomiak duen mugako balioa %95ekoa da, euskarazko erabilera %100 zuten taldeak gutxi zirelako.

Erabili diren 94 aldagai askeetatik erregresio logistiko analisisiek 4, 26 eta 20 aldagai aukeratu dituzte 7., 8. eta 9. ereduetarako, hurrenez hurren. Hortaz, aldagai horiek dira hiru eredu edo ekuazio horietako bakoitza hornitzeko hobekien egokitu direnak.

7.- EREDUA		8.- EREDUA		9.- EREDUA	
Jolaslekuko erabilera: EZ ala BAI		Jolaslekuko erabilera: GUTXI ala ASKO		Jolaslekuko erabilera: BETI ala GUTXIAGO	
erabilerarik eza vs. Nolabaiteko erabilera		erabilera ≤ % 50 vs. Erabilera >% 50		Erabilera % 95 vs. Erabilera <% 95	
1-	Ikasteredua	1-	Ikaslearen erabilera behatua jolaslekuan	1-	Ikaslearen erabilera behatua jolaslekuan
2-	Ikaslearen herriko euskalduntasuna	2-	Taldeko guraso euskaldunen proportzioa	2-	Ikastetxe mota
3-	Taldeko guraso euskaldunen proportzioa	3-	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak	3-	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak
4-	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak	4-	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa	4-	Ikastetxeko irakasle kopurua
		5-	Ikastetxe mota	5-	Taldeko ikasle kopurua
		6-	Ikaslearen eskola errendimendu orokorra	6-	Ikastetxean erabilera bultzatzeko kanpainak edo ekintzak
		7-	Zein hizkuntza doakio hobeto - agureak	7-	Ikastetxeko errotulazioa
		8-	Ikaskideen arteko erabilera	8-	Ikastetxea zain herritan dagoen
		9-	Taldeko ikasle kopurua	9-	Ikaslearen herriko biztanle kopurua
		10-	Euskararen aldeko jaietara joan zara?	10-	Lurraldea (Ar/ Biz/ Gip)
		11-	Zein hizkuntza doakio hobeto - albisteak	11-	Ikastetxeko ikasle kopurua
		12-	Lurraldea (Ar/ Biz/ Gip)	12-	Ikaslearen herriko euskalduntasuna
		13-	Ikastetxea zain herritan dagoen	13-	Zein hizkuntza doakio hobeto - nekazaria
		14-	Ikastetxeko ikasle kopurua	14-	Ikaslearen erabilera behatua gela barruan
		15-	Zein hizkuntza doakio hobeto - futbola	15-	Zein hizkuntza doakio hobeto - haginlaria
		16-	Ikastetxeko errotulazioa	16-	Erabilera aitarekin
		17-	Ikaslearen herriko euskalduntasuna	17-	Ikaslearen gurasoen gaitasuna
		18-	Ikastetxean ahozotasuna lantzeko plangintzak	18-	Ikastetxean ahozotasuna lantzeko plangintzak
		19-	Atari probako puntuazioa	19-	Zein hizkuntza doakio hobeto - eskola
		20-	Aitaren gaitasuna - ulertzeko (gurasoek aitortuta)	20-	Zein hizkuntza doakio hobeto - baserria
		21-	Ikastetxeko irakasle kopurua		
		22-	Mintzagrama - ikasleak jasotako aipamenak euzkaraz		
		23-	Ikasteredua		
		24-	Zein hizkuntza doakio hobeto - baserria		
		25-	Taldearen erabilera behatua gela barruan		
		26-	Zenbat urttereekin ikasi gatzelania (gurasoek aitortua)		

6.7 taula

- Taldearen ezaugarriak
- Ikaslearen ezaugarriak
- Ikastetxearen ezaugarriak
- Familia ezaugarriak
- Kanpo ezaugarriak
- Hizkuntza irudikapenak

Bi aldagai baino ez dira matematikoki hautatuak izan hiru ereduetan: ikastetxeak euskararen erabilera lantzea ala ez eta udalerriko euskaldunen proportzioa. Ikastetxeak euskararen erabilera lantzearena lehenengoan artean (3. edo 4. lekuan) izan da aukeratua, hiru ereduetan. Hortaz, badirudi erabilera maila edozein izanda ere, ikastetxeak horretan eragiteko egiten dituen ahaleginek ondorioak badakartzatela. Udalerriko euskaldunen proportzioa, aldiz, 7. eredia bereiztean bigarren lekuan izan da aukeratua, ikasleen herriko inguruneak egoera horiek (*Erabilerarik eza vs. Nolabaiteko erabilera*) bereizteko duen garrantzia argi utziz, baina 8. eta 9. ereduetan atzerago agertzen da.

Beste bi aldagai 7. eta 8. ereduetan edo erabilera mailetan agertzen dira: ikasketen hizkuntza-eredua eta taldeko gurasoen batez besteko euskararen ezagutza.

Bestalde, 8. eta 9. ereduek beste bederatzi aldagai dituzte komun eta horietako bat da bi eredu horiek aldagai guztien artetik aukeratu duten lehenbizikoa; beraz, ikaslearen jolaslekuko erabilera behatua erabilera maila horiek bereiztean garrantzitsuena da. Aipagarria da, era berean, ikastetxearen izaerari (publiko, pribatu erlijioso edo ikastola pribatu) dagokion aldagaia, 9. ereduan, 20 aldagaitik bigarren lekuan, eta 8. ereduan, 26 aldagaitik bosgarrenean aukeratua izan dena.

Jartzen badugu arreta ezaugarri eremu bakoitzak duen pisuan, azpimarra daiteke **ikastetxeen ezaugarriak** direla ugarienak eta garrantzitsuenetakoak erabilera maila ezberdinak bereizterakoan hiru ereduetan. Arestian aipatu dugu ikastetxean euskararen erabilera lantzeak duen pisua 7., 8. eta 9. ereduetan; baina ikastetxearen izaerak 8. eta 9. ereduetan duena ere. Badaude, hala ere, 8. eta 9. ereduek komun dituzten beste lau aldagai ikastetxeari dagozkionak: ikastetxearen errotulazioan erabilitako hizkuntzak, euskararen ahozko trebetasuna lantzea, zentroko ikasle kopurua eta zentroko irakasle euskaldunen proportzioa.

Gela bakoitzeko **taldearen ezaugarri** dagokienez, 7. eta 8. ereduek bi aldagai partekatzen dituzte: Ikasketen hizkuntza-eredua eta taldeko ikasleen guraso euskaldunen proportzioa. Bestalde, 8. eta 9. ereduetan gela edo taldeko beste ezaugarri bat errepikatzen da: gelako ikasleen kopurua. Talde ezaugarriak euskararen erabilerarako garrantzi handikoak izanik ere, badirudi erabilerak gorantz egin ahala pisu hori apalduz doala, norberaren ezaugarrien, kanpo ezaugarrien edota hizkuntza-irudikapenen mesedetan.

Udalerrietako euskaldunen proportzioa hiru ereduetan presente dagoen **kanpo ezaugarri** bakarra da. Ingurunearen euskalduntasunari lotuta dauden beste bi aldagai errepikatzen dira 8. eta 9. ereduetan: Ikastetxearen lurraldea eta udalerria. Hortaz, zalantza gutxi gelditzen da ingurunearen euskalduntasun mailak taldearen euskarazko erabileran duen pisuaz, zuzenean edo zeharka.

Ikaslearen ezaugarriak 8. ereduan ugarienetakoak izan arren (5 aldagai), 9. ereduan bi aldagai baino ez ditu eta 7. ereduan bat ere ez. Gainera, 8. eta 9. ereduetan eremu horretako aldagai bakarra errepikatzen da: ikaslearen jolaslekuko euskara erabilera.

Aldagai hori agertzean berresten da banakoaren hizkuntza-portaera eta taldearen portaeraren artean dagoen lotura. Izan ere, gogoan izan behar dugu, hori bera izan dela 1., 2.,

3., 5. eta 6. ereduetatik eratorritako ondorio nagusia. Beste horrenbeste gertatzen da 9. ereduan agertzen den gelako ikaslearen euskara erabilerarekin ere. Hala ere, norberaren ezaugarriek badute –gorago esan bezala– pisu handi xamarra 8. ereduko dikotomia bereizterakoan (*Erabilera ≤ 50* vs. *Erabilera > 50*), baita esanahi garbiko edukia ere. Hau da, multzo horretako 2 aldagai ikaslearen eskola-aprobetxamenduari dagozkio: errendimendu orokorra eta euskarazko gaitasun probako puntuazioa. Ikusten denez, 8. ereduari dagokion euskara erabilera dikotomikoan badute zer esanik ikaslearen ezaugarriek.

Hizkuntzen gaineko **ikasleen hizkuntza-irudikapenek** ere badute nolabaiteko pisua 8. eta 9. ereduetan, launa aldagairekin, betiere ikastetxearen, gelako taldearen eta norbanako ezaugarrien atzetik. Hala ere, ez dago bi eredu horietan errepikatzen den aldagairik eta, baliteke hori aldagaiok eredu matematikoak osatzerakoan duten egonkortasun txikiaren edota ahultasunaren ispilu izatea.

Azkenik, **familia ezaugarri** bina izan dira hautatuak 8. eta 9. ereduetan, baina ez berberak. Aitak euskara ulertzeko gaitasuna eta euskararen aldeko jaietara familiarekin joatea agertzen zaizkigu 8. ereduan. Eta 9. ereduan, aldiz, aitarekin euskaraz egitea eta gurasoen gaitasuna. Hortaz, taldeak jolaslekuan duen euskara erabileran familiaren hizkuntza-ezaugarriek bi eredu edo erabilera dikotomietan zerikusia izan arren, ez gara eragin berdinarari batean eta bestean.

- **Jolaslekuko talde-erabilera, D eredukoentzat soilik**

Urrats honetan D ereduko ikasleak soilik (1.029 ikasle) hartu dira kontuan, horrela eginenez eredu motak talde-erabileran izan lezakeen eragina neutralizatzeko asmoz. Ez dago jolaslekuan euskara batere erabiltzen ez duen talderik eta, horren ondorioz, analisisia beste bi erabileraren dikotomietara mugatu da:

11. EREDUA: *Erabilera ≤ 50* vs. *Erabilera > 50* . 24 aldagai sartu dira ereduan.

12. EREDUA: *Erabilera < 95* vs. *Erabilera ≥ 95* . 20 aldagai sartu dira ereduan.

Ikasle guztiak kontuan hartuta (8. eta 9. ereduetan) edo D ereduko ikasleak soilik harturik (11. eta 12. ereduetan) agertzen diren aldagai guztiak ez dira berdinak, baina bai gehienak. Aldatzen dena oso gutxi denez, ez da beharrezko ikusi bi eredu berri horien taula hemen jartzerik.

9. ereduko aldagaiak eta 12.ekoak berberak dira, guztiak. Aldiz, 8. eta 11. ereduek 26 eta 24 aldagai dituzte, baina badaude ezberdintasun batzuk elkarren artean: aldagai guztietatik 20 bi ereduetan daude eta errepikatzen ez direnak ez dira garrantzitsuenetakoak eredu horien eraketan. Bestela esanda, 11. eta 12. erabilera maila edo ereduetan 8. eta 9. ereduetan baino 296 ikasle gutxiago izan arren (A eta B eredukoak kendu ditugulako), emaitzak oso egonkorak dira eta, hortaz, begien bistakoa da errepikatzen diren aldagai horiek euskararen talde erabileran sendo eragiten dutela. Gauzak horrela, ez gara emaitzen xehetasunetan gehiago luzatuko.

6.2.3 Ondorioak

Ikaslearen jolaslekuko (euskara) erabilera maila ezberdinak hobekien bereizten dituen aldagaia **taldearen jolaslekuko euskara erabilera** da, bai ikasle guztiak kontuan hartuta (1., 2. eta 3. ereduak) eta baita euskararako baldintza ezin egokiagoak dituzten ikasleen kasuan ere (5. eta 6. ereduak).

Are gehiago, norbanako eta taldeko euskara erabileraren arteko harreman hori noranzko bikoitzekoa da; alegia, *jolaslekuko euskararen talde-erabilera* aztertu denean, ereduek aurrenik aukeratu duten aldagaia *ikaslearen jolaslekuko erabilera* izan da, ia eredu guztietan (8., 9., 11. eta 12.). Azken buruan, hemen azpimarratzen ari garen talde eta norbanako erabileren lotura Joshua Fishmanek argi utzi zuena da: hizkuntza bat erabilia izateko hautua egoeraren, solaskideen eta hizpide duten gaiaren mende dagoela.

Aipatutakoez gain, *ikaslearen jolaslekuko (euskara) erabileran* **ikaslearen, ikastetxearen, familiaren** eta **gizarte ingurunearen** ezaugarriak izan dira pisu handien izan dutenak. Azkenik, **hizkuntzen gaineko irudikapenak** ahul xamar agertu dira (1., 2. eta 3. ereduetan) edo guztiz desagertu (5. eta 6. ereduetan).

Familia alorreko **ezaugarriak** jolaslekuko norbanakoaren erabilerarekin (batez ere, 1., 2. eta 3. ereduekin) agertzen dira loturik, baina nahikoa baztertuta gelditzen dira talde-erabilerako ereduetan.

Ikastetxez zein familiaz kanpoko gizarte ingurunearen ezaugarriak (**kanpo ezaugarriak**) kasu guzti-guztietan izan dira hautatuak, euskararen erabilerarekin duen ezinbesteko lotura agerian utziz. Sexu aldagaia, aldiz, erabilera maila altuenak bereiztean (3. eredu) eta euskararako baldintzak ezin hobeak dituzten neska-mutilengan baino ez da gailentzen (5. eta 6. ereduetan).

6.2 atala, LABURPENA

- ⇒ Atal honetan *Erregresio Logistikoa* erabiliz jolaslekuko euskararen erabilera maila ezberdinak izan ala ez izatearekin lotuta dauden ezaugarriak identifikatzen dira.
- ⇒ Jolaslekuan ikasleen banakako erabilerarekin harremanik handiena duen aldagaia talde erabilera da, beste alorren aurretik. Eta, aldi berean, talde erabilerarekin dagoen harremanik handienetakoa ikastetxearena da.
- ⇒ Ikaslearen, ikastetxearen, familiaren ezaugarriak eta horiez kanpoko gizarte ingurunearen euskalduntasunak ere lotura nabarmenak dituzte erabilerarekin (norbanakoarena zein taldearenarekin).
- ⇒ Alor horiek guztiek erabilerarekin duten lotura garrantzitsua izanik ere, alor horien garrantziaren pisua eta hierarkia aldakorak dira erabilera maila eta ikasleen baldintza soziolinguistikoen arabera.
- ⇒ Hizkuntzen gaineko irudikapenena da alorrik ahulena ikaslearen zein taldeko erabilerarekiko duen harremanen garrantziari erreparatuz gero.

7. Ikaslearen jolasleku erabilera iragarri nahian: 25 adierazle eta hiru maila

7. Ikaslearen jolaslekuko erabilera iragarri nahian: 25 adierazle eta hiru maila

7.1 Kokapena

Ikaslearen jolaslekuko hizkuntza-erabilera eta horrekin lotura duten aldagaiak aztergai dituen atal honetan, hizkuntza baten biziraupenerako beharrezkoak diren baldintzei buruzko hausnarketa teoriko bat hartu da oinarri gisa (Martínez de Luna, 2001). Oinarri teoriko hori erabili da aldagaietan jasotako informazio ugaria sinplifikatu eta ondorio bazueta ekartzeko. Hurrengo atalean (7.2) duzue eredu teorikoaren azalpena, bai testuan eta bai grafikoki irudikatuta.

Aurreko ataletan azalduenez, lan honetan ikasleei *gela barruan* eta *jolaslekuan* behatu zaien erabilera datuak aztertu dira, eta beren ezaugarriak jasotzen dituzten aldagaiekin alderatu (111 aldagai).

6.1 atalean ikusi da aztertutako aldagai horien artean ia guztiak dutela lotura bat –indartsuagoa edo ahulagoa– *ikaslearen jolaslekuko erabilera*rekin. *Gela barruan* neurtutako erabileraekin, aldiz, aldagaion loturak ahulagoak dira eta beraz *jolaslekukoak* informazio aberatsagoa eskaintzen digu azterketarako.

Halaber, 6.1 ataleko rankingetan ere ikusi da aldagaietako askok antzeko edo hurbileko informazioa eskaintzen digutela.⁴¹ Horrek aztertutako datuen koherentzia adierazten digu.

Horrez gain, baieztatu da ere hainbat aldagairen artean loturak daudela errealitatean (3.6. atalean erabilera maila ezberdina duten *hiru multzoen* datuen azterketan ikusi bezala).

Horiek horrela, atal honetan pauso bat gehiago ematen da datuen azterketan, ondorengo bi galdera hauen bidez labur daitekeena:

- ⇒ Jasotako datuekin ba al dago ikasleen *jolaslekuko erabilera* iragartzerik?
- ⇒ Hala balitz, zein dira jasotako aldagaien artean ikasle baten *jolaslekuko erabilera* ondoen iragartzen duten aldagaiak?

Galdera eta azterketa horiek egiteak ez du esan nahi bilatzen dena bereziki *jolaslekuko erabilera*ren iragarpenak egitea denik. Ez da hori. Kontua da, zientziaren hainbat alorretan iragarpenak egiteko tresneria estatistiko bat erabiltzen dela, eta tresneria hori oso baliagarria izan daitekeela **“ikasleen erabilera den bezalakoa ZERGATIK den”** ulertzen eta datu enpiriko bidez ezagutzen joateko.

Horrela ba, 7. atal honetan, aztertu diren aldagaietatik ikasle baten *jolaslekuko erabilera* ongien zeintzuk *iragartzen* duen jakiteko azterketa egin da, eta jasotako datuen interpretazioa.

⁴¹ Adibidez, hiru aldagai hauek: *Erabilera aitarekin*; *Aitaren gaitasuna (ikasleak aitortua)*; *Aitaren gaitasuna – hitz egiteko (gurasoek aitortua)*. Datuek baieztatu dute –espero izatekoa zen bezala– hiru aldagaiek “antzeko” informazioa eskaintzen digutela: hau da, *aitarekin gaztelaniaz* egin ohi duen ikasle baten kasuan, hiru aldagaien informazioa, oro har, oso antzekoa dela aztertutako datuetan.

Dena den, era honetako analisiek badituzte zorrotz errespetatu beharreko irizpide estatistiko batzuk. Batetik, irizpide horiek bete ahal izateko, eta, bestetik, emaitzen interpretazioa errazteko, prozesu bat egin da jatorrizko aldagaien informazioan oinarrituta. Ondorengo urrats hauek eman dira prozesu horretan:

1. **Eredu teorikoa landu:** analisisen emaitzak interpretatu ahal izateko, eredu teoriko bat landu da, hizkuntza-erabilerari begira ikasle baten errealitate orokorra eskema batean jartzen laguntzen duena (ikus 7.2 atala).
2. **Aldagaien informazioa sinplifikatu:** jatorrizko 111 aldagaietatik, 58 aldagai hautatu dira, eta horiekin **25 adierazle** eraiki dira, jasotako informazio guztia “laburtzen” dutenak, nolabait esateko. 7. atal honetako analisi guztiak **25 adierazle** horietan oinarritu dira, eta ondorioak ere horien gainean atera dira. Horretarako, bi irizpide erabili dira⁴²: (ikus 7.3 ataleko taulak)
 - a) Aldagaien ezaugarri estatistikoak.
 - b) Antzeko informazioa zuten aldagaien kasuan, egokiena hartu.
3. **Maila bakoitzaren analisisa banaka eta ondoren guztiak batera:** eredu teorikoan hiru maila bereizten dira. Lehenik maila horietako bakoitzaren datuak aztertu dira: 7.4, 7.5 eta 7.6 atalak. Ondoren, hiru mailak batera ere aztertzen dira: 7.7 atala.
4. **Ondorioak atera:** egindako azterketen ondorio nagusiak 7.8 atalean jasotzen dira.

Gorago aipatu bezala, analisi horiek egiteko tresneria estatistiko jakin bat erabili da. Bi analisi hauek erabili dira batik bat:

- Korrelazioen azterketa.
- Erregresio Anizkoitza.


Ez da lan honen asmoa egindako analisisen xehetasun teknikoak azaltzea, baina tartean kontzeptu estatistiko batzuk aipatzen direnez, horiei buruzko azalpenak tartekatzen dira 7. atal honetan, [ESTATISTIKA OHARRAK] izenburupean eta testu nagusitik bereizita, ulermen teknikoagoa bilatzen duen irakurlearentzat.

⁴² Bi irizpide nagusi hauekin batera, azterketaren 3. eta 6. ataletan eginiko analisisen ondorioak ere kontuan hartu dira aukeraketa hauek egitean.

7.2 Eredu teorikoa

Ikasleen hizkuntza-erabileraren eta euren hainbat ezaugarriren arteko harremanak aztertzeko, hizkuntza baten biziraupenerako beharrezkoak diren baldintzei buruzko hausnarketa teoriko batean oinarrituko gara (Martínez de Luna, 2001). Oinarri hori eredu gisa hartzeak lagunduko digu datu enpirikoen irakurketa eta balorazioa egiten.

Abiapuntu hartu dugun axioma da hizkuntza baten biziraupena bere erabileran oinarritzen dela; hau da, komunitate bateko gizarte funtzioak aurrera ateratzeko egiten den erabilera horretan, hain zuzen. Beraz, onartzen ari garena da maila operatiboan gauza bera direla hizkuntza baten biziraupena eta haren erabilera. Beste urrats bat aurreratu esan, biziraupen –edo erabilera– horretarako beharrezkoa dela zenbait baldintza ematea hiru mailatan: indibiduala bata (ikaslearena, kasu honetan), eta sozialak, besteak: maila mikrosoziala eta maila makrosoziala.



7.1 irudia

1. Maila indibiduala

Ukipen egoeran dauden hizkuntzen hiztunek hizkuntza horietako baten hautua egin dezaten, beharrezkoa da maila indibidualean aldeko baldintza batzuk betetzea, hala nola: hizkuntza-gaitasun erlatiboa eta motibazioa. Azken buruan, Sánchez Carrión “Txepetx”-ek, besteak beste, adierazi duen hizkuntzaren hiru elementuen arteko harremana edo elkarreragina dugu: ezagutzaren, motibazioaren eta erabileraren artekoa, hain zuzen (Sánchez Carrión, 1991: 35-64).

Hizkuntzaren gaitasunetik edo ezagutzatik hasita, esan dezakegu beharrezkoa dela kasuan kasuko hizkuntzan *gutxieneko maila* bat izatea. Baina ez hori bakarrik. Halaber, beharrez-

koa da gaitasun hori ukipen egoeran dagoen beste hizkuntzan daukaguna *bezalakoa* edo *hobea* izatea; hau da, aztergai dugun hizkuntzan *gutxieneko ezagutza erlatibo* bat izan behar da. Hala ez bada, oso litekeena da pertsonak, komunikatzeko zein hizkuntza erabili erabakitzerakoan, modu espontaneoan gauzak adierazteko errazen eta atseginen suertatzen zaion hizkuntza hautatzea, kontzienteki edo ez.

Bestalde, beharrezkoa da baita ere hizkuntza horrekiko *motibazio positiboak* izatea, horiek edozein motatakoak direla ere: pragmatikoak, sinbolikoak, integraziozkoak edo bestelakoak. Hizkuntzaren aldeko motibazio horiek mota batekoak baino gehiagokoak badira, orduan eta handiagoa izango da pertsonak hizkuntza horretarantz sentituko duen bultzada, bai erabiltzeko edo bai ikasteko, kasuan kasu.

Zalantzarik gabe komenigarria izango da –norbanakoaren maila horretan bertan– aldeko beste baldintza batzuk ere ematea –mota ezberdineko eta askotakoak–, baina eredu honek eskainiko digun kokapen orokorrerako, dagoeneko aipatu ditugunak (gaitasun erlatiboa eta motibazioa) dira garrantzizkoenak.

2. Maila Mikrosoziala: Egoerak eta Gizarte-sareak

Egoera, *egoera soziala* litzateke, Joshua Fishmanek definitzen duen moduan, eta hiru osagai ditu bere baitan:

- Gizarte funtzio bat betetzea: “*Harreman funtzional konkretu batek bere dituen esku-bide eta betebeharrak praktikan jartzea...*”
- Kokagune jakin batean izatea: “*Horretarako lekurik egokienean edo tipikoenean...*”
- Denbora jakin batean gertatzea: “*Sozialki horretarako egokitzat jotzen den denboran*” (Fishman, 1979: 69).

Egoera soziala egunerokotasunaren bitartez gorpuzten eta gauzatzen da, ohikoak zaizkigun funtzio sozial guztiak aurrera atera ahal izateko osatzen joaten garen harreman-sareen bidez: etxean edo familian, laneko esparruan, lagunen artean, aisialdiko kideekin ari garenean, e.a. Adibidez: familia bateko kideek ohiko rola (seme-alaba, guraso...) otorduetan betetzen dutenean; gela bateko ikaskideek eta irakasleak euren arteko rola betetzen dituztenean; okindegian okin-bezero eguneroko hartu-emanak gauzatzen direnean...

Gure hurbileko harreman-sareez ariko ginateteke, gure harreman komunitarioez esan genezake agian, eta –ikuspuntu soziolinguistikotik begiratuta– hurbileko kide horiekiko elkarrekintzan hizkuntza bat –edo gehiago– partekatzen dugu, ezinbestez. Bi hizkuntza –edo gehiago– ukipen egoeran daudenean, halako harremanetan erabiltzen den hizkuntzaren hautua ez da berez gertatzen, baldintza batzuen arabera baizik.

Aurrez aipatutako hizkuntzarekiko motibazioaz gain, berau erabili ahal izateko beharrezkoak izango dira beste baldintza hauek ere: a) sare horietan hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egotea; b) hiztunak beste hiztun horiek hizkuntza horretako hiztun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea; c) talde batez

ari garen kasuetan, beharrezkoa izango da taldeko kide gehienak hizkuntza horretan ari-
tzeko gai izatea ere (Amonarriz, 1991: 40-41).

Baldintza horiek ematen direnean bakarrik izango da posible dena delako hizkuntzan
aritu den harreman sare bat mantentzea, egoera sozial jakin batean. Dena den, zehaztu
behar da ez dela nahikoa hiztun kopuru handi bat izatea aipatutako baldintzak betetzen
dituena, baizik eta gehiago dela sare horien konpaktazio kontu bat. Beste modu batean
esanda, hiztun horiek elkarren arteko harremanak behar bezain modu gurutzatu eta
sendoan eratuta eduki behar dituzte, modu egonkorrean, era horretan hizkuntza komu-
nitate propio bat osatuz.

3. Maila Makrosoziala: Gizarteko jardunguneak eta gizarte-irudikapenak

Gizarteko maila makroaz hitz egiten dugunean, *gizarteko jardungunea* erabiltzen dugu,
Joshua Fishmanek definitu duen moduan. Bere mamia horrela laburtuko guke:

*Gizartean onartuta eta finkatuta dauden funtzioetan eta bertako aldaeretan eskala
handian ematen diren erregulartasunak aztertzeko, gizarteko jardungunea erabiltzen
dugu.*

*Jardunguneak, maila makroa... hezkuntza arloan, familian, lan arloan, erlijioan... funtzio-
nalki deskribatzeko bereziki erabilgarri suertatzen diren abstrakzioak dira.*

*...jardunguneak hizkuntza-komunitatearen gizarte erakundeak bezain errealak dira, eta
oinarrizko gizarte erakundeekin paralelotasun nabarmena agertzen dute (Barker, 1947)
(in Fishman, 1979: 73-75).*

Horrela, bada, *gizarteko jardungune*ez hitz egiten dugunean, dimentsio abstraktuago batez
ari gara, orokorra eta objektiboa (norbanakoaren eta bere hurbileko egoeretatik harata-
go), eta egunerokotasuneko *gizarte egoerak* (maila makrosozialekoak) bere baitan biltzen
dituena. Adibidez, gure eguneroko lan-egoera lan-arloko *jardungune*ari dagokio; edo ikas-
gelako *egoera* bat, hezkuntza sistema *jardungune*ari; film baten emanaldia, aldiz, kultura eta
aisialdiko *jardungune*ari; irratsaio bat, komunikabideetakoari; e.a. Eta beste horrenbeste
gertatzen da eguneroko edozein *egoera*ekin ere: horietako bakoitza *jardungune* zabalago
baten osagai askotako bat baino ez da.

Horretaz gain, maila makro honetan beste elementu bat ere kokatzen dugu: hizkuntza
baten *gizarte-irudikapena*. Irudi hori bat dator, neurri handi batean, *Vitalité Ethnolinguistique
Subjective* kontzeptuarekin, Landry, Allard, Harwood, Giles eta Bourhis-ek –besteak beste–
garatutakoa. Gure kasuan, interesgarria zaigu, *gizarte* batek hizkuntza bati buruz duen ba-
lorazio eta hautematearen aldetik. Bistan da *gizarte* horretako kide bakoitzak hizkuntza
horrekiko izan dezakeen motibazioa (gure eredu teorikoan: maila indibiduala), maila ma-
krosozialeko *irudi* edo *prestigio sozial* horrekin lotua egon daitekeela, baina bi maila
analitiko horiek ezberdinak dira.

Dena delako hizkuntzarentzat *jardungune* mailan estatus juridiko edota sozial eskasa da-
goenean (garrantzi gutxiago edo legezko debekua, hizkuntza-paisaian ez agertzea...)

edo, bestalde, berari buruzko *gizarte irudikapenak* kontrakoak direnean (prestigio sozialik eza, aurkako *gizarte arauak...*), litekeena da pertsona elebidunek ukipenean dagoen beste hizkuntzaren aldeko hautua egitea, ingurune horretan egoera ona duen hizkuntzaren aldekoa. Eta hori lasai asko gerta daiteke nahiz eta pertsonak nolabaiteko motibazioa sentitu gutxietsitako hizkuntzarekiko:

Inguruneak, orokorrean, motibazio pragmatiko-integratzaile bultzatzen (...) ez duenez, euskararen suspertze prozesua motibazio sinbolikoei bakarrik doa loturik; eta euskarri bakar hori eskasa da berreskuratu nahi den hizkuntzarentzat (Martínez de Luna eta Jausoro, 1998: 132).

Beraz, hizkuntza batek *gizarteko jardunguneetan* legitimitaterik eta aldeko baldintzarik ez badu, eta *gizarte-irudikapenak* ere ez badira egokiak, bere *erabilera onartuak* –halakorik ematen bada– hiru ezaugarri izango ditu, batere lasaigarri ez direnak:

1. Egoera diglosiko bat, hizkuntza hori funtzio sozial gutxitan erabiliz.
2. Boluntarismoan oinarritutako erabilera, sustatzaileen aldetik etengabeko ahalegin handia eskatzen duena, gehiengoaren hizkuntzarantz bultzatzen duen arau sozial baten inertziarekin etengabe borrokatu behar duena.
3. Une batetik bestera erabilera hori moztua edo mugatua izateko arriskua, edozein erakunde edo talde publiko zein pribaturen ohiko jardunerako nahaste, oztopo, zailtasun edo kosturen bat dakarren momentu beretik agertuko litzatekeena.

Hortaz, maila makrosozialean egoera horretan dagoen hizkuntzari oso aukera gutxi gertatzen zaizkio erabilia izateko.

4. Hiru mailen arteko elkarreragina

Aipatu behar da maila *mikro* eta *makro sozialen* artean, eta halaber bi horien eta maila individualaren artean, elkarreragin estua eta bizia ematen dela; alegia, hiru mailak elkarri lotuta daude eta elkarri eragiten diote:

...gizarteko jardunguneek eta egoerek hizkuntzaren soziologian maila mikroaren eta makroaren artean dauden loturen berri ematen digute.

Komunitate diglosikoetako kideak hel daitezke beren aldaera edo hizkuntzei buruzko ikusmolde jakin bat izatera, horiek jardungune konkretuekin lotuta daudelako (jokaeran eta jarreran). (Fishman, 1979: 73-75)

Dena den, hiru mailen arteko elkarreragina ematen bada ere, argitu behar da hori ez dela erabatekoa eta ez dela modu deterministan gertatzen. Horrela, historikoki *jardungune* askotan aurkako baldintzak izan arren, hizkuntza gutxiagotu baten komunitatea gai izan da kasu askotan gaitasun maila ona, motibazioa eta erabilera-sareak mantentzeko. Adibidez, Erizek Nafarroako euskararen historiari buruzko ikerketan adierazten duen bezala:

...euskarak iraun du azpian gizarte edo komunitate egituratu bat izan duelako; bertan euskalduna izatea balore bat zen, prestigioa zuen, eta, oro har, hizkuntz portaera euskalduna garatzen eta transmititzen zen (Erize, 1997:24).

Nafarroako euskal hizkuntz komunitateari ez zaio bere gainean eta bere hizkuntzan eratutako egituraketa politiko edo sozialik egokitu (Erize, 1997: 36).

Hortaz, posible da mailaren batean baldintza eskasak izan arren hizkuntza baten erabilera altua izatea, beste bi mailatan baldintza onetan badago.

7.2 atala, LABURPENA

Atal honetan, ikaslearen errealitatea irudikatzeko erabili den eredu teorikoa azaltzen da (Martínez de Luna, 2001).

Ereduan oinarri gisa hartzen da hizkuntza baten biziraupena bere erabileran oinarritzen dela. Erabilera hori eman dadin, beharrezkoak dira gutxieneko zenbait baldintza, ereduaren hiru mailetan: **maila indibiduala** batetik, eta bi maila sozial bestetik: **maila mikroa** eta **maila makroa**:

- ⇒ *Maila indibidualean*: beharrezkoa da ikasleak dena delako hizkuntzan *gutxieneko ezagutza erlatibo* bat izatea. Horrekin batera, erabilera horren aldeko nolabaiteko motibazioa ere behar da (edozein motakoa dela ere).
- ⇒ *Maila mikrosozialean*: maila honek, ikasleak bere eguneroko ohiko jarduerak aurrera ateratzeko erabiltzen dituen hurbileko harreman sareak eta egoera konkretuak biltzen ditu (ikastetxeak, familiakoak...). Erabilera eman dadin beharrezkoa da egoera hauetan parte hartzen duten pertsona gehienek hizkuntza bera jakitea eta beste solaskideek ere badakitela jabetuta egotea.
- ⇒ *Maila makrosozialean*: maila hau abstraktuagoa eta orokorragoa da, eta ikaslea bizi den gizartea eta bere jardun arloak adierazten ditu. Alde batetik, dena delako hizkuntza horrek gizarte horren arloetan nolako errekonozimendua, presentzia eta prestigioa duen, eta horrekin lotuta, hiztunek bere hizkuntzaz dituzten *irudikapenak*. Erabilera eman dadin, maila honetan ere aldeko baldintza batzuk behar dira.

Aipatu hiru maila hauek elkarri lotuta daude, eta beraien arteko elkarreraginak ematen dira etengabe. Beraien arteko harremana ez da, dena den, determinista, posible baita mailaren batean baldintza eskasak izan arren hizkuntza baten erabilera altua izatea, beste bi mailatan baldintza onetan badago, euskararen kasuan ikerketa batzuetan frogatu den bezala.

7.3 Aldagaietako informazioaren sinplifikazioa: 25 adierazle

7.1 atalean aipatu bezala, eredu teoriko bat landu ostean, hurrengo urratsa, aldagaien informazioa “sinplifikatzea” izan da, ondoren Erregresio Anizkoitzaren teknikaz baliatzeko.

Azpiko hiru tauletan laburtzen da orain arte erabilitako **ALDAGAIEN** eta hemendik aurrera erabiltzen diren **ADIERAZLEEN** artean zein lotura dagoen. Edo, beste era batera esanik, nola eraiki diren Erregresio Anizkoitzeko analisietan (7.4, 7.5, 7.6 eta 7.7 ataletan) erabili diren **25 adierazleak**.

Hemen azalduko den mailarako, *aldagai* eta *adierazle* hitzak sinonimoak dira. Kontua da, *adierazle* hauek informazio aberatsagoa eskaintzen digutela, sendoagoa; nolabait esateko, bi-hiru *aldagaien* “laburpen” moduko bat da *adierazle* bat, askotan.

Adibidez, azpiko 7.1 taulan 3. puntua hartzen badugu, bertan ikusten dugu, lehen zutabeetan, *adierazlea*: “**3.- Erraztasun erlatiboa**”, eta alboan, bigarren eta hirugarren zutabeetan, 3.1, 3.2, 3.3 eta 3.4 *aldagaiak*: 3.1.- *Erraztasun erlatiboa ulertzeko (ikasleak aitortua)*, 3.2.- *Erraztasun erlatiboa hitz egiteko (ikasleak aitortua)*, 3.3.- ... Horrek adierazten du lau *aldagai* horien informazioa erabili dela 3.- *Erraztasun erlatiboa* izeneko *adierazlea* osatzeko.

I.- IKASLEAREN EZALIGARRIAK				
Aderazlea	Aldagaiak		Eranskina	Aldagaiaren pisua bere adierazlean
3.- Erraztasun erlatiboa	3.1	Erraztasun erlatiboa ulertzeko (ikasleak aitortua)	29	50
	3.2	Erraztasun erlatiboa hitz egiteko (ikasleak aitortua)	30	20
	3.3	Erraztasun erlatiboa irakurtzeko (ikasleak aitortua)	31	20
	3.4	Erraztasun erlatiboa idazteko (ikasleak aitortua)	32	10

7.1 taula

Jarraian, “I. Eranskina” zutabeetan aipatzen da eta “29, 30, 31 eta 32” zenbakiak. Izan ere, lan honen I. Eranskinean, aztertutako *aldagai* guztien informazio zehatza eskaintzen da: zein galdera egin den kasu bakoitzean, zein erantzun posible eskaini diren, nori galdetu zaion... Beraz, zutabe horretako erreferentzia erabil dezake *aldagaiei* buruzko edozein xehetasun kontsultatu nahi duenak.

Azkenik, “Aldagaiaren pisua bere adierazlean” zutabea aipatzen da. Gure adibidearekin jarraituz, 3.1, 3.2, 3.3 eta 3.4 *aldagaien* informazioa erabili denean “3.- Erraztasun erlatiboa” *adierazlea* sortzeko, ez zaie lau *aldagaiei* “pisu” berdina eman: **adierazle bakoitzak 100 puntuko balioa du**, eta zutabe horretan ikusten da 100 puntu horietatik *aldagai bakoitzak* zenbateko pisua duen: 3.1.ek 100etik 50, 3.2k, 100etik 20, 3.3.k 100etik 20, eta 3.4k 100etik 10.

Modu horretan deskribatzen da ondorengo hiru tauletan (7.2., 7.3 eta 7.4 taulak) analisi hauetan erabilitako *adierazle* bakoitza zein *aldagai* konbinatuz osatu den eta horietako bakoitzari zein pisu eman zaion.

1.- IKASLEAREN EZAUGARRIAK				
Adierazlea	Aldagaiak		Urteko puntuazioa	Aldagaiaren pisua bere adierazlean
1.- Lehen hizkuntza	1.1	Hiztun tipologia	26	50
	1.2	Lehen hizkuntza (gurasoek aitortua)	27	50
2.- Motbazioa	2	Imagina ezazu ez dakizula hizkuntzari. Zein hitz egitea gustatuko?	28	100
3.- Erraztasun erlatiboa	3.1	Erraztasun erlatiboa ulertzeko (ikasleak aitortua)	29	50
	3.2	Erraztasun erlatiboa hitz egiteko (ikasleak aitortua)	30	20
	3.3	Erraztasun erlatiboa irakurtzeko (ikasleak aitortua)	31	20
	3.4	Erraztasun erlatiboa idazteko (ikasleak aitortua)	32	10
4.- Idatzizko gaitasuna	4.1	Atari probako puntuazioa	33	50
	4.2	Idazlaneko puntuazioa (irakasle)	34	50
5.- Eskola errendimendua	5	Ikaslearen eskola errendimendu orokorra	35	100
6.- Eus/gaz hiztun aktiboa da ikaslea	6.1	Mintzagrama - ikasleak jasotako apamenak euskaraz	36	kombinatuta
	6.2	Mintzagrama - ikasleak jasotako apamenak gutelarik	37	
7.- Gela barruan euskaraz artzeko ohitura	7.1	Ikaslearen erabilera behatua gela barruan	38	50
	7.2	Artistak eta kirolariak deskribatzeko erabilitako hizkuntza	39	50

7.2 taula

2.- MAILA MIKROA: HARREMAN SAREAK				
Alderazlea		Aldagaiak	ifrean	Aldagaiaren pisua bere alderazlean
8. ETXEA				
8.- Etxeko hizkuntza	8.1	Erabilera etxean Mahalan.	40	40
	8.2	Erabilera amarekin	41	15
	8.3	Erabilera aitarekin	42	15
	8.4	Gurasoen arteko erabilera	43	30
9. GURASOEN GAITASUNA				
9.- Gurasoen gaitasuna	9.1	Ikaslearen gurasoen gaitasuna	44	40
	9.2	Amaren gaitasuna - ulertzeko (gurasoek aitortua)	45	10
	9.3	Aitaren gaitasuna - ulertzeko (gurasoek aitortua)	46	10
	9.4	Aitaren gaitasuna - idazteko (gurasoek aitortua)	47	10
	9.5	Aitaren gaitasuna - irakurtzeko (gurasoek aitortua)	48	10
	9.6	Amaren gaitasuna - idazteko (gurasoek aitortua)	49	10
	9.7	Amaren gaitasuna - irakurtzeko (gurasoek aitortua)	50	10
10.- Erabilera anai-arrebekin	10	Erabilera anai-arrebekin	51	100
LAGUNARTEA				
11.- Herriko lagunek badakite	11	Herriko lagunen ezagutza	52	100
12.- Herriko lagunekin egiten du	12	Erabilera herriko lagunekin	53	50
	12	Herriko lagunen arteko erabilera	54	50
IKASTETXEA				
13.- Taldeak jolaslekuan euskaraz egiten du	13.1	Taldearen erabilera behatua jolaslekuan	55	50
	13.2	Ikaskideen arteko erabilera	56	50
14.- Taldeko erabilera gela barruan	14	Taldearen erabilera behatua gela barruan	57	100
15.- Ikastetxeko gero euskalduna	15.1	Ikastetxeko errotulazioa	58	20
	15.2	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa	59	20
	15.3	Irakasleen arteko erabilera (irakasleak aitortua)	60	30
	15.4	Erabilera irakasleekin	61	30
16.- Plangintzak eta ekintzak	16.1	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak	62	
	16.2	Ikastetxean erabilera buztatzeko kurpanak edo ekintzak	63	Konbinaketa
	16.3	Ikastetxean ahazkotasuna lantzeko plangintzak	64	
ASIALDIA				
17.- Asialdia euskaraz	17.1	Erabilera asialdian bater beste	65	90
	17.2	Interneten nabigatzeko hizkuntza (ikasleak aitortua)	66	10
18.- Ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzea	18	Telebista-Musika-Iratia kontsumoa	67	100


3- MAILA MAKROA: GIZARTEAREN EGITURA				
Alderazlea	Aldagaiak		Urteak	Aldagaiaren pisua bere alderazlean
19.- Ikaslearen herriaren euskalduntasuna	19	Ikaslearen herriko euskalduntasuna	68	100
20.- Hizkuntza ereduak eta irakasleria	20.1	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa	69	30
	20.2	Irakasleen arteko erabilera (ikasleak aitortua)	70	40
	20.3	Ikastoredua	71	30
21.- Gurasoen eta ikaslearen jatorria	21.1	Ikasle kanpotarra edo bertakoa	72	Kombinatuta
	21.2	Amanen jatorria	73	
	21.3	Aitaren jatorria	74	
22.- Bizindar subjektiboa I familia	22.1	Zein hizkuntza doakio hobeto - familia	75	40
	22.2	Zein hizkuntza doakio hobeto - semea	76	30
	22.3	Zein hizkuntza doakio hobeto - agureak	77	30
23.- Bizindar subjektiboa II gizartea	23.1	Zein hizkuntza doakio hobeto - fabrika	78	30
	23.2	Zein hizkuntza doakio hobeto - albisteak	79	30
	23.3	Zein hizkuntza doakio hobeto - ordenagailua	80	40
24.- Miresten dituen pertsonaiak	24.1	Gustuko aktore-abislaria (eus/gaz)	81	50
	24.2	Gustuko kirolaria (eus/gaz)	82	50
25.- Generoaren araberako erabilera-ohiturak	25	Ikaslearen sexua	83	100

7.4 taula

7.4 Maila indibiduala: ikaslearen ezaugarriak

7.1 ataleko eskeman gorago aipatu bezala, 7.4, 7.5 eta 7.6 atal hauetan 25 *adierazleek* ikaslearen *jolaslekuko erabilerarekin* duten harremanaren azterketa egiten da, mailaka-mailaka, lortutako datu estatistikoetan oinarrituz. Horretarako, goiko tauletan ikusi den bezala, azterketarako erabiliko diren 25 *aldagaiak* eredu teorikoan azalduko 3 mailatan banatu dira: 1. mailan, 7 *adierazle*, 2. mailan 11 *adierazle* eta 3. mailan beste 7 *adierazle*. Azkenik, 7.7 atalean, 25 *adierazleak* batera aztertzen dira, mailaka banatu gabe.

Has gaitezen, beraz, 1. mailatik, maila indibidualetik:



Maila honetan 7 *adierazle* ditugu:

1. Lehen hizkuntza
2. Motibazioa
3. Erraztasun erlatiboa
4. Idatzizko gaitasuna
5. Eskola errendimendua
6. Euskaraz/gaztelaniaz hiztun aktibo izatea
7. Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura

Lehenago aipatu bezala, *adierazle* horiekin bi analisi aplikatu ditugu, ***jolaslekuko ikaslearen erabilerarekin*** zein harreman duten ezagutzeko eta harreman hori zenbaki zehatzetara ekartzeko: lehenik, *Korrelazioaren Analisia (A)* eta ondoren, *Erregresio Anizkoitza (B)*.⁴³

⁴³ Hemen *Korrelazio* eta *Erregresio Anizkoitza* analisi estatistikoak deskribatzen dira. Analisi osagarri gehiago ere egin dira, ordea, horien artean bat Osagai Nagusien faktore analisia izenekoak. Horren bidez, *adierazleen* arteko loturak ezagutu daitezke.

Tartean, esan bezala, analisi estatistiko horiek ulertzeko azalpenak ere txertatu dira. Bali-teke irakurle batzuek “Korrelazioa” edo “Erregresioa” zer den handik edo hemendik jakitea. Baina beste askok ziurrenik ez. Horrela, azalpen horien bila txosten honetatik kan-pora joan beharrik ez izateko, testu honetan tartekatu dira kontzeptuon azalpenak, [ESTATISTIKA OHARRAK] goiburuarekin.

7.4.1 Korrelazioak

Eredu teorikoaren hiru mailetako bakoitzean eskema bera jarraitu dugu, eta analisi berdinak erabili dira. Hortaz, lehenengo maila honetan, analisi bakoitzaren aurretik dituzue *Estatistika*-ri buruzko azalpenak. Azalpen hauek balio dute, bai maila honetako analisisietarako, bai bigarren eta hirugarren mailen analisisietarako, baita *adierazle* guztiak batera aztertu diren atalerako ere.

[ESTATISTIKA OHARRAK – 1] Zer da korrelazioa? Noiz esaten da esanguratsuak dela?

Zer da korrelazioa?

Korrelazioa bi aldagairen arteko harremana neurtzen duen adierazle bat da (aldagai numerikoak). Bi aldagairen artean harremana dago baten aldaketak, neurri batean, bestearen aldaketa ekar dezakeenean.

Adibidez: pertsonen altueraren eta pisuaren artean harreman bat dago joera bat ematen delako altuenek gehien pisatzeko eta pisurik handiena dutenak altuagoak izateko. Horrek ez du esan nahi pisu handiko pertsona batek derrigor altua izan behar duenik ez eta altu batek lodia izan behar duenik. *Korrelazio koefizientearen* ba-loreak -1 eta 1 bitartekoak izaten dira.

Noiz esaten da korrelazio bat “esanguratsua” edo estatistikoki adierazgarria dela?

Bi aldagai arteko harremana aztertzean, lagin guztian bi aldagaiek dituzten balioak banan-banan konparatzen dira, eta beraien artean dauden antzekotasunak “zoriz” gertatzeko zein probabilitate estatistiko dagoen kalkulatzeko digu ordenagailuak. Ho-rrela, “Sig.: 0,000” dugunean korrelazio batean esan nahi du 1.000tik probabilitate bat baino gutxiago dagoela harreman hori kasualitatea izateko; beste modu batera esan-da, “Sig.: 0,000” izateak estatistikoki bermatzen digu bi aldagaien arteko lotura bat dagoela, kasualitatezkoa ez dena eta korrelazio hori *esanguratsua* dela esaten da.

[ESTATISTIKA OHARRAK – 2] Korrelazio handia eta txikia

Korrelazio esanguratsua dagoenean, korrelazio hori izan daiteke handiagoa edo txikia-goia. Hainbat estatistiko erabiltzen dira harreman hori zenbatekoa den azaltzeko. Lan honetan Pearson-en R erabili da. “R”-ri *korrelazio koefiziente* esaten zaio, eta zera adierazten du: kasualitatez ematen ez den harreman horrek zenbaterainoko indarra duen: zenbat eta 0tik hurbilago ahulagoa da korrelazioa, eta indartsuagoa zenbat eta 1 etik edo -1 etik hurbilago egon. *Korrelazio koefiziente* honetatik (R) kalkulatzeko da *de-terminazio koefiziente*a (R^2) (ikus *Estatistika Oharrak – 5*).

[ESTADÍSTIKA OHARRAK – 3] **Korrelazioa norabide berean eta korrelazioa alderantzizko norabidean**

Korrelazio esanguratsua dagoenean norabide batekoa zein bestekoa izan daiteke: kasu hori izango genuke, adibidez, “euskarazko erraztasun erlatiboa” aldagai gisa aztertutako beharrez, ditugun datu berberekin “gaztelaniazko erraztasun erlatiboa” aldagaiaren korrelazioa aztertu izan bagenu (erraztasun erlatiboak osagarriak dira). Korrelazioak esanguratsuak lirateke, *baina alderantzizko norabidean (ez berean)*: gaztelaniazko erraztasun erlatibo **handiagoa** duten ikasleek jolaslekuko euskararen erabilera **txikiagoa** dute eta beraz kasu horretan bi aldagaien artean korrelazioa dago ere, baina alderantzizko norabidean, eta beraz R-k balio negatiboa izango luke.

Ondoko 7.5 taulan, beraz, I. maila honetako (maila indibidualeko) zazpi adierazleek ikaslearen *jolaslekuko erabilerarekin* agertu duten korrelazioen emaitza duzue, korrelazio altuena duen adierazletik baxuena duenera ordenatuta:

Adierazleak		Korrelazioa ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin (R)	R ²
Erraztasun erlatiboa	Pearson korrelazioa	,574(**)	0,329
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Lehen hizkuntza	Pearson korrelazioa	,560(**)	0,313
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Idatzizko gaitasuna	Pearson korrelazioa	,489(**)	0,239
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura	Pearson korrelazioa	,439(**)	0,193
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Eus./gaz. hiztun aktiboa da ikaslea	Pearson korrelazioa	,389(**)	0,151
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Motibazioa	Pearson korrelazioa	,374(**)	0,140
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Eskola errendimendua	Pearson korrelazioa	,252(**)	0,064
	Sig. (aldebikoa)	,000	

** Korrelazioa esanguratsua da 0,01 mailan (aldebikoa)

7.5 taula

- Gure eredu teorikoko zazpi adierazleek dute korrelazio esanguratsua ikaslearen erabilerarekin, hau da, zazpi kasuan ematen da nolabaiteko lotura *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* eta *adierazlearen* artean, norabide berean doana⁴⁴: adibidez, euskaraz *erraztasun erlatibo* handiagoa duten ikasleek gehiago erabiltzen dute hizkuntza hori (edo alderantziz: gehiago erabiltzen duten ikasleek, *erraztasun erlatibo* handiagoa dute); euskararekiko *motibazio* handiagoa duten ikasleek gehiago erabiltzen dute (eta alderantziz)... Horrela zazpitan.

⁴⁴ Ikus Estadistika Oharra – 3.

- Korrelaziorik estuena duena, *ikaslearen jolaslekuko erabilerari* lotuena dagoena, bere *erraztasun erlatibo*a da ($R= 0,574$). Ondoren *ikaslearen lehen hizkuntza* ($0,560$) eta *idatzizko gaitasuna* ($0,489$) eta abar.
- Korrelazio horiek, kontuan hartzeko moduko korrelazioak dira. Erraztasun erlatiboak $0,33$ ko R^2 -a du, hau da, *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* aldaketen %33 “azaltzen”⁴⁵ digu. Beste muturrean, eskola errendimenduak erabilera aldaketen %6,4 baino ez digu azaltzen.

7.4.2 Erregresio Anizkoitza

[ESTATISTIKA OHARRAK – 4] Zer adierazten digu Erregresio Anizkoitza analisiak?

Korrelazio analisisian ikusi dugunez (7.4.1), aldagai multzo bat aztertzen ari garelarik, eta horietako bat gure aztergai nagusia izanik (*mendeko aldagaia*), korrelazioen azterketa egin da, ikusteko *aldagai aske* bakoitzak zenbaterainoko lotura duen gure aztergaiarekin. Jarraian ikusiko dugun bigarren urratsak, Erregresio Anizkoitzak, aurreko pausua osatu egiten du.

Erregresio Anizkoitzak funtsean adierazten diguna zera da: aldagai aske bakoitzak aztertzen ari garen *mendeko aldagaiaren* (gure kasuan *ikaslearen jolaslekuko erabilera*) **zein zati** (% zenbat) esplikatzen edo azaltzen digun, *aldagai aske* guztiak batera hartuta –ez banan-banan, korrelazioetan bezala–. Azterketa hori, besteak beste, aldagai aske bakoitzaren *Determinazio koefizientea*-n oinarritzen da.

[ESTATISTIKA OHARRAK – 5] Zer da aldagai edo adierazle baten Determinazio koefizientea (R^2)?

Koefiziente hau aldagai aske bakoitzak mendeko aldagaiarekin duen korrelaziotik abiatzen da, eta aldagaien arteko harremanaren intentsitatea neurtzeko erabiltzen da. $R =$ Korrelazio koefizientea dela esan dugu (ikus Estatistika Oharrak – 2). Zenbaki honen karratua, “ R^2 ” da, eta *Korrelazioak* zein *Erregresio Anizkoitzeko* tauletan ageri da.

R^2 honi *Determinazio koefizientea* esaten zaio. Determinazio koefiziente honek adierazten digu aldagai aske horrek aztergai dugun mendeko aldagaian ematen diren aldaketen zer portzentaje “esplikatzen” edo “azaltzen” digun. Horretarako, Erregresio Anizkoitza gure mendeko aztergaia gehien azaltzen duten aldagaiak banan-banan hautatzen doa (azaltze ahalmenaren arabera, ahalmen handiena duen aldagaitik hasita) eta *ekuazio* batean gehitzen joaten da. Erregresio horrek hautatu dituen aldagai askeekin mendeko aldagaia azaltzeko ahalmena beteta edo agortua dagoenean, oraindik hartuak izan ez diren aldagai askeak kanpoan uzten ditu analisiak. *Ekuazio* horren osaketa pausoka nola joan den erakusten du *Erregresio Anizkoitzaren laburpen-taulak*.

⁴⁵ Ikus Estatistika Oharra – 6.

Ondoko 7.6 taulan, beraz, I. maila honetako (maila indibidualeko) zazpi adierazleen Erregresio Anizkoitzaren emaitza duzue:

Erregresio Anizkoitzaren laburpen-taula		R	R ² guztira	Aldaketaren estatistikoak	
Adierazleak				Aldaketak R ² -n	F-ren aldaketaren Sig.
1-	Erraztasun erlatiboa	,574	,330	,330	,000
2-	Idatzizko gaitasuna	,634	,402	,072	,000
3-	Lehen hizkuntza	,657	,432	,030	,000
4-	Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura	,679	,461	,029	,000
5-	Motibazioa	,686	,471	,010	,000
6-	Eus./gaz. hiztun aktiboa da ikaslea	,690	,477	,006	,000

7.6 taula

Mendeko aldagaia: ikaslearen elkarrizketen %-a euskaraz jolaslekuan.

Metodoa: Banan-banako metodoa (Pasos sucesivos, Stepwise).

Irizpideak: sartzeko, F-ren prob. \leq ,050. Ateratzeko, F-ren prob \geq ,100.

Kanpoan geratzen den aldagaia: "Eskola errendimendua".

[ESTADÍSTICA OHARRAK – 6] Nola irakurri Erregresio Anizkoitzaren taula? Zeren arabera sartzen da taulan adierazle bat? Zenbateko esplikazioa gehitzen du bakoitzak?

Urratsez urrats osatzen du ordenagailuak⁴⁶ goiko taula, analisisian sartu ditugun adierazleak erabiliz. Eta adierazten diguna da, ditugun *aldagai aske* edo adierazle horiekin (kasu honetan, zazpi) mendeko aldagaiaren zein zati (%eko zenbat) esplikatzera iristen garen guztira (kasu honetan: 0,477, edo ehunekotan jarrita: %47,7). Ez hori bakarrik, taulak adierazten digu, baita ere, urrats bakoitzean adierazle bakoitzak zer ekarpen gehitzen dion ordura arteko esplikazioari (*Aldaketak R²-n zutabea*).

Nola doaz urratsak? Ordenagailuak ekuazioan lehenik sartzen du mendeko aldagaia gehien esplikatzen duen aldagai edo adierazle askea (R² altuena duena). Kasu honetan, *Erraztasun erlatiboa*: 0,330. Gure helburua *ikaslearen jolaslekuko erabilera* azaltzea da, ahal bada %100ean. Azaldu nahi genukeen %100 horretatik %33 azaltzen digu lehen adierazleak (beste %67a ez). Zein adierazle sartzen da hurrengoa taulan? Azaltzeko geratzen den %67 horretatik zatirik handiena esplikatzeko gai dena. Gure adibidean, zein? *Idatzizko gaitasuna*. Taulan ikusten denez, *Erraztasun erlatiboa*-k azaldu duenaz gain, beste %7,2 (0,072) azaltzen du. Beraz, ekarpen hori aurrekoari gehitzen diogu. Jada %40,2 dugu esplikatuta.

Azalduriko logika horri jarraituz, urratsez urrats adierazleak gehitzen dira taulan. Noiz arte? Zazpi adierazle askeetatik ba ote analisiak kontuan hartzen ez duen baten bat? Baiezkotan, zein adierazle ez da sartzen? Urrats bakoitzean, ordenagailuak neurtzen du ea adierazle berria sartu aurretik %eko zenbat esplikatzen zen, eta gehitu ondoren % zenbat. Adierazle berriak esplikazioa gehitzen badu, taulan sartzen da; ezer gehitzen ez badu, aldiz, kanpoan geratzen da eta hor bukatzen da Erregresio Anizkoitza.

⁴⁶ Hainbat erregresio mota daude. Kasu honetan "Banan-banako" izenekoa erabiltzen ari gara (ingelesez "Stepwise" deitzen zaio). Ikus, Erregresio taularen azpian, bigarren lerroan "Metodoa:...".

- Zazpi adierazleetatik sei sartu dira Erregresio Anizkoitzaren taulan (7.6 taula), eta guztien artean, *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* %47,7 azaltzen dute (ikus, taulan, datua horiz nabarmenduta:“,477”).
- Azaldu den %47,7 horretatik, zatirik handiena *erraztasun erlatiboak* “laburtzen” du (%33). Bera da, maila indibidualean, *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* aldaketak ongien azaltzen dituen adierazlea.
- Bigarren adierazle gisa *idatzizko gaitasuna* sartzen da, eta %7,2 gehitzen dio lehen adierazleak azaldu duenari. Osagai Nagusien faktore analisi bidez⁴⁷ ikusi da ere ikaslearen *idatzizko gaitasunak* zerikusi gehiago duela *gelan euskaraz aritzeko ohiturarekin* eta bere *eskola errendimendurekin*, bere *lehen hizkuntzarekin* eta euskarazko *erraztasun erlatiboarekin* baino.

[ESTATISTIKA OHARRAK – 7] **Zenbateko esplikazioa gehitzen du taulan sartzen den adierazle bakoitzak?**

Korrelazioetan ikusi dugunez, *idatzizko gaitasuna* adierazlearen R^2 -a 0,239 da *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*. Beraz, adierazleak erabilera horren aldaketen %23,9 azalduko liguke. Aldiz, adierazlea ekuazioan sartzeak, %7,2 (“soilik”) gehitu duela. Zergatik? *idatzizko gaitasunak* azalduko lituzkeen aldaketen zati bat *erraztasun erlatiboak* ere azaltzen duelako. Eta horiek jada azalduta daude taulan. Hortaz, gehitzen dena *berria dena* bakarrik da, aipatutako %7,2 hori.

- *Lehen hizkuntza* dator hirugarren lekuan eta %3,0 gehitzen dio ikaslearen erabileraren azalpenari. Korrelazioen analisisian ikusi da *lehen hizkuntzak* ia *erraztasun erlatiboak* adinako korrelazioa zuela (R : 0,560 batek eta 0,574 besteak). Erregresioaren taulak adierazten digu bi adierazle hauek informazio asko “partekatzen” dutela: hau da, euskaraz *erraztasun erlatiboa* ona duten ikasle askok dutela *lehen hizkuntza* euskara, eta alderantziz.
- *Ikasleak gela barruan euskaraz aritzeko duen ohitura* da taulako hurrengo adierazlea. Beste %2,8 gehitzen dio ikaslearen erabileraren azalpenari. Analisi osagarrietan ikusi denez, *ikaslearen gela barruan euskaraz aritzeko ohiturak* ez du lotura sendorik *ikaslearen lehen hizkuntzarekin* edo *erraztasun erlatiboarekin*. Pentsatzekoa da, beraz, beste aldagai batzuen arabera aldatuko dela ohitura hau: ikastetxearen hizkuntza-irizpideak, irakaslearen jarduna...
- *Motibazio* bezala izendatu dugun adierazleak jasotzen du ikasleak balizko egoera batean euskara, gaztelania edo beste hizkuntzak ikasteko zein hurrenkera hautatuko lukeen; *ikaslearen euskararen aldeko jarrera* litzateke nolabait. *Jarrera* horrek ere zertxobait gehitzen du azalpenean: %0,9.
- *Ikaslea euskaraz hitzun aktiboa izateak* aurreko bost adierazleek ikaslearen jolaslekuko erabileraz esplikatu duten guztiari beste %0,7 gehitzen dio.

⁴⁷ Lehen esan bezala, analisi osagarri gehiago ere egin dira, ordea, horien artean bat Osagai Nagusien faktore analisia izenekoa. Horren bidez, adierazleen arteko loturak ezagutu daitezke.

- Azkenik, *Eskola errendimendua* adierazlea taulatik kanpo geratzen da. A analisisian ikusi dugunez, korrelazio estatistikoki esanguratsua du *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*; hau da, batez beste, errendimendu akademikoa hobea duten ikasleek euskarazko erabilera altuagoa dute jolaslekuan. Hala ere, adierazle hau ez da sartu Erregresio Anizkoitzeko taulan, hau da, ez digu *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* aldaketei buruz taulan sartutako adierazleek eman digutenaz gain azalpen berririk gehitzen.

7.4 atala, LABURPENA

Atal honetan, eredu teorikoan (7.2) banatutako hiru mailetatik lehenaren azterketa egiten da: *maila indibiduala*. Maila honetan zazpi *adierazle* aztertzen dira, ikaslearen:

- *Erraztasun erlatiboa euskaraz*
- *Lehen hizkuntza*
- *Idatzizko gaitasuna euskaraz*
- *Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura*
- *Euskaraz/gaztelaniaz hiztun aktiboa izatea*
- *Motibazioa euskararekiko*
- *Ikaslearen eskola errendimendua*


Zazpi *adierazle* horiek, banaka eta guztira *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* nolako lotura duten aztertzen da, eta erabilera horretaz nolako azalpena ematen diguten. Ondorio nagusiak hauek dira:

- ⇒ Guztira, *maila indibidualak* (ikaslearen zazpi ezaugarri hauek) bere *jolaslekuko erabileraren* %47,7 azaltzen digute, ia erdia. Kopuru garrantzitsua bada ere, beste bi mailek ematen duten azalpena baino txikiagoa da hau (ikus 7.5 eta 7.6).
- ⇒ Zazpi *adierazleen* artean *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* lotura estuena duena eta azalpenik handiena ematen diguna bere *euskarazko erraztasun erlatiboa* da. *Jolaslekuko erabilerarekin* lotura indartsua du ere ikaslearen *lehen hizkuntzak*, ia lehenak adinakoa.
- ⇒ *Ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* lotuen dauden hurrengo bi *adierazleak*, lotura apalxeagoekin, ikaslearen *idatzizko gaitasuna* eta *gelan euskaraz aritzeko ohitura* dira. Aipatu halaber, ikaslearen *idatzizko gaitasunak* zerikusi gehiago duela *gelan euskaraz aritzeko ohiturarekin* eta bere *eskola errendimendurekin*, bere *lehen hizkuntzarekin* baino.
- ⇒ *Ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* duten loturarekin jarraituz, hurrengo bi *adierazleak* *euskaraz/gaztelaniaz hiztun aktiboa izatea* eta *motibazioa* dira; hauek ere lotura estatistikoki esanguratsua dute, baina aurreko lauek baino ahulagoa.
- ⇒ Azkenik, zazpi *adierazleetan* *eskola errendimendua* adierazlea da *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* loturarik ahulena duena, eta Erregresio Anizkoitzak kanpoan utzi du. Baina, hala ere, lotura hau ere estatistikoki esanguratsua da.

7.5 Maila mikroa: harreman sareak

Eredu teorikoaren I. mailako adierazleen azterketa egin ondoren (maila indibiduala), jarraian gizarte *maila mikrosozialean* erabili diren hamaika adierazleen analisia egin da. Kasu honetan ere 7.4 puntuan bezalako analisiak egin dira, orden berean: *Korrelazioaren Analisia* eta *Erregresio Anizkoitza*. Aurreko atalean emandako azalpen estatistikoek berdin balio dute beraz, kasu honetan ere (erreferentziak txertatu dira, modu honetan: [Ikus Estatistika Oharra - 6](#)).

Eredu teorikoan azaldu bezala, *maila indibiduala* ikaslearen ezaugarrien maila da. Bigarren mailak, aldiz, gizarte *maila mikroa*, ikaslearen ingurune sozial hurbila adierazten du, bere hurbileko eta eguneroko harreman-sareak:



7.3 irudia

7.5.1 Korrelazioak

Ondorengo taulan (7.7 taula), beraz, 2. maila honetako (gizarte maila mikro-ko) hamaika adierazleen Korrelazioen emaitza duzue, korrelazio altuena duen adierazletik baxuena duenera ordenatuta:

Adierazleak		Korrelazioa ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin (R)	R ²
Taldeak jolaslekuan euskaraz egiten du	Pearson korrelazioa	,830(**)	0,689
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Herriko lagunekin egiten du	Pearson korrelazioa	,677(**)	0,458
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Erabilera anai-arrebekin	Pearson korrelazioa	,620(**)	0,384
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Aisialdia euskaraz	Pearson korrelazioa	,619(**)	0,383
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Etxeko hizkuntza	Pearson korrelazioa	,578(**)	0,334
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Gurasoen gaitasuna	Pearson korrelazioa	,523(**)	0,273
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzea	Pearson korrelazioa	,510(**)	0,260
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Ikastetxeko giro euskalduna	Pearson korrelazioa	,501(**)	0,251
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Taldeko erabilera gela barruan	Pearson korrelazioa	,425(**)	0,181
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Herriko lagunek badakite	Pearson korrelazioa	,355(**)	0,126
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Plangintzak eta ekintzak	Pearson korrelazioa	,345(**)	0,119
	Sig. (aldebikoa)	,000	

** Korrelazioa esanguratsua da 0,01 mailan (aldebikoa)

7.7 taula

Behar izanez gero, ikus 7.4.1 ataleko *Estatistika Oharrak 1, 2 eta 3*.

- Hamaika adierazleek, guztiek dute korrelazio estatistikoki esanguratsua *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*, eta kasu honetan ere korrelazioak norabide berekoak dira.
- Nabarmenezkoa da *ikaslearen jolaslekuko erabilerak* taldeko erabilerarekin (Taldeko erabilera jolaslekuan adierazlea) duen korrelazio altua (R= 0,830; R²= 0,689); horrek

esan nahi du adierazle honek azaltzen dizkigula ikaslearen erabileraren aldaketen %68,9. Korrelazioa hain-hain estua izateak erakusten du ikaslearen jolaslekuko erabilera neurri handi batean talde-jokaera bat dela.

- Gainerako hamar adierazleen kasuan ere, ez hain lotura estuarekin, baina korrelazio esanguratsuak ematen dira. Hau da, batez beste, *herriko lagunekin* ($R= 0,677$) edota *anai-arrebekin* ($R= 0,620$) euskaraz gehiago egiten duten ikasleek jolaslekuan euskara gehiago erabiltzen dute (eta alderantziz). *Aisialdian* euskaraz gehiago egiten dutenek ere ($R= 0,619$) jolaslekuan euskaraz gehiago egiten dute (edo alderantziz)... horrela hamar adierazleetan. Kasu batzuetan lotura estuagoa da, besteetan ez hainbestekoa, baina guztietan korrelazioa esanguratsua da ($\text{Sig. (bilateral)} = 0,000$) (Ikus Estatistika Oharra – 2).
- Korrelazioen taulak (7.7 taula) erakusten du, adibidez, ikaslea jolaslekuan euskaraz ari-tzea estuago dagoela lotuta *anai-arrebekin euskaraz* egiteari ($R= 0,620$), *etxeko hizkuntzari* baino ($0,578$), alde txikiarekin bada ere. Edota *etxeko hizkuntzari* lotuago dagoela *gurasoen gaitasunari* baino ($0,523$).

[ESTATISTIKA OHARRAK – 8] **Korrelazioetan, harremana edo lotura bi zentzuetan ulertu behar da**

Korrelazioen datu hauek beti bi zentzuetan ulertu behar dira, hau da: irakurketa egin genezake “anai-arrebekin euskara gehiago erabiltzen duten ikasleek, batez beste, jolaslekuan euskara gehiago egiten dute” zentzuan; eta berdin alderantzizkoan ere: “jolaslekuan euskara gehiago erabiltzen duten ikasleek, batez beste, anai-arrebekin euskaraz erabilera altuagoa dute”.

- Nabarmentzekoa da ikaslearen *aisialdiko erabilerak* eta euskarazko *ikus-entzunezkoen* kontsumoak *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* nahiko lotura sendoa dutela: $R=0,619$ ko korrelazioa *aisialdiko erabilerarekin*, eta $0,510$ ekoa *ikus-entzunezkoen* kontsumoarekin.
- Nabarmentzekoa da, baita ere, *herriko lagunen ezagutza* eta haiekiko erabileraren arteko aldea; aski ezaguna lehendik, baina datu hauetan kuantifikatua ikusi duguna: *herriko lagunekin egiten du* adierazleak jolaslekuko ikaslearen erabilerarekin askoz lotura sendoagoa du *herriko lagunek badakite* aldagaiarekin baino (lehenaren $R= 0,677$ eta bestearena, berriz, $0,355$).
- Bestalde, *ikastetxeko giro euskaldunak*⁴⁸ eta *erabileraren aldeko plangintzak eta ekintzak*⁴⁹ egiteak ere lotura esanguratsua dute jolaslekuko erabilerarekin ($R= 0,501$ eta $0,345$, hurrenez hurren). Korrelazioetan ikusten dugunez, giro euskaldunagoa duten ikastetxeetan, *ikaslearen jolaslekuko erabilera* altuagoa da, eta, halaber, erabilera eta ahozkotatasuna lantzeko planak eta ekintzak aurrera ateratzen dituzten ikastetxeetan, ikasleen jolaslekuko erabilera altuagoa da.

⁴⁸ Metodologia oharra: “Ikastetxeko giro euskalduna” aldagaiak ondorengo datuak biltzen ditu bere baitan: errokulazioa zein neurritan den euskaraz, irakasleen zein proportzio den euskalduna eta nolakoa den irakasleen hizkuntza erabilera, bai beraien artean eta bai ikasleekin (ikasleek aitortuta).

⁴⁹ “Plangintzak eta ekintzak” aldagaiak, berriz, informazio hau laburtzen du: ikastetxean erabileraren aldeko ekintzarik egin ohi den, erabilera lantzeko plangintzarik aplikatzen ari ote den eta ahozkotatasuna lantzeko plangintzarik aplikatzen ari ote den.

7.5.2 Erregresio Anizkoitza (1)

Ondoko 7.8 taulan, beraz, 2. maila honetako (gizarte maila mikroko) hamaika adierazleen Erregresio Anizkoitzaren emaitza duzue. Hamaika adierazleetatik zazpi sartu dira Erregresio Anizkoitzaren taulan, eta guztien artean *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* %73,0 azaltzen dute (ikus, 7.8 taulan, horiz nabarmenduta):

Erregresio Anizkoitzaren laburpen-taula I		R	R ² guztira	Aldaketaren estatistikoak	
Adierazleak				Aldaketak R ² -n	F-ren aldaketaren Sig.
1-	Taldeak jolaslekuan euskaraz egiten du	,830	,689	,689	,000
2-	Erabilera anai-arrebekin	,846	,716	,027	,000
3-	Ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzea	,849	,721	,005	,000
4-	Ikastetxeko giro euskalduna	,852	,725	,004	,000
5-	Etxeko hizkuntza	,853	,728	,003	,000
6-	Plangintzak eta ekintzak	,854	,729	,001	,014
7-	Taldeko erabilera gela barruan	,855	,730	,001	,028

Mendeko aldagaia: JOLASI; ikaslearen elkarrizketen %-a euskaraz jolaslekuan.

7.8 taula

Metodoa: Banan-banako metodoa (Pasos sucesivos, Stepwise).

Irizpideak: sartzeko, F-ren prob. \leq ,050. Ateratzeko, F-ren prob \geq ,100.

Kanpoan geratzen dira: "Herriko lagunekin egiten du", "Aisialdia euskaraz", "Gurasoen gaitasuna" eta "Herriko lagunek badakite" adierazleak.

Erregresioaren taulan ikusten denez, harreman sareen bidez azaltzen diren *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* aldaketa ia-ia guztiak *taldeko erabilera jolaslekuan* adierazleak azaltzen ditu, Erregresio Anizkoitzak azaltzen duen %73,0 horretatik zatirik handiena (%68,9) adierazle horri zor zaio eta. Beste muturrean, lau adierazlek ez dute ekarpenik egiten, analisitik kanpo geldituz: *herriko lagunekin egiten du*, *aisialdia euskaraz*, *gurasoen gaitasuna* eta *herriko lagunek badakite* adierazleak.

Taldeko jolaslekuko erabileraren atzetik sartu diren gainerako adierazleetatik, garrantzitsuenak *ikaslearen anai-arrebekiko erabilera* da, azalpenari %2,7 gehituz. Ekarpena aberasten duten beste adierazleak, anai-arrebenaz gain, bost dira, baina beren ekarpenak %1etik beherakoak dira: *ikaslearen ikus-entzunezkoen euskarazko kontsumoa*, *ikastetxeko giro euskalduna*, *ikaslearen etxeko hizkuntza*, *ikastetxeko erabileraren aldeko plangintzak eta ekintzak*, eta *taldeko erabilera gela barruan*.

Dena den, *taldeko erabilera jolaslekuan* adierazlearen pisua hain handia izanik, Erregresio Anizkoitza errepikatu da, adierazle hori kenduta, gainerako adierazleen harremanetan eta garrantzian sakondu ahal izateko.

7.5.3 Erregresio Anizkoitza (2)

Hortaz, *taldeko erabilera jolaslekuan* adierazlea kenduta, analisia errepikatu denean honako emaitzak jaso dira (7.9 taula):

Erregresio Anizkoitzaren laburpen-taula 2		R	R ² guztira	Aldaketaren estatistikoak	
Adierazleak				Aldaketak R ² - n	F-ren aldaketaren Sig.
1-	Herriko lagunekin egiten du	,677	,458	,458	,000
2-	Ikastetxeko giro euskalduna	,737	,543	,085	,000
3-	Erabilera anai-arrebekin	,762	,581	,038	,000
4-	Plangintzak eta ekintzak	,779	,606	,025	,000
5-	Ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzea	,784	,615	,009	,000
6-	Aisialdia euskaraz	,789	,622	,007	,000
7-	Taldeko erabilera gela barruan	,790	,624	,002	,019
8-	Gurasoen gaitasuna	,791	,625	,001	,035

Mendeko aldagaia: JOLASI; ikaslearen elkarrizketen %-a euskaraz jolaslekuan.

7.9 taula

Metodoa: Banan-banako metodoa (Pasos sucesivos, Stepwise).

Irizpideak: sartzeko, F-ren prob. \leq ,050. Ateratzeko, F-ren prob \geq ,100.

Kanpoan geratzen dira (“Taldeko erabilera jolaslekuan” kendu egin da):

“Etxeko hizkuntza” eta “Herriko lagunek badakite” adierazleak.

Behar izanez gero, ikus 7.4.2 ataleko *Estatistika Oharrak 4, 5, 6 eta 7*.

- *Taldeko erabilera jolaslekuan* adierazlea alde batera uzten badugu (7.9 taula), lortzen den azalpen ahalmena 10,5 puntu jaisten da (%73tik %62,5eraino), baina horrek oraindik ere azalpen handia izaten jarraitzen du. Adierazle mailan, berriz, zer aldatu da? Zein dira ikaslearen jolaslekuko erabileraz gehien esaten edo azaltzen diguten adierazleak?
- Kasu honetan (7.9 taula), ekuazioko adierazleen ekarpenak banatuago daude, ez du adierazle bakarrak hainbesteko pisua hartzen. Bestalde, bi adierazle baino ez dira analisitik kanpo gelditzen orain (lehen, lau ziren), eta harreman sare mota guztietako adierazleak ordezkaturik daude: bai familiako, bai lagunarteko, bai ikastetxeko eta bai aisialdikoak (aurrekoan, lagunartekoa ez zen sartzen, taldeko erabilerak estali egiten zuen, nolabait).
- Bigarren analisi honetan, *herriko lagunetikiko erabilera*, *gurasoen gaitasuna* eta *aisialdia euskaraz* sartzen dira, lehenengoan kanpoan gelditzen zirenak.
- Gainera, *Taldeko erabilera jolaslekuan* alde batera utzita, *ikaslearen jolaslekuko erabileraz* gehien esaten digun adierazlea *herriko lagunetikiko erabilera*⁵⁰ da harreman sareen maila honetan (%45,8).

⁵⁰ Kontuan hartu behar da, noski, adin honetako ikaslearen herriko lagunak, neurri handi batean gelakideak direla; hau da: gelakideekin jolaslekuan duten “harreman sare” eta herriko lagunekin dutena, kasu askotan, berdina edo oso antzekoa izango da. Hala ere, herrian lagunekin duen erabilera jolaslekuan duenaren azalpen handiena ematen duen adierazlea izateak argi adierazten digu ikastetxeraz kanpo ikasleak duen ingurune hurbilaren eta ikastetxeko jolaslekuko erabileraren arteko lotura.

- Ikastetxeko harreman sareak ere asko azaltzen digu: *ikastetxeko giro euskalduna* (irakasleen euskalduntasuna eta erabilera) da bigarren adierazlea (%8,5 gehitzen du), eta erabileraren alde egiten diren *plangintzak eta ekintzak*, laugarrena (%2,5). Kasu honetan ere, *taldeko erabilera gela barruan* adierazlea ere sartzen da (zazpigarren lekuan eta %0,2ko ekarpen txikiarekin bada ere).
- Etxeko harreman sareak ere gehitzen du azalpen zati bat: *erabilera anai-arrebekin* da kasu honetan ere etxetik informazio gehien eskaintzen diguna (%3,8), baina *gurasoen gaitasuna* ere Erregresio Anizkoitzak kontuan hartua da (nahiz eta oso indar gutxiarekin: %0,1).
- Azkenik, aisialdiari dagokionez, kasu honetan, *ikus-entzuketako euskarazko erabilera* adierazleaz gain (%0,9) *aisialdiko euskarazko erabilera* ere sartzen da (%0,7) emandako azalpenean.
- Oraingoan, analisiak kanpo utzi dituen beste bi adierazleek (*etxeko hizkuntza* eta *lehenbiziko analisian* ere kontuan hartua izan ez den *herriko lagunek badakite*) ez dute informazio gehigarrik eskaintzen (beraiek azalduko luketena jada besteek azaldua dago).

7.5 atala, LABURPENA

Atal honetan, eredu teorikoan banatutako hiru mailetatik (ikus 7.2 atala) bigarrenaren azterketa egiten da: *maila mikrosoziala: harreman sareak*. Maila honetan hamaika adierazle aztertzen dira, ikaslearen hurbileko lau harreman-sareren informazioa biltzen dutenak: familia, lagunartea, ikastetxea eta aisialdia:

- *Taldeko erabilera euskaraz jolaslekuan (ikastetxea)*
- *Herriko lagunekin euskaraz egiten du (lagunartea)*
- *Erabilera anai-arrebekin euskaraz (familia)*
- *Aisialdia euskaraz (aisialdia)*
- *Etxeko hizkuntza (familia)*
- *Gurasoen gaitasuna euskaraz (familia)*
- *Ikus-entzunezkoak euskaraz (aisialdia)*
- *Ikastetxeko giro euskalduna (ikastetxea)*
- *Taldeko erabilera euskaraz gela barruan (ikastetxea)*
- *Herriko lagunek euskaraz badakite (lagunartea)*
- *Erabileraren aldeko plangintzak eta ekintzak (ikastetxea)*

Hamaika *adierazle* horiek, banaka eta guztira ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin nolako lotura duten aztertu da, eta erabilera horretaz nolako azalpena ematen diguten. Ondorio nagusiak hauek dira:

Erregresio Anizkoitza (1)

- ⇒ Guztira, *maila mikroak* (ingurune hurbileko lau harreman-sare hauei buruzko hamaika adierazlearen informazioak) bere *jolaslekuko erabileraren* %73,0 azaltzen digute. Kopuru hau oso altua da mota honetako analisietan lortu ohi denerako; eredu teorikoko hiru mailetan maila honek ematen du azalpenik altuena (ikus 7.4 eta 7.6 atalak).

- ⇒ Hamaika adierazleen artean *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* lotura estuena duena eta azalpenik handiena ematen diguna, alde handiz, bere *taldeko erabilera jolaslekuan* adierazlea da. Adierazle guztiak batuta lortzen den azalpenaren 10etik 9 adierazle honek ematen du: horrek 6.1 eta 6.2 ataletako emaitzak berresten ditu, eta adierazten du ikaslearen hizkuntza-jokaera jolaslekuan bere gelakideen edo *taldearen jolaslekuko joera* orokorrera egokitzen dela, eta taldearen joera hau ikaslearen banakako beste edozein ezaugarri gailentzen zaiola.
- ⇒ *Taldeko erabilera jolaslekuan* adierazlea, edo aipaturiko taldearen joera hau aztergai konplexua da, eta azterturiko 25etatik bost adierazlerekin du lotura aldi berean (ikus 7 atalaren laburpena).

Erregresio Anizkoitza (2)


Ikaslearen jolaslekuko erabilera azaltzeko orduan bere taldearen pisua hain handia izanik, analisiak errepikatu dira adierazle hau (*Taldeko erabilera jolaslekuan*) alde batera utzita, gainerako adierazleen azalpen-gaitasunak hobeto ezagutzeko (ikus 7.5.3):

- ⇒ Gainerako adierazleen artean *Herriko lagunekin euskaraz egiten du* adierazlea da *ikaslearen jolaslekuko erabilera* gehien azaltzen duena. Horrek ikaslearen kaleko ingurune hurbilaren eta jolaslekuaren artean hizkuntza-jokaera aldetik dagoen lotura argi adierazten dute.
- ⇒ Aipatu herriko lagunak adierazleaz gain, beste zazpi adierazle ere sartzen dira erregresioaren taulan (ikus taula 7.9). Laburpen honen hasieran aipatu bezala, *maila mikro* honetako 11 adierazleak lau harreman-saretan banatu dira, eta lauak daude ordezkatuak aipatu erregresio taulan (ikus taula 7.9). Horrek esan nahi du lau harreman-sare hauetako bakoitzean ikasleak duen eguneroko erabilerak, bere *jolaslekuko erabileraren* zati bat azaltzen digula. Edo beste modu batean esanda, lau eremu horietan ikasleak egunero bizi duen hizkuntza-errealitateak, lotura garrantzitsuak dituela jolaslekukoarekin.

7.6 Maila makroa: gizartearen jardunguneak eta irudikapenak

Eredu teorikoaren 2. mailako adierazleen azterketa egin ondoren (gizarte *maila mikroa*), jarraian gizarte *maila makrosozialean* aztertu diren zazpi adierazleen analisiari ekin zaio. Kasu honetan ere 7.4 eta 7.5 puntuetan bezalako analisiak egin dira, orden berean. Aurreko ataletan emandako azalpen estatistikoek berdin balio dute beraz, kasu honetan ere.

Eredu teorikoan azaldu bezala, hirugarren mailak, *gizarte maila makroak*, ikaslea bizi den gizartea irudikatzen du, nolabait: gizarteko jardunguneetan hizkuntzarekiko zein ohitura eta balorazio dagoen, gizartean hizkuntzari buruz zer irudikapen dagoen:



7.4 irudia

7.6.1 Korrelazioak

7.10 taulan, beraz, 3. maila honetako (*maila makrosozialeko*) zazpi adierazleen korrelazioen emaitza duzue, korrelazio altuena duen adierazletik baxuena duenera ordenatuta:

Adierazleak		Korrelazioa ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin (R)	R ²
Ikaslearen herriaren euskalduntasuna (dim)	Pearson korrelazioa	,582(**)	0,339
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Hizkuntza eredua eta irakasleria (dim)	Pearson korrelazioa	,552(**)	0,305
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Bizindar subjektiboa I: familia (dim)	Pearson korrelazioa	,522(**)	0,272
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Bizindar subjektiboa II: gizartea (dim)	Pearson korrelazioa	,332(**)	0,110
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Miresten dituen pertsonaiak (dim)	Pearson korrelazioa	,329(**)	0,108
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Gurasoen eta ikaslearen jatorria (dim)	Pearson korrelazioa	,201(**)	0,04
	Sig. (aldebikoa)	,000	
Generoaren araberako erabilera-ohiturak (dim)	Pearson korrelazioa	,079(**)	0,006
	Sig. (aldebikoa)	,004	

** Korrelazioa esanguratsua da 0,01 mailan (aldebikoa)

7.10 taula

Behar izanez gero, ikus 7.4.1 ataleko *Estatistika Oharrak 1, 2 eta 3*.

- Zazpi adierazleek guztiek dute korrelazio esanguratsua *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*, eta norabide berean doaz korrelazio horiek.
- *Maila makrosozial* honetan, korrelaziorik estuena *ikaslearen herriko euskalduntasunarekin* du *ikaslearen jolaslekuko erabilerak* ($R= 0,582$). *Hizkuntza-ereduak eta irakasleriak* ere korrelazio maila bertsua du ($0,552$). Familiako egoeretan eta gizartekoetan erabiltzea komeni den hizkuntzari buruz ikasleak dituen hautemateek (*Bizindar subjektiboa I eta II adierazleak*⁵¹) ere badute lotura *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*, baina ez maila berean: lotura estua goa du erabilerarekin familiako hautemateak ($0,522$) gizartekoak baino ($0,332$).
- Ikasle hauek miresten dituzten pertsonaia, artista zein kirolariak, gehien-gehienak kanpotarrak edo erdaldunak dira (ez euskaldunak). Hala ere, *miresten dituen pertsonaiak* adierazleak korrelazio esanguratsua du *jolaslekuko erabilerarekin* ($0,329$): hau da, batez beste, euskararen erabilera altuagoa dute pertsonaia euskaldunak miresten dituztenek (edo hizkuntza horren erabilera altua dutenek neurri handiagoan miresten dituzte pertsonaia euskaldunak).

⁵¹ [Metodologia Oharrak] Bi aldagai hauek, "Bizindar subjektiboa I eta II" izendatu ditugunak, ikaslearen hizkuntzen inguruko pertzepzio edo hautemateak laburbiltzen dituzte. Ikasleei, irudiak erabilia, galdetu zaie egoera jakin batzuei "zein hizkuntza doakie hobeto?". "Bizindar sub. I" aldagaiak "familia", "seme-alabak" eta "agureak" irudietarako emandako erantzunak laburtzen ditu (familia); "Bizindar sub. II" aldagaiak, berriz, "fabrika", "albesteak" eta "ordenagailua" irudiei emandakoak (gizartea).

- Aztertutako ikasle gehienak eta beren gurasoak hemen jaioak diren arren (%71), jatorriak ere lotura esanguratsua du erabilerarekin ($R= 0,201$), hau da: kanpoan jaio diren edo kanpoko gurasoak dituzten ikasleek, batez beste, euskararen erabilera txikiagoa dute jolaslekuan.
- Azkenik, generoan ere korrelazio bat ematen da, ahula ($0,079$), baina esanguratsua. Ikerlan honen beste atal batzuetan ere ikusi bezala, batez beste, neskek mutilek baino erabilera altuxeagoa dute.

7.6.2 Erregresio Anizkoitza

7.11 taulan, 3. maila honetako (*gizarte maila makroko*) zazpi adierazleen Erregresio Anizkoitza analisiaren emaitza duzue. Zazpi adierazleetatik sei sartu dira Erregresioaren taulan, eta, guztien artean, *ikaslearen jolaslekuko erabileraren %51,7* azaltzen dute (ikus, taulan, *horiz nabarmenduta*):

Erregresio Anizkoitzaren laburpen-taula		R	R ² guztira	Aldaketaren estatistikoak	
Adierazleak				Aldaketak R ² - n	F-ren aldaketaren Sig.
1-	Ikaslearen herriaren euskalduntasuna	,582	,339	,339	,000
2-	Hizkuntza eredia eta irakasleria	,683	,467	,129	,000
3-	Bizindar subjektiboa I: familia	,707	,500	,033	,000
4-	Miresten dituen pertsonaiak	,716	,512	,012	,000
5-	Bizindar subjektiboa II: gizartea	,717	,515	,003	,006
6-	Generoaren araberako erabilera-ohiturak	,719	,517	,002	,013

Mendeko aldagaia: JOLASI; ikaslearen elkarrizketen %-a euskaraz jolaslekuan.

7.11 taula

Metodoa: Banan-banako metodoa (Pasos sucesivos, Stepwise).

Irizpideak: sartzeko, F-ren prob. $\leq ,050$. Ateratzeko, F-ren prob $\geq ,100$.

Kanpoan geratzen dira: "Gurasoen eta ikaslearen jatorria".

Behar izanez gero, ikus 7.4.3 ataleko *Estatistika Oharrak 4, 5, 6 eta 7*.

- Zatirik handiena ikaslearen *herriko euskalduntasunak* azaltzen du (%33,9). *Hizkuntza-ereduak eta irakasleriak* ere ekarpen garrantzitsua egiten dio azalpen honi, %12,9 gehituz.
- *Bizindar subjektiboa I: familia* adierazleak (familiarako hizkuntza egokiaren hautemateak) %3,3 gehitzen dio azalpenari. Anlisi osagarrietan ikusi dugunez, adierazle hau, neurri handi batean, *herriko euskalduntasunari* lotua dago.
- *Miresten dituen pertsonaiak* izeneko adierazleak %1,2 gehitzen dio azalpenari eta hurrengo biek %0,5etik behera (*bizindar subjektibo II: gizarteak* %0,3, eta *generoa, erabilera ohiturak* %0,2).
- *Gurasoen eta ikaslearen jatorria* analitik kanpo utzi du Erregresio Anizkoitzak eta, hor-taz, ekarpenik egin gabe geldituz.

7.6 atala, LABURPENA

Atal honetan, eredu teorikoan banatutako hiru mailetatik (ikus 7.2) hirugarrenaren azterketa egiten da: *maila makrosoziala*. Maila honetan zazpi adierazle aztertzen dira, nolabait ikaslea bizi den gizarteko hainbat *jardungunetan* (legedia, lan-eremua, hezkuntza sistema, komunikabideak...) hizkuntzei buruz nagusi diren onarpen-maila edo estatusa eta irudikapenak jasotzen dituztenak:

- *Ikaslearen herriaren euskalduntasuna*
- *Miresten dituen pertsonaien hizkuntza*
- *Ikastetxeko hizkuntza-eredua eta irakasleria*
- *Gurasoen eta ikaslearen jatorria*
- *Bizindar subjektiboa I: familia*
- *Generoa, erabilera-ohiturak*
- *Bizindar subjektiboa II: gizartea*

Zazpi adierazle horiek, banaka eta guztira *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* nolako lotura duten azertu da, eta erabilera horretaz nolako azalpena ematen diguten. Ondorio nagusiak hauek dira:

- ⇒ Guztira, *maila makroak* (ikaslea bizi den gizartean euskarak duen lekuak eta bera-ri buruz dauden irudikapenek) *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* %51,7 azaltzen digu; hau da, *maila mikrosozialak* azaltzen diguna baino gutxiago, eta *maila indibidualak* azaltzen duena baino zertxobait gehixeago (ikus 7.4 eta 7.6 atalak).
- ⇒ Indartsuagoa edo ahulagoa izan, zazpi adierazleek dute korrelazio edo lotura estatistikoki esanguratsua *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* (ikus 7.10 taula). Lotura indartsuena dutenak bi dira: *ikaslearen herriaren euskalduntasuna* eta *ikastetxeko hizkuntza-eredua eta irakasleria*. *Bizindar subjektiboa I: familia* adierazleak ere maila bertsuko lotura du. Hiru hauez gain, gainerako lau adierazleetan loturak nabarmen ahulagoak dira *jolaslekuko erabilerarekin*.
- ⇒ Zazpi adierazleotan *ikaslearen jolaslekuko erabileraren* azalpenik handiena ematen duena *ikaslearen herriaren euskalduntasuna* da (ikus 7.11 taula). Horrezaz gain, azalpen aipagarria gehitzen du erregresioan *ikastetxeko hizkuntza-eredua eta irakasleria* adierazleak ere. Beraz, herriaren euskalduntasuna bat edo beste izanda ere, ikastetxearen baldintzek (*irakasleriaren euskalduntasuna* eta *hizkuntza-eredua*) zeresan handia dute *ikaslearen jolaslekuko erabileran*.
- ⇒ *Miresten dituzten pertsonaiak* adierazleari eta *familiari* eta *gizarteari* ondo doakien hizkuntzari dagokionez, loturak askoz ahulagoak dira aurreko bi adierazleetan baino: *jolaslekuan erabilera altua* duten ikasleek, batez beste, gehiago hautatzen dituzte miretsitako pertsonaia gisa pertsonaia euskaldunak, eta gizarteko jarduera orokorretan ere euskarari leku gehixeago ikusten diote, baina alde hain nabarmenik gabe.
- ⇒ Azkenik, generoari dagokionez, *ikaslearen jolaslekuko erabilera* azaltzeko ekarpen txiki bat gehitzen du adierazle honek, neskek euskarazko erabilera altuxeagoa baitute *jolaslekuan mutilek* baino (ikus 3.5.1 atala).


7.7 Hiru mailak batera

Aurreko hiru ataletan maila bakoitzaren analisia egin dugu, banaka. Atal honetan aurreko hirurak osatuko ditugu, analisi berdinak erabiliz, baina kasu honetan adierazle guztiak (erabilitako 25ak) analisisietan batera sartuz.

Izan ere, *Maila indibidual*, *maila mikrosozial* eta *maila makrosozialeko* adierazle gehienen artean neurri bateko zein besteko lotura dagoela ikusirik⁵², bestelako proba bat ere egin da. Kontua da, hiru maila horietan arestian eta banan-banan burututako azterketaren bitartez maila bakoitzaren barruko adierazleen eragina aztertu dela, bai, baina maila ezberdineko adierazleak elkarreaginean jarri gabe. Eta jakin badakigu, Erregresio Anizkoitzak zorrotz aztertzen duela mendeko aldagaiaren azalpenaren zer zati dagokion adierazle bakoitzari, adierazle horietako bik edo gehiagok azalpen mota berbera ematen dutenean bat edo batzuk kanpoan utziz eta, horrekin, azaldutakoaren errepikapena ekidinez. Hortaz, erabaki da adierazle horiek guztiak elkarrekin lantzea, 7.4 aletik 7.6 atalera erabili diren bi analisi estatistikoak beste behin errepikatuz: Korrelazioak eta Erregresio Anizkoitza.

Ikaslearen jolaslekuko erabileraren eta 25 adierazleen arteko korrelazioek, mailaz maila azaldu diren balio berdinak dituzte, baina 25 adierazle horiek eta euren balioak orain segida bakar batean aurkezten dira 7.12 taulan.

Bestalde, Erregresio Anizkoitzaren bitartez 25 adierazleak aldi berean aztertzearekin, zera bilatzen da: zein dira 25 adierazle horietatik egokienak *ikaslearen jolaslekuko erabilera* azaltzeko, baina eredu teorikoaren hiru mailetako adierazleen arteko "lehia zuzena" ahalbidentuz. Bestela esanda, maila indibidualeko, mikrosozialeko edo makrosozialeko adierazleak izanda ere, zer leku hartzen duten gure mendeko aldagaia azaltzerakoan euren arteko elkarreagina neutralizatu gabe?



⁵² Osagai Nagusiko Anlisi Faktorialaren bitartez, besteak beste.

7.7.1 Korrelazioak

Azpiko taulan (7.12 taula), hiru mailetak 25 adierazleak batera hartuta eginiko korrelazioen emaitza duzue, korrelazio altuena duen adierazletik baxuena duenera ordenatuta. Korrelazio horiek mailaz maila lortutako balio berdinak dituzte (7.4, 7.5 eta 7.6 ataletan ikusitakoak, alegia), baina 25 adierazle horiek eta euren balioak orain segida bakar batean aurkezten dira 7.12 taulan, horrela eginda elkarren arteko alderaketa argiago ikusten baita. Halaber, hiru mailak errazago bereizteko, eredu teorikoko maila bakoitzeko *adierazleei* kolore bat eman diegu. Horrela:

■ 1. maila	Ikaslearen ezaugarriak
■ 2. maila	Maila mikroa, harreman sareak
■ 3. maila	Maila makroa, gizartearen egitura

Adierazleak		Korrelazioa ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin (R)	R ²
1- Taldeak jolaslekuan euskaraz egiten du	Pearson korrelazioa	,830	0,689
	Sig. (aldebikoa)	,000	
2- Herriko lagunekin egiten du	Pearson korrelazioa	,677	0,458
	Sig. (aldebikoa)	,000	
3- Erabilera anai-arrebekin	Pearson korrelazioa	,620	0,384
	Sig. (aldebikoa)	,000	
4- Aisialdia euskaraz	Pearson korrelazioa	,619	0,383
	Sig. (aldebikoa)	,000	
5- Ikaslearen herriaren euskalduntasuna	Pearson korrelazioa	,582	0,339
	Sig. (aldebikoa)	,000	
6- Etxeko hizkuntza	Pearson korrelazioa	,578	0,334
	Sig. (aldebikoa)	,000	
7- Erraztasun erlatiboa	Pearson korrelazioa	,574	0,329
	Sig. (aldebikoa)	,000	
8- Lehen hizkuntza	Pearson korrelazioa	,560	0,313
	Sig. (aldebikoa)	,000	
9- Hizkuntza eredu eta irakasleria	Pearson korrelazioa	,552	0,305
	Sig. (aldebikoa)	,000	
10- Gurasoen gaitasuna	Pearson korrelazioa	,523	0,274
	Sig. (aldebikoa)	,000	
11- Bizindar subjektiboa I: familia	Pearson korrelazioa	,522	0,272
	Sig. (aldebikoa)	,000	
12- Ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzea	Pearson korrelazioa	,510	0,260
	Sig. (aldebikoa)	,000	
13- Ikastetxeko giro euskalduna	Pearson korrelazioa	,501	0,251
	Sig. (aldebikoa)	,000	
14- Idatzizko gaitasuna	Pearson korrelazioa	,489	0,239
	Sig. (aldebikoa)	,000	
15- Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura	Pearson korrelazioa	,439	0,193
	Sig. (aldebikoa)	,000	
16- Taldeko erabilera gela barruan	Pearson korrelazioa	,425	0,180
	Sig. (aldebikoa)	,000	
17- Eus./gaz. hiztun aktiboa da ikaslea	Pearson korrelazioa	,389	0,151
	Sig. (aldebikoa)	,000	
18- Motibazioa	Pearson korrelazioa	,374	0,140
	Sig. (aldebikoa)	,000	
19- Herriko lagunek badakite	Pearson korrelazioa	,355	0,126
	Sig. (aldebikoa)	,000	
20- Plangintzak eta ekintzak	Pearson korrelazioa	,345	0,119
	Sig. (aldebikoa)	,000	
21- Bizindar subjektiboa II: gizartea	Pearson korrelazioa	,332	0,110
	Sig. (aldebikoa)	,000	
22- Miresten dituen pertsonaiak	Pearson korrelazioa	,329	0,108
	Sig. (aldebikoa)	,000	
23- Eskola errendimendua	Pearson korrelazioa	,252	0,064
	Sig. (aldebikoa)	,000	
24- Gurasoen eta ikaslearen jatorria	Pearson korrelazioa	,201	0,040
	Sig. (aldebikoa)	,000	
25- Generoaren araberako erabilera-ohiturak	Pearson korrelazioa	,079	0,006
	Sig. (aldebikoa)	,004	

7.12 taula

Behar izanez gero, ikus 7.4.1 ataleko *Estatistika Oharrak 1, 2 eta 3.*

Mailaz maila egindako korrelazio analisei esker, badakigu:

- Aztertutako hogeita bost adierazleek guztiek dutela korrelazio estatistikoki esanguratsua *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*.
- Ikaslearen jolaslekuko erabilerak bere “taldeko erabilerarekin” duela korrelaziorik estuena: 7.5 atalean ikusi dugunez, oso estua da korrelazio hau ($R=0,830$).
- Orokorrean, ikaslearen ingurune hurbilaren edo harreman sarean adierazleak direla ikaslearen *jolaslekuko erabilerarekin* korrelaziorik estuena dutenak: *herriko lagunekiko erabilera* $R=0,677$, *anai-arrebekiko erabilera* $0,620$, *aisialdiaren hizkuntza* $0,619$ eta *etxeko hizkuntza* $0,578$. Gizarte maila mikroko adierazleak dira orain arte aipatutako guztiak.
- *Maila indibidualean*, ikaslearen *erraztasun erlatiboa* eta *lehen hizkuntza* nabarmentzen direla: $0,5$ etik gorako R -arekin ($R=0,574$ eta $0,560$). Hurrengo, *idatzizko gaitasuna* da ($0,489$).
- Gizarte maila makroan, *ikaslearen herriko euskalduntasuna* dela *jolaslekuko erabilerarekin* korrelazio estuena duena ($R=0,582$). *Hizkuntza-eredua* eta *irakasleriak*⁵³ eta familiako hizkuntzaren hautemateak (*Bizindar subjektiboa I* adierazlea) ere $0,5$ etik gorako korrelazioa dutela aipatu erabilerarekin ($0,552$ eta $0,522$ hurrenez hurren).
- *Gizarteari buruz* ikasleak oro har duen hizkuntza-hautemateak (*Bizindar subjektiboa II* adierazlea), *miresten dituen pertsonaiek*, *eskola errendimenduak*, *gurasoen* eta *ikaslearen jatorriak* eta *generoak* korrelazio ahulagoak dituztela (hurrenez hurren: $R=0,332$, $0,329$, $0,252$, $0,201$ eta $0,079$), baina, esan bezala, guztiek dutela lotura esanguratsua, neurri batean, ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin.

Korrelazio horiek mailaka aztertuta, orokorrean, *maila mikroko* adierazleak –hau da, ikaslearen ingurune hurbila edo harreman sareak– dira *Jolaslekuan ikasleek duten euskararen erabilerarekin* korrelaziorik estuena dutenak. Izan ere, korrelazio handieneko lehenengo 4 adierazleak maila horretakoak dira. Oso indartsu agertzen dira, beraz, eta *maila indibidual* eta *makroko* adierazleen aurretik.

Maila makrosozialeko 3 adierazle sailkapeneko 5., 9. eta 11. postuetan kokatzen dira, baina, halaber, *Jolaslekuan ikasleek duten euskararen erabilerarekin* korrelazio ahulena (estatistikoki, korrelazio esanguratsua izan arren) duten 5 adierazleetatik 4 *maila makro* honetakoak dira.

Maila indibidualean, ikasleak *Euskaraz duen erraztasun erlatiboa* eta *lehen hizkuntza* nabarmentzen dira, korrelazioen sailkapenean 7. eta 8. postuan kokatuta. *Maila indibidual* honetako gainontzeko adierazleak 14. postutik 23. lekura doaz, biak barne. Hortaz, gorago aipatuta bi adierazleak izan ezik, maila indibidual honek ez du *maila mikroak* –batez ere– eta *maila makroak* bezain adierazle korrelazionaturik *Jolaslekuan ikasleek duten euskararen erabilerarekin*.

⁵³ Eredua, irakasleen ezagutza eta irakasleen erabilera biltzen ditu.

7.7.2 Erregresio Anizkoitza (1)

Maila indibiduala, gizarte maila mikroa eta gizarte maila makroa banan-banan aztertu ondoren, maila horietan kokatu ditugun 25 adierazleak batera aztertu ditugu Erregresio Anizkoitzaren bitartez, betiere *Jolaslekuan ikasleek duten euskararen erabilera* mendeko aldagaiekin duten harremana edo lotura aztertzeko asmoz.

Erregresio Anizkoitza eginda, eredu teorikoaren hiru mailako 25 adierazleetatik 9 baino ez dira sartu analisisan, beste 14ak kanpoan geratuz. Gogora dezagun adierazle batzuk analitik kanpo utzi izanaren arrazoa zertan datzan: adierazle horiek azaltzen duten *ikaslearen jolaslekuko euskararen erabilera*, hartuak izan diren 9 adierazleek azaldua dela dagoeneko.

Erregresio Anizkoitzaren laburpen-taula		R	R ² guztira	Aldaketaren estatistikoak	
Adierazleak				Aldaketak R ² -n	F-ren aldaketaren Sig.
1-	Taldeak jolaslekuan euskaraz egiten du	,830	,689	,689	,000
2-	Eus./gaz. hiztun aktibo izatea	,852	,726	,037	,000
3-	Eskola errendimendua	,861	,741	,015	,000
4-	Erabilera anai-arrebekin	,867	,751	,010	,000
5-	Generoa, erabilera-ohiturak	,868	,753	,002	,001
6-	Ikus-entzunezkoak euskaraz	,869	,755	,002	,003
7-	Plangintzak eta ekintzak	,870	,757	,002	,002
8-	Taldeko erabilera gela barruan	,870	,758	,001	,013
9-	Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura	,872	,761	,003	,000

Mendeko aldagaia: JOLASI; ikaslearen elkarrizketen %-a euskaraz jolaslekuan.

7.13 taula

Metodoa: Banan-banako metodoa (Pasos sucesivos, Stepwise).

Irizpideak: sartzeko, F-ren prob. \leq ,050. Ateratzeko, F-ren prob \geq ,100.

Kanpoan geratzen dira: "Lehen hizkuntza", "Motibazioa", "Erraztasun erlatiboa", "Idatzizko gaitasuna", "Etxeko hizkuntza", "Gurasoen gaitasuna", "Herriko lagunekin egiten du", "Herriko lagunekin badakite", "Ikastetxeko giro euskalduna", "Aisialdia euskaraz", "Ikaslearen herriaren euskalduntasuna", "Hizkuntza-eredua eta irakasleria", "Gurasoen eta ikaslearen jatorria", "Bizindar subjektiboa I: familia", "Bizindar subjektiboa II: gizartea", "Miresten dituen pertsonaiak".

Taldearen jolaslekuko erabilera ikaslearen erabilerekin duen lotura nabarmentzen da berriz ere erregresio orokorrean. Izan ere, 25 adierazleak batera hartuta, ikaslearen erabilerearen %76,1 azaltzea lortzen da guztira, eta azalpen honen gehien-gehiena taldeko erabilera horrek bereganatzen du (%68,9).

Bigarren eta hirugarren sartzen diren bi adierazleak *maila indibidualekoak* dira (euskaraz hiztun aktibo izatea eta eskola errendimendua, %3,7 eta %1,5 gehituz azalpenari, hurrenez hurren). Laugarren adierazle gisa *anai-arrebekiko euskarazko erabilera* sartzen da (%1 gehituz). Ondoren, beste bost adierazle datoz azaldutako erabilerearen %76,1 osatu arte,

baina bakoitzaren ekarpena %0,4tik beherakoa da: generoa, ikus-entzunezkoen euskarazko kontsumoa, ikastetxeko erabileraren aldeko plangintzak eta, azkenik, gela barruko erabilerak, taldearena lehenik eta ikaslearena ondoren.

Taldearen jolaslekuko erabilerak hartzen duen pisu handia ikusirik, analisia errepikatu da adierazle hori kenduta, gainerakoen berri hobeto jakiteko. Horrela jokatzeko arrazoiak teoriarik eta datu enpirikoetan oinarrituak daude: batetik, Joshua Fishmanek (1979: 69) hizkuntza baten erabilera kokatzeko definitzen duen egoera kontzeptua bat dator adierazle horrekin, eta ikerlan honek ere berresten du norberaren hizkuntza-erabilera, neurri handian, taldeak baldintzatzen duela. Bestetik, ikerlan honetako datuek argi utzi dute, behin eta berriz, taldearen hizkuntza-erabilerak lotura ahalsua duela ikasle bakoitzaren erabilerarekin.

7.7.3 Erregresio Anizkoitza (2)

Hortaz, hain logiko eta indartsu agertu zaigun Taldeko euskararen erabilera jolaslekuan adierazle hori analitiko kendu eta gero, 24 adierazlerekin errepikatu da Erregresio Anizkoitza, eta 9 adierazle hartzetik 13ra pasa da, aldi berean Jolaslekuko ikaslearen euskarazko erabilera azaltzeko ahalmena %76,1etik %65,1era jaitsiz.

Erregresio Anizkoitzaren laburpen-taula		R	R ² guztira	Aldaketaren estatistikoak	
Adierazleak				Aldaketak R ² -n	F-ren aldaketaren Sig.
1-	Herriko lagunekin egiten du	,677	,458	,458	,000
2-	Hizkuntza eredu eta irakasleria	,742	,551	,092	,000
3-	Erabilera anai-arrebekin	,766	,587	,036	,000
4-	Plangintzak eta ekintzak	,782	,611	,024	,000
5-	Idatzizko gaitasuna	,789	,623	,012	,000
6-	Ikaslearen herriaren euskalduntasuna	,794	,630	,008	,000
7-	Euskaraz/gaztelaraz hitzun aktibo izatea	,798	,637	,006	,000
8-	Ikus-entzunezkoak euskaraz	,801	,641	,005	,000
9-	Aisialdia euskaraz	,803	,645	,004	,000
10-	Ikastetxeko giro euskalduna	,804	,647	,002	,008
11-	Generoa, erabilera-ohiturak	,805	,648	,001	,019
12-	Eskola errendimendua	,806	,649	,001	,029
13-	Gurasoen eta ikaslearen jatorria	,807	,651	,001	,041

Mendeko aldagaia: JOLASI; ikaslearen elkarrizketen %-a euskaraz jolaslekuan.

7.14 taula

Metodoa: Banan-banako metodoa (Pasos sucesivos, Stepwise).

Irizpideak: sartzeko, F-ren prob. \leq ,050. Ateratzeko, F-ren prob \geq ,100.

Kanpoan geratzen dira ("Taldeko erabilera jolaslekuan", kendu egin da): "Lehen hizkuntza", "Motibazioa", "Erraztasun erlatiboa", "Etxeko hizkuntza", "Gurasoen gaitasuna", "Herriko lagunek badakite", "Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura", "Taldeko erabilera gela barruan", "Bizindar subjektiboa I: familia", "Bizindar subjektiboa II: gizartea", "Miresten dituen pertsonaiak".

Adierazleei dagokionez, esan genezake ikaslearen hurbileko harreman sarea (herrian zein familian) eta ikastetxearen adierazleak direla bere jolaslekuko hizkuntza-erabilera hobekien azaltzen dutenak.

Hurbileko harreman sareetan gehien azaltzen duen adierazlea *herriko lagunekin egitea* (%45,8) da, eta *erabilera anai-arrebekin* adierazleak beste %3,6 gehitzen du (3. lekuan).

Ikastetxeko adierazleetatik, 2. postuan kokatu den *hizkuntza-eredua eta irakasleriak* adierazleak gehitzen du gehien (%9,2), eta erabilera lantzeko egiten diren *plangintzak eta ekintzak* adierazleak azalpen ahalmenaren beste %2,4 metatzen du, 4. postuan.

Maila indibidualetik sartzen den lehen adierazlea *idatzizko gaitasuna* da, 5. lekuan, azalpenari %1,2 gehituz. *Maila indibidualaren* azterketan (ikus 7.4 atala) ikusi dugu *erraztasun erlatiboak* lotura estuagoa duela ikaslearen erabilerarekin, idatzizko gaitasunak baino. Badirudi, beraz, *herriko lagunekiko* eta *anai-arrebekiko erabilera* adierazleetan jada *erraztasun erlatiboa* azalduta dagoela. Osagai nagusiko analisi faktorial bidez ere berretsi ahal izan dugu hiru adierazle horien arteko lotura.

Hemendik aurrera sartzen diren beste zortzi adierazleek ekarpen txikiak egiten dituzte, %1 etik beherakoak, 7.14 taulan ikus daitekeenez.


Hori, taulan sartzen diren adierazleei buruz. Sartzen ez direnen artean, nabarmentzekoa da familiako adierazle gutxi sartzen direla: Erregresio Anizkoitzarekin egindako 1. eta 2. analisisetan ez dira sartzen ez *Lehen hizkuntza*, ez *Etxeko hizkuntza* eta ez *Gurasoen gaitasuna*. Badirudi, beraz, *anai-arrebekiko erabilerak*, eta tartean sartzen diren beste adierazleek ordezkatzan dutela adierazle hauek gehituko luketen azalpen zatia.

Gela barruko erabilerari dagokionez, *ikaslearen gela barruko erabilera* soilik sartzen da 1. ekuazioan, baina 2.ean ez dira sartzen ez *ikaslearena* eta ez *taldekoa*. Bestalde, korrelazio eta analisi faktorialean ikusi denez, pertzepzioekin edo motibazioarekin loturiko adierazleek (*Motibazioa*, *Bizindar subjektiboa II: gizartea* edo *Miresten dituen pertsonaiak*) badute lotura *Jolaslekuko ikaslearen euskarazko erabilerarekin*, baina beste hainbat adierazlek baino ahulagoa eta, hortaz, Erregresioan ez dute ekarpen propiorik egiten; ez dira ekuazioan sartu.

7.8 Ondorio orokorrak

1. Adierazleen azterketa, eredu teorikoaren arabera, hiru mailatan banatu da. Hiru mailak banan-banan hartuta, ikaslearen harreman sare hurbileko adierazleak dira, *maila mikro-sozialekoak, jolaslekuan ikasleek duten euskararen erabileraren azalpenik handiena eman dutenak (%73,0)*. *Maila makrokoak, gizarteko jardunguneak eta gizarte-irudikapenak, %51,7 azaldu du eta ikaslearen hizkuntza-ezaugarriek, maila indibidualak, %47,7*.
2. Hiru analisi maila horiek errealitatean lotura ugari dituzte elkarren artean, eta erabilerari buruz azaltzen dutena ere, neurri handi batean, partekatua da. Horregatik, eredu teorikoan erabilitako 25 adierazleak batera aztertuta, jolaslekuko ikaslearen erabileraren %76,1 azaldu da; ez gehiago (7.6 irudiko eskeman erakusten den moduan⁵⁴).

Ikaslearen jolaslekuko euskararen erabileraz eredu teorikoak eta bere dimentsioek duten azalpen ahalmena



3. *Ikaslearen jolaslekuko erabilera oso lotua dago bere Taldearen jolaslekuko erabilerari eta ereduko 25 adierazleetatik erabilera hori ongien azaltzen duena bera da. Hau da, 25 adierazleekin egindako bi erregresioetan ikusienez, adierazle hau kontuan hartuta ikaslearen erabileraren azalpen handiagoa lortzen da (%76,1), eta beraz analitik kenduz gero, 24 adierazle utziz, azalpen ahalmena %65,1 eraino jaitsi da. Taldeko erabilerak duen pisua aski ezaguna izanik, adierazle hori Erregresio Anizkoitzetik kanpo utzi dugu, bere azpian ezkuta zitezkeen beste adierazleak agerian geldi daitezken; horrela landu dira jarraian datozen ondorioak.*

⁵⁴ 7.6 eskema hiru mailek informazioa nola partekatzen duten "irudikatzer" mugatzen da, baina bertako formek eta tamainek ez dute maila bakoitzaren azalpen-ahalmenaren neurri zehatza.

4. Bestalde, Osagai Nagusiko analisi faktorialean ikusi dugunez⁵⁵, *taldearen jolaslekuko erabilera* maila hori ez dago faktore bakarrari lotua. Alde batetik, lotua dago talde horretako ikasleen *herriko lagunekiko erabilerari, etxeko hizkuntzari eta erraztasun erlatiboari*. Horrez gain, lotuta dago ikastetxearen ezaugarriari ere: *hizkuntza-eredua eta irakasleriari* eta ikasleen *erabilera zein ahozkotasuna* lantzeko bertan egiten diren *plangintzei*. Azkenik, ikasleen *herriaren euskalduntasunari* ere lotua dago, baina neurri apalagoan.
5. Arestian esan bezala, analisisian erabili ditugun hiru mailen (indibidual, mikrosozial eta makrosozial) artean loturak ematen dira. Lotura horien arabera, hurbileko harreman sareetan euskara erabiltzen duten ikasleak dira *maila indibidualean hizkuntza-erraztasun erlatiborik handiena* dutenak. Hurbileko harreman sare horien artean, *herriko lagunekiko erabilera* eta *anai-arrebekiko erabilera* dira ikaslearen jolaslekuko erabilerari lotuen agertzen diren aldagaiak.
6. *Maila indibidualean*, ikaslearen hizkuntza-ezaugarrietan, bere *euskarazko erraztasun erlatiboa* da jolaslekuko erabilerari ongien egokitzen zaiona, bere lehen hizkuntza baino hobexego eta (*idatzizko*) *gaitasuna* baino hobeto. *Erraztasun erlatiboa*, dena den, neurri handi batean lotua dago *lehen hizkuntzari*. Bestalde, ikaslearen *idatzizko gaitasuna* lotua dago *eskola errendimenduari* eta *gela barruan euskara erabiltzeko ohiturari*. *Idatzizko gaitasun* honek berak ere, ikaslearen *erraztasun erlatiboak* azaltzen duenaz gain, ikaslearen *jolaslekuko erabileraren* zati garrantzitsu bat azaltzen du.
7. *Hizkuntza-eredua eta irakasleria*, neurri batean hezkuntza sistemak ikastetxeari eskaintzen dizkion “oinarri” gisa har daitezke. Hezkuntza sistemaren jardungunean euskarari ematen zaion “oinarri” edo leku horrek lotura argia du *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*. Gainerakoan, gizarteko beste jardunguneei edo *maila makroari* dagokienez, *herriaren euskalduntasunak* ere ikasleen jolaslekuko erabilerarekin lotura handia du, ulertzekoa denez.
8. Ikasleak *aisialdiko* jardueretan duen hizkuntza-erabilerak ere oso lotura estua du, bai *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin* eta baita *taldearen jolaslekuko erabilerarekin* ere. Bai adierazle honek eta bai *ikus-entzunezkoen euskarazko kontsumo* neurriak informazio esanguratsua eskaintzen digute *ikaslearen jolaslekuko erabilera* azaltzeko garaian.
9. Bestalde, *maila indibidualeko* ikaslearen *motibazioa* eta *maila makroko* hizkuntzei buruzko hautemateak (edo gizarte irudikapenak), oro har, bere lagunarteko eta familiako hizkuntza-errealitateari daude lotuen, baina ez dute horren lotura sendorik *ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin*.
10. Azkenik, *generoak* ere laguntzen du, neurri txiki batean, *ikaslearen jolaslekuko erabilera* azaltzen. Korrelazio hori gorago aipatutako adierazleena baino askoz apalagoa da (aztertutako 25 adierazleetan txikiena), baina bai erabileran eta bai beste adierazle batzuetan (eskola errendimenduan, miresten dituzten pertsonaien euskalduntasunean...) neskek mutilek baino balio altuxeagoak dituzte. Jolaslekuko erabileran konkretuki, batez beste, nesken erabilera mutilena baino 6 puntu altuagoa da (ikus 3.5.1).

⁵⁵ Hemen deskribatu ez den analisi estatistiko osagarria.

7 atala, LABURPENEA

Atal honetan, beste urrats bat ematen da LMH6ko ikasleen *jolaslekuko erabileraren* azterketan. Erabilera horren iragarle onenak zein aldagai diren galderaren erantzunetara hurbilpen bat egiten da, tresna estatistiko oso lagungarri bat baliatuz (Erregresio Anizkoitza).

Ikaslearen jolaslekuko erabileraren azterketari tresna estatistiko hori aplikatzeko bi pausu nagusi eman dira:

- ⇒ Aztertutako ikasleen ezaugarriak, aldagai askeak (guztira 111), sinplifikatu egin dira, 25 adierazletan bilduz.
- ⇒ Eredu Teoriko baten bidez ikasle horien errealitatea irudikatu eta hiru mailatan banatu da. Aipatu 25 adierazleak hiru maila hauetan banatu dira:

1.- <i>Maila indibiduala:</i>	ikaslearen ezaugarriak	(7 adierazle)
2.- <i>Maila mikrosoziala:</i>	ikaslearen hurbileko egoerak eta harreman sareak	(11 adierazle)
3.- <i>Maila makrosoziala:</i>	gizartearen egitura	(7 adierazle)

Hiru maila hauek bereizita eta 25 adierazle erabiliz eginiko analisisen ondorio nagusiak hauek dira:

1. Hiru mailen artean, *maila mikroko* adierazleak dira, ikaslearen harreman sare hurbilekoak, *jolaslekuan* ikasleak duen hizkuntza-erabileraren azalpenik (edo iragartzeko gaitasunik) handiena ematen dutenak (% 73,0). *Maila makroak* erabilera horren % 51,7ko azalpena ematen du eta *ikaslearen ezaugarri indibidualek* % 47,7.
2. Hiru mailen artean lotura estuak daude eta *jolaslekuko erabilerari* buruz ematen duten azalpena ere, neurri handi batean, partekatua da. Guztira, hiru mailak batuta, 25 adierazle horien bidez aipatu erabileraren % 76,1 azaltzea lortu da. Era honetako ikerketetarako balio (portzentaje) altua da hau, baina agerian uzten du tartean badirela jaso ez diren *aldagai* gehiago ere.
3. *Ikaslearen jolaslekuko erabilera* oso estuki lotua dago bere *taldearen jolaslekuko erabilerari*; beste edozein adierazlek baino lotura zuzenago eta indartsuagoa du. Atal honetan berretsi egiten da, aurretik beste analisi guztietan ateratako ondorio hau (ikus, 6.1 eta 6.2 atalak).
4. Analisi osagarrietan ikusi da *taldearen jolaslekuko erabilerak* lotura duela eremu batekin baino gehiagorekin: lotura estatistikoa agertzen du batetik, bai *herriko lagunekiko erabilerarekin* eta bai *etxeko hizkuntzarekin*, baina halaber, lotura du ere ikastetxearen ezaugarriekin ere: bai *hizkuntza-eredua eta irakasleria* aldagaiarekin, eta baita *erabilera eta ahozkotasuna lantzeko* bertan egiten diren *plangintzekin* ere. Azkenik, maila orokorragoan (edo makroan), *herriaren euskalduntasunak* ere lotura du taldearen erabilerarekin.
5. *Maila indibidualari* dagokionez, ikaslearen euskarazko erraztasun erlatiboa da bere *jolaslekuko erabilera* azaltzeko edo auresateko gaitasunik handiena duen adierazlea: bere *lehen hizkuntzak* baino gehixeago eta, alde nabarmenagoz, bere *idatzizko* (euskarazko) gaitasunak baino gehiago.
6. *Ikaslearen aisialdiko erabilera* eta *ikus-entzunezkoen euskarazko kontsumo* adierazleek ere informazio esanguratsua eskaintzen digute *ikaslearen jolaslekuko erabilera* azaldu edo auresateko.

8. Kasu azterketa: azterketa kualitatiboaren ondorio nagusiak

8. Kasu azterketa: azterketa kualitatiboaren ondorio nagusiak

8.1 Kasu Azterketaren prozesua

Lan honen 4., 5., 6. eta 7. ataletan azalduriko 2005-2006 ikasturteko ikerketari jarraipena emanaz, 2006-2007 ikasturtean EAEko zazpi ikastetxetan Kasu Azterketa ikerketa egin da, eta atal honetan bere emaitzen laburpen bat eskaintzen da.

Bi zati nagusi izan ditu: batetik, ikerketaren alde kuantitatiboaren bitartez, ikasleen hizkuntza-erabilera neurtu dugu eta euren familia, ohitura, zaletasun eta iritziei buruzko datuak bildu dira, aurreko urteetako bilketari segida emanaz. Bestetik, ikerketaren alde kualitatibo osatu duten sakoneko elkarrizketen bidez, ikasleek euren inguruan bizi duten giroa ezagutze aldera hurbilpen bat egin da ikastetxeetako zuzendari, hizkuntza-teknikari, irakasle eta gurasoen eskutik.

Ikasleek bizi dituzten baldintza hauetako batzuk, datuetara ezin eraman daitezkeen jarre-ra, iritzi edo jokaerei buruzkoak dira. Hauek aztertu ahal izateko elkarrizketa guztietako informazioaren tratamendua egin da, urrats nagusi hauek emanaz:

1. Transkripzioen hustuketa: elkarrizketetako gaiak zerrendatu eta antolatu.
2. Zazpi ikastetxeetan aipatu izan diren gaiak eta batzuetan soilik aipatu direnak bereizi.
3. (ikastetxe guztietan aipatutako gaietan) Gai horiei buruz elkarrizketetan adierazitakoak *kategoriatan* sailkatu.
4. Azkenik, horretarako aukera ematen zuten gaietan, kategoria hauek ordenatu egin dira, "ikasleen euskarazko erabilera eman dadin kaxkarrenak direnetatik onenak" direnetara: gaiaren arabera, gai bakoitzean 2, 3 edo 4 kategoria sortu dira (ikus 8.4, 8.5 eta 8.6 taulak).

Elkarrizketetan bildutako informazioa anitza eta zabala izan da eta ikastetxe bakoitzaren egoera besteekin alderatzea ez da posible izan, noski, gai guztietan. Gai batzuetan ez dugu ikastetxe guztien egoera zehatza deskribatzeko adinako informazio osatua eskuratu, eta ondorioz gai hauekin ezin izan dira gorago deskribatutako "3." eta "4." urratsak eman, informazio interesgarria eskaini arren ez zutelako aukera ematen gai horretan zazpi ikastetxeen errealitatea sailkatu eta alderatzeko.

Horrez gain, beste hiru gaitan, informazio kategoriatan sailkatu arren, ez da aukerarik ikusi kategoria hauek ikasleen erabilerari begira ordenatzeko (gorago aipatutako "4." urratsa). Hiru kasuetan, gai horri buruz aipatu diren iritzi edo azalpenak zein kategoriatan sailkatu diren azaltzera mugatzen gara hemen: ikus behegero 8.1 eta 8.2 taulak.

Gorago azaldutako "4." urrats hori hamabost gaitan eman da. Kasu hauetan, beraz, gai horiei buruz ikastetxeek adierazitakoa kategorietan sailkatzeaz gain, kategoria hauek ikasleen euskarazko erabilerari begira antolatu egin dira, kasu bakoitzean bi, hiru edo lau kategoria bereiziz: hamabost gai hauek dira, hain zuzen aurrerago 8.4, 8.5 eta 8.6 tauletan zazpi ikastetxe hauen "baldintzak" laburtzeko eta alderatzeko erabili direnak. Modu horretan, erabilerarako "baldintza" horien eta ikasleen euskarazko erabileraren artean dauden loturen azalpen bat duzue lan honetan.

8.1.1 Ikasleen ingurumaria

Ikasleek inguruan duten giroa deskribatu ahal izateko erabili ditugun gaiak hiru multzo nagusitan bereizi daitezkeen baldintzetan laburbildu ditugu:

- ikastetxeko familien kolektiboan ematen diren baldintzak
- ikasleek euren ingurune soziolinguistikoan (herrian edo auzoan) bizi dituzten baldintzak
- ikastetxean bertan bizi diren baldintzak

Familiari dagozkion baldintzak lau izan dira. Bi gaitan ikastetxeak kategoriatan ordenatu ahal izan ditugu (*Gurasoen euskararen ezagutza* eta *Gurasoen eta guraso-elkartearen parte-hartzea*) eta beste bitan berriz ez. Alegia, gurasoek ikastetxea aukeratzeko izan zituzten irizpideak (*Ikastetxea aukeratzeko arrazoiak*) eta euskararekiko duten konpromisoan (*Gurasoak: euskararekiko konpromiso mota*), gaiari buruzko kategoriak sortu eta zerrendatu dira, baina erabilerari begira “antolatzaera” iritsi gabe. Aurreko ataleko sailkapenari jarraituz, 8.1 taulan dituzuen bi gai hauek “3. urratsean” geratu direla esango genuke.

Ikastetxea aukeratzeko arrazoiak	A-	Euskararen beharrezkotasuna (lan mundurako, etorkizuneko, gizarterako...)
	B-	Euskararekiko konpromisoa, atxikimendu ideologikoa, militantzia, maitasuna
	C-	Ikastetxearen gertutasuna (geografikoa)
	D-	Gurasoak ikasle ohiak izatea
	E-	Ikastetxearen baloreak haurrengan barneratu nahia
	F-	B eredia izatea. Beste ereduak aukeratzea baztertzea
	G-	Euzkara ez jakitearen esperentzia negatiboa bizi izana
	H-	Ikastetxearen izaera berritzailea (teknologia berrietan, pedagogikoki...)
	I-	Ikastetxearen izen ona
Gurasoak: Euskararekiko konpromiso mota	A-	Lan mundurako duen balioa
	B-	Atxikimendu ideologikoa (identitarioa)
	C-	Konpromisoaren beherazko joera
	D-	Interesik ez duen guraso sektore bat
	E-	Euskararen gain ikastetxearengan delegatzen dute
	F-	konpromisoaren gorazko joera

8.1 taula

Gurasoen arloari lotuta, esan beharra dago elkarrizketetan informazio aberatsa jaso dela, gai askotan: hala nola, “gurasoen euskararen erabilera”, “guraso elkaratearen dinamikotasuna”, “ikasleek aukeratzeko konpromisoa/identifikazioa”, “familien maila ekonomikoa”... Kasu hauetan, ordea, arrazoi bategatik edo besteagatik, bildutako informazioak ez zuen ikastetxe guztiak gai horretan alderatu ahal izateko aukerarik ematen (aurreko ataleko sailkapenean, “2. urratsean” geratu dira).

Herri edo auzoaren errealitate soziolinguistikoari dagokionez, 6 gaitan ematen diren baldintzak aztertu ditugu. Bost gai, kategoriatan antolatu dira; honako hauek, hain zuzen: *Herriko errealitate soziolinguistikoa: ezagutza; Herriko errealitate soziolinguistikoa: erabilera; Herriko errealitate soziolinguistikoa: atxikimenduak, konnotazioak; Euskara gaietan erreferentzialtasuna herrian eta, azkenik, Euskalgintzako eragileak herrian*. Aldiz, udalarekiko duten harremanaren arabera (*Udala: jarrera, ikastetxearekiko harremana*) ezin izan dira kategoriatan antolatu ikastetxeak, baina gai honetan atera diren jarrera eta egoeren ezaugarriak kategoriatan bildu dira ondorengo 8.2 taulan ikus daitekeen moduan.

Udala: Jarrera, ikastetxearekiko harremana...	A-	Normalkuntzaren gaiaren lanketan berriak
	B-	Ikastetxeentzat euskarazko kultur ekintzak antolatu. Hauek eskertzen dute
	C-	Ikastetxeak aisialdi eskaintza euskalduntzeko eskatzen dio
	D-	Udalarekin kontakturik ez (euskararen gaian)

8.2 taula

Ingurune soziolinguistikoarekin lotuta, azterketaren azken urratsetaraino eraman ezin izan diren beste zenbat gai ere geratu zaizkigu, esate baterako, “herriko beste ikastetxeen izaera eta hauekiko harremana”, aurki daitekeen “aisialdi eskaintza” eta abar.

Azkenik, aztertu dugun hirugarren gai multzoa **ikastetxean bertan ematen diren baldintzena** da. Multzo honen barruan 8 gai aztertu dira eta hauetako bakoitzean aztertutako zazpi ikastetxeak sortutako bi, hiru edo lau kategoriatako batean kokatu dira. Hona hemen, zortzi gai horiek: *Funtzionamendu-hizkuntza eta euskara batzordea; Gurasoekiko komunikazio irizpidea; Material eta metodo pedagogikoen aukeraketa; Ulibarri/Euskaraz Bizi programen balorazioa; Kudeaketaren kalitate programak; Etorkin kopurua; Euskararekiko konpromisoa sorreran; Ikastetxearen bilakaera*.

Ikastetxearekin loturik ere, kategoria sailkapenik egin ezinik geratu zaizkigu, besteak beste, “erabilera bultzatzeko burututako ekintzak”, “erabakiak hartu eta aplikatzeko ikastetxe bakoitzaren antolakuntza”, “irakaslea eta kudeatzaileen lan-karga”, “ikastetxearen baloreak”, “etorkinekiko hartutako neurriak”, “etorkinen emaitzak eta beste ikasleekiko eragina” edota “etorkinekin hizkuntzaren gaian egindako lana” bezalako gaiak.

Hauetaz aparte, hiru multzo nagusietan (familiak, herria, ikastetxea) sailka ez daitezkeen beste zenbait gai ere aztertu gabe utzi ditugu jasotako informazioak ikastetxeen arteko alderaketa eta sailkapena ahalbidetzen ez zuelako: “irakasle, kudeatzaile eta ikasleen euskararekiko konpromisoa”z esandakoak, “ikasleen hizkuntza-ohiturak baldintzatzen dituzten faktore”ei buruzkoak eta “euskararen egoera orokorra”ri buruz aipatutakoak (orain arteko bilakaera eta etorkizunari buruzkoak).

8.1.2 Ikasleen euskara erabilera

Azterketan sartu ditugun gai hauetan ikastetxeek dituzten baldintzak, bakoitzean neurtu dugun ikasleen erabilerarekin loturarik ba ote duten ikustea zen Kasu Azterketa honen helburu nagusia. Horretarako, bost bide ezberdinetatik lortutako erabilera neurriak erabili ditugu:

Ikasleek aitortutako erabilera: Ikasleek, gelakideekin oro har duten erabilera galdetzean, jaso diren erantzunen batez bestekoa 0-100 eskalan.

Irakasleek aitortutako ikasleen erabilera: Irakasleek ikasleek euren artean duten erabilera galderari erantzundakoaren batez bestekoa 0-100 eskalan.

Gelan behatutako erabilera: Gelan taldeka ariketak egiten ari ziren bitartean elkarren artean erabiltzen zuten hizkuntza jasoaz egindako hainbat behaketaren batez bestekoa 0-100 eskalan.


Jolaslekuan behatutako erabilera: Jolaslekuan jolasean ari ziren bitartean elkarren artean erabiltzen zuten hizkuntza jasoaz egindako hainbat behaketaren batez bestekoa 0-100 eskalan.

Soziograma bidez neurtutako erabilera: Ikasle bakoitzari bere gelakide bakoitzarekin erabiltzen duen hizkuntza galdetzerakoan jasotako erantzunen taldeko batez bestekoa.

Ikastetxe bakoitza, erabilerari dagokionez, non kokatzen den elkarren osagarri diren hainbat bidetatik neurtuaz, elkarren artean alderatzeko aukera daukagu, erabilera neurtzeko metodo bakarraz fidatzeak emango ligukeen errore-marjina hobetuz. Jarraian dituzue, 8.1 grafikoan eta 8.3 taulan, zazpi ikastetxeetan aztertutako LMH6ko taldean bost erabilera-tako bakoitzean jasotako datuak, eta bakoitzaren batez bestekoa.

EUSKARAREN ERABILERA	A Ikastetxea	B Ikastetxea	C Ikastetxea	D Ikastetxea	E Ikastetxea	F Ikastetxea	G Ikastetxea
Ikasleen aitortua	32,81	51,39	93,75	11,76	75	20,65	13
Irakasleen aitortua	20,31	51,39	81,58	14,71	59,21	22,83	7
Gelan behatua	55,2	66,67	100	20,69	100	58,61	32,12
Jolaslekuan behatua	31,58	40,95	61,11	0	82,56	45,54	0
Soziograman aitortua	20,31	40,59	77,69	2,6	57,48	14,13	7,8
Erabileraren batez bestekoa	32,04	50,20	82,83	9,95	74,85	32,35	11,98

8.3 taula



8.1 grafikoa

8.2 Ondorioak: ikasleen baldintzak eta erabilera

8.2.1 Baldintzak eta erabilera: lotura badago

Lagineko kasuen baldintzak eta erabilera datuak gaineratik begiratzea nahikoa da aztertutako gaietan ikasleen euskarazko erabilerarako baldintza on edo positibo gehien dituzten ikastetxeek erabilera datu altuenak dauzkatela eta baldintza kaxkar edo negatibo gehien dituztenek erabilera baxua dutela konturatzeko. Zazpi kasuko lagin honetatik bitan, esaterako, ezin modu argiagoan ematen da lotura hau. Jarraian, beraz, 8.4 taulan, C eta D ikastetxeek kategorietan antolatutako hamabost gaietan non kokatzen diren alderatzen da eta taularen amaieran ikastetxe bakoitzeko LMH6ko ikasle horien⁵⁶ batez besteko erabilera azaltzen da.

Baldintzak eta erabilerak: C eta D ikastetxeak			C Ikastetxea	D Ikastetxea	
GURASOAK	Gurasoen euskararaen ezagutza	I	Oso baxua, baina hazten.		●
		II	Nahiko altua.		
		III	Gehiengo euskalduna	●	
	Gurasoen eta guraso-elkartearen partehartzea	I	Tradizio ez partehartzailea. Boterearen antolaketa piramidala. Gaur egunpartehartzea goraka (maila kontsultiboan).		●
		II	Guraso elkarte partehartzailea		
		III	Tradizio partehartzailea (kooperatibak eta kooperatiba izandakoak). Gaur egun partehartzea beheraka.	●	
HERRI EDO AUZOAREN ERREALITATE SOZIOLOGIKOA	Herriko errealitate soziolinguistikoa: ezagutza	I	Oso baxua		
		II	Baxua		●
		III	Ertaina		
		IV	Altua	●	
	Herriko errealitate soziolinguistikoa: erabilera	I	Oso baxua		●
		II	Baxua		
		III	Altua, baina lehen baino baxuagoa	●	
	Herriko errealitate soziolinguistikoa: atxikimendua, konnotazioak,...	I	Gehiengoak euskararekiko inplikaziorik ez		●
		II	Badago giro euskaltzalea		
		III	Gehiengo euskaltzalea	●	
	Euskara gaietan erreferentzialtasuna herrian	I	Auzo-ikastetxea		●
		II	Herriko bizitza kulturalari lotua	●	
		III	Herriko euskal erreferente nagusietakoa		
	Euskarazko eragileak herrian	I	Ez da aipatu euskarazko eragilerik dagoenik.		●
		II	Euskarazko eragileak daude (euskara elkarte, euskaltegi,...) baina ikastetxeak harremanik ez		
III		Euskarazko eragileak daude (euskara elkarte, euskaltegi,...) eta ikastetxea harremanetan.	●		

8.4 taula

⁵⁶ Kasu Azterketa honetan ikastetxeen ezaugarriak aztertu dira batetik, elkarriketen bidez. Bestetik, ikasleen erabilera datuak aztertutako 2005-2006ko ikerketari jarraipena eman zaio eta horretarako kasu bakoitzean LMH6ko gela edo talde baten datu guztiak bildu dira.

Baldintzak eta erabilerak: C eta D ikastetxeak			C Ikastetxea	D Ikastetxea	
IKASTETXEAREN BALDINTZAK	Funtzionamendu hizkuntza eta euskara batzordea	I	Funtzionamendua ez da euskaraz. Euskara batzordeak pisu gutxi ikastetxean		●
		II	Funtzionamendua euskaraz. Euskara batzordeak pisua du organigraman.	●	
	Gurasoekiko komunikazio irizpidea	I	Elebietan		●
		II	Elebietan; euskaldunekin euskaraz		
		III	Euskaraz; espresuki eskatzen duenarekin gazteleraz	●	●
	Material eta metodo pedagogikoen aukeraketa	I	Arazoak material egokia aurkitzeko. Aldaketak egin izan dituzte	●	●
		II	Arazoak material egokia aurkitzeko. Gai batzuk testulibururik gabe		
		III	Bertako irakasleek egindako testuliburuak		
	Ulibarri/Euskaraz Bizi programaren balorazioa	I	Programen balorazio positiboa. Gurasoengana gehiegitan jotzen da.		●
		II	Programaren balorazio positiboa. Arduradunarentzat lan karga handia		
		III	Programaren balorazio positiboa.		
		IV	Programaren balorazio positiboa. Bien arteko koordinazioa hobetu izana eskertu / Inplikazio oso handia	●	
	Kudeaketaren kalitate programak	I	Ez da kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko prozesurik aipatu		
		II	Kudeaketaren kalitatea bereziki lantzen ari dira (FQM sistema, Q, ...)	●	●
	Etorkin kopurua	I	Dexente (+ %10)		●
		II	Gutxi (%5-10)	●	
		III	Kasu solteren bat.		
	Euskararekiko konpromisoa sorreran	I	Sorreran euskararekiko konpromiso berezirik ez		●
		II	Euskara hezkuntza proiektuaren elementu zentral bezala hartuta sortua	●	
	Ikastetxearen bilakaera	I	Betidanik ikastetxe pribatu erlijiosoa		●
II		Betidanik ikastetxe publikoa			
III		Ikastola pribatu izatetik ikastola publiko izatera			
IV		Betidanik ikastola pribatua	●		
Erabilearen batez beztekoa euskaraz			% 82,83	% 9,95	

8.4 taula (jarripena)

C ikastetxearen kasuan, gurasoei, herriari eta ikastetxeari dagokionez, bertako ikasleek euskara erabiltzeko aztertu ditugunen artean baldintza onenak dituzte. Gurasoen kolektiboan euskararen ezagutza, erabilera, atxikimendua eta ikastetxeari dagozkion gauzetan parte hartzeko prestutasuna altuak dira. Herrian, gehiengoak euskaraz daki, erabiltzen du eta konprometitua dago, neurri batean edo bestean. Ikastetxeari dagokionez ere, euskara betidanik hezkuntza proiektuaren erdigunean egon izan da eta dago, gaur egun. Honela, ikastetxe honetan aztertutako gelako ikasleek %61 eta %100 arteko euskararen erabilera eman dute bost bide ezberdinetatik neurtutako datuetan (batez bestekoa: %82,83).

D ikastetxearen kasuak ere, aurrekoaren guztiz aurkakoa izan arren, aztertutako baldintzen eta erabileraren arteko lotura badagoela ziurtatu ahal izatea ahalbidetzen du. Ikastetxe honetako ikasleek familietan, auzoan eta ikastetxean bizi dituzten baldintzak erabilerarako negatiboak dira hein handi batean. Familien artean ezagutza eta erabilera oso baxuak dira. Horrez gain, ez da euskararekiko atxikimendua, konpromiso edo interes berezirik azaldu, euskara ikastetxea aukeratzeko irizpideen artean agertu da, baina bere balio instrumentalean oinarriturik, soilik⁵⁷.

Auzoari dagokionez, erdalduna da. Erabilera eta ezagutza baxuak dira eta bizilagunen egunerokotasunean euskararen presentzia ezak ez du beharrezkotasunik helarazten. Azkenik, ikastetxearen eremuan ere euskararen erabilerarako baldintzak maila kaxkarretan kokatzen dira. 8.4 taulan azaldutako gaietan sailkatu ez bada ere, aztertutako ikasleek B ereduan ikasten dute. Bestalde, berriak dira normalkuntzaren gaiaren lanketan, ikastetxearen barne funtzionamendua gazteleraz ematen da, euskara batzordeak ez du pisurik organigraman eta euskara inoiz ez da izan zuzendaritzaren lehentasunetako bat. Familiako, auzoko eta ikastetxeko baldintza hauek bizi dituzten ikasleek ez dute ia euskararik erabiltzen, erabileraren bost datuek adierazten duten bezala (%21, %15, %12, %3 eta %0; batez bestekoa %9,95).

8.2.2 Baldintzetatik erabilerara formularik ez, baina...

Aipatutako bi kasuetan argi ikusten den bezala, ikasleen giroan ematen diren baldintzek harremana dute hizkuntzaren erabilerarekin. Hala eta guztiz ere, ez da ondorioztatu behar antzeko baldintzetan bizi diren ikasleek antzeko erabilerarik izango dutenik. Hemen aztertu den informazioarekin ez da posible erabilera baldintzen bidez aurrerako aukera ematen digun formula zehatz batera heltzea. Horren adibide bezala, kasu azterketako bi ikastetxe bikote ditugu. Aztertutako baldintzetan antzekotasunak agertzen dituzten arren, erabilerari dagokionez elkarrengandik urrun aurkitzen dira.

Bi ikastetxe bikote hauek E eta F ikastetxeak dira, batetik (jarraian 8.5 taulan konparatzen direnak), eta B eta G ikastetxeak bestetik. Bigarren hauen konparaketa 8.6 taulan deskribatzen da (zazpigarren ikastetxearen ezaugarriak ere –A ikastetxea– azken taula honetan bildu ditugu).

⁵⁷ "Ez zaie interesatzen kultura aldetik euskara. Interes apur bat badute, titulazio ofizialetan da; seme-alaba ongi prestatua egon behar dela,... baina indar gehiegirik gabe".

Baldintzak eta erabilerak: E eta F ikastetxeak			E Ikastetxea	F Ikastetxea	
GURASOAK	Gurasoen euskararaen ezagutza	I	Oso baxua, baina hazten.	●	●
		II	Nahiko altua.		
		III	Gehiengo euskalduna		
	Gurasoen eta guraso-elkartearen partehartzea	I	Tradizio ez partehartzailea. Boterearen antolaketa piramidala. Gaur egun partehartzea goraka (maila kontsultiboan).	●	●
		II	Guraso elkarte partehartzailea		
		III	Tradizio partehartzailea (kooperatibak eta kooperatiba izandakoak). Gaur egun partehartzea beheraka.		
HERRI EDO AUZOAREN ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOA	Herriko errealitate soziolinguistikoa: ezagutza	I	Oso baxua	●	●
		II	Baxua		
		III	Ertaina		
		IV	Altua		
	Herriko errealitate soziolinguistikoa: erabilera	I	Oso baxua	●	●
		II	Baxua		
		III	Altua, baina lehen baino baxuagoa		
	Herriko errealitate soziolinguistikoa: atxikimendua, konnotazioak,...	I	Gehiengoak euskararekiko inplikaziorik ez		
		II	Badago giro euskaltzalea	●	●
		III	Gehiengo euskaltzalea		
	Euskara gaietan erreferentzialtasuna herrian	I	Auzo-ikastetxea		
		II	Herriko bizitza kulturalari lotua		
		III	Herriko euskal erreferente nagusietakoa	●	●
	Euskalgintzako eragileak herrian	I	Ez da aipatu euskalgintzako eragilerik dagoenik.		
		II	Euskalgintzako eragileak daude (euskara elkarte, euskaltegi,...) baina ikastetxeak harremanik ez		
III		Euskalgintzako eragileak daude (euskara elkarte, euskaltegi,...) eta ikastetxea harremanetan.	●	●	

8.5 taula

Baldintzak eta erabilerak: E eta F ikastetxeak			E Ikastetxea	F Ikastetxea	
IKASTETXEAREN BALDINTZAK	Funtzionamendu hizkuntza eta euskara batzordea	I	Funtzionamendua ez da euskaraz. Euskara batzordeak pisu gutxi ikastetxean		
		II	Funtzionamendua euskaraz. Euskara batzordeak pisua du organigraman.	●	●
	Gurasoekiko komunikazio irizpidea	I	Elebietan		
		II	Elebietan; euskaldunekin euskaraz		
		III	Euskaraz; espresuki eskatzen duenarekin gazteleraz	●	●
	Material eta metodo pedagogikoen aukeraketa	I	Arazoak material egokia aurkitzeko. Aldaketak egin izan dituzte		●
		II	Arazoak material egokia aurkitzeko. Gai batzuk testulibururik gabe	●	
		III	Bertako irakasleek egindako testuliburuak		
	Ulibarri/Euskaraz Bizi programaren balorazioa	I	Programen balorazio positiboa. Gurasoengana gehiegitan jotzen da.		
		II	Programaren balorazio positiboa. Arduradunarentzat lan karga handia		
		III	Programaren balorazio positiboa.		
		IV	Programaren balorazio positiboa. Bien arteko koordinazioa hobetu izana eskertu / Inplikazio oso handia	●	●
	Kudeaketaren kalitate programak	I	Ez da kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko prozesurik aipatu	●	
		II	Kudeaketaren kalitatea bereziki lantzen ari dira (FQM sistema, Q,...)		●
	Etorkin kopurua	I	Dexente (+ %10)		
		II	Gutxi (%5-10)		
		III	Kasu solteren bat.	●	●
	Euskararekiko konpromisoa sorreran	I	Sorreran euskararekiko konpromiso berezirik ez		
		II	Euskara hezkuntza proiektuaren elementu zentral bezala hartuta sortua	●	●
	Ikastetxearen bilakaera	I	Betidanik ikastetxe pribatu erlijiosoa		
II		Betidanik ikastetxe publikoa			
III		Ikastola pribatu izatetik ikastola publiko izatera	●		
IV		Betidanik ikastola pribatua		●	
Erabilearen batez beztekoa euskaraz			% 74,85	% 32,35	

8.5 taula (jarripena)

E eta F ikastetxeak ingurune soziolinguistiko erdaldunetan kokatuta daude (ezagutza eta erabilera oso baxua duten herriak). Baina era berean, bi ikastetxeek antzeko filosofia jarraitzen dutela esan liteke, euskarari dagokionean, gutxienez. Bi kasuetan berebiziko garrantzia ematen zaio eta asko inplikatzeko dira gaiarekin lotutako edozertan. Ikasleen familiei dagokienez, ikastetxearekin lotutako ekintzetan parte hartzeko ohitura daukaten kolektiboak dira bi kasuetan, ikastetxearen proiektuarekin konpromisoa azaldu eta laguntzeko prest egoten den jendea da. Ezaugarri hauei dagokienez, bi ikastetxeetan antzeko egoera dagoela esan liteke.

Euskararen erabileran, berriz, E ikastetxeak F-k baino askoz datu altuagoak ditu (neurtutako bost erabileratan 34 eta 43 puntu bitarteko aldeak, eta batez bestekoak, berriz, %74,85 batean eta %32,35 bestean). Aztertu ditugun gaietan antzeko baldintzak izateak ez duela derrigorrez antzeko erabilera izatea ekartzen ikusten dugu, beraz. Izan ere, aztertutako gaietan jasotzen diren baldintzetan bi kasuak desberdintzen dituen kontu bakarra bi ikastetxeetako gurasoen kolektiboak ezagutza baxuaren parametroetan kokatu arren E ikastetxeetako euskaldunagoak direla da⁵⁸.

Aurreko kasuan bezala, ondoren 8.6 taulan deskribatzen den B eta G ikastetxeen kasuen alderaketan ere ikus dezakegu hainbat gaitan ikasleek antzeko baldintzak izan arren, erabileran desberdintasunak agertzen direla. Gorago aipatu bezala, A ikastetxearen ezaugarriak ere taula berean bildu ditugu.

⁵⁸ 8.5 taulan "Gurasoen euskararen ezagutza" gaian bi ikastetxeak kategorian berean badaude ere, hemen jaso ez diren datu zehatzetan ikus daiteke alde txiki hori.

Baldintzak eta erabilerak: B,G eta A ikastetxeak			B Ikas.	G Ikas.	A Ikas.	
GURASOAK	Gurasoen euskararaen ezagutza	I	Oso baxua, baina hazten.			●
		II	Nahiko altua.	●	●	
		III	Gehiengo euskalduna			
	Gurasoen eta guraso-elkartearen partehartzea	I	Tradizio ez partehartzailea. Boterearen antolaketa piramidala. Gaur egun partehartzea goraka (maila kontsultiboan).		●	
		II	Guraso elkarte partehartzailea			●
		III	Tradizio partehartzailea (kooperatibak eta kooperatiba izandakoak). Gaur egun partehartzea beheraka.	●		
HERRI EDO AUZOAREN ERREALITATE SOZIOINGUISTIKOA	Herriko errealitate soziolinguistikoa: ezagutza	I	Oso baxua			●
		II	Baxua			
		III	Ertaina	●	●	
		IV	Altua			
	Herriko errealitate soziolinguistikoa: erabilera	I	Oso baxua			●
		II	Baxua	●	●	
		III	Altua, baina lehen baino baxuagoa			
	Herriko errealitate soziolinguistikoa: atxikimendua, konnotazioak,...	I	Gehiengoak euskararekiko inplikaziorik ez			●
		II	Badago giro euskaltzalea	●	●	
		III	Gehiengo euskaltzalea			
	Euskara gaietan erreferentzialtasuna herrian	I	Auzo-ikastetxea			●
		II	Herriko bizitza kulturalari lotua		●	
		III	Herriko euskal erreferente nagusietakoa	●		
	Euskalgintzako eragileak herrian	I	Ez da aipatu euskalgintzako eragilerik dagoenik.			●
		II	Euskalgintzako eragileak daude (euskara elkarte, euskaltegi,...) baina ikastetxeak harremanik ez		●	
III		Euskalgintzako eragileak daude (euskara elkarte, euskaltegi,...) eta ikastetxea harremanetan.	●			

8.6 taula

Baldintzak eta erabilerak: B,G eta A ikastetxeak			B lkas.	G lkas.	A lkas.	
IKASTETXEAREN BALDINTZAK	Funtzionamendu hizkuntza eta euskara batzordea	I	Funtzionamendua ez da euskaraz. Euskara batzordeak pisu gutxi ikastetxean			
		II	Funtzionamendua euskaraz. Euskara batzordeak pisua du organigraman.	●	●	●
	Gurasoekiko komunikazio irizpidea	I	Elebietan		●	
		II	Elebietan; euskaldunekin euskaraz	●		●
		III	Euskaraz; espresuki eskatzen duenarekin gazteleraz			
	Material eta metodo pedagogikoen aukeraketa	I	Arazoak material egokia aurkitzeko. Aldaketak egin izan dituzte	●		●
		II	Arazoak material egokia aurkitzeko. Gai batzuk testulibururik gabe			
		III	Bertako irakasleek egindako testuliburuak	●		
	Ulibarri/Euskaraz Bizi programaren balorazioa	I	Programen balorazio positiboa. Gurasoengana gehiegitan jotzen da.			
		II	Programaren balorazio positiboa. Arduradunarentzat lan karga handia	●		●
		III	Programaren balorazio positiboa.		●	
		IV	Programaren balorazio positiboa. Bien arteko koordinazioa hobetu izana eskertu / Inplikazio oso handia			
	Kudeaketaren kalitate programak	I	Ez da kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko prozesurik aipatu	●		●
		II	Kudeaketaren kalitatea bereziki lantzen ari dira (FQM sistema, Q,...)		●	
	Etorrin kopurua	I	Dexente (+ %10)			
		II	Gutxi (%5-10)	●		
		III	Kasu solteren bat.		●	●
	Euskararekiko konpromisoa sorreran	I	Sorreran euskararekiko konpromiso berezirik ez		●	●
		II	Euskara hezkuntza proiektuaren elementu zentral bezala hartuta sortua	●		
	Ikastetxearen bilakaera	I	Betidanik ikastetxe pribatu erlijiosoa		●	
II		Betidanik ikastetxe publikoa			●	
III		Ikastola pribatu izatetik ikastola publiko izatera	●			
IV		Betidanik ikastola pribatua				
Erabilearen batez beztekoa euskaraz			%50,2	%12,0	%32,0	

8.6 taula (jarripena)

Bai B eta bai G kasuetan gurasoen kolektiboa hizkuntzari dagokionez antzekoa da: ezagutza nahiko altua eta erabilera baxua. Herrietan ere ezagutza ertaina (B-ren kasuan %32,4 eta G-renean %45,3) eta erabilera baxua aurki daiteke bi kasuetan. Ikastetxeei dagokienez, bietan parte hartzen da euskararen normalkuntzaren aldeko programa eta ekintzetan. Baina lehen begiradan antzekoak diruditen baldintza hauen artean, alde garrantzitsu bat dagoela ikus liteke ikastetxeetako giroan gehiago sakonduz gero. Bi ikastetxeetan euskararen aldeko apustua egiten den arren, B ikastetxean apustu hori ikastetxearen proiektuaren erdigunean kokatzen da eta honela izan da bere sorreratik gaur egun arte. Horren ondorioz, ikastetxeko langile guztiak eta gurasoak normalkuntzaren helburuari begira inplikatzeko etengabe bultzatzen den zerbait da. Horrez gain, herriari begira euskararen inguruko ekimenetan parte hartze aktiboa du ikastetxeak eta bertako jendeak. G ikastetxean, euskararen aldeko apustuak garrantzia izan arren, ikastetxearen beste apustu batzuen artean (Teknologia berriak, hezkuntza berritzailea,...) “bat gehiago” dela interpreta daiteke bertan jasotako informaziotik. Honi lotuta, ikastetxeak gurasoen inplikazioa eta herrian euskara gaietan duen erreferentzialtasunari begira desberdindu egiten dira. Horregatik guztiagatik, bi ikastetxeetako baldintza ezberdin horiek laguntzen dute ulertzen erabileran dagoen aldea hain handia izatea: B ikastetxean %40-67 bitartekoa (batez bestekoa %50,2), eta G ikastetxean %0-%32 (batez bestekoa %12,0). Hortaz, B ikastetxeko ikasleek nabarmen gehiago erabiltzen dute euskara, familiei eta herriei dagozkien baldintzetan antzekotasun argiak dituzten arren. Erabilera datuok alderatzean, dena den, kontuan hartu behar dugu ere tauletako gaietan jaso ez arren, B ikastetxean aztertutako taldeko ikasleek D ereduari ikasten dutela, eta G ikastetxekoek berriz, B ereduari.

Orokorrean, dena den, horrela laburtu dezakegu alderaketa: baldintzetatik erabilerara formula zehatzik ez dago, baina eragileren baten ahaleginak –B kasuan, ikastetxearena– neurri handian konpentsatzen du, antza, beste baldintza soziolinguistikoen ahulezia.

8.2.3 Baldintzapenak gainditu daitezke

Aurreko kasuen arteko alderaketak neurri batean agertzen duen bezala, ikasleek bizi dituzten baldintzak eta neurtu zaien erabileraren arteko lotura badagoen arren ez du zehaztasunez aurrerako aukerarik ematen. Honek esan nahi du posible dela aztertutako baldintza horietan ezberdintasun –ustez– txikiek erabileran ezberdintasun handiak eragitea eta, alderantziz, zeharo desberdinak diren baldintzetan bi kasutan antzeko erabilera ematea.

A ikastetxearen kasuan ikusenezake berez euskararen erabilerarako baldintza kaxkar edo oso kaxkarretan, erabilera ez dela beste kasu batzuetan bezain baxua (%31-%55, batez bestekoa %32,0; ikus 8.6 taula). Ikastetxe honen gurasoen kolektiboa guztiz erdalduna da eta ez du konpromiso berezirik azaltzen euskararekiko (beste kasu batzuekin alderatuta, behintzat, oso txikia), gai honen lanketan guztiz delegatzen dute ikastetxearengan. Horrez gain, ikastetxearen herrian eta auzoan ematen diren baldintzak ere ez dira erabilera altua emateko idealak: ezagutza eta erabilera oso baxuak dira eta euska-

rak egunerokotasunean duen presentzia eskasak ez du errazten ikasleek beharrezkotasuna sentitzea. Ikastetxeari dagokionez, zuzendaritzatik eta irakasleen kolektibotik normalkuntzaren helburua apustu sendoa bezala ikusten dute. Euren errealitatea eta dituen mugak zeintzuk diren jakinik, pixkanaka baina etengabe pausoak emanez ari dira lanean urtetan. Ikastetxearen sorreratik gaur egun arte, euskararen gaiari dagokionez behintzat, garapena suma daiteke. Erabileran ematen dituzten emaitzak ez dira oso altuak, baina ikastetxeak gurasoak eta ikasleak euskararen gaiari interesatzeko egiten duen ahalegina ikasleen hizkuntza-erabileran islatzen dela dirudi, baldintza hobeko erabilera baxuagoak eman dituzten beste kasuei begiratuta (F eta G ikastetxeak). Poliki bada ere aurrera doazela.

A ikastetxearen kasua berrestera dator B eta G ikastetxeen analisi konparatutik ateratzen genuen ondorioa: eragileren baten ahaleginak neurri handian konpentsa dezake beste baldintza soziolinguistikoen ahulezia. Izan ere, ingurune baldintza eskasetatik abiatuta bada ere, hain da altua A ikastetxean lortzen den erabilera, non batez besteko erabilera (%32,04) ia iristen den F ikastetxeak duenaren (%32,35) parekoa izatera, azken honek familia- eta herri-baldintza batzuk hobekoak dituen arren.

8 atala, LABURPENA

2005-2006 ikasturtean ARRUE programan eginiko ikasleen erabileraren eta aldagaien azterketa kuantitatiboaren osagarri, 2006/2007 ikasturtean Kasu Azterketa egin da EAEko zazpi ikastetxeetan. Ikastetxeotan, aurreko ikasturteko datuak jasotzeaz gain, ikastetxearen funtzionamendua, helburuak eta bestelako ezaugarriak aztertu dira bertako eragileei egindako elkarrizketa bidez.

Atal honetan azterketa hori egiteko modua laburtzen da, eta modu kualitatiboan aztertutako ezaugarriok aztertutako ikasleen erabilerarekin nolako loturak dituen azaltzen da. Hiru dira ondorio nagusiak:

- ⇒ Ikasleak bere ingurunean (Familian, herrian eta ikastetxean) bizi dituen baldintza eta erabileraren artean lotura garbia dagoela.
- ⇒ Kasuen aniztasuna berresten da. Kategorizazio eta estandarizazio guztien gainetik ikastetxe, herri eta familia multzo bakoitzaren giroa osatzen duten xehetasunek erabilerarekin hainbat lotura dituzte, eta ondorioz ezinezkoa da oinarritzko "kanpo" ezaugarri batzuen arabera ikasleen jolaslekuko erabilera auresatea (gutxieneko ziurtasun maila batekin).
- ⇒ Ikastetxearen lana eta giroa, neurri batean, familia eta herriaren baldintzapen soziolinguistiko orokorrak gainditzeko gai da ikasleen eskola giroko erabilerari dagokionez.

9. Eranskinak

9. I. Eranskina: aldagai guztien informazio zehatza

I. ERANSKINA: azterketan erabilitako aldagaiei buruzko informazioa. Bai 25 adierazleei eta bai *aldagai* guztiei buruzko informazio osoa (zein galdetegitak jaso den bakoitza, zein galdera egin den informazioa biltzeko, zenbat eta zein kategoriatan erabili ziren...).

	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiko galdera / *Azalpena	Adi mota	Galdegeia	Kategoriak / Balio tartea
26	Hiztun tipologia	Euskalduntze B (221)	*Elebidun mota adierazten du. Ikasleak euskara eta gaztelania noiz ikasi zituen konbinatuz eratu da (gurasoek aitortua)	ORD	/	Jatorrizko erdaldun elebakarrak B = 1, jatorrizko erdaldun elebidun berantiarrak B = 2, jatorrizko erdaldun elebidun goiztiarrak B = 3, jatorrizko aldebereko elebidunak B = 4, jatorrizko euskaldun elebidun goiztiarrak B = 5, jatorrizko euskaldun elebidun berantiarrak B = 6
27	Lehen hizkuntza (gurasoek aitortua)	Ikaslearen lehen hizkuntza (guraso) - birkofidikatua (85)	Zein izan da (edo izan dira) zuen seme-alabaren "lehen hizkuntza" edo "ama hizkuntza"?	ORD	E	Gaztelania = 1, Euskara eta gaztelania = 2, Euskara = 3
28	Imagina ezazu ez dakizula hizkuntzarik. Zein hitz egitea gustatuko?	Imagina ezazu ez dakizula hizkuntzarik. Zein hitz egitea gustatuko? (29)	Imagina ezazu ez dakizula hizkuntzarik eta gaur egun bizi zaren tokian bizi zarela. Zeintzuk dira hitz egitea gustatuko litzazukeen hizkuntzak? (ordena itzazu)	ORD	A	Gaztelania aipatzen du eta euskara ez = 1, Ez ditu ez euskara eta gaztelania aipatzen = 2, Euskara eta gaztelania aipatzen ditu, gaztelania lehenago = 3, Euskara eta gaztelania aipatzen ditu, euskara lehenago = 4, Euskara aipatzen du eta gaztelania ez = 5
29	Errastasan erlatiboa ulertzeko (ikasleak aitortua)	Zein hizkuntzetan du errastasan gehiago - Ulertzeko (23)	Orokorrean zein hizkuntzetan duzu erreztasan handiagoa? [ulertzeko]	ORD	A	Gaztelaniaz errazago = 1, Bietan berdintsu = 2, Euskaraz errazago = 3
30	Errastasan erlatiboa hitz egiteko (ikasleak aitortua)	Zein hizkuntzetan du errastasan gehiago - hitz egiteko (24)	Orokorrean zein hizkuntzetan duzu erreztasan handiagoa? [hitz egiteko]	ORD	A	Gaztelaniaz errazago = 1, Bietan berdintsu = 2, Euskaraz errazago = 3
31	Errastasan erlatiboa irakurtzeko (ikasleak aitortua)	Zein hizkuntzetan du errastasan gehiago - Irakurtzeko (25)	Orokorrean zein hizkuntzetan duzu erreztasan handiagoa? [irakurtzeko]	ORD	A	Gaztelaniaz errazago = 1, Bietan berdintsu = 2, Euskaraz errazago = 3
32	Errastasan erlatiboa idazteko (ikasleak aitortua)	Zein hizkuntzetan du errastasan gehiago - Idazteko (26)	Orokorrean zein hizkuntzetan duzu erreztasan handiagoa? [idazteko]	ORD	A	Gaztelaniaz errazago = 1, Bietan berdintsu = 2, Euskaraz errazago = 3
33	Atari probako puntuazioa (irakasle)	Atari proban ongi erantzundako galdera kopurua (139)	*Atari proban ateratako emaitza	JAR	/	BALIO TARTEA: 0-40
34	Idazlaneko puntuazioa (irakasle)	Idazlaneko puntuazioa (irakasle) (140)	*Irakasleak idazlanaren probari jarritako emaitza	JAR	/	BALIO TARTEA: 0-80
35	Ikaslearen eskola errendimendu orokorra	Ikaslearen eskola errendimendu orokorra (138)	Taldeko ikasleen datuak: [eskola errendimendua (ebaluatu, etik 100era ikasle bakoitzaren eskola errendimendua)]	JAR	D	BALIO TARTEA: 1-10 (1- Errendimendu kaxkarra. 10- Errendimendu bikaina)



zb	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiko galdera / *Azalpena	Ald. mota	Galdetegia	Kategoriak / Balio tartearak
36	Mintzagrama - ikasleak jasotako aipamenak euskaraz	Mintzagrama - Taldeko aipamen kopurua euskaraz (21)	*Ikaslearekin beti edo ia beti euskaraz egiten dutela esan duten ikaskideen kopurua	JAR	A	
37	Mintzagrama - ikasleak jasotako aipamenak gaztelaniaz	Mintzagrama - Taldeko aipamen kopurua gaztelaniaz (22)	*Ikaslearekin beti edo ia beti gaztelaniaz egiten dutela esan duten ikaskide kopurua	JAR	A	
38	Ikaslearen erabilera behatua gela barruan	GELA 1 - Ikaslearen elkarrizketen euzkaraz, %-a (154)	*Gela barruan ikasleari behatutako euskarazko elkarrizketen proportzioa, gelan ikasleari behatutako elkarrizketa guztien kopuruarekiko	JAR	/	
39	Artistak eta kirolariak deskribatzeko erabilitako hizkuntza	Artistak eta kirolariak deskribatzeko erabilitako hizkuntza (102)	*Artista kirolarien deskribapenak zein hizkuntzetan idatzi dituen	ORD	B	Deskribapen guztiak/gehienak gaztelaniaz = 1, Deskribapen guztiak/gehienak euskaraz = 2
40	Erabilera etxean. Mahian	Etxeoak denak mahaian. Zein hizkuntza erabili? (30)	Etxeoak denak batera nahian zaudetenean, zein hizkuntzetan hitz egiten duzue?	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
41	Erabilera amarekin	Nola hitz egin amarekin normalean (33)	Normalean, zein hizkuntzetan hitz egiten duzu amarekin?	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
42	Erabilera aitarekin	Nola hitz egin aitarekin normalean (35)	Normalean, zein hizkuntzetan hitz egiten duzu aitarekin?	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
43	Guraso arteko erabilera	Gurasoek nola hitz egin beraien artean (36)	Eta gurasoek, berain artean, zein hizkuntzetan hitz egiten dute?	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
44	Ikaslearen gurasoen gaitasuna	GURASOEN gaitasuna (220)	*Aitaren eta amaren gaitasunak konbinatuz eratutako aldagaia (gurasoek aitortua)	ORD	E	Guraso erdaldunak = 1, Guraso mixtoak = 2, Guraso euskaldunak = 3

zb	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiko galdera / *Azalpena	Ald. mota	Galdegeia	Kategoriak / Balio tartea
45	Amaren gaitasuna - ulertzeko (gurasoek aitortua)	Nola moldatu ama - ulertzeko (guraso) (90)	Nola moldatzen zara euskaraz ulertzeko, mintzatzeko, idazteko eta irakurtzeko? [ama/ ulertzeko]	ORD	E	Gaizki = 1, Nekez, kosta egiten zaio = 2, Ondo = 3
46	Aitaren gaitasuna - ulertzeko (gurasoek aitortua)	Nola moldatu aita - ulertzeko (guraso) (94)	Nola moldatzen zara euskaraz ulertzeko, mintzatzeko, idazteko eta irakurtzeko? [aita/ ulertzeko]	ORD	E	Gaizki = 1, Nekez, kosta egiten zaio = 2, Ondo = 3
47	Aitaren gaitasuna - idazteko (gurasoek aitortua)	Nola moldatu aita - idazteko (guraso) (96)	Nola moldatzen zara euskaraz ulertzeko, mintzatzeko, idazteko eta irakurtzeko? [aita/ idazteko]	ORD	E	Gaizki = 1, Nekez, kosta egiten zaio = 2, Ondo = 3
48	Aitaren gaitasuna - irakurtzeko (gurasoek aitortua)	Nola moldatu aita - irakurtzeko (guraso) (97)	Nola moldatzen zara euskaraz ulertzeko, mintzatzeko, idazteko eta irakurtzeko? [aita/ irakurtzeko]	ORD	E	Gaizki = 1, Nekez, kosta egiten zaio = 2, Ondo = 3
49	Amaren gaitasuna - idazteko (gurasoek aitortua)	Nola moldatu ama - idazteko (guraso) (92)	Nola moldatzen zara euskaraz ulertzeko, mintzatzeko, idazteko eta irakurtzeko? [ama/ idazteko]	ORD	E	Gaizki = 1, Nekez, kosta egiten zaio = 2, Ondo = 3
50	Amaren gaitasuna - irakurtzeko (gurasoek aitortua)	Nola moldatu aita - irakurtzeko (guraso) (93)	Nola moldatzen zara euskaraz ulertzeko, mintzatzeko, idazteko eta irakurtzeko? [ama/ irakurtzeko]	ORD	E	Gaizki = 1, Nekez, kosta egiten zaio = 2, Ondo = 3
51	Erabilera anai-arrebekin	Nola hitz egin anai - arrebekin normalean (39)	Normalean, zein hizkuntza erabiltzen duzu anai-arrebekin?	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
52	Herriko lagun ezagutza	Herriko lagun - taldean zenbatek daki euskaraz? (43)	Zenbatek daki euskaraz zure herriko lagun-taldean?	ORD	A	Inork ere ez = 1; Gutxienean = 2; Erdiek edo = 3; Gehienek = 4; Denek = 5
53	Erabilera herriko lagunekin	Zein hizkuntzetan lagunekin (44)	Normalean, zein hizkuntzetan hitz egiten duzu...? [auzoko lagunekin]	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
54	Herriko lagun arteko erabilera	Herriko lagunek beraien artean nola hitz egin (56)	Eta pertsona hauek berain artean zein hizkuntzetan egiten dute? [herriko lagun taldeko gehienek beraien artean]	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
55	Taldearen erabilera behatua jolaslekuan	Jolaslekuko taldeko elkarrizketen euskaraz %a (166)	*Jolaslekuan taldeari behatutako euskarazko elkarrizketen proportzioa elkarrizketa guztien kopuruarekiko	JAR	/	

zb	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiko galdera / *Azalpena	Ald. mota	Galdegeza	Kategoriak / Balio tartearak
56	Ikaskideen arteko erabilera	Ikaskideek beraien artean nola hitz egin (55)	Eta pertsona hauek beraien artean zein hizkuntzata egiten dute? (ikaskide gehienek beraien artean)	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
57	Taldearen erabilera behatua gela barruan	Gelako taldeko elkarrizketen euzkaraz %-a (152)	*Gela barruan taldeari behatutako euzkarazko elkarrizketen proportzioa elkarrizketa guztien kopuruarekiko	JAR	/	
58	Ikastetxeko errotulazioa	Ikastetxeko errotulazioa zein hizkuntzetan (124)	Ikastetxeko errotulazio nagusia zein hizkuntzetan dago?	ORD	D	Gaztelania hutsean = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Euskara hutsean = 5
59	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa	Euzkaraz badakiten irakasleen proportzioa (128)	Irakasle euskaldunen proportzioa irakasle kopuru osoarekiko (69, aldagaiaren berdina da)	JAR	D	
60	Irakasleen arteko erabilera (ikasleak aitortua)	Irakasleek beraien artean nola hitz egin (54)	Eta pertsona hauek beraien artean zein hizkuntzatan egiten dute? [zure irakasleak beste irakaslekin] (70. aldagaiaren berdina da)	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
61	Erabilera irakasleekin	Zein hizkuntzetan irakasleekin (46)	Normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu...? [irakasle gehienekin (gaztelaniakoa eta ingeleseko kenduta)]	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdin = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
62	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak	Erabilera lantzeko plangintza zehatzik (134)	(...) ondoko egoera hauetako zeinekin identifikatzen duzu gehien zuen ikastetxea gaur egun? (ikasleen euskararen erabilera)	KUA	D	Ez da momentuz planteatu = 1, Planteatzeko asmoa = 2, Plangintza zehatza aplikatzen = 3
63	Ikastetxean erabilera bultzatzeko kanpainak edo ekintzak	Erabilera bultzatzeko kanpaina edo ekintzarik (131)	Ikasturte honetan (05-06) edo aurrekoan (04-05) zehar, ikastetxean egin al duzueikasleen euzkarazko erabilera bultzatzeko nolabaiteko kanpainarikedo ekintzarik? Baiezkotan nolakoa(k)	KUA	D	Ez = 1, Bai; baina nolakoa erantzun gabe = 2, Bai; ekintza bakarra = 3, Bai; ekintza bat baino gehiago = 4

zb	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiko galdera / *Azalpena	Ala mota	Galdetegia	Kategoriak / Balio tartea
64	Ikastetxean erabilera lantzeko plangintzak	Ahokotasuna lantzeko plangintza zehatzik (133)	(...)jondoko egoera hautetako zeinekin identifikatzen duzu gehien zuen ikastetxea gaur egun? [ahokotasuna:]	KUA	D	Ez da momentuz planteatu = 1, Planteatzeko asmoa = 2, Plangintza zehatza, aplikatzen = 3
65	Erabilera aisialdian batez beste	Erabilera aisialdian (batezbestekoa) I etik (gaz) 5era (eus) (53)	*Aisialdiko 6 jardueretako erabileraren batezbestekoa (kirola, udalekuak, klase partikularrak,...) (ikasleak aitortua, ikus A galdetegia)	JAR	/	BALIO TARTEA: 1-5. (1-Beti gaztelera, 5-Beti euskaraz.)
66	Interneten nabigatzeko hizkuntza (ikasleak aitortua)	Interneten, nola egoten dira ikusten dituzun orriak (79)	Ordenagailuan ari zarenean, eta interneten sartzen bazara, nola egoten dira idatziak ikusten dituzun orri gehienak	KUA	A	Ingelesean (edo atzerriko beste hizkuntza batean) = 1, Gaztelaniaz = 2, Euskaraz = 3
67	Telebista - musika - Irratia kontsumoa	Telebista - Musika - Irratia laburpen indizea (78)	Telebista, irrati eta musika indizeen batura	JAR	/	BALIO TARTEA: 3-6. (3- TB Programa, musikari eta Irratsaio guztiak erdarazkoak. 6- TB Programa, musikari eta Irratsaio guztiak euskarazkoak)
68	Ikaslearen herriko euskalduntasuna	Herriko euskaldunen proportzioa (Euskat, 2001)	*Herriko euskaldunen proportzioa biztanleria osoarekiko, EUSTATEk 2001ean kaleratutako datuen arabera	JAR	/	
69	Ikastetxeko irakasle euskaldunen proportzioa	Euskaraz badakiten irakasleen proportzioa [1- (irak ez daki/irak)]	Irakasle euskaldunen proportzioa irakasle kopuru osoarekiko (59. aldagaiaren berdina da)	JAR	D	
70	Irakasleen arteko erabilera (ikasleak aitortua)	Irakasleek beraien artea nola hitz egin	Eta pertsona hauek beraien artean zein hizkuntzatan egiten dute? [zure irakasleak beste irakasleekin] (60. aldagaiaren berdina da)	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdina = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
71	Ikasteredua	Ikasteredua		ORD	A	A eredua = 1, B eredua = 2, D eredua = 3
72	Ikasle kanpotarra edo bertakoa	Beti herri horretan bizituen, edo aurretik non	Beti bizitu izan zara bertan? Lehenago non?	KUA	A	Bai = 1, Gaztelania hitz egiten den atzerriko herri batean = 2, Gaztelania hitz egiten ez den atzerriko herri batean = 3, Espainian edo Euskal herriko ingurune soziolinguistikoko erdalunago batean = 4, Soziolinguistikoki askoz erdalunagoa ez den beste herri batean (EAEn) = 5



zb	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiko galdera / *Azalpena	Ald. mota	Galdetegia	Kategoriak / Balio tartekak
73	Amaren jaioterria	Non jaio zen ama	Non jaio ziren? [ama]	KUA	A	Gaztelania hitz egiten den atzerriko herri batean = 1, Gaztelania hitz egiten ez den atzerriko herri batean = 2, Espainian = 3, Euskal Herriko beste lurralde batean (Naf, Ip) = 4, Araban = 5, Bizkaian = 6, Gipuzkoan = 7
74	Aitaren jaioterria	Non jaio zen Aita	Non jaio ziren? [aita]	KUA	A	Gaztelania hitz egiten den atzerriko herri batean = 1, Gaztelania hitz egiten ez den atzerriko herri batean = 2, Espainian = 3, Euskal Herriko beste lurralde batean (Naf, Ip) = 4, Araban = 5, Bizkaian = 6, Gipuzkoan = 7
75	Zein hizkuntza doakio hobeto - Familia	Familia 2 - Zein hizkuntza doakio hobeto (188)	Zure uztez zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? [6.irudia]	ORD	C	Gaztelania edo ingelesa hobeto = 1, Edozein hizkuntza berdina = 2, Euskara hobeto = 3
76	Zein hizkuntza doakio hobeto - Semea	Semea2 - Zein hizkuntza doakio hobeto (187)	Zure uztez zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? [5.irudia]	ORD	C	Gaztelania edo ingelesa hobeto = 1, Edozein hizkuntza berdina = 2, Euskara hobeto = 3
77	Zein hizkuntza doakio hobeto - Agureak	Agureak 2 - Zein hizkuntza doakio hobeto (189)	Zure uztez zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? [7.irudia]	ORD	C	Gaztelania edo ingelesa hobeto = 1, Edozein hizkuntza berdina = 2, Euskara hobeto = 3
78	Zein hizkuntza doakio hobeto - Fabrika	Fabrika 2 - Zein hizkuntza doakio hobeto (194)	Zure uztez zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? [12.irudia]	ORD	C	Gaztelania edo ingelesa hobeto = 1, Edozein hizkuntza berdina = 2, Euskara hobeto = 3
79	Zein hizkuntza doakio hobeto - Albisteak	Albisteak 2 - Zein hizkuntza doakio hobeto (192)	Zure uztez zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? [10.irudia]	ORD	C	Gaztelania edo ingelesa hobeto = 1, Edozein hizkuntza berdina = 2, Euskara hobeto = 3
80	Zein hizkuntza doakio hobeto - Ordenagailua	Ordenagailua 2 - Zein hizkuntza doakio hobeto (196)	Zure uztez zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? [14.irudia]	ORD	C	Gaztelania edo ingelesa hobeto = 1, Edozein hizkuntza berdina = 2, Euskara hobeto = 3
81	Gustoko aktore - abezlaria (euz/ gaz)	Gustoko aktore - abezlaria 1 (98)	Zein dira gehien gustatzen zaizkizun bi aktore edo abezlariak? [1:]	KUA	B	Artista erdalduna = 1, Artista euskalduna = 2
82	Gustoko Kirolaria (euz/ gaz)	Gustoko kirolaria 1 (100)	Zein dira gehien gustatzen zaizkizun bi kirolariak? [1:]	KUA	B	Kirolari erdalduna = 1, Kirolari euskalduna = 2

zb	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiko galdera / *Azalpena	Ald. mota	Gal. mota	Kategoriak / Balio tartea
83	Ikaslearen sexua	Ikaslearen sexua (5)		KUA	A	Mutila = 0, Neska = 1
84	Ikastetxea	Ikaslearen ikastetxearen kodea		KUA	A	
85	Ikaslearen herriko biztanle kopurua	Herriko biztanle kopurua (2001)		JAR	/	
86	Amonaren jaioterria	Non jaio amona I (ama)	Non jaio ziren? [amona (amaren ama)]	KUA	A	Gaztelania hitz egiten den atzerriko herri batean = 1, Gaztelania hitz egiten ez den atzerriko herri batean = 2, Espainian = 3, Euskal Herriko beste lurralde batean (Naf, Ip) = 4, Araban = 5, Bizkaian = 6, Gipuzkoan = 7
87	Aitonaren jaioterria	Non jaio aitona I (ama)	Non jaio ziren? [aitona (amaren aita)]	KUA	A	Gaztelania hitz egiten den atzerriko herri batean = 1, Gaztelania hitz egiten ez den atzerriko herri batean = 2, Espainian = 3, Euskal Herriko beste lurralde batean (Naf, Ip) = 4, Araban = 5, Bizkaian = 6, Gipuzkoan = 7
88	Amonaren jaioterria II	Non jaio amona II (aita)	Non jaio ziren? [amona (aitaren ama)]	KUA	A	Gaztelania hitz egiten den atzerriko herri batean = 1, Gaztelania hitz egiten ez den atzerriko herri batean = 2, Espainian = 3, Euskal Herriko beste lurralde batean (Naf, Ip) = 4, Araban = 5, Bizkaian = 6, Gipuzkoan = 7
89	Aitonaren jaioterria II	Non jaio aitona II (aita)	Non jaio ziren? [aitona (aitaren aita)]	KUA	A	Gaztelania hitz egiten den atzerriko herri batean = 1, Gaztelania hitz egiten ez den atzerriko herri batean = 2, Espainian = 3, Euskal Herriko beste lurralde batean (Naf, Ip) = 4, Araban = 5, Bizkaian = 6, Gipuzkoan = 7
90	Amak etxetik kanpo lan egiten duen	Amak etxetik kanpo lan egiten duen	Gurasoek etxetik kanpora lan egiten dute? [amak]	KUA	A	Ez = 1 Bai = 2
91	Aitak etxetik kanpo lan egiten duen	Aitak etxetik kanpo lan egiten duen	Gurasoek etxetik kanpora lan egiten dute? [aitak]	KUA	A	Ez = 1 Bai = 2

zb	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiko galdera / *Azalpena	Ald. mota	Galdetegia	Kategoriak / Balio tartekak
92	Oporrotera nora joaten zara? (ikasleak aitortua)	Normalean oporretara joaten den eta nora	Normalean udako oporretara zure herritik kanpora joaten al zara? Beti leku berera?	KUA	A	Normalean EZ da herritik kanpora joaten udan = 0, BAI (kanpora joaten da); EZ (beti leku berera ez); bi erantzunak Espainian, biak atzerrian edo bakoitzean bana = 1, BAI (kanpora joaten da); EZ (beti leku berera ez); erantzunetik bat EHn eta bestea Espainian edo atzerrian = 2, BAI (kanpora joaten da); EZ (beti leku berera ez); bi erantzunak EHko leku batean = 3, BAI (kanpora joaten da); BAI (beti leku berera); atzerriko leku batera = 4, BAI (kanpora joaten da); BAI (beti leku berera); Espainiako leku batera = 5, BAI (kanpora joaten da); BAI (beti leku berera); EHko leku batera = 6
93	Lehen hizkuntza (ikasleak aitortua)	3 urte bete arte etxean ikasi zuen hizkuntza - birkodifikatua	Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean ikasi zenuen hizkuntza?	ORD	A	Gaztelania (edo atzerriko hizkuntza bat) = 1, Euskara eta gaztelania (edo euskara eta atzerriko hizkuntza bat) = 2, Euskara = 3
94	Euskararen aldeko jaietara joan zara?	Euskararen aldeko jaietara joan zara gurasoekin? Zenbat aldiz?	Dakizunez, euskararen aldeko egun batzuk antolatzen dira urtero; adibidez, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Ibilaldia... Joan al zara noizbait zure gurasoekin halako ospakizun batera? Zenbat aldiz?	ORD	A	EZ = 0, BAI; behin = 1, BAI; bi edo hiru aldiz = 2, BAI; lau edo bost aldiz = 3; BAI; Bost aldiz edo gehiago = 4
95	Amaren gaitasuna (ikasleak aitortua)	Nola moldatzen da ama euskaraz hitz egiteko?	Nola moldatzen da ama, euskaraz hitz egiteko?	ORD	A	Gaizki = 1, Nekez, kostatzen = 2, Ondo = 3
96	Aitaren gaitasuna (ikasleak aitortua)	Nola moldatzen da aita euskaraz hitz egiteko?	Nola moldatzen da aita, euskaraz hitz egiteko?	ORD	A	Gaizki = 1, Nekez, kostatzen = 2, Ondo = 3
97	Anai - arreban gaitasuna (ikasleak aitortua)	Nola moldatzen dira anai-arrebak euskaraz hitz egiteko?	Nola moldatzen dira, euskaraz hitz egiteko?	ORD	A	Gaizki = 1, Nekez, kostatzen = 2, Ondo = 3
98	Erabilera ikaskideekin	Zein hizkuntzetan ikaskideekin	Normalean, zein hizkuntzetan hitz egiten duzu...? [eskolako ikaskideekin]	ORD	A	Beti edo ia beti gaztelaniaz = 1, Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdina = 3, Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5

Id	Aldagaien izenra	SPSS etiketa (Ortu hasako zerbitua)	Galdetegiako giderra /	Adin-aldur	Kategoriak / Balio tartea
99	Erabilera klase partikularretan (asialdi)	Zen hizkuntzetan klase partikularretan	Normalean, zen hizkuntzetan hitz egiten duzu...? [klase partikularretan]	A	Beti edo ia beti gertelariuz = 1, Gertelariuz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdín = 3, Euskaraz gertelariuz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
100	Erabilera dantzan (asialdi)	Zen hizkuntzetan jardura artistikoetan	Normalean, zen hizkuntzetan hitz egiten duzu...? [musika, dantza edo antzeko jardura artistikoetan]	A	Beti edo ia beti gertelariuz = 1, Gertelariuz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdín = 3, Euskaraz gertelariuz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
101	Erabilera informatikan (asialdi)	Zen hizkuntzetan informatika, mekanografia edo antzerakoetan	Normalean, zen hizkuntzetan hitz egiten duzu...? [informatika, mekanografia edo antzeko ikastaro praktikoetan]	A	Beti edo ia beti gertelariuz = 1, Gertelariuz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdín = 3, Euskaraz gertelariuz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
102	Erabilera kirolean (asialdi)	Zen hizkuntzetan kirol taldeetan	Normalean, zen hizkuntzetan hitz egiten duzu...? [kiroleko taldeetan]	A	Beti edo ia beti gertelariuz = 1, Gertelariuz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdín = 3, Euskaraz gertelariuz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
103	Erabilera asiadiko taldeetan	Zen hizkuntzetan asiadiko taldeetan	Normalean, zen hizkuntzetan hitz egiten duzu...? [deribora libreko-asiadikotaldeetan]	A	Beti edo ia beti gertelariuz = 1, Gertelariuz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdín = 3, Euskaraz gertelariuz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
104	Erabilera udalekuetan (asialdi)	Zen hizkuntzetan udalekuetan	Normalean, zen hizkuntzetan hitz egiten duzu...? [udaleku edo kanpamentuetan]	A	Beti edo ia beti gertelariuz = 1, Gertelariuz euskaraz baino gehiago = 2, Bietan berdín = 3, Euskaraz gertelariuz baino gehiago = 4, Beti edo ia beti euskaraz = 5
105	Telebista nola ikusi (eus/gaz)	Telebista indizea (1-2)	Ikasleak gehien entzuten dituen programen emisio-hizkuntza onarrituta kalkulaturako indizea	I	BALIO TARTEA: 1-2 (1- Programa gutxiak erantsikoak, 2- Programa gutxiak euskarazkoak.)
106	Gustoko musika taldeak (eus/gaz)	Musika indizea (1-2)	Ikasleak gehien entzuten dituen musika taldeek erabiltzen duten hizkuntza onarrituta kalkulaturako indizea	I	BALIO TARTEA: 1-2 (1- Musika gutxiak erantsikoak, 2- Musika gutxiak euskarazkoak.)
107	Iratsia nola entzun (eus/gaz)	Iratsia indizea (1-2)	Ikasleak gehien entzuten dituen iratsi-programen hizkuntza onarrituta kalkulaturako indizea	I	BALIO TARTEA: 1-2 (1- Iratsia gutxiak erantsikoak, 2- Iratsia gutxiak euskarazkoak.)

Id	Aldagaien izena	SPSS etiketa (diru basetako zenbakia)	Galdetegiaren giderra /	Ko- dona	Grup a	Kategoriak / Balo tartearak
108	Zenbat urterekin ikasi gaitelaria (gurasoek aitortua)	Zenbat urterekin ikasi gaitelaria birkodifikatua	Zenbat urterekin ikasi zuen seme-alabak gaitelaria?	108	E	3 urte baino lehenago = 1, 3-5 urte bitartean = 2, 5 urte eta gero = 3, Ez du ikasi = 4
109	Aitarek gatasuna - hitz egiteko (gurasoek aitortua)	Nola moldatu ata- hitz egiteko (guraso)	Nola moldatzen zara euskaraz ulertzeko, mintzatzeko, idatzeko eta inakurtzeko? [ata/hitz egiteko]	109	E	Gaitzi = 1, Nekez, konsta egiten zaio = 2, Ondo = 3
110	Amaiek gatasuna - hitz egiteko (gurasoek aitortua)	Nola moldatu ama - hitz egiteko (guraso)	Nola moldatzen zara euskaraz ulertzeko, mintzatzeko, idatzeko eta inakurtzeko? [ama/hitz egiteko]	110	E	Gaitzi = 1, Nekez, konsta egiten zaio = 2, Ondo = 3
111	Gustoko aktore - abeslaria II (eus/gaz)	Gustoko aktore - abeslaria 2	Zen dira gehien gustatzen zaizkizun bi aktore edo abeslariak? [2:]	111	B	Artista erdalduna = 1, Artista euskalduna = 2
112	Gustoko kirolaria II (eus/gaz)	Gustoko kirolaria II	Zen dira gehien gustatzen zaizkizun bi kirolariak? [2:]	112	B	Kirolari erdalduna = 1, Kirolari euskalduna = 2
113	Zen hizkuntza doakio hobeto - Satellitea	Satelitea - Zen hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zen hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauet? [1.ruda]	113	C	Gaitelaria edo ingelese hobeto =1, Erdosen hizkuntza berdin =2, Euskaraz hobeto =3
114	Zen hizkuntza doakio hobeto - Eskola	Eskola - Zen hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zen hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauet? [2.ruda]	114	C	Gaitelaria edo ingelese hobeto =1, Erdosen hizkuntza berdin =2, Euskaraz hobeto =3
115	Zen hizkuntza doakio hobeto - Bikotea	Bikotea - Zen hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zen hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauet? [3.ruda]	115	C	Gaitelaria edo ingelese hobeto =1, Erdosen hizkuntza berdin =2, Euskaraz hobeto =3
116	Zen hizkuntza doakio hobeto - Musika	Musika - Zen hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zen hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauet? [4.ruda]	116	C	Gaitelaria edo ingelese hobeto =1, Erdosen hizkuntza berdin =2, Euskaraz hobeto =3
117	Zen hizkuntza doakio hobeto - Kanpina	Kanpina - Zen hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zen hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauet? [5.ruda]	117	C	Gaitelaria edo ingelese hobeto =1, Erdosen hizkuntza berdin =2, Euskaraz hobeto =3

Id	Aldagaien izena	SPSS etiketa (datu baseko zenbakia)	Galdetegiako galdera /	Ikasle erantz	Errore margotua	Kategorik / Balio tartesik
118	Zein hizkuntza doakio hobeto - Eksa	Eksa - Zein hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zein hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsonei haueri? [9.inudak]	KJA	C	Gaztelania edo ingelera hobeto =1, Edozein hizkuntza berdin =2, Euskarari hobeto =3
119	Zein hizkuntza doakio hobeto - Hizlaria	Hizlaria - Zein hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zein hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsonei haueri? [11.inudak]	KJA	C	Gaztelania edo ingelera hobeto =1, Edozein hizkuntza berdin =2, Euskarari hobeto =3
120	Zein hizkuntza doakio hobeto - Nekazaria	Nekazaria - Zein hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zein hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsonei haueri? [13.inudak]	KJA	C	Gaztelania edo ingelera hobeto =1, Edozein hizkuntza berdin =2, Euskarari hobeto =3
121	Zein hizkuntza doakio hobeto - Hagintaria	Hagintaria - Zein hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zein hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsonei haueri? [15.inudak]	KJA	C	Gaztelania edo ingelera hobeto =1, Edozein hizkuntza berdin =2, Euskarari hobeto =3
122	Zein hizkuntza doakio hobeto - Basaria	Basaria - Zein hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zein hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsonei haueri? [16.inudak]	KJA	C	Gaztelania edo ingelera hobeto =1, Edozein hizkuntza berdin =2, Euskarari hobeto =3
123	Zein hizkuntza doakio hobeto - Futbola	Futbola - Zein hizkuntza doakio hobeto	Zure ustez zein hizkuntza doakio hobeto ondoko egoera, toki edo pertsonei haueri? [17.inudak]	KJA	C	Gaztelania edo ingelera hobeto =1, Edozein hizkuntza berdin =2, Euskarari hobeto =3
124	Ikastetxea zein herrian dagoen	Ikastetxea zein herrian dagoen	Ikastetxearen datuak [Udalek]	KJA	D	
125	Ikastetxe mota	Ikastetxe mota - birkodifikatua	Ikastetxearen datuak [ikastetxe mota]	KJA	D	Erlizidatiko ikastetxe pribatuak =1, Ikastetxe publikoak =2, Ikastetxe pribatuak =3
126	Ikastetxeko irakaskeraren kopurua	Ikastetxeko irakaskeraren kopurua	Ikastetxeko irakaskeraren kopurua		D	
127	Ikastetxeko irakaskeraren kopurua	Ikastetxeko irakaskeraren kopurua			/	



id	Aldagaien izena	SPSS etiketa (duku bakoiko zenbakia)	Galdetegiko galdera /	Itzaile	Aldeak	Kategoriak / Balio tarteaik
128	[B ereduari soilik] - Asteko ordu kopurua euskaraz	B ereduari - asteko ordu kopurua euskaraz	B ereduari taldeetan, ASTEAN zenbat ordu ematen dituzte ikasleek batzuetan euskaraz eta zenbat gaiteliaz?	0-10	D	
129	[B ereduari soilik] - Asteko ordu kopurua gaiteliaz	B ereduari - asteko ordu kopurua gaiteliaz	B ereduari taldeetan, ASTEAN zenbat ordu ematen dituzte ikasleek batzuetan euskaraz eta zenbat gaiteliaz?	0-10	D	
130	Lehen hizkuntza (ikasleek aitortua)	Ikaslearen lehen hizkuntza (rikasle) - birkodifikatua	Taldeko ikasleek dituzte (ikaslearen lehen hizkuntza)	0-3	D	Gaiteliaz (edo atzerriko beste hizkuntza bat) = 1, Euskara eta gaiteliaz (edo euskara eta atzerriko beste hizkuntza bat) = 2, Euskara = 3
131	Zenbat urterekin ikasi euskara birkodifikatua	Zenbat urterekin ikasi euskara birkodifikatua	Zenbat urterekin ikasi zuen seme-alabak euskara?	0-4	E	3 urte baino lehenago = 1, 3-5 urte bitartean = 2, 5 urte eta gero = 3 Ez du ikasi = 4
132	Idazlaneko puntuazioa (rikasle)	Idazlaneko puntuazioa (rikasle)	*RALEk idazlanaren proban jarritako emaitza	0-10	I	BALIO TARTEA: 0-80
133	Ahozko probaren puntuazioa	Idazlaneko puntuazioa (rikasle)	*RALEk ahoko proban jarritako emaitza	0-10	I	BALIO TARTEA: 0-80
134	Ikasle liderra (rikasleek aitortua)	Lidertza (rikasle)	Lidertza (1-5)	0-5	I	BALIO TARTEA: 1-5. (1-Baztertua 5-Lidertza nabarmena)
135	Ikasle hiztuna (rikasleek aitortua)	Hiztuna (rikasle)	Hiztuna (1-5)	0-5	I	BALIO TARTEA: 1-5. (1-Oso on 2-Oso hiztuna)
136	Mintzagrama Euskarazko apamerak - gaiteliazko apamerak	Mintzagrama Euskarazko apamerak - gaiteliazko apamerak	*Ikaslearen beti edo ia beti euskaraz egiten dutela esaten duten ikasleekin kopurua - ikaslearen beti edo ia beti gaiteliaz egiten dutela esan duten ikasleekin kopurua	0-10	I	
137	Taldeko ikasle kopurua	Gela bakoitzean dagoen ikasle kopurua		0-10	I	
138	Lurraldea (Ar/ Biz/ Gip)	Herririk lurraldeko banatuta		0-3	I	Araba = 1, Bizkoa = 2, Gipuzkoa = 3
139	Taldeko guraso euskaldunen proportzioa	Gelan guraso euskaldunak + (madrak/2) dituztenen proportzioa	*T30 aldaiari egindako berezikiaren arabera gela osoan guraso euskaldunen neurten daren indarra	0-10	I	

ALDAGAI MOTAK

JAR: Jarraiak**KUA:** Kualitatiboak**ORD:** Ordinalak

GALDETEGI MOTEN ZERRENDA

A - galdetegia: Ikasleentzako galdetegia**B - galdetegia:** Artista eta kirolarien galdetegia (ikasleentzat)**C - galdetegia:** "Zein hizkuntza doakio hobeto" galdetegia (ikasleentzat)**D - galdetegia:** Tutoreentzako (irakasleentzako) galdetegia**E - galdetegia:** Gurasoen galdetegia

II. Eranskina: 25 adierazleen arteko korrelazioak (aldebikoak)

Taula honetan adierazle guztiek guztiekin dituzten korrelazioak eskaintzen dira. Korrelazioak adierazteko, lan guztian zehar bezala, Pearson-en R erabili da.

Sortutako 25 adierazleez gain (ikus 7.3 atala), taula honetan analisisien bi mendeko aldagaiak ere gehitu dira: M1 (ikaslearen jolaslekuko erabilera indizea) eta M2 (ikaslearen gela barruko erabilera indizea).

		M1	M2	1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-
M1	Jolas I (ikaslea-jolaslekuan)	1,000	0,438	0,487	0,374	0,574	0,489	0,252	0,389	0,439
M2	Gela I (ikaslea gela barruan)	0,438	1,000	0,248	0,164	0,341	0,429	0,210	0,256	0,885
1-	Lehen hizkuntza	0,487	0,248	1,000	0,349	0,545	0,395	0,200	0,304	0,265
2-	Motibazioa	0,374	0,164	0,349	1,000	0,410	0,288	0,133	0,221	0,192
3-	Erraztasun erlatiboa	0,574	0,341	0,545	0,410	1,000	0,427	0,201	0,437	0,341
4-	Idatzizko gaitasuna	0,489	0,429	0,395	0,288	0,427	1,000	0,563	0,366	0,476
5-	Eskola errendimendua	0,252	0,210	0,200	0,133	0,201	0,563	1,000	0,334	0,212
6-	Eus./gaz. hiztun aktibo izatea	0,389	0,256	0,304	0,221	0,437	0,366	0,334	1,000	0,233
7-	Gela barruan euskaraz aritzeko ohitura	0,439	0,885	0,265	0,192	0,341	0,476	0,212	0,233	1,000
8-	Etxeko hizkuntza	0,578	0,288	0,619	0,371	0,752	0,445	0,223	0,455	0,274
9-	Gurasoen gaitasuna	0,523	0,272	0,677	0,344	0,644	0,484	0,252	0,388	0,278
10-	Erabilera anai-arrebekin	0,620	0,303	0,509	0,352	0,663	0,423	0,200	0,398	0,320
11-	Herriko lagunek badakite	0,355	0,257	0,286	0,253	0,300	0,375	0,189	0,188	0,326
12-	Herriko lagunekin egiten du	0,677	0,370	0,541	0,372	0,672	0,396	0,173	0,383	0,347
13-	Taldeko erabilera jolaslekuan	0,830	0,432	0,485	0,381	0,574	0,423	0,088	0,244	0,447
14-	Taldeko erabilera gela barruan	0,425	0,785	0,236	0,167	0,330	0,388	0,086	0,169	0,766
15-	Ikastetxeko giro euskalduna	0,501	0,368	0,265	0,291	0,339	0,436	0,201	0,197	0,505
16-	Plangintzak eta ekintzak	0,345	0,251	0,127	0,088	0,147	0,186	0,047	0,065	0,283
17-	Aisialdia euskaraz	0,619	0,352	0,447	0,360	0,604	0,384	0,111	0,300	0,360
18-	Ikus-entzunezkoak euskaraz	0,510	0,250	0,440	0,338	0,540	0,387	0,170	0,326	0,261
19-	Ikaslearen herriaren euskalduntasuna	0,582	0,281	0,471	0,288	0,490	0,318	0,091	0,212	0,287
20-	Ikastetxearen ageriko onarpena	0,552	0,377	0,309	0,311	0,371	0,442	0,156	0,193	0,516
21-	Gurasoen eta ikaslearen jatorria	0,201	0,155	0,276	0,171	0,266	0,234	0,143	0,184	0,181
22-	Bizindar subjeliboa I: familia	0,522	0,291	0,491	0,397	0,540	0,418	0,185	0,297	0,333
23-	Bizindar subjeliboa II: gizartea	0,332	0,201	0,257	0,263	0,359	0,232	0,086	0,214	0,218
24-	Miresten dituen pertsonaiak	0,329	0,172	0,301	0,225	0,400	0,284	0,158	0,284	0,166
25-	Generoa, erabilera-ohiturak	0,079	0,109	0,026	0,029	0,014	0,131	0,123	0,070	0,074

Balio tartekak

■ 0,5 – 0,99

■ 0,2 – 0,5

■ -0,1 – 0,2

Pearson-en korrelazioa; R

■ Korrelazioa ez da adierazgarria
(Sig > 0,05)■ Adierazgarritasunaren mugan
(Sig < 0,05 & > 0,01)

8-	9-	10-	11-	12-	13-	14-	15-	16-	17-	18-	19-	20-	21-	22-	23-	24-	25-
0,578	0,523	0,620	0,355	0,677	0,830	0,425	0,501	0,345	0,619	0,510	0,582	0,552	0,201	0,522	0,332	0,329	0,079
0,288	0,272	0,303	0,257	0,370	0,432	0,785	0,368	0,251	0,352	0,250	0,281	0,377	0,155	0,291	0,201	0,172	0,109
0,619	0,677	0,509	0,286	0,541	0,485	0,236	0,265	0,127	0,447	0,440	0,471	0,309	0,276	0,491	0,257	0,301	0,026
0,371	0,344	0,352	0,253	0,372	0,381	0,167	0,291	0,088	0,360	0,338	0,288	0,311	0,171	0,397	0,263	0,225	0,029
0,752	0,644	0,663	0,300	0,672	0,574	0,330	0,339	0,147	0,604	0,540	0,490	0,371	0,266	0,540	0,359	0,400	0,014
0,445	0,484	0,423	0,375	0,396	0,423	0,388	0,436	0,186	0,384	0,387	0,318	0,442	0,234	0,418	0,232	0,284	0,131
0,223	0,252	0,200	0,189	0,173	0,088	0,086	0,201	0,047	0,111	0,170	0,091	0,156	0,143	0,185	0,086	0,158	0,123
0,455	0,388	0,398	0,188	0,383	0,244	0,169	0,197	0,065	0,300	0,326	0,212	0,193	0,184	0,297	0,214	0,284	0,070
0,274	0,278	0,320	0,326	0,347	0,447	0,766	0,505	0,283	0,360	0,261	0,287	0,516	0,181	0,333	0,218	0,166	0,074
1,000	0,807	0,710	0,295	0,695	0,548	0,269	0,257	0,117	0,560	0,562	0,547	0,305	0,340	0,566	0,373	0,387	-0,006
0,807	1,000	0,597	0,305	0,583	0,493	0,271	0,293	0,133	0,481	0,495	0,476	0,320	0,368	0,523	0,305	0,345	0,008
0,710	0,597	1,000	0,283	0,647	0,586	0,306	0,331	0,120	0,555	0,511	0,500	0,378	0,265	0,505	0,332	0,340	0,000
0,295	0,305	0,283	1,000	0,412	0,387	0,310	0,345	0,116	0,372	0,261	0,417	0,353	0,171	0,335	0,215	0,175	0,002
0,695	0,583	0,647	0,412	1,000	0,734	0,403	0,335	0,139	0,712	0,541	0,730	0,404	0,244	0,573	0,367	0,379	0,044
0,548	0,493	0,586	0,387	0,734	1,000	0,531	0,534	0,393	0,682	0,491	0,709	0,632	0,177	0,541	0,330	0,266	0,014
0,269	0,271	0,306	0,310	0,403	0,531	1,000	0,410	0,317	0,376	0,256	0,362	0,439	0,158	0,322	0,199	0,119	-0,004
0,257	0,293	0,331	0,345	0,335	0,534	0,410	1,000	0,396	0,405	0,275	0,246	0,871	0,171	0,338	0,200	0,187	0,063
0,117	0,133	0,120	0,116	0,139	0,393	0,317	0,396	1,000	0,187	0,111	0,114	0,394	0,059	0,135	0,093	0,067	-0,002
0,560	0,481	0,555	0,372	0,712	0,682	0,376	0,405	0,187	1,000	0,472	0,611	0,472	0,192	0,501	0,352	0,325	0,079
0,562	0,495	0,511	0,261	0,541	0,491	0,256	0,275	0,111	0,472	1,000	0,396	0,332	0,249	0,448	0,320	0,417	0,026
0,547	0,476	0,500	0,417	0,730	0,709	0,362	0,246	0,114	0,611	0,396	1,000	0,377	0,158	0,498	0,270	0,243	-0,014
0,305	0,320	0,378	0,353	0,404	0,632	0,439	0,871	0,394	0,472	0,332	0,377	1,000	0,200	0,395	0,249	0,207	0,044
0,340	0,368	0,265	0,171	0,244	0,177	0,158	0,171	0,059	0,192	0,249	0,158	0,200	1,000	0,239	0,095	0,130	-0,015
0,566	0,523	0,505	0,335	0,573	0,541	0,322	0,338	0,135	0,501	0,448	0,498	0,395	0,239	1,000	0,448	0,335	0,021
0,373	0,305	0,332	0,215	0,367	0,330	0,199	0,200	0,093	0,352	0,320	0,270	0,249	0,095	0,448	1,000	0,252	0,066
0,387	0,345	0,340	0,175	0,379	0,266	0,119	0,187	0,067	0,325	0,417	0,243	0,207	0,130	0,335	0,252	1,000	0,135
-0,006	0,008	0,000	0,002	0,044	0,014	-0,004	0,063	-0,002	0,079	0,026	-0,014	0,044	-0,015	0,021	0,066	0,135	1,000

Altuna, O. (2003) *Euskararen neurketa ikastetxeko eremu informaletan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Amonarriz, K. (1991) Euskararen erabilpenaren kale neurketen inguruko gogoetak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 3-4 (39-50).

Amurrio, M. (2006) Emakumeak eta euskal hezkuntza orokortua. In Larrinaga, A., Amurrio, M. (biltzaileak) (2006) *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*. Donostia: Utriusque Vasconiae. (183-220).

Artola, I., Basterretxea, B., Berasategi, J. M., Olaziregi, I., Sierra, J. eta Zalbide, M. (1991) *Eskola hiztun bila*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Askoren artean (2006) Unibertsitate mailako soziolinguistikaren irakaskuntza. Dosierra. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 61 (25-84).

Berrio-Otxoa, K. (2000) Gaztetxoak eta hizkuntza gaitasuna, erabilera, iritziak eta hautapena. In Martinez de Luna eta Berrio-Otxoa: *Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Vitoria-Gasteiz. Martinez de Luna (arg.) (97-206).

Bourhis, R. (2003) Aurkezpena. In Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2003) *Euskararen jarraipena III*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Correa Gorospe, J. M. (2003) *Hezkuntzari egokitutako teknologia berriak*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Erize, X. (1997) *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936*. *Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruña: Nafarroako Gobernua.

Etxeberria, J. (1999) *Regresión múltiple*. Madrid: La Muralla.

Etxeberria, J. (1999) *Estatistika. Teoria eta praktika SPSSWIN erabiliz*. Usurbil: Elhuyar.

Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila eta EUSTAT. (2005) *III. Mapa Soziolinguistikoa*. CD-a. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSTAT (2006) *Euskal AEko Txosten Sozioekonomikoa – Informe Socioeconómico de la CA de Euskadi 2006*. Vitoria-Gasteiz: EUSTAT.

Fernández Enguita, M. (2007) La escuela y su compromiso con el fortalecimiento de la democracia. In Fernández Enguita, M., Souto, X. M., Rodríguez Rávena, R. *La sociedad del conocimiento: democracia y cultura*. Madrid. Ministerio de Educación y Ciencia, Ediciones Octaedro, Fundación de Investigaciones Educativas y Sindicales. (13-38).

Fernandez Palomares, F. (2003) *Sociología de la Educación*. Madrid: Prentice Hall.

Fishman, J.A. eta Cooper, R.L. eta beste (1971) *Bilingualism in the barrio*. Bloomington, IN: Indiana University.

Fishman, J. A. (1979) *Sociología del lenguaje*. Madrid: Cátedra.

Hamers, J. F. eta Blanc, M. H. A. (2000) *Bilinguality and bilingualism*. 2. ed. (1.a 1983) Cambridge: Cambridge University Press, 2000.

Hernandez, J. M. (2005) *JOLASGARAIA Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiako Euskal Koadernoak 16. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz-Lehendakaritza.

Hernandez, J. M. (2004) Euskara dela eta... Neskek zer diote? *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 53 (79-95).

Hernandez, J. M. (2002) Kale neurketa: sexuaren araberako erabileraren emaitzak eta horien inguruan sortutako galderak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 43 (119-127).

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2003) *Euskararen jarraipena III*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.

Iztueta, P. (2002) *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

Jauregi, P. (1998) *Berezko taldeak euskalduntzeko estrategia*. Doktorego Tesiak Saila. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Larrinaga, A. (2006) Unibertsitate esparrua, gatazka sinbolikoen agertoki: akademiko euskaldunen pertzepzioak. In Larrinaga, A., Amurrio, M. (biltzaileak) (2006) *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*. Donostia: Utriusque Vasconiae. (121-160).

Martínez de Luna, I. (2001) Euskal Herriko gaztetxoen hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 40 (47-66).

Martínez de Luna, I. eta Berrio-Otxoa, K. (Zuzend.) (2000). *Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Vitoria-Gasteiz: Martínez de Luna (Argit.).

Martínez de Luna, I. eta Jausoro, N. (1998) Euskararekiko motibazio sinbolikoak. In Joseba Intxausti (ed.) *Euskararen aldeko motibazioak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea (69-136).

Mateos Gonzalez, Tx. (2006): Batu eta bereizi. Euskal nazionalismoa eta hezkuntza zibikoa. In Larrinaga, A., Amurrio, M. (biltzaileak) (2006) *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*. Donostia: Utriusque Vasconiae. (161-182).

Pardo A. eta Ruiz M.A. (2002) *SPSS 11. Guía para el análisis de datos*. Madrid: McGraw-Hill.

Perez Urraza, K. (2006) Teknologia multimedialak hezkuntzaren arloan egungo sare-gizartean. In Larrinaga, A., Amurrio, M. (biltzaileak) (2006) *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*. Donostia: Utriusque Vasconiae. (91-120).

Rodríguez de Rávena, R. (2007) La escuela y las nuevas exigencia éticas de la sociedad del conocimiento. In Fernández Enguita, M., Souto, X. M., Rodríguez Rávena, R. *La sociedad del conocimiento: democracia y cultura*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia, Ediciones Octaedro, Fundación de Investigaciones Educativas y Sindicales. (103-149).

Ruiz i San Pascual, F., Sanz i Ribelles, R. eta Solé i Camardons, J (2001) *Diccionari de Sociolingüística*. Barcelona: Enciclopedia Catalana.

Sánchez Carrión, J. M. (Txepetx) (1991) *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia, José María Sánchez Carrión (argitaratzailea).

Sierra, J eta Olaziregi, I. (1989) *EIFE 2. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina. OHoko 5. mailaren azterketa A, B eta D ereduatan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Souto González, X. M. (2007) La escuela y la cultura. In Fernández Enguita, M., Souto, X. M., Rodríguez Rávena, R.: *La sociedad del conocimiento: democracia y cultura*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia, Ediciones Octaedro, Fundación de Investigaciones Educativas y Sindicales. (75-79).

Suberbiola, P. (2007) Hizkuntza garapen iraunkor baterantz. In *Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa* (5. irakasgaia).Asmoz Fundazioa.

Unanue, A. (2006) *Administrazioko atal elebidunetako langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko plana*. Lasarte-Oria. Lasarte-Oriako Udala.

Usategi, E. eta Del Valle, A. I. (2006) Balioekin lan egitea euskal eskolan: irakasleen ikuspuntuak. In Larrinaga, A., Amurrio, M. (biltzaileak) (2006) *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*. Donostia: Utriusque Vasconiae. (53-90)

Vila i Moreno, F. X. eta Galindo, M. (2006) Els usos lingüístics en l'educació primària a Catalunya: situació, tendències i perspectives. In *El coneixement de llengües a Catalunya. Quaderns d'avaluació 6* Barcelona: Generalitat de Catalunya, Departament d'Educació i Universitats (95-113).



ULI BARI RRI

Programa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



Salneurria: 12 €

